

**KOLDO IZAGIRRE**

# **Sua nahi, Mr. Churchill?**



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2005 Koldo Izagirre

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2005eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

# Hemen ontziratu zen Lafayette

Marinelak, benetako marinelak behar duen aurreneko gauza, ontzia bera baino berezkoago duena, labana da. Hori ez dakite eskolan. Maisuak azkeneko errenkadan paratua du. Gero arbelaren ondoan jarri behar duten kankailuetarik bati aginduko dio txipienei kasu emateko, eta Arrietak edo Vieitesek edo Ormazabalek kartila zabalarazten die, oiloaren azpian «po» esan behar da, zakurraren azpian «pe» esan behar da, eta isilik hartu behar dira kaskarrekoak, «Lipuak itoko ahal hau!», eta ez zioten ulertzen. Eskolan ez dakite ezer. Labana da marinelak behar duen lehenengo gauza. Gero doala ozpin bila aginduko dio artaburu hari maisuak, eta botila bete gorri etortzen da handik puska luzera. Maisuak gaitz bitxiren bat dauka, egunero hartzen du, denen aurrean eta zangaka, botila bete ozpin. Eta lo hartzen du aulkian, burua mahai gainean emanik.

- Hi al haiz portuan bizi dena?
- Ekartzak biharko gatz gema, entzun duk?
- Hik ez al daukak arreba bat?

Baietz beti, hala erantzun behar kankailu horiei, edozer gauzari ezetz esanez gero gezurretan ari dela uste dute, baduela arreba bat, zaharrragoa, ez, ez daki polita den, eskolak galdera berri mordoa dauka, politak itsasontzien banderak dira. Gero ikusiko dute, bila etortzekoa da, amak ez du nahi etxera bakarrik joatea, errepide nagusia gurutzatu behar du eta gainera arriskua dago portuan bagoiekin ordu honetan, arrebak eramanen du ikasi dituen berri guztiak kontatzen dizkiola. Egunero errepikatzen den estreinako egun bat, eskola.

- Baina hau ez duk gatz gema, hau gatz larria besterik ez duk!
- Lajazak, ume horrek adarra jo nahi ziguk!
- Hi, aizak, ba al dauzkak emakumeen argazkiak?

Galdera berri mordoa, beti erantzuten ibili beharra, noski badauzkala emakumeen argazkiak.

- Kolekzio handi bat? Koloretan?

Garai batean, hemen, zurezko atea zegoen.

Orain ez dago zurezko aterik inon, hezetasunaren aitzakia eginda aluminiozkoak eta PVCko leiho-ateak ezarri dituzte etxe guztietan, min ematen dute begian hare-harriaren gaineko modernia merkeok. Eta gure auzoaren itxura jatorra gorde nahi duten espiritu arduratuek gorritz, berdez, urdinez margotu dituzte aluminioak eta plastikoak... Lipuak helduko balie! Zeinen barre-garri, zabarkeria honek mespretxu handi bat sortuko ez balu, interfonoak hamazazpi eta hemezortzigarren mendeko atalburu landuen azpian.

Garai batean ez zen burdinazkoa hilerri honen atea.

Orain eliza zaharretan bakarrik aurkitzen ahal ditugu zurezkoak. Berezia da Bonantzako elizako atea. Batzuetan kazetari frantsesak etorri izan dira ateari argazkiak egitera, azkena *L'Express*, udako ale berezia, *L'esprit marin du Pays Basque* zortzi orrialde kolore betean, «antxetek euskaraz egiten dute hemen» bezalako esaldiak irakurtzen ahal dira bertan, betiko topikoak, udal liburutegian larruz koadernatua daukate. Guk buruz genekizkien kresalaren babeste-

ko bernizatu beharrez ate horretan kasik ezabatuak zeuden arrastoak. Eskolatik ostutako kraion berde urdin gorriz berrosatzen genituen inoiz marinelek ate hartan zauritutako bergantinak eta kexemarinak, umeak bere labana atera eta Arrietaren mahaian egin zuen bezala. Eskaintzak ziren, Bonantzako Kristori egindako otoitz-erre guak, ontziek itsasketa ona egin zezaten. Gero ezabatu egiten zituen kolore haiek apezak sakristauak serorak, halakoren batek. Orduan labana ateratzen nuen nik, Arrieta bera ere ikaratzen zuen altzairu zorrotz hau, eta atearen haragian erabiltzen nuen, ontzien soslaia berritzeko.

- Badakizu? Klasea amaitutakoan bandera erriatu eta biltzeko agintzen digu maisuak.

- Ez nekien... Eta himnoa kantarazi egiten dizue?

- Ez... Bihar nire txanda da, bihar nik jaso behar dut mastan goizean.

- Halakorik egiten baduzu, ez naiz sekula zure bila etorriko.

Bonantzako petriletik murgil egiten ari ginen, hotza oraindik, ikusgarri hura sartu zenean bokalean barrena, zilarrezko pinu handia -hau non-

bait irakurria naizela uste dut- zekarrela atoaian. Fragata bat, eta marinela jartzietan belak biltzen, eta baupres luze bat, akula erraldoiaren ziria airean bide egiten, hegan hasi behar duen hegazti zuriaren moko. San Migeletan zen, itsasoa izugarri handitua zegoen, moilatik zangoa luzatu eta azalaren gainean oinez hasteko gogoia ematen duen mareaje horietakoa zen, barea, dena islatzen zen, hiri bat ematen zuen putzuak. Haren atzetik ekin genion lasterka, pinuaren adarrak suntsituz. Dena zen zuri, eta distira egiten zuen urpekontzi ingelesek bezala, iragan udan badiaren erdian agertu zirelarik. Bildu zizuten bela guztiak, jartzietan gora zebiltzan kadeteak. Helizea martxan hasi zen, eta lemaren palak abaor egin zuen, maliobra dotorea egin zuen moila trasatlantikoan atrakatzeko. Orduan lehen jaunartzerako jantziak ziruditen guardamarina haietarik batek largabistaren kanoian hartu gintuen, eta murgil egin genuen, ehun braza atzerago genituen boietaraino lenta eginez urruntzeko. Argentinako Armadaren eskola-ontzia zen, *Libertad* zuen izena, zurian urre txo-

pan, eta 103 metroko eslora zeukan. Itsasoetan barrena dabil oraindik, damurik.

«Viva la Libertad!».

Garbi entzuten genuen, soinuak laprast egiten du uraren gainean. Baina isildu egin ziren berehala. Ofizialen bat hurbilduko zitzaien moilako langileei «Dejen ya esa milonga!» esanez, ez zuten istilu diplomatikorik nahi, bazekiten Askatasuna oihukatzea beti dela subertsiboa gurean.

Afaltzen hasiak ginela, arreba heldu zen.

- Non ibili zara? Beti berandu...!

- Ez al duzue ikusi...?

Egongelara hurbildu nintzen... ez zen sinestekoa.

Baupresaren muturretik trinketa nagusiaren eta mesanaren barrena txoparaino zetorren argizko xingola bat, masten jartziek beste ilara bana zuten, eta karelaren perimetro osoa ere gar txipitan zen, aste santuko prozesioa ematen zuen, baina irudi eder bat osatuz. Izarrezko arkitectura bat gure kaian, mira eginda gelditu nintzen.

- Ez al dugu afaria bukatu behar edo?



- Baina zer arraio gertatzen da gaur etxe honetan! Lipuak itoko banindu!

Mareajea gora zen oraindikanen, itsasoa ere mira eginda gelditua zen, *Libertad* haren argi guztiak zapaltzen nituela abiatu nintzen uraren gainean pausoa lasai eman ez. E, Vieites, hator hi ere! Labana eskuan neukala konturatu nintzen. Arrieta, hik ez dakik oinez uretan! Ez ninduten ikusi, portuan lotuta daudenetan kaialdea baka-  
rrik zaintzen dute ergel horiek denek. Labana hortzetan hartuta igo nintzen kubertara aingura-  
ren katean goiti, estiborreko amuratik. Isilik! Or-  
mazabal, ken itzak zapatak, piratak oinutsik ibil-  
tzen gaituk!

- Ekarri al dituk?

Ez bilduma osoa, baina mordo bat urdinez gorritz berdez horiz.

- Baina hauek ez dituk guk eskatutako ema-  
kumeak!

- Ikustak zer ekarri duen inozo honek!

Eta Arrillagak airera jaurti ditu Ingalaterrako Isabel II.aren zigilu guztiak frontoiaren erdian.

- Ba al daukak zakilik, hik?

- Ea, erakustak oraintxe antxoa zintzil hori!

Ez, ez du labana erabili. Badu hoberik ahoan, trauskilondo hauek mututuko dituen lipua.

- Ez dizue lotsarik ematen, piperpotoa jaso-tzeak?

- Zer diok, txikitxua, zer piperpoto...?

- Piperpotoa, Espainiako bandera.

Isilaldi luze bat, ezustekoan harrapatu ditu.

- Espainiako bandera...!

Elkarri behatzen diote, kankailu hauek ez daukate arrebarik.

- Ergela! Nork deskubritu zian Amerika, e?

Inori zintzurra egin behar izan gabetanik jabetu ginen ontziaz, oinutsik, labana eskuan, bat-banaka aholotu eta estekatu genituen errelebo-ko guardak, ongi Vieites, ganberetara jaitsi eta afaltzen harrapatu genuen eskifaia osoa, garra-siren bat entzun genuen ofizialen jangelatik, baina denek etzan behar izan zuten, hori duk Arrieta, mahaiko labanek ez dute balio pirata baten larruan ebakitzeko, horrelaxe Ormazabal, lasai, lasai, krimenik egin ez duena ez da zertan beldur izan, epaiketa justu bat eginen diogu urkatu behar dugunari.

- Ontzia gurea da, zabal ezazu atea.

Tiro bat espero nuen, bere buruaz beste eginen zuela. Baina ez, bigarrenaz agindu baino lehen zabaldu zigun kapitainak. Dotore zegoen kasaka urdin harekin, ilea kapelutik gainezka botoien urre berean. Gaztea zen, eta ez zeukan itsasturi antzik.

- Sar zaitez.

Arrietak eta Ormazabalek ere, labanak zakil, barrura egin nahi izan zuten nire zaindari.

- Zaudezte hor. Vieites, inork ez dezala tantarik edan zabalean egon arte.

Eliza bat ematen zuen lurrin gozo betegarria zabaltzen zuten kandlek argitutako ganbera hark, latoiaren distira bazter guztietan, beira polikromatuak klaraboietan, zur ilun garestia paretetan. Kilimak egiten zizkidan alfonbra lodiak oin-zoletan.

- Jar zaitez, otoi. Egidazu ene tabakotik pipatzeko ohorea.

Aristokrata zen, ezagun zuen. Eskuetan, eta hitz egiteko modu pausatuan. Saloi hartako ontzi landu haietarik bat zirudien bere frantsesak. Ukatu egin nion, jukutria zaharra zen hura.

- Zein dira zure eskakizunak?

Bokalean sartzen ikusi nuenerako nion igarria, Lafayette-ko Markesa zen, gure portuan babestua Frantziako agente ingelesengandik ihesi.

- Eskifaiarik zailduena daukat, zer beste frogarik behar duzu? Normandiarrak, bretoiak, korsikarrak, galegoak, euskaldunak... hemezortzigarren mendeko bikingoak gaituzu.

- Motinzaleak.

- Ezin leialagoak.

- Zurruta debekatu diozulako Vieitesek berak masta nagusitik dilindan paratzen zaituen arte.

Eta ardoa ere mahai gainean laga nuen, godalet hankaluzea ukitu gabe.

- Zeu izanen zara itsasoko kapitaina, baina jazarrean neuk aginduko dut.

- Ba ote?

- Barka ezazu, baina zuek... Ez da Amerika liberatzen ahal gerla dueluaren arauetan egiten dela uste duen tropa batekin.

- Oker zaudela esanen nuke...

Orduan Lafayettek kapelua kendu zuen, kapeluarekin ilea kendu zuen, kasaka kendu zuen, uniforme zuri arrunt batean gelditu zen kapitaina, ez zen kapitaina, marinela zen, kuberta-gar-

bitzaile, lanbas-dantzalari bat, besotik heltzen zidana min ematerainoko zakar eta belarrira okaztagarri leun:

- Uretara, txe, uretara orain bertan!

Ostikoak huts egin zuen, murgil egin nuen eta lentan urrundu nintzen putzuaren erdian zegoen garabi flotanteraino, estatxari heldu nion. Eguberriko argiteria barregarri hari beha gelditu nintzen arnasa hartzen nuelarik gangiltzarraren posizio-argi berdearen pean. Labana hortzen artean ipini nuen, largabistarekin kanoitzen baninduen ere pirata bat ikusia zela konta zezan. Zutitu nahi izan nuen, baina hondoratu egiten nintzen, ezin nuen uraren azalean oinez. Ur masa bat ematen zuen itsasoak.

- Nondik atera duk labana puska hori?

- Orain garbia zagok...

Ez dute konprenitzen, motzak direla zakiloteok.

- Odol arrastoak zeuzkaan eman zidatenean.

- Baina nolako gezurrak esaten dituen ume honek!

- Pirata korsikar batek eman zidaan, krimenaren froga ezabatzearen.

Garai hartan zurezkoak ziren hemen ateak.

Mendian, moilatik urrun, labana atera eta lanean jardun nuen hurrengo goizean, fragata bat zauritu nuen hilerriko atean, zurezkoan, fragataren haragi berean.

Otoitz-erregu bat, jakina, lipuari.

Handik bi urtera sutea sortu zen Argentinako *Libertad* eskola-ontzian, Ferrolen zegoela. Ez zen inor hil, eta kalte arinak besterik ez zituen ukan, zoritxarrez.

Ez dakit non den ate hura, ez dakit San Juan su batean erre zuten edo kolekziozale yankiren batek erosi zuen edo Quebec-eko museoren batean ote dagoen orain.

Ongi erreparatzen badiozu, fragata baten soslaia ikusiko duzu ate zatar honen burdinan ere, pintura beltzak guztiz estaltzea lortzen ez duen irudia, maisuak Zubimendiri arbelean kolorezko klarionez eginarazten zizkion *Pinta*, *Niña* eta *Santa Maria* baino agitz ederragoa. Zaharrean egin nuenaren kalkoa da, baina burdinan ez dauka, antza denez, zurean adina ahalmen. Edo iltze batekin egina delako da, menturaz, horren ahul. Marinelaren labanak behar luke landu

sakrifizioen totema, baina materia nobleagotan tinkatzeko daukat nik tresna sakratu hau, egu-nero zorrozten dut interfonoa paratua duten atarrietako hare-harrietan, badakidalako bihar edo etzi azalduko dela fragata bat bokalean zilarrezko pinu handi bat uberako -kopiatzen ari naiz, badakit-, eta haren bila abiatuko nauzue berriro uhinetan barrena oinez eskua ongi armaturik, urte luze hauetan metatutako herraren morroi esanegina.

Hurbil da Amerikaren liberazioa: hurrengoan ez dut urrikirik edukiko, Lafayette jauna.

# Idazlea

Makilen ikara, pendularen itzulia. Horixe besterik ez dugu ikusten, eta sinetsiak gaude aztikeria dela. Gure hiztegieta ere hala ageri zaigu, «urazti». Adinekoen egoitzan ikasi dut ordea lanbide horretako ofizialeek beren buruari esaten omen diotena: zuharia, lurraren astrologoa arabieraz. Nonbait, azti mota horrek lurra barnean duen kosmosaren mugimenduetan hartu behar du sustrai, azpiko lasterrak lakioan harrapatzea du helburu. Mundu oso bat bizi omen da gure oinpean, ez bakarrik ura. Hildakoak, barbarako, ez daude geldirik, bere buruaren barnerantz mugitzen dira, batekoz bestera hartzen dute denbora. Baina hildakoaren arnasa sumatzeko geomantziaren legeak bezainbeste behar dituzu zeure ikarak ezagutu, pultsioen kodea interpretatzen jakin. Zuhariak azti direla sinesten dugu, guk ez ditugulako geure durduzamenduak mezu aditzen.

- Badaukat iloba bat radiestesista izateko dohainak dituen, irakatsi egin behar nioke lupeko



lasterrak bereizten eta harribitxien izpiak begiak itsututa atzematen... Baina debekatua daukat aspaldion, tentsio arazoak.

Zuk zuhariari heltzen diozu barneko morsea hasten zaiolarik joka, eta zirkuitu elektrikoa egiten omen du zure hezurduran, zintzurreraino ekartzen omen bizia. Transmisorea besterik ez da, funtsean, zuharia. Laurogei urte inguru dituela ezagutu dut nik aspaldi handitik barnean eraman dudan kontu zahar hau azalera ekarri didan aztia. Bizi osoa du iturketari emana orain denbora-pasako motzailea izanagatik, hidrologo profesionala izan da hiri honetako auzo berriko jubilatuenen patillak desberdin moztu ez ezik solasa dotore sortzen dakien agure atsegin hau. Ez naiz erretreta hartutakoen multzoan sartzen, hurrik eman ere, baina hona etortzen naiz ilea moztera, gizonak beti dauka harritzekoren bat. Bere lan zaharrean bihotzikara asko hartutakoa dela diost.

- Hildakoak ez dira inoiz hiltzen, Artikutzako gorpuak aurkitu nituenean bazeuzkaten hogeita hiru urte fusilaturik. Hezur haietan pultsuaren oihartzuna nabari zen oraindik, uste duguna

baino gehiago bizi gara. Ez zenekien? Hori liburu batean kontatua du, gerraondoko memorietan, hantxe aipatzen nau...

Eta idazle baten izena eman dit. Euskal gaiko Barojaren nobelen eta Agirreren *Garoaren* artean ezagutu nituen nik beti gurasoenean haren liburu batzuk, biografiak eta memoriak. Hitzaldiak ematera azaltzen zen urtero nire sorterrira, bagenuen neskazahar bik kudeaturiko paper eta liburu denda bat, Eguberrietan sarrerako beiraduran irakurri ahalko genuen «Bihar A. idazlea bere azken liburua sinatzera etorriko zaigu». Haren lanak han zeuden apalean, baina urtean bitan liburuak oparitzen zizkidan arreba nagusiak ez zidan inoiz A.ren lanik eskaini, ezta sinatutakorik ere. Aitak erosiak izan behar zuten. Orain ohartzen naiz, eta eman beharra daukat, kriterio ona eduki duela beti arrebak. Alabaina, bazeukan halako lilura bat idazleenganako, berak bortxatu ninduen A.ren hitzaldi batera, intelektuala nentorrela uste zuen ikastetxean urteko lehen saria irabazi nuenez geroztik Emmanuel Mounier-en filosofiari buruzko lan luze batekin. Huraxe izan zen zuzenean entzun nuen lehen

idazlea, eta sinesgarria izanen ahal da gameluei buruzko hitzaldi hartan Prévert-en dromedario txipia bezain erne egon nintzela, inportantea neritzona aitak emandako Gascue y Cruz etxe kontsignatzailearen agendatxo batean apuntatzen orriertz urreztatuak eta xingola urdin bat eguna markatzeko, mezako liburua itsasoko seinaleen banderengatik ez balitz- edo halakoarena egiten nuela. Ile motzak gazteagoaren itxura ematen zion aski urdin-soildutako idazleari. Ez naiz oroitzen zertaz zen hitzaldia, eta etxean sukalde ekonomikoa genuela jakinda irakurleak ez luke zeremonia poetiko asmatutzat hartu behar aitortzen baldin badiot erre egin nituela agenda haiek guztiak, noizbait behar eta, neure idatzi garrantzitsuek lotsatuta. Ez zidan bertatik bertara entzun nuen lehen idazlearen jardunak hitz gogoangarririk txertatu, baina akorduan daukat mintzaldiaren amaieran arrebaren lagun batek iritzia eskatu ziola, ez dakit zertaz. Ikusten ari naiz A. idazlearen irriñoa esanez «Andereñoa, frantsesez bazeneki gomendatuko nizuke...» eta oker ez banago Paul Claudel-en drama baten titulua eman zuen. Marinak oso frantses dotorean

eman zizkion eskerrak, A. idazlea poztu egin zen, desenkusazko algararen bat eginen zuen menturaz, auskalo, poztu egin zen gure herrian halako neskatila jantziak genituelako. Ni Marinaz oina-zeztu nintzen, Mireille Mathieu-k bezala firrilkatu zituen erreak aho-sabaian, eta hurrengo egune-tan ohartu nintzen galtzerdi beltzak maite zitue-la. Batera jaitsi ginen handik hurre hiriburuko au-tobusetik, jaisterakoan glotodidaktika ikastaroan lantzen ari nintzen euskarazko metodoa erori zi-tzaidan, bera makurtu zen hartzera. Ikasten hasia zela esan zidan, eta nik, apal bada apal, nire aitzinean graduak irabazi nahi zituela enbra hark pentsatu nuen *Euskara, hire laguna* berres-kuratzen nuelarik. Handik laster hil zen A., baz-karitan geundela eman zuen albistea Radio Na-cional de Españak, idazle handia eta kristau zin-tzoa izan zela esan zuen, titulu bat baino gehia-go omen zeukan itzulirik portugesera. Eta hori entzunda irratia amatatu zuen aitik purrustada bat eginez. Beti bezala, amaierako himnoa ez entzuteagatik pentsatuko nuen nik zela muker-tasun hura.

Urteak egin nituen herritik kanpo ikasle, eta hiriburuko auzo honetan gelditu nintzen bizitzen. Argitaratzen hasi nintzen, eta etxekoei bisitan itzultzen nintzenetan behialako lagunak tabernara eramaten ninduten esanez «Hau idatzi behar duk, entzun ezak...», edo «Kontatu duan hori ez zuan horrela gertatu, niri galdetu behar hidan horretaz, mareajerako trepeta guztiak prestatzen ari gintuan moila berrian ontzi holandarrak hondoa jo zuenean bokalean...». Gurasoek, ordea, bestelako juzkua egiten zuten nire idatziez, «Orain ere egin omen duk!», edo «Harrotu beharra huen kontu hori!». Arrebak erakutsita irakurriko zituzten noski, edo hark zerbait esanda jakin. Igande bazkalondo batez kafea tabernan hartuko genuela biok esan zion amari aitak. Eta altxatu egin zen zapatak janztera plattertxoan utzi zuen zigarroa zanpatzen nuelarik behar bezala itzali arte, ohitura amorragarri horixe zeukan. Amak ez baitzuen deus esan, pentsatu nuen «gizonez gizon» hitz egin behar zidala, ez ote nuen neska jatorren bat bildu behar galdetzeko edo hala moduzko agindua emana

izanen zion amak. Horixe, edo menturaz ama ahalketzen zuen arrebaren konturen bat komen-tatu behar zidan, ez zuen alabarekin harreman gozoa ukan inoiz eta pisu bat hartua zuten Mari-nak eta biek herrian bertan, eskandalutxoak garai-laiotz haietan. Tabernara gindoazela galdera txarrantxaduna egin zidan, «Ezagun batzuek galdetzen zidatek noizean behin semeaz, zertan egiten duen lan... Zer esan behar zieat?». Nik ere ez nekien nola erantzun, ez neukan nahikoa haize oraindik neure burua idazletzat aurkezteko eta milaka lantxo xikin egin behar nituen idaz-tearren, idazlea izan nahi nuen. «Kazetari» eran-tzutea pentsatu nuen, baina «itzultzaile» etorri zitzaidan ezpainetara. «Ez huen ingeleseko aka-demiara joan nahi, eta horra!». Sartu ginen Te-rranova Berrin, jendea jokoan ari zen futbolera abiatu baino lehen, zutik gelditu ginen barran aitak eskaturiko kafeen zain. «Hor, ikusten duk hor, bigarren mahaia?» galdetu zidan atzera be-hatu gabe. Ispiluan kokatu nuen, jubilatutako ezagun batzuk ari ziren. «Txapeladuna». Bai, ezagutzen nuen, aitaren adinekoa. «Banekien hemen ego-nen zela». Ez zen oso harritzekoa ere zaletasuna

baldin bazeukan behintzat, taberna hartan jokatzen ziren partida onenak, jakina zen dirua zebilela azpitik. «Horrek hilarazi zian nire anaia». Prostatako minbizia zeukala uste zuen, eta ez zuen hil nahi, antza, nik hura jakin gabe. Noizbait idatz nezala nahi zuen, edo hala interpretatu nuen nik orduan, kontu hau egundaino isildegian gorde dudan arren.

Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuak 1953an eginiko txosten klandestino batean ageri denez, Inazio Errastik berrogeita lau urte zituen 1937an, eta ez zeukan filiazio ezagunik; 1999an Aralar editorialak argitaratu zuen 1936-37 gerrari buruzko entziklopedia ederrean datu horiek baino ez dira ageri aitaren anaiaz. Inazio Errastida, katalogatu ahal izan direnetan behintzat, altxamendu faxistak Euskal Herrian fusilatutako 3.243 pertsonetarik bakarra ez noiz ez non ageri ez duena. Zuhari onenaren parioa, Argentinako suntsitu haietako baten antzekoa baita ofizialki, aitak ezin izan zuen gorpua sekula eskuratu. Ahanzteko Inazioz gomendatu zion erretoreak, manatu, mehatxatu, erne ez ote zuen salatuko bazterrak harrotzen zebilelako. Orduan gizon

txipi urduri hark hildakoen liburua eskatu zion. «Ez diat erakutsiko». Konprenitu zuen Elizak ez zeukala bere anaia hildakotzat emana. «Krimenik egin ez balitz bezala, beraz». Handik urteetara serora igorri zion mezulari erretoreak, konfesioz jakin ahal izan omen zuenaren berri emateko: Oiartzunen fusilatu zuten, zor batek galdu zuen eta mezatara ez joatea izan zen aitzakia. Egia zen, bazeukan zilar puska bat, ez zen itzuli zaharra Asturiasko meatzeetan urte luzeak emanda. «Hartzekoduna hilda zorrik ez, konprenitzen al duk?». Nire aita berrogeita hamar urte bizi izan zen anaiaren hiltzailea egunero ikusten. «Eta berak, badaki?». Aita itzuli egin zen mahairantz, kikara eskuan. «Behatzen diodanean, al-bora okertzen dik berak».

Oiartzundik gorantz, Nafarroako bidean, Uzpuruko basoak iraganik Bianditz mendiaren gailurrera baino lehentxeago ezkerrera dagoen sakondura leunean, gizon txipi urduri batek lore sortak josi izan zituen hango izei zaharretan, 1950az geroztik urtero, Pazko igandez.



- Eta gurutzea? Ez al duk gurutzerik jarri behar?

Muntatu gabe zekarren eskopeta, baina ez zen ehiztaria, debeku garaia zen eta janzeragatik ukuiluko lanak utzita zetorrela zirudien. Bidez eskuinera baserri zahar baten teilatu zartatua ageri zen ezpondaren goialdean, baina ez zuen bizi tankerarik ikusi aurreko urteetan.

- Konfesatuta hil zituztela esan zidatean.

- Asko dakik hik.

- Eta isildu egin behar!

Eskopeta eskaini zion ezpaina mespretxuan irrituz.

- Horrenbeste baldin badakik, zergatik ez dizkidak bi tiro ematen?

Azken korapiloa egin zion listariari enborrean sobera estutu gabe. Loreak atondu zituen ostera, baserritarrak eskopeta muntatzen zuelarik.

- Hartzak, kargatua zagok!

Zarpail hark eroria zeukan eskuineko betazala, ezin zuen begia zabaldu. Komentario erraz bat etorri zitzaion, baina arriskatzea deliberatu zuen.

- Merezia duk beldur horretan bizitzea.

Ez zion erantzun, asmatu zuen. Gizajo hutsa, behartutakoren bat. Biderantz hartu zuen. Erdi bromazko erronka bota zion baserritarrak, leuntze aldera.

- Zuek gurutzea... Izan ere, gorriak paratu dituk!

Izeietarantz behatu zuen bide bazterrera iritsitakoan. Laugarren urtea zen egiten zuela.

- Hor jarrita gorritu dituk.

Baserritarrak bazekien entzungor egiten, gurpilei beha gelditua zen.

- Hau ere egin dik baten batek!

Biak zulatuak zeuzkan Laxarok utzitako Moto-Guzzi-ak.

Zuhariak gorpuak aurkitu zituelakoa 1960ari dagozkion oharretan irakurri ahal izanen du interesatuak A.ren gerraondoko memorietan. Fusilamendu klandestino haiek baino ia eskandalagarriagoa zen berarendako hildakoek basamortuan ehortziak irautea hogeita hiru urte geroago. Gaztetan abertzalea izan baldin bazen ere, gerra Francorekin egindakoa zen A., kristautasunaren

izenean. Hipokrita hutsa ez baldin bazen behintzat, oso adimen politiko laburrekoa genuen, bere oroitzapenen balio guztia urradura batean dago oinarritua, garaileen desmasiak ezin onarturik galtzailatzat zeukan bere burua. Galtzaillek, berriz, ez zeukaten beraien artekoetan. Fusilamendu sobera zegoen bitarte, eta gerraondoren infernua. A.k lur bedeinkatuan nahi zituen fusilatu guztiak, alde bietakoak. Bazeuzkan bere ahalbideak, ez handiak baina, Gurutzadan bolondresa izan zenez.

- Gobernadore zibilak ikusi egin nahi zaitu. Lehenbailehen.

Uretako autoan eramanen ote zuten egin zion erregu alkatearen idazkariari. Bost minutu bota zituzten gobernadorearen egoitza berriraino. Identifikatu gabe iganarazi zuen atean zain zeukan komisario nagusiak, berak zion joa deia.

- Badakit Arruti doktorea eta biok mugitu zaretela Artikutzako horretan...

Gobernadoreak halako detaileak zeuzkan, mahaiaz honat jesarri zen era informal samarrean, hartara bisitariak ez zeukan Francoren ar-

gazki ofiziala aurrez pairatu beharrik. A.k ezin izan zuen harritua gorde.

- Zuen jakitea oso erraza izan da...

Xingola more zati bat ateratu zuen sakelatik, eta zabaldu egin zion, «Jainkoa zuekin» irakurtean, letra larri urreztatuz.

- Krimen bat izan zen hura, Gipuzkoan gerra aspaldian amaitua zen haiek hil zituztenean...

Komisario nagusiari luzatu zion xingola puska.

- A., mesedez... Gerran, eta gurea bezalako batean areago, frontea bezain garrantzitsua da bizkarra. Bizkarra babestu gabe ezin da aurrera egin.

- Ez zuten epaiketarik eduki...

- Konfesorea eman zitzaion, nolana ere. Fronteko askok ez zuten halako aukerarik ukan.

A. isildu egin zen. Gobernadorea Falangetik zetorren, ia segurua zen frontea ezagutu gabe irabazi zituela mailak gerran.

- Barka ezazu, gobernadore jauna, zergatik esan duzu gurea jakitea erraza izan dela?

- Koroa bat, euskaraz... aztarna asko utzi zituen erosleak.

- Barka, baina gu ez gara gordeka ibili.

- Horretxegatik, zuek ez, baina beste batzuk bai... Pazko egunaz, alegia... Aberri Egunaz, baten bat ibili zen han lore gorriak paratzen. Ezin izan dugu harrapatu, subertsioak zuztar luzeak ditu Gipuzkoan.

Gobernadoreak alde egiteko keinua egin zion komisarioari. «Zure baimenaz, A. jauna...». Altxa eta eskua eman behar izan zion idazleak. Berriro jesarri zenean gobernadoreak barre egiten ziola iruditu zitzaion.

- Eskandalua da, hainbeste urte joan dira eta horiek... Hildako horiek horrela uztea subertsioaren alde aritzea da.

Mahai gaineko argazki batera luzatu zuen eskua gobernadoreak, ertzeetako zilarrean lerratu zituen atzamarrak.

- Hitz egin dut Madrilekin... datorren astean gorpuak kanposantura eramanen ditugu.

A. isildu egin zen, nik esanen nuke eskerrak eman behar zizkiola pentsatu zuela baina eskripuluren batek atzeratu zuela, halakorik egiteko eskubiderik ez zeukalakoan.

- A., esadazu, zergatik zaude horren interesatua?

- Katolikoa naiz.

- Ahaideren bat daukazu han?

- Ez.

Mahaiostera altxa zen gobernadorea. Gizase-me bikaina zen, Caudillo-aren argazkia estaltzen zuen zutik.

- Ez nuke esandakoa oker hartzea nahi, A. Nik ere badakit han jende errugabea hil zela.

*Romeo y Julieta* kutxa bat eskaini zion. Prezintatua zegoen. Eskuaz egin zuen uko idazleak.

- Badakit zaharrena ezkontzen zaizula laster. Piztu itzazue haren ezteietan.

Giltzerdi eragin zion mahaiko argazkiari, mutil gazte bat ageri zen irribarretsu, alferez jantzian. Kolorekoa ez izatera, gobernadorea bera gaztetan. A. ohartu zen gobernadoreak jakaren hegalean zeraman botoia ez zela dolu ofiziala.

- Istripu bat, iaz. Harenerako bereiziak neuzkan. Gizon jatorra zara, egidazu mesedea, nik ezin ditut hauek erre.

Arreba asko pozten zen bisitan azaltzen nintze-  
nean, «Orain ere dirua gastatzen!» amaren es-  
pantuak itxuratzen zituen pastelak mahai gai-  
nean uzten nituelarik. Aitarekin igande bazkalon-  
doan kafea Terranova Berrin hartu nuen hartan  
bazituen bi hilabete bakarrik bizi zela, baina atea  
iragan nuen orduko ahal nuen guztietan erdireki-  
tako gelen barrura behatu nuen, Marinaren ato-  
rraren botoi artekoa zelatatzen ariko banintz be-  
zalaxe. Elkarrekin bizitzen jarri eta gutxira, Sho-  
lojov-en nobela luzearen bigarren liburuaren bila  
joan nintzen, horixe aitzakia etxea ezagutzeko.  
Ez nuen Marina atzeman, baina mahaitxo batean  
euskarazko apunteak ikusi nituen. Marinaren  
gorputzaren formak zituzten letrek, gogoan  
dauzkat oraindik, Marinaz pentsatzen nuen guz-  
tietan b, g, d, l haien biribiltasunak marrazten ni-  
tuen, edo, hobeki esatera, nik hala agindu gabe  
hasten zitzaidan eskua letra haien bihurguneak  
aldiro gogoratzen.

- Zer moduz daude etxean?

Leioha zabaldu zuen, erretzen hasten ginen  
guztietan egiten zuen, euria sartuko bazen ere.

- Aita izorratua dago, minbizia daukala uste du.

Mendi gaineko farola handiaren leinurua atzematen hasia zen. Ez zuen ezer esan, nik zer nekien testatzen ari zela iruditu zitzaidan.

- Sekretu bat esan zidan lehengo igandean...

- Ondorengo unibertsala izendatu bazaitu, nik ez dut auzi joko.

Bazekien ankerra izaten, arrebak. Debekatu egin behar ote zidan taberna batean kafea hartzea aitarekin?

- Gure osaba izan behar zuenaren salataria nor izan zen esan zidan. Bizi da, hemen bertan, herrian.

Telefonoak jo zuen, ez zen mugitu. Etxean ez zuten uste zeukanik. Geletako batetik zetorren hotsa.

- Agure koitadua, gaizki egon behar du benetan.

Bigarrenez deitu zuten, barkatzeko esanda sartu zen korridoreko bigarren gelan, atea itxiz. Farolarena zen jadanik argirik bortitzena, lainotua zegoen. Hautsontzia garbitzen ari nintzela itzuli zen.



- Irten beharra daukat.

Tren geltokira lagundu nion. Ez zuen billete-rik hartu, baten baten zain egon behar zuen noski.

- Ez didazu esan behar nor zen aitaren anaia galdu zuena? Horretara etorri zara, ezta?

Dena zekien, bai, amorragarri hark.

- Marinaren aita.

Ibilia eten eta begietara beha geratu zitzai-  
dan, hortzak estuturik matelezurra nabarmen-  
duz. Masaileko bat eman behar ote zidan? Alga-  
ra zorotan hasi zen.

- Ni kontsolatzera etorri zara orduan...!

Halako zera eman zidan, nik ere banekien an-  
kerra izaten.

- Bai, erreta egon behar du nire arrebak amo-  
rantea gizonezko batek kenduta.

Zer uste zuen, ez nintzela hazi ala? Barrea lu-  
zatzen saiatu zen. Baina damutu egin nintzen,  
«Ez hik ordea!» erantzun behar zuen, ez zuen  
halako aukera huts egingen. Farolaren argiak be-  
zala jo zuen trenarenak pirita deskargatzen ari  
ziren garabietan, ontzi grekoaren mastetan.

- Banoa.

Ez zidan musurik eman.

- Ez daukazu zer lotsatua Marinaz maitemindu izateagatik. Gustagarria zen.

Horixe izan zen bere mendekua, gustagarria zen eta hik ez duk inoiz gozatuko.

Urrundu egin nintzen, ez nuen gelditu nahi izan trenbidetik hurre zegoen autobusaren gelto-kian, ez nuen ikusi nahi arreba norekin, dei haiek, nahiago nuen deus ez jakin, oinez urrundu nintzen, kilometro batzuk egin nituen bide bazterrik euria hasi zuen arte, egin nion lehen bisitan komuneko uraren jauzia entzun nuenean bezala, ez dakit zer esanda tarrapatan alde egin nuen etxetik Marina korridorera azal zedin baino lehen bata lotzen zuela menturaz, edo zapatillak txinalka zituela, ez nuen horrela ikusi nahi, hori nire arreba zen, komuneko atea ere zabalik uzten.

A.k kontatzen duenez, fusilaketen berri zuzena zeukan baserritarrak -nire betazal-nagi horrek-zoratu egin zituen gobernadorearen aginduz Oiartzundik gorantz, Nafarroako bidean, Uzpuru-

ko basoak atzean utzita Bianditz mendiaren gailurrera baino lehentxeago ezkerrera dagoen sakondura leunean udalak bildutako aitzurkariak.

- Hemen behar du, hemen zeudela uste dut esan zidala osabak...

Ez zen sakon zulatu behar, fusilatuak ez ziren otsoek aztarrika ez egiteko lain baino ehorzten. Baina bazen astebete tantarik gabe, lurra gogortua zegoen, gobernadoreak ez zuen egunik onena aukeratu lanerako. Oiartzuar guztiek zekiten begi-txatxu hark jakin behar zuela zehazki hilobia non zegoen, hiriburuko aitzineko zuri-keria baino ez zerabilen, zazpigarren huts egitea zuten. Guardiazibilen kapitainak apezarekin egin zuen hitz. Furgoneta bat heldu zen udalak igorritako apairuarekin, eta aitzurkariak izeien geriz-pera hartu zuten, kapitainak A. idazlea eta Arruti medikua ere biltzen zituen bitartean.

- Kasualitatez nengoen etxean, Valentziara irten behar nuen egunsentian putzu batzuk kalkulatzera, baina trena huts egina nintzen. Arruti doktorearen ahotsa ezagutu ez banu telefonoan, broma zela pentsatuko nuen... Artikutzako bidean zitatu ninduen, mendian gora abiatuta ha-

malaugarren kilometroan! Eguraldi ederra zegoen, urria zen, bazebilen dena garbitzen zuen hego haize eder bat... Ailegatu eta ikusi nitue-  
nean guardia zibilak eta apezak eta jendea aitzur-  
rekin eta zerraldo haiek zabalik, halako ondoe-  
za egin zitzaidan, lanak eman zizkidan autotik ir-  
teteak. Patillak, beti bezala?

Inork ez zeukan itsutu beharrik harrotutako  
hautsari begietara eragoztearren, aitzurkariak  
baserritarrek apezak medikuak idazleak denek  
ikusi ahal izan zuten zuharia -jokalari on batek  
kartak bezain- xardeari eusten ziola erdi sonan-  
bulu, hildakoen itzultzailea zeukaten begi au-  
rrean fusilatuen denboraren norabidea aldaraz-  
ten, edozelako gorpuez jabetzen. Zuhariak aitzia-  
na jarraitu zuen, astiro, urrats nagitan. Beste  
ikara bat. Atzera berriz, atzeraka. «Apezpikuaren  
araua» ari zela ezartzen argitu zion Arrutik A.ri,  
sakondura kalkulatzeko ari zela, hiru urte lehena-  
goko uholdeetan urak eramandako gorpuak aur-  
kitzen ari izan zenean zion ikasia zuhariari bera-  
ri. Metro t'erdiz barnera zeuden, aitzurkariak  
uste zutena baino sakonago, lehen zulaketa

egina zutenetik ez oso urrun. Zahatoa eskatu zuen zuhariak. Izerdi lapetan zen, margul.

Sama Floïd nazkagarriaz erretzen didala geomantiko zaharrak esaten duena bat dator, guti goiti-beheiti, A.k bere gerraondoko egunkarian apuntatu zuenarekin. Ez du gorpuen kopurua zehazten, nik orain badakit hamabi izan zirela. Hezurduren artean bazen bat emakumezkoarena, txipiagoa zen bestea baino eta zapatek salatzen zuten. Apez bat ere bazen, A.k esaten du sotana osorik zeukala. Zuhariak gogoan dauka putz egin zuela norbaitek, eta sotana kedarretan suntsitu zela. Estilografika bat azaldu zen orduan hezurren artean. Bitxia da datu hau, miatu gabe fusilatu zituztela ematen du, presaka, baina kilometroak egin zituzten mendian gora, eta orduko kamioneten abiada kontu eginda, gutienik ordu erdi beharko zuten. Menturaz konfesoreak lortu zuen bere lankidea barruti sakratu moduan tratatzea. Gorpu jasotzearen deskribapenean, gaztetxo baten arta goraiatzan du A.k, haren begirunea ustelkiak jasotzen, zeinen hunkitua, Arruti doktoreak musu eman nahi izan omen zion. Nik uste dut A.ri hezur haiek musukatzea zegokiola.

Inazio Errasti nire aitaren uste oneko anaia erge-larenak, esaterako. Zerraldoetan eraman zituzten, baina aita beti komentatu izan zigun itxurakeria izan zela hura, «Oiartzungo hezurtegia bota zituzten gero denak». Ez nuke esanen hori ez zekienik A. jaunak, ez baitu deus aipatzen ahaideez edo ehorzketa katolikoaz, fusilatuak zeuden hartarik lekututa eztitu egin zen bere asaldura. Gertatu honen oharretan daukan estilo kolperik onena aitzurkari haietako baten esana emanik lortzen du, katabut bat soberan zela ikusitakoan etxera eramaten utziko ziotenetz galdengin omen zuen.

- Baina badago gauza bat A.k aipatzen ez duena bere memorietan, uste dut interesatuko zaizula...

Ipuina ongi taxutu nahi duen idazleari mintzo zaio zuhari ohia, ez fusilatu baten ilobari, jubila-tuak ez direnendako tarifa doblea dela aipatuz sorbaldak zinezko motzaile batek baino ardura-tuago brosatzen dizkidan bitartean. Eta horri esker, egundaino lupean eduki dudana kontua azaldu zait bere hitzetan.

- Gogoan daukat zulaka aritutakoetarik batek aitzurra haserre jaurti eta «Ez zenuten zuhariari zertan deitu!» esan zuela.

Ez dit argitu, eta nik neure artean galdetu beharrik ez dago nortaz ari zen nire begi-zozoa «Hemen badago hauek non bota genituen ongi dakienik!» aurpegiratu zionean Arruti doktoreari, urte hartan bertan aitari kargu hartu zionean bezain harro. Hiratuago ordea, minuago, amorratuago.

**Adinekoak** ez garenon tarifa gehi eskupeko txiki bat utzi dut zuhariak egunkarien gainean edukitzen duen saskitxoan, hurrengo arte despedituz. Haizea dabil eta halako zirrara leuna egiten du ile moztuan. Trenbide gaineko zubira abiatu naiz, aspaldi du ez ditudala benetako zamakoak hurbiletik ikusi. Holandar batean alde egin zuen Marinak, herrian fox-terrier batekin promenatzen eta denokin hitz egiten astebete eman zuen kapitain bilo-horiak eramanda. Ez dut esanen noiz itzuliko zain nagoela, aski du ipuinak

narratzailea zoratuta daukan neskaren aitak osaba mitiko bat sorturik, txarra izateko.



# Oroimenaren matxetea

Kapitain jauna, jakin behar zenuke nolakoa den Trintxerpe, beharbada entzuna izanen zara izen hori noizbait, Euskal Herriko arrantzale auzo tipikoa da, Pasaiaiko portuan, Gipuzkoako probintzia ederrean, Kantauriko perla esaten zaion Donostia turistikotik hurbil, minutu bat besterik ez dizut kenduko kapitain jauna, uste dut munta handikoa dela zuri adieraztea, nire moztasunak uzten didan neurrian, zer den, edo hobeki esatearren, zer zen gure herria, Trintxerpe izeneko hori, itsasoaren aho handian egunero latz saiaturta gure ogi kozkorra jator irabazten genuen arrantzale jendearen auzoa. Zu lehorrekoa zara, zuk ez dakizu, hala hobe-ta, zer den emakume gazteak beltzez ikustea hiru eta lau hankagorriekin arrain eskean deskargan, gizonik zailduena ere mareatzen duen puta anker horrek senarra kendu diolako. Zinez esaten dizut, kapitain jauna, gerra honek baino baja gehiago egin izan dituela ipar beltzak herri hartan. Herri xumea, zintzoa, eta lan du sinesteak, baina eliza xume

bat ere ez zeukan Trintxerpek, lau eta bost kilometro egin behar izaten genituen igandeetan moja batzuen kapera hotz eta txiroan meza entzuteko. Ez dizut ukatuko guk nahi baino gehiagotan sortida egin gabe gelditu behar izaten zutela ontziek. Zer tristura orduan, baforeak lotuta ikustea itsasoa bare zelarik! Baina halakoak Asturias-etik etortzen ziren bazter-nahastaileen erruagatik gertatzen ziren, Langreo-ko eta Gijongo portuetako sindikalista gorriak, subertsioaren profesionalak, oporra jotzera bortxatzen gintuztenak. Haien desmasiek ekarri zuten Altxamendua, zuk ongi dakizun bezala, uztail baten erdian. Orduan probintzia osoko anarkistek juntadizoa egin eta hiriburuan udatiar zeuden Maldrilgo ministroak eta goi mailako jendea preso hartu zituzten Maria Cristina hotelean, hango dotoreenean, ez dakit ezagutzen duzun, ospetsua da, bai. Ba horrek egundoko galera ekarri zion hiriburuari, ze huraxe zen denda, jatetxe eta kafetegietako klientela nagusia, egunkari saltzaileak txalupariak bainuzainak tabernariak, denak geratu ziren bezerorik gabe. Oraintxe amaituko dut, kapitain jauna, esadazu, ene kapitaina, zer

egin behar du oski-ziratzaile batek, zapata jaun guztiak preso hartuta espartinak jabe dauden karrika batean? Goseak hil, horixe! Horregatik azaldu zen gizajo hori Trintxerpen, kapitain jauna, portu batean beti dagoelako arrantxoko jakitik hondarren bat emanen dizunik, edo gurdia bete sardina kaxa bentatik kamioietaraino eramateagatik sos batzuk biltzeko modua, pobreen arteko elkartasuna, badakizu. Ba hantxe ezagutu nuen nik gizajo hori, hiriburuan lanik gabe geldituta arrantzale xumeongana gosea berdintzeko asmotan etorria, bere produkzio tresna bizkarrean zekarrela. Mutil alaia eta zintzoa zen, isila eta bakeosoa. Ez zuen zurrutik egiten, eta moila gainean konpontzeko egoten ziren sareen artean moldatu behar izan zuen ohatzea. Mundua ezagutu nahi omen zuen zamako batean ontziratuta, halako asmoa zerabilen berarekin hitz egin nuen azken aldian. Zoritxarrez, izurdeak hiltzeko arpoia beste armarik ezagutzen ez genuenon artean laster agertu ziren pistolak eta fusilak Gorriarandik heldutako samalda baten eskuetan, kapitain jauna, grebara behartzen gintuztenean bezala etorriak, Beorlegi koronelaren

tropei aurre egiteko nahikoa adorerik ez eta atzeguardako jende beharginari erasotzen. Derriortu egin gintuzten, kapitain jauna. Zinez esaten dizut, ene kapitaina, gizajo hori Gorteko jaunen zapatei distira eragiten Donostian uda alai bat bota nahi izan zuelako galernak harrapatu duen gazte zoro bat baino ez da. Zamorarra da eta haurtzaroan itsasoa ikusi gabea, uhinen artetik hondartzara arropa bustia larru eginda etortzen ziren neskez bete nahi zituen begietako zakuak, pentsa ezazu, hamazazpi urte, dirurik ez eta osasuna emateko, irrika natural horrek ekarri zuen mutil hori Euskal Herrira. Horrek ez dauka ezer gorritik, jauna, behartuta ibili da hori aurreko lerro hauetan, gu denok bezalaxe. Mese-dez, ene kapitaina, mana iezaiozu botak garbitzeko, ikusiko duzu egia esaten dizudala. Horrek ez daki zer den plano bat, ezin izan liteke abantada bateko zelataria. Barka ezazu, kapitain jauna, baina nik ongi dakit nola funtzionatzen duen ontzi gorriak, zelatariak bolondres eskatzen dira, eta mutil horrek ez zuen pausoa bolondres emanen, edo beharbada bai, beharbada pasatu egin nahi zuen nazionaletara eta zorabiatu

egin da menditarte biluzi honetan, atzera bere lerroetan zegoela usteko zuen gizajoak, iparra galduta, halako taxu oneko mutilak.

Horixe izan zen gure kapitainari esan niona.

Ni gerrara bestek aginduta joan nintzen moduan zegoela bera goitik zetozen aginduak betetzeko, berak ezin zuela deus egin mutil haren alde. Nik konprenitzen zaitudan bezala konprenitu behar nauzu zuk ni, bidezkoa da, ezta? «Biba Errepublika!» oihukatu du Errepublika betirako suntsitu behar dugunon aitzinean. Gerrako arauak betetzeko zegoela, berak ez omen zuen nahi inolaz ere halakorik gertatzea, madarikatua izan dadila ume hau harrapatu dugun eguna, eta benetan ari zela iruditu zitzaidan, kutxa zartatu batetik bezala irteten zitzaizkion hitzak. Zer erantzun ez nekiela gelditu nintzen, Teruelen oso amorratuak zeuden bi aldeak, ez zen preso-rik egiten aspaldian. Hiru lagun aukeratzeko agindu zidan kapitainak, eta botila bat brandy eman zigun gero, laurak bere aitzinean presentatu ginenean, zoazte errukarriari adore apur bat ematera.

Horixe izan zen gure kapitainak agindu zidana.

Ezusteko handia hartu zuen gu han ikusita, gu noiz fusilatu behar gintuzten beste galderarik ez zeukan, hasieran. Bere ibiliak kontatzeko eskatu genion, baina «Gau honetan bertan gertatuko duk gorrien eraso nagusia» esaten zigun aldiro, pozik zegoelako plantak eginez, armada errepublikarra bera salbatzeko antolatu izan babilitz bezala. Portuko gauzak kontari hasi ginen, zeinen motela zen izotza palakatzen, nola gelditzen zen ahoa zabalik atako bandara hartzen zuten ontziei beha, zenbat korapilo mota ikasi zituen. Lasaitu genuen zertxobait. Bazeuzkan mutilak umore txinparta batzuk tarteka, sarepean egiten omen zituen ametsak asmatzeari ekin zion, arrain bat zela eta guk jan egin nahi genuela, «Goseak madarikatzen!» bizi ginelako euskaldunok. Gero oihuka jardun zuen Errepublikaren alde edariak erasanda, eta hor hasi zitzaidan nolako aurpegia gelditu zitzaion Don Isidrori plaza-ko itzulia egin genionean. Isilik egoteko agindu genion, dena entzuten ariko zirela frogaren bat nondik hartuko, komentatzen genuen hartarik

aterako zituztela ondorioak eta erabakiak, inozentearena jotzea komeni zitzaigula denoi, guk gau horretan komentatzen genuenaren arabera jokatuko zutela. Eta egia esan ni segur nengoen mihiaren haria eteteko eman zigula brandy botila kapitainak, ate ostean egonen zen gure solasa entzuten, goitikako aginduek ematen ez zioten arrazoi moralen bat behar zuelako gizajohura fusilatzeke. Negarrez hasi zen, ea gu zergatik ez gintuzten fusilatzen, nik ez nekien masailkeko bat eman edo zer egin. Gero erabat umetu zitzaigun, zazpi abade kalitua zela ekin zion orroka. Lurrean jesarri eta lepoko zapia kenduta botak igurzten hasi nintzaion, eta barregura eman zion, «Egik lan, esklabo!». Itxuratu nuen halako oski-ziratzaile bat, tu egiten nuen botetara, «Ezagun duzu klasea daukazula, jauna, poza ematen du material honen gainean lan egiteak!». Uhal bat balitz bezala eragiten nion ezker-eskuin zapiari larru higituaren gainean, «Barka, jauna, zu ez zara donostiarra, ezta?». Horretan ari ginela jo zuten atean. Besarkada bana, eta eraman egin zuten. Jiratu egin zen, sututa. «Inozentearena egin, honetarako?». Es-

kuan zeraman brandy botila hutsa. «Ni behintzat zazpi putaseme garbituta noak zulora!».

**Nemesio** Arozenak kontatu zizkidan gertatuok Trintxerpen bertan, Arrandegi karrikako Alai tabernan txuri bana edanez, bi milagarreneko apirilaren hogeita hiruan. Huraxe zelako konfiantzako taberna bakarra zitatu omen ninduen han. Eta bere gorreria puntuak ozen mintzarazten duenez, barre konplize bat egin zidan taberna-riak. Bera sartzen denean telebista itzali egiten duelako omen dauka horren estimuan, esplikatu zidan gero. Nemesio arrandegiko zurgina izan zen urteetan, eta erretreta hartuz geroztik ez du inoiz huts egin eguneroko bi edo hiru tabernaren jira, baxoerdi eterno bat ondoan daukala egunkariak patxadan irakurtzeko. Laurogeita sei urteko den arren, Nemesio Arozena dugu garai gogor haietakoak zehatzen kontatzen dituen, gerraondoan ere Francoren aurkako sasiko borrokan elikatu duen memoria zintzoan. Hogeita hamazazpiko otsailean hartu zuten tropa nazionalak preso bere konpainia erdiarekin, eta ez omen



zuten bertan fusilatu besoak behar zituztelako lezoiak egiteko. Posizio gerra izan baitzen Teruelgo bataila, langile batailoietan antolatu zituzten mendi zakar haietan lubakiak egiteko, horrek salbatu omen zuen. Oroimen argia edukitzeaz gainera, Nemesiok polito ateratzen du berba, aditua da entzulea liluratzen nondik sortzen dituen inork ez dakien irudi bereziekin. Hitzaldi luzetan mintzo da, eta halaxe uzten diot nik, galdeekin eten gabetanik. Isildu egiten da aldizka, eta halakoetan ni ere mutu egoten naiz, begiramenez, etorria ahitu izan balitzaio bezala, edo bere oroimenaren sakonduretaraino iritsiko ez balitz moduan, edo itsaso urrunen batetik datozen uhinek ekarri behar lizkioketen hitz berrien aiduru dagoelakoan. Bai, esan genezake hitzak uztartzen jarduten duela horrelakoetan, istorioaren gurdia gozoago ekartzeko. Tira, hori bere etorri zilarraren imitazio traketsa besterik ez duzue izan.

**Nik** uste dut kapitainak txilaben esku utzi gintuelako irten ahal izan ginela bizirik, ze erre

behar batean genituen falangistak, ez ziguten hitzik egiten iraintzeko ere. «Gorri, egik lan!» txilabek, eta guk «Nik bai lan, txilabak ez lan!». Jende ona ziren txilaba haiek, tabakoa ematen ziguten, eta zekiten gaztelania apurra lardaskatzen zuten gurekin. «Gorria gose, posizioa utzi», eta guk «Gorria gose, posizioa utzi ez». Hondarraren gainean ohitutakoak ziren, belar ziztrinez lurrindutako ur beroa besterik ez zuten hartzen egun osoan, eta ilunabarrean aski zuten haiek ardi zahar pusketak urri batzuekin, oso gerlari onak ziren, loa ere labur egiten zuten.

«Biba Errepublika!».

Eta tiro batzuk gero. Gaueroko kontua zen, harri barruan zeuzkaten lezoiak batzuek eta besteek.

«Gorri, urde gosetua!».

Teruel hartu eta galdu askotan egin zuten bando biek. Hildako samalda bat ageri zen gero bazterretan, lupiak fueletan bezala. Pikotxa erabiltzez ederki hebainduak ginen kapitainari auzartu nintzaionerako, «Kapitain jauna, nik konprenitzen dut etsaiaren hildakoak izurriteren bat ez sortzearren lurperatzea, ez beste ezergatik.

Baina norberaren hildakoek, barka ezazu kapitain jauna, bestelako tratua merezi dute, ahal dela behintzat. Eta orain ahal dezakezu». Hori, bere bulegoan. «Jarrai ezazu, zoaz harira». Eta nik «Aurreko astean konpainiak harturiko posizioan biltegi eder bat dago, tresneria eta guzti, zurgindegi bat». Orduan telefonoa eskegi zuen kapitainak. «Badakizu zerraldoak egiten?». Horretaraxe etorria nintzen, «Errespetu osoarekin, kapitain jauna, tonaka arrain etzan dira nik egingako kaxetan». Horrela bihurtu ginen batzuk behintzat benetako langile, sindikatua sortzerik eduki izan ez baguenen ere. Hotz hartan hobe zen oholak josten egotea eta ez lurra ebakitzen, baina horrek bazeukan bere elorria ere, geuk ekarri behar genituenez zerraldoetako biztanleak. Eta hesteen azaoa ongi lotua eduki behar zuen batek usteldegia hartan soldadu lepotuak, emakume lehertuak eta ume erreak jasotzen ez zorabiatzeko. Gorpu batzuk izoztuak egoten ziren, zarpatik helduta itsatsita bezala gelditzen zitzaizkigun. Halako egunetan sulerroan ematen genuen gaua, mendian, artilleriak lan ona egiten

zuen eta hiru eta lau egun behar izaten genituen puskaila guztiak biltzeko.

«Alto, nor da!».

Oraindik ez ote gintuzten zikiratu galdetzen zien txilabei beti, harro hark. Baina gauetz eta lehen lerroan, erbi batek izutuko zuen zentinelak hura, ezagutzen genuen. Eta txilabek ere mespretxatu egiten zuten.

«Alto, nor da!».

«Errepublika!».

Oso hurbil entzun zen. Tirorik ez ordea.

«Biba Errepublika!».

Pauso batzuk lasterka, «Kamarada!».

Eta ondoren, alaiki, «Aurrera! Aurrera!» zentinelak.

Ohartu ginenerako berandu zen. Fusila ipini zion bularrean, eta erbiak ukabilak estutu zituen, amorruez, besoak altxatzean. Ikertze bat egitera irtena izan behar zuen, baina ez zuen jakin posizio labirinto hartan orientatzen eta nazionalen zentinelaren segadan eroria zen. Putzantu haren karkailek suminduta hurbildu nintzelako ezagutu nuen. Eta nik ere ukabilak estutu nituen. Kapitainak ez zuen zuzendu nahi izan pelotoia. Gerrak

akademian harrapatutakoa zen, gerra egin behar izan gabe milizian goratu nahi zuten amatekume haietarik bat. Esaten zuten aita, jenerala, errepublikarretan zeukala Guadarrama-n. Eguneko partean ez zitzaigun aipatu zentinelen balentria, eta kapitainak lotinantari eman zion gure oski-ziratzailea fusilatzearen lan zikina.

Jakin izan zuela hiltzen, entzuten diot zintan Nemesio Arozenari, bertarako mikroak ezin ekin izan zituen beira hotsen artean eta azpiko barbaro amorragarriak erdi itoa. Gero, isilaldi luze bat egarri dela esan arte.

Txilabak beste norabait bidalita falangistek hartu zuten gu zaintzeko ardura. Haien poza! Gorroto handia ziguten, esan dizut, ezin zuten onartu gu bizirik egotea, eta hain gutxi zurgin ibiltzea. Noizbait behar eta, kapitaina etorri zitzaigun behin esanez zerraldoetan armak gordetzen genituelako salaketa heldu zitzaiola eta miaketa egin behar zuela. Gau osoan eduki gintuen kanpoan zutik, hogeiren bat gradu zero-pean, hor nonbait, badakizu zer den hortzetako

hotza? Nik esanen nuke falangistak baretzearren egin zuela hura, kapitainak bazekien ez zitzaigula istilurik komeni. Eta berak ere nahiago zuen onez, diziplina faltsurik gabe. Horren ondorioz edo, Zaragozara eramán gintuzten, bidean ere hotzak puskatzen bagoi itxian denak elkarren gaineán gindoazen arren, han ez zegoen hanka berotzerik. Kontraginduren bat hartu zuten non-bait, eta Cella-ra osterá, Teruel ingurura. Hemen abandonatuta bezala utzi gintuzten gauaren erdian bia hil batean, «Zoazte zeuen lagunetara» esan izan baligute bezala. Nik pentsatu nuen jukutria bat zela ihes egiten harrapatuta denoi beruna emateko. Antonek zabaldu egin zuen, jauzi egin zuen. Haren atzetik irten nintzen, Anton Patiño-ren atzetik, eta harri kozkorretan urgun eginez hurbildu ginen biok moila uzteko presaz tximinia ketan duen baforea bezala konboiaren muturrean zegoen lokomotora zaharrera. Tren-bidean beste inon baino hotz handiagoa egiten duela esanen nuke nik, leunik gabeko haitzak dira han harriak. Pentsa, burdina ere laburtu egiten du hango hotzak. Inguruetako adar guztiak

garraiatu genituen, bazterrean zeuden trabiesa batzuk ere bai.

«Zer egiten duzue hemen!».

Solasera helduak ziren, bestela tirokatuko gintuzketen nasatik bertatik.

«Etsaia akabatzen!», eta haiek «Etsaia akabatzen?».

Fusil sarrailaren krakatekoa.

«Hotz honek denok garbitu nahi gaitu, lagun: gorriak, zuriak eta zurien presoneroak».

Algara egin zuten suaren inguruan. Edanak zeuden, poxpolinen batzuk ekarriak izan behar zituzten geltokira, musika entzuten zen tarteka, irri karkailak. Bat ez beste guztiak itzuli ziren. «Zikiratu gabe amaitu behar ote duzue zuek gerra? Handia da gero!». Falangistak baino koldarragoa zen, morroia. Tabakoa eskaini zidan. «Ez duzue pentsatuko zuen kamaradetara pasatzea, ezta?». Antonek erantzun zion lokomotortik, «Ez zu hemen zauden bitartean behintzat, badakigu zeinen aditua zaren gorriak harrapatzen...». Irri zabar bat egin zuen. «Kontuz!», eta beste ikatz sutu batzuk jaurti zituen Antonek. Garrei erakutsi zizkien eskuak gure zentinelak,

«Gerra laster amaituko dela komentatzen dute, horrek esan nahi du guk irabaziko...». Branka izotzetan bezala, hezurren jaskura jo izan balio bezala sartu zen pala gure zentinelaren buruan trebes. Lokomotorara jaso genuen. Burua labean zeukanean baino ez ginen ohartu, bala guztiak kendu genizkion. Ongi sartu zen, bultzada txiki batean, bere fusil eta guzti. «Putaseme halakoa, esaiok orain biba Errepublikari!» ia oihuka Antonek. «Usaina zabalduko dik orde!» Ikatx gehiago jaurti genuen labean. Balei zorroa kendu eta hautsa hustu genien sutara baino lehen. Labea itxi genuen, eta ikatx metan sartu zuen pala behin eta berriz Antonek, Anton Patiñok, Horizonte Aundi-ko suginak.

**Hauxe** da nik Nemasio Arozenari kontatu behar diodana egun, jelostua baitaukat bere pasadizok idatzian argitaratzeko asmoa daukadala esan nionez geroztik, nik bere ahotik entzundakoak entzun nahi ditu berak nire paperetik, moldizte-giko probak orrazten dituen idazlea balitz moduan. Eztul egingen du, bekaineko ileak areago ki-



rrutzen hasiko da atzamarrekin godaletekoari jaramonik egin gabe, gogoetan, hitzen esperoan isiltzen denean bezala. Baina badakit apirilaren hogeita hiruan eginiko grabaketako isilduak entzunda idatzi dudan hau irakurtzen amaitzen dudanean baietz esanen didala, hala gertatu zela, halakoxea izan zela zentinela ankerraren azkena... Eta Anton Patiñoz oso ongi oroituko ez baldin bada ere, segur naiz ez nauela baraurik utziko, oparituko didala, esate baterako, azken apainduago bat.

- Badakizu zer esan zidan kapitainak konpainian soldadu bat eskas zeukala ikusi zuenean?

Agertzen ez baldin bazen bera fusilatuko zuela, antzeko zerbait erantzunen diot. Edo ez dudala asmatzen ahal egingen diot isilik, kokotsa zimurtuz.

- «Desertoretzat emanen dugu, ezta Nemesio?», halaxe esan zidan kapitainak gure zapata garbitzailea galdu zuen zentinela azalduko ez zela etsi zuenean.

Lepoa egingen nuke horixe oparituko didala Nemesio Arozenak, gure herriko kontalaririk

onenak, maltzurkeriaren gatza ageri duela begietan.

Ezagutu behar zen orduan Trintxerpe! Sobiet Gorriaren Meka esaten zioten, hortik atera zenezake zenbateraino errekaratu den herri hau orain! Irakurri behar ziren garaiko prentsa erreakzionarioaren espantuak hemen bizi ginenon ehuneko zazpi ere ez omen zelako elizan azaltzen! Gure artean zabaltzen zen orria *Avance Marino* zen, eta gero, gerra hasitakoan, *Euskadi Roja*, eta *Erria*. Haiek irakurtzen genizkien analfabetoei, huraxe genuen katixima. Gogoan daukat lehen ehorzketa zibila egin genuelarik, nolako ikara mezako jendailak zerraldoa gurtzerik gabe generamalako hilerrira. Valeriano Neira-ren lurperatzea izan zen, ezusteko tiroketan hila errekisa bat egiten ari zela Hernaniko Banco Guipuzcoanon. Ergel batzuk beha gelditzen zitzaizkigun, eta guk orduan «Kentzak zape-la, alper horrek!». Saregileak txoferrak zamaketariak sugileak motoristak marinela, denak ginen sindikatu gorri-beltzekoak, komunista

jator samar batzuk ere bagenituen tarteko. Nagusi ginen libertarioak, mila eta gehiago afiliatu. Auzo bat besterik ez zen Trintxerpe, arrantzale txiroen etxe multzo hezea, armadoreek berek merke jaso eta garesti saldua. Baina nolako nor-tasuna ordea! Herri handi askok baino titular gehiago hartzen genituen egunkarietan, bateko liskarrak, besteko oporrak... Gipuzkoa zintzo honetan, prostibulo bat zen Trintxerpe. Horregatik saiatu ziren Itsas Apostolutza sortzen, sindikatu kristauko jendea hasi zen patroiekin eta armadoreekin hizketan, hori hogeita hamaikako martxoan egin genuen greba gogorraren ondoren izan zen. Erreklutatu zuten jendea, bai, euskaltasunaren izenean, *Euzko Langille* hasi ziren banatzen tabernetan, baina petxuko ilea erakutsi genien eta atzera egin behar izan zuten. Mehatxu zuena, besterik ez zuten merezi kabernikola haiek. Faxistak altxa zirenean berriz trintxerpetarrok izan ginen lehen lerroan Irungo mendietan Nafarroatik zetozen Beorlegi koronelaren tropei ongi etorria behar bezala ematen. Herria erdi hutsa gelditua zen egun haietan, eta horregatik ausartu zen Bereziartua abadea, San Pedrokoa, Don

Isidro esaten zioten, moilan zer mugimendu zegoen barrandatzera etortzen. Hortxe hil zuten, gero Fagoaga tenoreak atelier elektrikoa zabaldu zuen izkina horretan bertan. Espia hutsa zen abade hura, Donostiako Maria Cristina hotelean matxinatu zirenen artean egon zen, tiroka ikusi zuten leihoan, eta egizu kontu hil zutenean mahonez jantzia zegoela... Ba, gero soka bat samatik pasa eta autoari lotuta ibili zuten hara eta hona arrastaka, eskarmentu gisa. Leku guztietan dago erraz asaldatzen den jendea, zer nahi duzu.

- Tartean ibiliko zen zapata garbitzailea...
- Lustrearen aitzakian burgesak kontrolatzen ibiltzen zen hura, arrain handiei pausoak hartzen, informazioa jasotzeko. «Kutxatxo hau izan da zenbait parasitoren zerraldoa!» esaten zuen bere produkzio tresna beltzari muin eginez. Eta egia esan ez zen huraxe amarru txarra zotina kentzekoa eramateko, praktikoagoa zen arrain kaxetan gordetzea baino. Faxistek aurrera egin zutenean Bermeorantz abiatu ziren bafore gehienak, eta haietakoren batean alde egingen zuen, ni azken eguna arte gelditu nintzen. *Jata-*

*Mendi* ontzia ekarri genuen Zumaiatik, eta boka-lean hondoratu genuen trebes, sarrera oztopatzeko. Gutako batzuek Frantziara jo genuen, Baionan kokatu gintuzten umeen eskoletan. Han probatu nuen lehenengoz zaldi okela, eta gustatu. Eskola garaia heldu zen eta orduan prefetak esan zigun libre ginela noranahi joateko. Trintxerpetar guztiak sartu ginen berriro Espainiako gerran. Batzuek Bizkaia aldean geratu ziren, eta Eusko Itsas Gudarostean jardun zuten bouetan; beste batzuk Catalunya-n bildu ginen anaia libertarioekin, hala heldu nintzen ni Terueleraino...

- Anton Patiño bezala...

Ez dit jaramonik egin, bere kontakizunean jarraitu du, kontu tristeak maite ditu Nemesiok.

- Ez nuen asko uste gure zapata lustreatzailea ikusi behar genuenik berriz han! Gure kapitaina, alegia, gure etsaiaren kapitain hura pertsona ona zen, baina...

- Ezin izan zenuten mutila salbatu, baina gero justizia egin zenuten Anton Patiñok eta biek...

- Bai...

Eta isildu egin zait kopeta zimurtuz, Anton Patiño akordura ekarri nahirik, menturaz. Baso zuri sarria ditu orain bekainak. Baina gure behialako herriaz eginiko laudorio luzea dragaren ota-reak hondo ezezagunen batean betetzeko aitzakia besterik izan ez bailitzan, eskua ukabildu du pozak hunkituta. Dragak badakar basatzaren artean metal herdoilezin pusketa bat bristadaka, ukabilaren atxamarta askatu eta eskuturretik heltzen dit, kontalari gaitza dela agurea:

- Matxetea hegaluzearen paparrean bezala, halaxe sartu zen gure pala zentinela makur haren buruan!

Eta honenbestez, Nemesio Arozenaren zuzenketa onarturik, bertsio honi behin betikoa deritzola ulertu behar nuke.

# Martiria

Apez hark burutik eragin behar zigun denoi, irakurri al duzue azkena, idatzi duela ederrik orain ere, Elizaren dotrina sozialaren zantzolaririk onena zen, halakoak ziren haren editorialak *El Día* egunerokoan zanpaketaren kontrako oporra jotzen genuen aldiro. Amorruez kentzen genituen kofradiako zutabeen ageri ziren txatal haiek, euskal patroiak esku hartu behar zuela justizia sozialean, nazioartekotasunak euskal izatearen hondamena zekarrela, guretasuna erdaldundu nahi zutela jainkogabeek. Kalte handia egiten zuten gezur haiek euskaldun motzetan. Aldian behin gure bazter honetaraino arrimatzen zen, bilerak egiten zituen sindikatu katolikoan eta mitinak antolatzen zizkiguten inguruetan, bazkaria ematen zioten jendeari batzokian, hor azaltzen zitzaizkigun gero ilunabarrean herriko epelene-koak ikurrina paparrean, erromeriatik baletoz bezala amuraka, inori zuakerrak apurtzeko pronto. Eta hurrengo astean ez genien patroia

kontrako hitz erdia kenduko, lankide galegoek ez bezala euskaraz egiten omen zigulako.

«Putzura bota behar genikek bele hori!».

Ez zen txantxetako solasa, burutik eragin behar zigula esan dizut.

«Akabatu egin behar diagu, baina bizirik utzita».

Nolako lantzoia Floren, gure uste okerrak okerragotzeko! Konprenitu ezin genituen formulatan eztatzen zuen ahoa. Askatu ezin genituenak esan eta besteoi hizketan utzirik burua baiezkotan edo ezezkoan mugituz bideratzen zuen aharra berak nahi zuen kalarantz, ontzi baten kurbeta inoiz zapaldu izan gabe mundua guk baino hobeto ezagutzen duen kapitain horrek. Baina Bakuninen biografia utzi zidanez gero, haragi zuriaren erdiko ile bustia besterik ez nuen ikusten nik Floren aurrean neukan guztietan, eta konprenitu ezinik gelditzen nintzen Josetxok ateratzen zituen ondorioak.

«Itsasoak irentsiko dik belea!».

Hamaiketako egin genuen bidean, oroitzen naiz txakurkumeak jaten ari zirela gure aldame-nekoak sagardotegian, hala esan zuten. Poliki



edanen genuen segurenik, itsasoak egarria ematen du. Bazen entzulerik iritsi ginenerako, plazan zuten juntadizoa. Banandu egin ginen, leku desberdinetan ipini ginen laurok, lau ginen bai, Sotero ere gurekin etorri zen, apez guztiei «pago zaharra eta txikota berria» eman behar geniela-ko ustean tematua zen arren, entzun ere ez omen zuen nahi aho gezurti hartarik jalgitako ezer. Telesforo Monzonek hitz egin zuen lehenik, hangoa amaituta Tolosara joan beharra omen zeukan, horregatik bera lehenik, Madrilek behin eta berriz ukatzen zuen autonomiari buruzko hitzaldia ematera. Mintzaile egokia zen, ez zuen zabarkeriaren beharrik bera baino burgesagoak ez ziren politikari espainiarrak zafratzeko, gogotik txalotu zuten. Gure belea bestelakoa zen, suitsuagoa, entzuleen mailan jartzen diren horietarik zen, gure hurkoa zela sinetsarazi nahi zigun sotanaduna. Dena ongi antolatua genuen, noiz oihu egin, nola mutuarazi, Florenk kenduko zion aurreneko luma. Baina langileen auzia aipatu zuen orduko, Soterok, horren xeheki adostua genuena algaretean utzita, oihu egin zuen eskua jasoz, «Aizak!», harengana itzuli ziren buru guz-

tiak, isiltzeko esan zioten, hala hobe, baina apetzak eten egin zuen bere jardurioa, lasai egoteko agindu zuen, uzteko hizketan mutilari.

«Eliza langileen alde dagoela diok hik...».

Belarriak tapatzeko egon nintzen, auskalo zer sinplezia asmatu behar zuen Soterok.

«Baina zenbat adreilu paratu ditik aitasantuak?».

Galdara presiorik gabe dago, makinako pistoiak geldirik daude, urrunera beha zaude blakura atzemateko ahaleginean eta halakorik batean ohartzen zara ez dituzula bagen plastakoak entzuten kostaduan, kaioen txilio urruna sumatzen duzu bakarrik soinuezaren handiaz jabetzeko: itsasoa oliotu egiten denean bezalako isiltasun hori plazan, galerna zetorren. Soterori beha gelditu ginen denok. Zirkulua egina zioten ingurukoek, «Hau izan da!» adierazi nahirik. Galdera ona zen hala ere, baina erantzuna hobeia izan zen, misionista hark honela erantzun zion hitzetik hortzera, lasai, isiltasun hartan mailuka ematen zigula zirudien.

«Ez dakit zehatz, baina... Stalinek adina bai!».

Plazako guztiak karkaila handitan hasi ziren, bertsolaritan geundela ematen zuen. Eta mailu ukaldi bana gure buruan karkailako.

«Beste galderarik?».

Sotero marmarka gelditu zen bere bazterrean, ingurukoei zema txipiena egiteko gauza ez zela. Huraxe zen adostua genuena obratzeko momentua, entzun lagunok, gu arrantzaleak gara, itsasoko nekazariak gara gu, eta beti galdetzen diogu geure buruari itsasoa denona baldin bada zergatik ez den lurra denona, horrela hasi behar genuen, itsasoan libre daukagu larre osoa, zergatik langak eta itxiturak lurrean, mundua denon baratze handia da, ken ditzagun hesiak eta txarrantxak, itsasoa arrantzaleena, lurra nekazariena. Nik uste nuen abante eginen zuela Florenen haizearen barrura, orduantxe entzunen genuela bere ahots mehe barnagarria, baina burumakur zegoen, jotako toilaren antzera gelditu ginen denok, eta aldamenean nituenak beha hasi ote zitzaizkidan, nor dugu hau, zergatik ez du barre egiten... Ederrak geunden gu apezari pulpitua kentzeko! Beharrik Mao kamaradak putzura botako ditu laster, bestela euskal misionis-

tek katolikotu eginen lukete Asia osoa. Aitzolek hitz eta hitz egin zuen, eta hitz bakoitza luma berri bat zen bere hegaletan, sotana harrotu ziztzaion bizkarraren albo banatara, plaza osoa hartzeraino zabaldu zituen hegalak, itzalpe hartan gu, zakatzak gorri aingeru sindikalaren atzaparrean lotsak.

Oporrek Errepublika ahuldu eta eskuina aitzakiaz bete zutela entzun behar izan genuen Franco altxatu zelarik, eta inoiz opor egiten ez zutenek lantegietan jarraitu zuten Errepublika mendian defendatu behar zenean, pinudi batean bota zuten Josetxo zuriz gora. Lau kanoi eta hegazkinik ez, baforeetan sartuta Bilbora alde egin behar izan genuen, eta egia da ihesian ez nuela buruko minik hartu ama alargunarengana eta anaia gaztearengana, nik ile beltzak haragiaren erdian egiten duen bristada neukan orduan ere gogoan. Bokalean, moila hutsetarik urruntzen girela, «Lastima, pago horiek hor eta inguruko bele guztiak urkatu gabe alde egin beharra!» dolutu zen Sotero garabiei beha. Baina okerragoa zen fuel depositoak bere hartan uztea, putzura isurita su eman gabe. Mutrikuko horretan *Almi-*

*rante Cervera*-k laino batzuk atera zituen gu izutzeko, milia erdira erori ziren obusak.

Bilbon epelenekoek agintzen zuten, antolamendu onak zeuzkaten batzokietan, eta ongi ezkutuak Belgikatik ekarritako sutarako denak. Ez zuten herria armatu nahi, burokrazia handia gainditu behar zen pistola zorritsu bat eskuratzeko. Bi aste egin nituen hiri handi hartan nora ezik, edozelako autuak entzuten ziren, niri «ongi informatuak» zeuden lagunek esan zidaten gure portuan jendea urkatzen ari zirela, eta ikusgarri zeudela garabietan zintzilik ipinita, Soteroren temak bide egin zuen, antza. Errekisa txukun bat egiteko asmoan hartu genuen zenbait lagunek noizbait Eibarrera, kanoiak behar genituen gure baforeak artilatzeko. Gerrak halakoak ditu, jendea handik hona, urlia ikusi ote duzun, beste hura non ote dabilen, enpatxu handia bazter guztietan, halakoak ditu, gure armadorearen kontadorea iruditu zitzaidan han bertan, hogeitau pauso ez. Harritu nintzen ni ikusita ez egitea ezkutatzeraz, karlista hutsa zen oberol proletario hartan sartuta ere. Bera hurbildu zitzaidan nik eskua Astra berrian jarria neukala.

«Kaixo herri, hire bila nenbilean!».

Herriko errepublikazaleak nondik nora genbiltzan jakin nahi zuen hark, leku ederrean karlista, esandakoa, nornondari geure lerroetan.

«Motoristak behar ditiagu, eta arrantzu patroiak ere bai...».

Gure portua base hartuta ihes egindako baforeak harrapatzen hasiak ziren faxistak, Matzaku inguruan ikusten genuen *Canarias* korazatua lantzean behin. Lehorrez egiten ahal genuen zerbait, baina ingelesek destroyer bat edo beste bidaltzen ez bazuten faxistak apaltzeko galdua genuen kostaldea, itsasoan ez dago harkaitzik. Beraiena zen Ferrolgo basea, eta Eibarren kanoirik ez.

«Ama eta ongi daude...».

Neure artean, hau mehatxua duk, ordain gaizto eginen dute familietan, eta Fermintxo, maite bainuen anaia, frontera eramaneen zutela pentsatu nuen, anaia nagusia hiltzera. Ikara eman zidan inkontru hark, Astrari eztula eraginda laga behar nukeen bertan zakur hura. Baina paper azpildu mordoxka atera zuen jakatik, aste-ko partilan billeteak zenbatzen zituenean beza-

laxe atximurkatuz Falangearen bost geziak zeuzkan agiria atera zuen, huraxe irakurtzen utzi ninduen Untzaga plazaren erdian esbirro hark, nire izena makinaz joa bertan. Ezin zitzaion kemena ukatu kontadoreari, ibili behar zen orbel haiekin txisperuen artean. Orduan egin zitzaidan buruko mina, itzuli egin nintzen, familiagatik itzuli nintzen, anaiagatik itzuli nintzen, nik hiltzera eraman ez zezaten.

Haizeak pailaka makabroan dilindaka erabiliko zituen gorpuak ikusteko ustea ote nekarren? Herrira orduko burdinazko pago haietara behatuen behintzat, gerrak irudimena elikatzen du. Geldirik zeuden ia garabi denak, bitak estatxarik gabe, moilak hutsik. Ibaiaren isurgunearen alde-  
ra, gure nasatik urrun, fuel depositoen bazterrean, petroliontzi alemana faxisten tankeen hornitzaile. Ez zegoen lanik merkantzietan, baina lehen bezain luze jotzen zuen portuko erlojuaren tutuak hamabietan, eta lehen bezain hamabietan uzten zioten lanari *Palazzolo S. A.*, *Hijos de Salvador Serrats* eta *El Grumete* kontserba fabriketako neskek.

«Zer, galduta?».

Bakuninen biografia utzi behar zidan eta Florenen etxera joana nintzen, sukalde paretik pasatu ginen, atea zabalik zegoen. Belartxo beltzezko zipriztina ikusten utzi zidan beso altxatuak, eta haren distirak irmoago egin zituen bular begitanduaren harroa eta gila-hezurak bitan zatitzen zuen bizkarra. Atorra gonaren gainera askatuta ari zen lagunaren arreba harraskan galtzarbeak freskatzen. Ez nuen uste hain begiaren betekoa izan zitekeenik ilea haragian, aspaldiko irudi hura nerabilen buruan Florenen arrebaren aurpegi zurbilari beha, zer erantzun ezean.

«Badakit ez zarela traidore bat, Ziriako».

Ez dakit orduan topatu izan ez banu sekula esanen niokeen, nahi ezik irten zitzaidala esanen nuke, gerrak aldatu egiten gaitu denok.

«Zuregatik itzuli naiz, Julia».

Galdararen presioak balbulari sortzen dion gandua etorri zitzaion begietara. Lasterrari eman zion herri barrurantz lehen *Karrika Askatsuna* zioen plakak Armengod-en gaseosa fabrikaren izkinan utziak zituen lau iltze herdoilduen azpitik.



Jabedun gehienak beren denda, bulego eta atelierretan topatu nituen, baina moilan zebilena jende arrotza zen, terrestreak denak, esan haiei bereizteko arra eta emea legatzetan, gure galego guztiak errepublikaren armadan enrolatuak ziren, badakizu. Inor ez zen inorekin gelditzen hizketan, ihes egiten zioten denek elkarri, hala-ko likintasun bat soinean, itsas azpiraino hondoratzen gaitu faxismoak. Dena zegoen militarizaturik, Lizarriturriren etxean bertan fitxategia zeukaten falangistek beheko solairuan, guk buruzagitza militarra eduki genuen hartantxe. Eta oraindik ere morroi zintzoa zen eskailera ondoan zegoen marmolezko aingerutzar hura, atea zabaldutakoan itzuli erdia egiten zuen ipurdia emanek, Soteroren ahotsa etorri zitzaidan «Ohera eraman nahi hau» esanez, ozta ez nuen barrerik egin.

«Nor zara zu, zer behar duzu?».

Izena eman nuen, salbokonduktoa erakutsi nuen.

«Influentziak dauzkan gorria! Zertarako hasi ote genuen gerra?».

Damutu nintzen, atxilotu eginen nindutela etorri zitzaidan, eta hala eginen zuten patroia azaldu izan ez balitz, Don Patxi Lizarriturri, kaobazko eskailera zabal haietan behera, falangistaz jantzita. Kanpora eraman ninduen, bandera faxistak zeuden nonahi, baforeetan, sapailoetan, atelierretan, kanpandorreetan.

«Hemen gauzak baretu egin dira, Jainkoari esker. Lana badago, baina lanean dakienik ez, peska bat behar nuke».

Nik egiten ahal nuen horrenbeste, ongi ikasia nintzen zenbat brazatan dabilen arrain mota bakoitza.

«Lehen elkarri borroka ibili izan gaituk, baina orain elkar hartuta egin beharko diagu aurrera, Ziriako».

Palazionekoak eskua bizkarrean jartzea besterik ez nuen behar. Zeuzkan hirurak errekiatu genizkion, Bilbon ibiliko ziren oraindik bonbaren batek zartatu ez baldin bazituen, baina lorategiko sarreran zeuden haietarik bat baino gehiago bereak ziren segur, Frantziatik ekarriko zituzten, Chevrolet berri hura.

«Urte gogorak zatozak denontzat».

Ugazabak halakoak dira, sareari zurekin batera egiten diotela tira sinetsaraziko dizute, ontzi berean goazela denok, Elizaren doktrina soziala.

«Ez jaramon egin soinean daukadan jakari, ni ez nauk Francozalea. Horregatik deitu diat».

Agian sardinak beste aldetik erreko zirela noizbait pentsatzen zuen Don Patxik, horrela esaten zioten herrian. Ingelesek desenbarkoa eginen zutela entzuten zen Bilbon, bi alderditara jokatu nahi zuela iruditu zitzaidan, nik ezeren ahalmenik baneuka bezala.

«Tira, horregatik eta hik badakialako arrantzan».

«Barkatu, baina... Hauek mobilizatu eginen naute».

«Ez haute mobilizatuko arrantzan habilela, sektore estrategikoa diagu. Hitz egina nagok goi samarrean».

«Hamahiru urteko anaia daukat...».

«Etor hadi berarekin bihar».

Portuko antolamendu guztietan faxistak ziren nagusi, eraman egin behar zuen hura txintik esan ezinda *Avance Marino* sindikatukoa izan zen batek. Jakin zuten, sekula ez da falta belarri-

ra egiten duenik, edozein egunetan entzuten ahal nuen «Badago jende ausarta pistola eskuan daukala besteak oporrera behartzeko, baina gerra etorrita ederki ezkutatzen da!» edo «Gure mutilak frontean hiltzen eta gorriak gure artean lasai bizitzea ere!». Eta deus esaten ez zutenetarik askotxok pentsatuko zuten, ni orduan horrela ikusita, patronalaren zerbitzuko probokatzaile ibili nintzela moilan justizia banatzen genuen urte haietan. Ez nintzen tabernetan sartzen, deskarga amaitutakoan baforean gelditzen nintzen makinistarekin kofradiara joan gabe gosaritarara. Adinean sartua genuen Piñeiro, isila zen eta maite zuen bere lana. Sortida egin baino ordu bete lehenago ontziratzen zen hura beti, bezperan dena prest utzitakoa berriro ikuskatzen, labariarekin. Baina orain esanen nuke Julia moilan edo karrikan ez topatzeagatik egoten nintzela barruan tretza eta tresmaila guztiak arakatzen.

«Zer, Piñeiro, noiz ikasi behar duzue galegoek euskaraz?».

«Ez zagok soldatarik...!».

Horretan hasi eta ez oso gerora, hiru partila edo, gerrak bakarrik sortzen dakien horietarikoa

gertatu zitzaidan. Bai, hiru aste izanen ziren, urriaren erdialdera dena dela, hogeita hama-seian, jakina. Iluntzen hasia zen, harikoak oraindik indarrik ez daukan ordu hori, hildakoren bat balekarte moduan arribadako tutua jo eta jo. Lehenik *Alcázar de Toledo* sartu zen, berez *Onena* genuen hura, kostazain bilakatua, jende mordoa zekarrela kubertan, denak gizonezkoak eta kalekoz. Haren uberan *Galerna* bakailaontzia zetorren, lehortegien flotakoa, bandera faxistarekin. Errepublikaren korreoa egiten zuen ontzi hark, Bilbon ikusia nuen, handik Baionarakoa lotzen zuen. Umeak eta emakumezkoak zekartzan kubertan, negarrez, zenbait erreketek zainduta. Gure ondoan atrakatu zuen *Alcázar de Toledo*-k, bibaka eta mueraka zetozen erreketek, fusilak sagarrondoaren adarrak balira bezala inarros-ten. Itsasgora genuen, moilara jauzi eraginda atera zituzten atxilotu haiek denak Manzisidor buzoaren biltegi aitzinean, *Galerna*-n zihoazen pasaiariak izan behar zuten. Nik hain ongi ezagutzen nuen *Virgen de Icíar* heldu zen ondotik, aurreko mastan Kristo gurutzifikatu erraldoia zekarrela. *Onena* bezalaxe Lizarriturrik «armada libe-

ratzaileari» egindako oparia zen. Hari beha nengoela *Denis* heldu zen abarretik, Ferrolgo base-tik ekarria zuten gurera. Hiru traineruk harrapatu zeroi handia. Lehorreratu zireneko bultzaka eta mehatxuka hasi ziren atxilotuei falangistak, mozkortuta zeudela ematen zuen. Txopako sare meten artean kukutu nintzen, Piñeiro eta makinista kubertapean gorde ziren nonbait. Atxilotuetarik bat erori egin zen, falangistek ostikoz jota. Altxatzerakoan belauniko gelditu zen, eta aitaren egin zuen, argi ahularen konoan ikusi nuen. Izututa gelditu nintzen atalo aurpegi hura ezagututa. Gero, zutik, gainerakoan antzera *Cara al Sol* kantari ekin behar izan zion tiroka irakatsiko ez bazioten. Neuk ikusia, bai jauna, Aitzol abertzale euskotar arraio hura Espainiako falangisten himnoa kantari gure portuko moilan, hegal atrofiatu hautsia haren beso luzatua. Eta ezin izan nuen gorrotatu.

Ez naiz hasiko orain Aitzolen azkena kontatzeko, jakinekotzat uzten dizut.

Biharamunean kapturaren berria zetorren prentsan, «arrain handiak» erori zirela, eta «egoskorak beratzeke moduko zigorra» espero

zutela. Aitzolen fusilamendua aldeaz aurretik erabakia zen, eta hala ere hiru hilabete eduki zuten hilduratzen gure bele madarikatu hura. Zenbaitetan pentsatu izan dut aurrea hartu zigutela faxistek, gerran gertatu ohi dira halakoak, etsaiak hiltzen duela zuk aldean daukazun gorrotagarri hura, gerretan etsaia baita aukeratzen den gauza bakarra, laguna ez da aukeratzen ahal, etsaiak elkartu ditu Stalin eta Churchill, gu eta Aitzol. Baina berehala goratzen zait akordura Florenen esana, bestelako moduak erabili behar zirela aurkari politikoak akabatzeko. Faxistek ez zuten asmatu: bizia kendu zioten, baina ezin izan zuten akabatu. Gorrotoa bideratzeko modu okerra erabili zuten, guk bizirik utzi behar genuen, Soterok ez zukeen torturatuko txikita lepoan lotu behar zion inor. Arrazoia zuen Florenek, orain Aitzol, Don Patxi eta haren sardakoen burumutila zena, euskaldun guztion martiria dugu hilik, izugarria da.

Horregatik durduzatu nau hain latz zortzi urte geroago tuberkuloso gizajo batek gaur bertan esan didanak.

Eta egin duenak.

Legearen ostean ibiltzeak horrelakoak dakartzaz, ezagutu behar ez duzun jendea ezagutzen duzu, ez dakizu nork galduko zaituen eta beldurrak bizi zara zenbat galduko dituzun zuk, legearen ostean dabilena sarean bilduko dutelako goiz edo berandu. Sasian, gerran bezala, inork ez du aukeratzen ahal laguna, etsaiak agintzen du norengana, nor hartu beharko duzun aliatu taktiko, edo zeinen ondoan egin beharko dituzun bi, zazpi, hamabi, hogeitaz. Aurten hauteskunde sindikalak antolatu zituzten, sindikatu bertikalerako hauteskundeak, demokrazia itxurako gauza nardagarria, armadoreek eta gobernadore zibilak lema eramanez duten Itsasoaren Kontseilua izeneko batzordean hiru ordezkari hautatzeko, lehorrekoek eta saregileek bat, motoristek eta labariek beste bat, arrantzaleek azkena. Zuek mareajera irten eta hilabetera, orduko kontuak. Zerbait egin beharra zegoen, beti baitago gauzak barrutik aldatu litezkeelakoan edozein gezur hauspotzeko prest dagoenik, eta bestetik aukera polita zen hura Francoren aurka zalaparta ateratzeko. Hartu arrain ustel puskak otarre zaharretan eta portuko bazter guztietan



kokatu genituen, ederra kiratsa eguzkitan, «Bota hemen zure botoa» zioen txarteltxo banarekin. Norbaitek galdu nau, oraindik ez dakit nork, bakarra atxilotu zuten eta hura neu. Aurreneko aldia nuen, ez ninduten gogorregi zanpatu, kuartelilloan berriro entzun nuen «influentziak» neuzkala, Lizarriturrik dei eginen zion gobernadoreari, langile ona nintzela, sekula oporra jotzen ez zuten haiek adinakoa bai noski. Astindu batzuk emanda Ondarretara ekarri ninduten, epaiketaren zain nago.

- Hori duk Aitzol torturatu zuena!

Eta HidaIgorengana egin du kokotsarekin tuberkulosoak, bigarren galeriakoak begipean gauzkan funtzionario buruzuriarengana. Laztu nau, esan dizut.

- Nola dakik?

Bere istorioa kontatzeari ekin dio hitzen hodian daukan pasabide meharretik nola edo hala: apolitikoak ziren etxean, baina bazuten miliziano zaurituak sendatu izan zituen osaba medikua, horregatik atxilotu zuten, haren klinikako txoferra zelako, hemeretzi urte berak orduan, ireki dute ziegako atea gauean, esan dute bere abize-

na, irteteko, «fusilatzer, badakik», presondegi-  
tik atera baino lehen kaperara daramate, han  
zen presondegiko apez, Urriza, presoak konfe-  
satzen ari, «gu baino izutuago zegoan hura», eta  
txapelokerrak patioan zain, gauerokoa, jendea  
Hernaniko hilerrira eramane eta beruna emateko,  
«osaba zegoan kaperan», hark eskatuta deitu  
omen zioten, azken borondatea ilobarekin hitz  
egitea, «larruzko berokia zeukan, medikuek  
dirua ditek», huraxe eman nahi izan zion,  
«negua hotza zatorrek» esane omen zion osabak,  
«eta orduan ikusi nian Aitzol», aurpegi osoa han-  
ditua, maspildua, eskuineko begia hutsik, «Hi-  
dalgo izan duk» esane ahal izan zion osabak aha-  
petik, «Hidalgok saltarazi zioke begia, nire au-  
rrean, hiru gintuan, izutzeko...», haren garrasiak  
entzunak zirela aste hartan, «presondegi osoan  
entzuten ziren haren lantuak», goiko galeriako  
ziegetan zeukatela, han zanpatu zutela. Eta on-  
dotik, alegia Aitzolen torturatzaila hemen ber-  
tan edukitzea deus ez balitz bezala, «Oso negu  
gogorra izan zuan hogeita hamaseikoa, hemen  
hezetasun handia zaukaagu neguan, ikusiko  
duk», orduan harrapatu omen zuen petxuko hau,

eta ez «eritegiko monjek dioten moduan» zurru-  
tean galduta dabilelako.

- Giltza ingeles batekin jota lehertu zioan  
begia.

Gizajo hau gainetik ezin kendurik ibili naiz  
gaur arte, beti neukan aldean lapa eginda. Buru-  
ra etorri zitzaidan ez ote zuen mendeku hartu  
nahi hiru eguneko higiealdia beteta ziegatik  
atera nindutenean bertan egin nuenagatik. «Zu  
halako ziegan», gauzak hartu eta giltzeroaren  
atzetik. Sartzen naiz, beste bi preso han, «Egun  
on, Ziriako naiz, preso politikoa honegatik eta  
horregatik». Ez nuen eskainia zidaten zigarroa  
piztu, non azaltzen den gizajo hori eztulka, lan-  
basa eskuetan. Garbitzen du ziega, ematen diote  
nire lagunek txanpon bana eta han doala oster  
lanbasaren giderra baino estuagoko bularrarekin  
hurrengo ziegara.

«Zuek, neskamearekin bizi behar duzue kar-  
tzelan ere?».

Badakizu kosta txarrak botatako sareak dena  
harrapatzen duela, arrosela eta kolaioa. Jakin  
nahi nuke zergatik dauden morroilope bi mozolo  
horiek.

«Ongi zetorkiok txanpon batzuk biltzea, ez zaukak inor kanpoan!».

Mezetara jaisten dira igandeetan nire ziega-kide izanak. Orain bakarrera aldatu naute, eta hobe.

«Ez kezkatu horregatik, bilatuko zioat nik lana, saregin ez bada labari. Baina ziega ziega-koek garbituko diagu gaurdanik».

Biltzarra egin genuen biharamunean, patioan bertan. Hemen badago jende ona, dena ez da kabuxa. Politikoen kolektiboak ez zuen beste presoen lan-indarra erosiko, ez ziegan lanbasa pasatzeko ez galeria baldekatzeko ez arropa zikina garbitzeko. Elkartasun kutxa bat egingen da jakiarekin eta diruarekin. Garaipen handia izan da hau, data historikoa Ondarretako kartzelan, Aitzolen zainekoek gabonila esaten dioten abenduaren zazpia apuntatu nahi baduzu, 1944 honetan. Baina gizajo hau ez dago konforme gaixo dagoelako ematen diogun tokamenarekin, nahiago luke ziegaz ziega hari tabakoa kendu, honi saldu, denen jaki hondarrak batu... merkataritza izorratu diogu, eta kontuak jakitea eragotzi. Horregatik ez ote dabilen mendeku bila.

- Hogeita lau sartu-aldi zauzkaat.
- Arrain motela haizelako.

Eta nire laztura areagotzeko, inoizko itoenean:

- Torturatzaile hori akabatzeko ematen dut atxilo, baina gero hemen ez diat lortzen... Laguniezadak, konpañño!

Salataria ez ezik, probokatzailea ere izan zitekeela pentsatu dut, neure burua lasaitzeko.

- Laster hartuko dik bere punizioa esbirro horrek, kamarada. Alemanak erretiran ari dituk Errusiatik.

Ez daki Radio Mosku entzun litekeela. Kerrua etorri zaio, albora behatu dut zapi zikina atera duenean.

- Stalin kamaradak Atlantikoraino hedatuko dik laster armada gorria, eta berdin haizatuko ditik bele katolikoak eta arrano faxistak.

Bazkalondoan Hialgorekin ikusi dut solasean hiltzaile frustratu hau preso komunen patioko sarreran, nabarmenegi agerian funtzionarioen menpeko probokatzailea izateko. Niregana etorri da harekikoa amaitutakoan, ekonomatoko ilaran nengoen.

- Ikusi duk, inoiz baino hurbilago eduki diat... Burdina atera eta sastakada ematea besterik ez neukaan... Baina ez zakiat zer gertatzen zaidan, inurriak hartzen naik.

Kafea ordaindu diot, gure patiora hurbildu gara.

- Gizon horrek torturatu eginen nindukeela hilda gero ere, horixe pentsatzen diat... Aitzolen aurpegia zatorkidak gogora, dena maspildua, eskuineko begia hutsik, kaperan ikusi nuen moduan.

- Entzun ezak, karamada, Aitzolek ez dik me-rezi. Mendeka ezak heure osaba, ez bele hura.

- Ez zaidak axola apeza izatea... Nik torturatu bat ikusi nian, ez duk ulertzen?

Floren behar dut nik gaur hemen, moilan ikusi nuen aingeru erori hura nola gorrotatu behar dudan jakin nahi nuke. Baina Floren makinan dabil Frantzian, hura bai.

- Hogeia pausoa daukagun morroi horrek torturatua.

Politikook arratsaldean genuen ile-moztea, dei egin digute eta bakarrik utzi dut tuberkulo-soa patioko paretan usteltzen. Ilaran geundela,

luze gabe, garrasia entzun dugu, funtzionarioen txistuak ondotik. Lasterka irten gara denok.

Hidalgok lepoan zeukan eskua, odoletan zen.

Bi funtzionariok zeramaten nire adiskidea tarapatan.

Belaunak tolesturik makurtu da Hidalgo, eta lurrean zegoen sukaldeko labana handi gorritua jaso du. Ziegetara igotzeko agindu digu hura eskuan zeukala, eta esana egin dugu denok mutu. Ez du bajarik hartu, gaueko txandan azaldu da ostera lepoa bildu zuriak apainduta, sekula baino zorrotzago zenbaketa egitera etorri denean.

«Zer ote dakik hik nitaz...».

Horixe galdetuko balida bezala behatu dit, askotan ikusi izan nau bere hiltzailea izan nahi zuen lekukoarekin hizketan, eta izutu egin nauk, anaia. Inori begia kentzeko mokoak zaukak arranoak. Horregatik idazten diat, Fermintxo, matxina hadi, utz ezak Ternuako arrantza bertan behera, laja itzak sareak putzuan, egik total abator, jo ezak La Rochellera, bila ezak Floren, hor non-bait ibili behar dik, basoan dik hark gordelekua, ezagutuko hau, Ziriakoren korazta bera daukaa-la esaten ditek denek, Frantzia handia duk baina

ibai guztiak ditik nabigagarri eta hi pilotu onena haiz, galdegiok anaia, Hidalgo honi bizia kentzea zaila zagok eta eskaioak esateko nola akaba litekeen bederenik, baina lehenbailehen ordea, gaua latz zatorrek, har ezak ongi gogoan Florenen esana, alferrik duk konprenitzen saiatzea, esaldi harrigarriren bat botako dik eta hik ez daukak eskarmenturik politikan, egon, garrasi larriak sumatzen ditiat zigor ziegetarik, tuberkuloso torturapean, *Cara al Sol* ari duk kantari, laster zabalduko ditek atea, hemen ez zagok graziako tirorik, hemen torturatu egiten ditek fusilata gero ere, kaperara aterako naitek eta nik ez diat torturatu bat ikusi nahi, ez zaidak ardura zer esan nahiko didan gizajo horrek hil aurretik, ez diat ikusi nahi garabitik zintzilik giltza ingelesa behatzetan estutua, gurutza ezak Atlantikoa gau honetan bertan Fermintxo, paper hauek hire eskura iristerako berandu izanen duk eta, ez diat ikusi nahi begia lurrean kerru, esaiok Juliari hurrengo bisitan azaltzen ez banaiz... Ile beltzak egiten duen bristada, bai, horretaz pentsatu behar dut gau osoan, heriotzatu behar dituzte-



nek horixe besterik ez omen zukatek gogoan,  
ile bustiaren zuzia haragi zurian.

# Sua nahi, Mr. Churchill?

Ziburuko barratik milia erdi aitzina urrunduak zeuden bafore biak, azken tutua entzun nuela esanen nuke. Ni ordurako ongixko gogait egina nengoen adio eta adiorik ez guztiez, nahita heldu nintzen belu nasara. Hau anderoek daramatela, horrek lehorrean gelditu behar duela, hurrengo Landetara doala lanera, bizitza erdia despedidatan, balek edo morteroek lehertutakoak kontuan hartu gabe. Eta alabaina, hik badakik hiltzen ari dena despeditzen? Ikasten baduk, abisa iezadak. Niretako, ontzitxo haietan zihoa-zen hirurogei zoroek urpean amaitu behar zuten La Guaira jo baino zatiaz lehenago, hiltzen hasiak ziren. Zerraldo handi bana uraren gainean, zer ziren ontzi haiek. Horregatik berandu. *Euzko Gudariak* kantatzeari ekin zioten, Andoni Olabe soinulari zutela. Malkotan zeuden gehienak, egun argiko itsasoratzea musika eta guzti, okaztagarria. Bazen han goi samarreko jendea, bada-kik, herri-aldezleak. Itzuli ginelarik, hedexuriak ikusi genituen. Guri pausoak hartu beste beha-

rrik ez zeukaten haiek. Baita egunonak eman ere ondotik iraganik, hipokrita ez bestea. Hedexur-riak, jendarmak. Bidean, Agintaritzako Urbieta jaunak zeraman Andoni besotik helduta bazter samar, auzi sakonen bat zerabilten. Ez naiz oroi-tzen non bazkaldu genuen, sarda polita bildu gi-nela bai, eta gero, berak jo eta jendeak dantza egiten zuela, «Chamberlain horri adarra jotera joan behar ei juagu!» esan zidan belarrira, eta zenbait asteren buruan, nik ez nekien putz egi-ten ez eragiten baina, musikari plantan azaldu nintzen Bristol-en Andoni Olabe lagun nuela edo, zuzen esanda, haren uberan. Gauez ontziratuta eta bokalea argiak amata eginda iraganez, bene-tako itsasoratzeak egiten diren gisan. Desdepida barik, horixe. Handik Londonera joan ginen tre-nez erdi gordean, paperak eman behar zizkigu-ten Euzko Etxean. Urte bi atzerago Lekeition utzia genuen Periko Beitia zegoen idazkari. Ka-pelua buruan, krabata saman, zulo bi aurrerago lotutako gerrikoa gilborrean, lanak ezagutzeko. Beitiak bazekien ni ez nintzela musikaria, baina laguntzaile hartu ninduen umeak hara eta hona ibiltzeko, jaialdi ederrak eman genituen London,

Halifax, Newcastle-n... Folkstone-n handiena. Andonik berdin jotzen zuen txistua, atabala, eskusoinua... elementu gaitza zen, ez batek edo bik, askok esanen lizukete pozarren joan izan gina frontera haren hotsean. Eduki zuten eragirik dantza-erakutsi haiek inglandarren artean, kontzientzia txarra arintzen laguntzen zien guri penny ale batzuk emateak, inbasoreak etxetik kasatu duenarekiko elkartasun horrek. Euskal haurrak aterpetzeko batzordeak sortu zituzten lord eta lady guztiek, kiroltasun handiz txalotzen zuten gureen footballa beren umeen aurka jokatzen zutenean, zelako esku-zartak ezpatadantza dantzatzen zutenean! Francori bular egin geniolako susmo txarreko gorritzat hartzen gintuztenok kristau maitagarri bihurtu ginen guda galdu genuenez geroztik. Sinetsiez iezadak laborista inglandarra ez dela iristen Bermeoko sabindarrenaren hankapera paxismoari aurre egiteko tenorean. Argazki mordoa argitaratu zituzten izparringietan, baina bigarren mailako horietan, *Daily Sketch*, *Western Mail* eta antzekoetan, *Times*-ek bazeukan besterik zertaz. Umeen erdian ageri zen batean nire laguna.

«Hitlerrek kapela kenduko detsa laster Chamberlain horri!».

Halakoa zen Andoni Olabek nazioarteko politikaz zeukan ideia, halakoa zen etorriko ziren egunei buruz egiten zuen juzkua, London sutan eta Chamberlain zaharra Alemaniako harrobi batean pikotxaka. Eta nik ez nuke esanen besteok huraxe nahi ez genuenik. Egik kontu 1939ko martxoan geundela, Espainiako liskarraren azkenak artean, baina Inghlandek errekonozitua zeukan jadanik Francoren gobernua, uste baitzuen Gibraltar-i eginen ziola osterantzean eraso, doixtarren laguntzarekin. Hura ezin genuen inork eraman, egia esan. Baina isilik egon behar, ez genuen denok Andoniren umorea. Horregatik hasi zen inglandera lardaskatzen, iragarkizun hura zelan edo halan adierazten zuela, «Soon, soon, Mr. Chamberlain kapela lose!». Seta hori hartua zeukan, hankapean ikusi nahi zituen Euzkadi galtzen utzia zuten aliatuen hiriburu guztiak eta, esan diat, anitz euskaldun ginen ados.

*Ganduak baldin badu zarratzen portua  
Alferrik joko digu ezkilak ordua*

*Zuregandik urrutin aukate lotua*  
*Zuregana lotzeko nintzena sortua*

Izugarri doinu sentimentala zen, Intxuzabali ikasia omen zuen Petratxarrirenean. Neuk moldatu nizkion koplak, berak gaia emanda, Londongo egun lanbro haietan. Petratxarrirenea, gauez abaorreko argia pizten duten etxe horietarik bat, Zezenkaleko dantzalekua, Eibarren. Erromeria antolatzen zuten mandio eta arboldegi guztiak ezagutzen zituen Andoni Olabek, behin baino gehiagotan izanen zen soinurik gabe jotakoa. Gaitza zen hari barruko kirkila ateratzen, baina segurutik joko nuke nik hori, meta ostean edo pinudian edo artadian jarduna zela behin baino gehiagotan, gu ez bezala. Horregatik zen harrigarria emakume hark burua galdu eragitea, Cecilia Bolton-ek ezinegon batean zeukan, Lekeition, Ziburun eta Londonen. Zenbat ibili ez ote genituen egin Tamisa bazterreko kaietan gora eta behera, *Seven Seas Spray* non ote zebilen galdezka! Azkenean egin behar ez genuena egin genuen, etxe kontsignatzaileetan hasi ginen peskizan ontzia non zegoen. Eta atxilotu egin

gintuzten. Bilbon ezagutu genuena baino psikosi handiagoa zeukaten Londonen espioitzaren kontu horrekin. Maleta zabalarazi zioten karrikan bertan, baina ez zioten Paolo Soprani gorrail hura ateratzen utzi, komisaldegira biok. Espainiera andaluz doinuan egiten zuen morroia ekarri zuten gerogarrenera, Euzko Etxera deitzeko esan nion. Aita Olaso etorri zitzaigun bila, arrain handiak ginela usteko zuten gure herri-aldezleek. Libre utzi gintuzten, eta Chelseako komisaldegia nagusitik hurre samar zegoen garagardotegi handian bildu ginen hirurok, ospatzeko. Laster *La Voz de Londres* irratian euskaldunok saioa edukiko genuela astero jakinarazi zigun, «Txistulariak badauzkagu, baina soinuulerik ez!». Nik bertsotan banekiela, Andonik. Ez zen egia, orain bezain motela nintzen garai hartan. Baina ez zutela bertsolaririk behar esan zuen abadeak. Aita Olaso, Alberto de Onaindia, Jose Antonio Agirre-ren idazkari ibili izan zena. Gero, labaostekoz betetako Bilbo hartan bageunde lez, burua edalontzirantz makurtu eta Inghandek guda deklaratu beste irtenbiderik ez zeukala esan zigun, Hitler Frantzian sartua zenez.

«Horretarako jarri dute Mr. Churchill lehen ministro».

Eta ume batek moduan abadea «Zergatik? Zergatik esaten duzu hori?» esatera behartu zuen hura bota zuen orduan Andonik, Chamberlainen kapela ahaztuta:

«Bai, edukiko dau laster Churchill horrek zigarroa non ixotu!».

Euzko Etxeraino lagundu genion On Albertori. Han jakin genuen *Bigarrena* eta *Donibane* esateko okerrik gabe iritsiak zirela Venezuelara. «Eta zuek, zergatik ez zineten ontziratu?». Galdera da gero! Ni marinela nintzen, ez arrantzalea, itsasoko biztanlea nintzen eta guda osoan lehorrez ibili behar izan nuen. Trena hartzeko gisan ontziratzen da baforean arrantzalea, etxetik lanera eta lanetik etxera ibiltzeko. Marinelak baforea bera du etxe, hartan bizi da. Venezuelako Arrantza Flota sortzea interesgarria zen armadoreendako, koipea aterako zioten gure exilioari. Baina mari-nela ez duk arrantzalea, ontzian nahi genuelako ez ginen ontziratu. Galdetu egin behar hori guri, Londonen bizitzeko eskubiderik ez bagenu legez. Hala pentsatu izan nuen, aukera ematen ziguten



horretarako, ez ote genuen eskubiderik. Ni? Eza-  
gutzen duk London? Sohoko etxe ilun batean,  
sukaldari. Abaorreko argia, bai. Madamarekin jo-  
aten nintzen merkatukoak erostera, eta ikusten  
nindutenek uste okerra egin zuten. Hori musika-  
riek, artistek. Lepoa baietz Andonik artadikoan  
jardun Londonen erdian, bihotza Cecilia Boltonek  
ebatsia zion arren.

Nik ontzian nahi nuen, berdin zitzaidan *Seven Seas Spray* edo beste edozein, marinela ez daki  
deus egiten lehorrean. Andonik tabernetan eta  
karriketan jotzen ahal zuen, baina berak ere itsa-  
sora behar zuela, gustatu egin. Lehorrean gauza  
mordoak jaten dio astia artistari, itsasoan berriz  
ez dauka aterpearen ez otorduaren ardurarik,  
eta berehala harrapatu zuen estimu handian zu-  
tela denek musikaria baforeetan. Ez zitzaigun  
axola berak lanik ez eginagatik, enparauek egi-  
nen genuen haren ordezkoa zinezko musika en-  
tzute alde, makinaren monotoniak erotu egiten  
zuen jendea. Kapitainek berriz zer nahiago, mu-  
sikarekin eskifaia lasai, frontera ere horrela ero-  
aten gintuen Andonik, pozarren eta kantari. Hi-  
tlerrek erraztu egin zigun kontratazioa. Inglan-

dek guda deklaratu behar izan zion, Aita Olasok esana zigun bezala. Hura Andoniren poza, Big Ben ketan. Erraztu, ba jendeak beldurra hartu zuelako, doixtar itsaspekoak lanean hasiak ziren berehala eta inork ez zuen ontziratu gura, demanda handia zegoen. Hamar-hamabi lagun baforeko, horrela zebilen kontua berrogei tostarteko behar zituzten zamakoetan, beldurra. Espainian egin zuena egiten lagata bibotemotza aseko zela uste zuten ala? Arazo barik hartzen zuten jendea. Ni bafore banatan ontziratzearen aldekoa nintzen. Aneika aldiz esan nion guda bat elkarrekin eginda bizirik urtetea nahikoa xantza zela, ez zela posible bigarren batetik biok onik ateratzea.

«Isilik egon hadi, hiltzen bahabe nork joko jeuk soinua entierroan?».

«Eskertua zagok aurretik, baina gerta zitekek heu hiltzea, eta ez ni!».

«Ba orduan be aldean beharko haut, nori lagako jetsat bestela soinua?».

Egin behar izaten dugula hitz...! Mina jotakotan ez ginen bata baino bestea beranduago honoratuko. Ongi ordaintzen zuten, bai. Baina ba-

dakik ontziak portuan pintatzen direla, ez itsas zabalean. Ba bazterra ikusten ez genuela hasi ginen gu ontziaren kaskoa berde zuri laranjaz apaintzen. Horretan ari nintzela kareletik dindilizka, izardunen arteko hitzaspertua atzeman nuen estiborreko erdialdean, zubipean.

«Uste duzu irlandarrek neutral jarraituko dutela?».

«Aurreko gudaldian doixtarren laguntza eduki zuten guri zafraldiak emateko. Zor diete zerbait».

«Horregatik, William. Nazien alde jarriko dira mozkor horiek».

Irlandar bandera erraldoi bana ari ginen margotzen, beraz, ontziaren saihetsetan. Ederto, kaietan ibil zitezkeen espiek halako egunean irten behar zuen zamako inglandarraren izena ematen zuten, eta gero doixtarrek irlandarra besterik ez zuten ikusiko itsaso zabalean. Horrek balio du behin egiteko, baina naziek ez zuten sobera gogor pentsatu beharko Mantxan barrena bandera neutraleko ontzi larregi zebilela ohar emateko. Eta zura eta gatza ez dira kaxetan ga-

rraiatzen, neuk ikusia kaxak zamatzen, Tilburyko kai berrian.

«O'Hara horiek ez dute halakorik eginen, badakite Inghlandek beren errepublikatxoa kenduko diela txarto portatzen badira... Supiztekorik bai, Larry?».

Noizbait jaso gintuzten kubertara, eta Andonik «Sartu gaittuk barriro be...!», ontziaren izena aldatzen edukia zuten, *Irish Pride* ginen orain. Amorratua zegoen, ez zioten jotzen uzten, «Zer ontzi klasera ekarri najok?». Barregarria zen zinez, hik uste duk hidrofonoek hogeit mila tonako zamakoaren makinarena baino lehenago atrapako dutela eskusoinuaren hotsa? Diziplina atxikitzeko eginen zuten hori, Petratarrirenean ez geundela oroitarazteko.

*Aspaldi ez naiz laketzen*

*Dantzako hotsean*

*Neure herritik urrun*

*Nabil arrotzean*

*Uhainek zakar dute*

*Jotzen bihotzean*

Urдин betean eta kalmatan agertu zitzaigun, ez zeukan beldur handirik ehizakoren bat jausiko ote zitzaion hodei ostetik buru gainera. Ez nuen espero ikusterik, eta nik ikusi egin itsaspeko bat azaleratzen neure mutur aurrean. Laztu egin ninduen, zergatik gorde. Iceberg beltz txikerra, baina zehaztasunez eta bezuza gogorrez betea. Eastbourne urrun utzia genuen estiborretik, Brighton parean izanen ginen. Jaurtitzen genuen lurrinagatik gintuzten atrapa noski, mastak baino lehen ikusten da kea, alferrik duk sigisagan itsaskatzea. Eskotilak zabaldu zituzten, zubi aurreko kanoia noratu ziguten. Kapitainak maliobra agindu zuen, aborra eman genion, gure ikurrin erraldoia ikus zezan, edo tiroa huts egitea nahi ez bagenu legez, edo branka kostarantz emanda ihes egin nahian.

«Irlanda inglandarrak salbatzen!».

«Zer diok, eusko?».

Ontsa konprenitu zuten orduan nire inglanderra, barre egin zuen norbaitek atzean. Irlandarretarikoren batek, bagenituen hiru eskifaian. Itsaspekoak ez zuen tirabira handirik egin, erretroze-so gutikoa zen kanoia. Horixe ikusten gelditu

ginen, putz lehor hura eta ontzi beltz haren kulunka gozoa. Telegrafiako torreta birrindu ziguten. Ez ote zeukaten torpedorik? Ez al zuten ontzia hondoratu nahi? Ez nuen konprenitzen doixtarren jokamoldea, ez inglandarrena. Nik uste nuen berehala azaldu behar zuela kanoiak lainoa ateratzen gure portiloren batetik, horretarako egin genuela hamazazpigarren mendeko galeoiaren maliobra, halako maukarik, ez da begi bistan edukitzen itsaspeko bat marea guztietan, ez duk sutunpa handirik behar, itsaspekoa ahula duk azalean, eta hura zegoen moduan, izardunak zubian, eskotilak zabal, lotua baino lotuago.

Doixtar komandanteak bozina hartu zuen eskuan, kapelu zuriagatik ezagutu genuen komandantea zela, gainerako izardunek blua janzten zuten. Eta gero inglandarrak bafore-tranpak ugaritzen hasi zirenean erabiliko ez zuten jendetasuna azaldu zuen orduan, «Abandon ship!» manatu zigun. «Gernikan horrelaxe egin ziguten!», Andonik inglandarrei, «Gernikan horrelaxe egin ziguten!», ez zien onik egin behar, besteok txalupa erriatzen eta Andoni «Gernikan horrelaxe egin ziguten!» atertu ezinik eskifaiari zainak ai-

ratzen, bera Gernikan egon balitz moduan. Eta inork adorerik ez erantzuteko, mokoa josi zezala agintzeko.

«Txakurra ontzian gelditu zaigu!».

Arineketan igan zen eskalan gora atzera Olabe.

«Nora hoa barren!».

Baina karel ostean ezkutatu zitzaigun. Txikotekoa estutu nuen, badaezpada.

«Hamahiru urte ditu, beti gurekin ibili da...» komentatu zuen kapitainak, desenkusatu egin nahi zuen, berak ez zion Andoniri deus agindu ordea. Luze gabe azaldu zen barriro, kolkoa hutsik eta maleta bizkarrean.

«Ez du etorri nahi!».

Arraunean hasi ginen itsaspekorantz, baina gure baforerako tiro lerrotik aldenduta.

«Ontziarekin hondoratu nahi du!».

Entzun behar zaio hori ontziburuari...! Ez nion behakoaren grazia eskaini, antojugarriak ziren Tommi haiek guztiak, baina izardun haietarik bati, Williami edo Larryri, begia kendu barik egin nuen berba.

«Benetako kapitainaren gisan!».

Bizkarra emanda zegoen morroia, itsaspeko-  
ra buruz.

«Irlandarrak gara!».

Hori bera esateko kopeta eduki zuen, kopeta  
edo bururik eza.

«Gureak egin dik!» egin nion euskaraz Ando-  
niri.

«Inglandar agente bat daukazue zeuen ar-  
tean».

Ez entzuna egin zuen gure kapitainak, ikasi-  
tako bertsoa kantatzen jarraitu zuen.

«Irish abertzaleak gara denok!».

Labariak paneletara behatzen zuen, kokotsa  
bularrean iltzatuta. Rajastangoa zen kedarra  
kenduko baliote ere.

«Telegrafistak SOS bat igorri du gure posizioa  
emanez».

«Telegrafistak?».

Guregana egin zuen kapitainak. Izerditan  
zen. Ontziburu ona zela erakutsi zuen orduan,  
atzamarra noratu zuen *Irish Pride* faltsu haren-  
gana.

«Ez dago txalupan! Barruan gelditu da urde-  
kumea!».



Uste baino maizago gertatzen dira halakoak, gudak absurdoak direla esaten du anitz jendeak, baina hori humanistek zabaldu duten leloa da, guda absurdoa da absurdo mordoa gertatzen delako egunero bertan. Ez huke laurdenik asmatuko. Telegrafista ontzi barruan gelditua baldin bazen, gure nondik norakoa ematen jarraitzeko gelditzea zen logikoen, hori erraza zeukaten konprobatzea doixtarrek, interzeptatua eduki behar zuten gurea. Baina esadak, transmititu zitezkeen transmisio torreta birrindu diatenean? Gezurra ematen du, baina agidanez kapeluzuriak sinetsi egin zuen gure kapitainaren esana. Ezkutatatu egin zen, artilleroek kanoia finkatu eta eskotilan behera egin zuten, serbiola gelditu zen bakarrik zubian, prismatikoak begietan.

«Izurdea dirudi!».

Telegrafistak esana, lasai, aurreko solasa entzun ez hark nonbait. Lehen aldia genuen torpedo bat ikusirik, ez zen urrun. Txopa aldean jo zuen, instantean jarri zen brankaz gora zamako zaharra. Konturatu ginenerako, itsaspekoa ostendua zen gure paperak eskatzea ahamantza. Edozein gezur transmitituko zuten Goi Agintari-

tzara, hogei mila tonakoa hondoratu zutela, auskalo. Izardun batek komentatu zuen hasiberria izan behar zuela komandante hark, torpedoa alferrik gastatzea kanoi ukaldiño bat aski zuenean. Bestelakorik gerta zitekeen, baina gure ontziak ez zuen oliorik isuri, azalak ez zuen su hartu. Garai hartan naufrago ugari hil ziren horrela, itota, baina oxigeno ezaz. Gero dozenaldi eztanda ahul entzun genituen ondoz ondo, «Horrelakoa ateratzen dik nasaitutako panderuak!», esan zidan Andonik. Gatza eta zura ez duk horrela lehertzen, egia duk.

«Zer diok, eusko? Egik inglanderaz!».

«Hor ito da Inghandek zeukan marinela baka-rra».

Eta txapela kendu zuen Andonik, hala berean nik. Une hartan konturatu nintzen kapitaina eskua jakanarruaren sakelatik atera gabe egona zela, pistola erakutsi zigunean. Tiro bana emanda putzura, pentsatu nuena.

«Gure telegrafistari inork ezer egin nahi baldin badio, haxe probatu beharko du!».

Argi zegoen Royal Navyrako ari ginela, eta tostarteko batzuk behintzat baraurik. Maleta bel-

tza ireki zuen Andonik. Besoak uhaletan sartzen zituela behakoa lotu zidan, hori zuen maltzurre-riako aierua, ezetz asmatu zer ari naizen pentsa-tzen oraintxe, begietarik galdezka.

«Jo ezak *God save the King*, eusko!».

«Ez, kapitain jauna!», nire keinuren baten es-  
peroan Andoni, «Mister Neutralaren hileta jo  
behar dut!».

Hori zen asmatu ezin izan nuena. Entzun ez  
genion zerbait murduskatu zuen kapitainak, ba-  
zekien nondik ari zen «eusko». Gero, beti pistola  
agerian:

«Euskalduna haizelako barkatzen diat!».

Bazekien nondik nora, bai, euskaldunak gine-  
lako ez genien guk berehalakoan barkatuko lau  
urte lehenagoko portaera koldarra inglandarrei.

*Eguna gautuz doan bezala  
Doa ontzia hondora...*

Egundoko gozoen jo zuen Andoni Olabek,  
pieza berria zen, nik inoiz entzun bakoa behin-  
tzat, irlandar airekoa. Atzamarrak poliki mugituz,  
ezkerreko botoiak ia sakatzeke, hauspoaren

nekea entzuten genuela, arnasestuan baina ito-  
tasunik gabe. Ederra, ederra. Eta irlandarrei mal-  
koak legez etorri zitzaizkidan hitzak, doinuaren  
erritmoan, maskuria lehertuta azalera etorriak  
ziren arrain hilei beha.

*Eguna gautuz doan bezala  
Doa ontzia hondora  
Hondoa dauka Gernika portu  
Ez bedi inor aztora  
Gure harrian zorroztua zen  
Mastan jo duen aizkora*

Destruktore batek jaso gintuen ordu eta erdi-  
ren inguruan. Kubertara ginenerako, beste hiru  
gudontzi hurbildu ziren, azkena minatzailea zen.  
Orduan konprenitu nuen doixtarraren taktika.

«Edo sobran zeukatek, edo doixtar horren ze-  
latan erortzen ari dituk».

«Hik uste?».

Andoni ez zen berez marinela, porturik portu  
ibiltzeagatik gura izaten zuen hark ontzietan,  
baina ez zen itsastarra, musikoa zen hura. Ale-  
manen zelata total garbi zegoen, ezta? Hik uste

duk posizioa ematen utziko zigutela, osterantzean? Azalera irten, gu txalupetara jaitsarazi, denbora galdu, sinetsiarena egin... Hori dena ez da egiten ez bada etsaia tronpatzeko. Han azpian, ehun metrora, esparroi gosetu bat zegoen gaitzeko sarraskia egiteko irrikan. Aukeran zeukan, gainera, haginka non egin: jagole barik utzia zioten konboi zatiko zamakoetan edo posizio hartara erakarriak zituen gudontzietan bertan, posible zen ezustekoa baliatuta gutienez ontzi bi jotzea.

«Orduan laster edukiko dau Churchill horrek zigarroa non ixotu!».

Eta haize okerrak emoten baitzion lantzean behin, ontzian gora eta behera ibili zen «Soon, soon, Mr. Churchill cigar in flames!» kantari. Hiru ordu aritu ginen hamar miliako oboan sakoneko kargak jaurti eta jaurti. Tommiek ezagun zuten ez zekitela itsaspekoa non zegoen, isiltasun beltzean etzanda egonen zen hura, gu ongien zelan atrapa kalkulatzeko, dena zehazten, bezuza zorrozten. Edo beharbada konboiaren bila joana zen. Nolanahi dela, alfer lana zen zerabilten lehia.

«Irlandarrak, eta Royal Navyrako lanean?».

Muturik gelditu zen, zaharrena izan behar zuen, ez dakit non ezkutatuak ziren beste biak.

«Antipaxistak gara», esan zidan ukondoak karelean pausatuta, «Guk aspaldi jo genion geure hileta neutraltasunari».

Brigadista ibili ote zen gurean, orduantxe galdetu behar niokeena. Baina kupitu egin nintzen.

«Bat nator zurekin, O'Hara. Baina Royal Navy ez da antipaxista».

«Ez?».

Andonik erantzun zion kanturakoan harrigarri eztitzen zen ahots lakar harekin.

«Ez! Royal Navy antipaxista izan balitz, Bilbao ez zen inoiz paxisten esku eroriko».

«Hurra! Hurra!».

Abaorreko amura aldera hurbildu ginen denok.

«Eman egin diogu! Zerria...!».

Hura poza Tommiena...

«Jo ezak, eusko! Jo ezak hire piezarik ederrena!».

Zelako marraixu garaua, doixtar komandante hura! Ni segur nintzen, egun ere segur naiz ez

zutela ukitu, berean bere isurarazi zuela koman-  
danteak fuela, jo zutela uste genezan. Eta des-  
truktoreak, amuari helduta, noreste ipini zuen  
branka berehala, berak eraman gintuen Brighto-  
neraino. Bazuten zer ikasia oraindik Tommiek  
guda-jokoan. Tommiak, inglandarrak.

«Txakurtxo hura hartu behar najuan, eta ez  
traste hau!».

«Trastea duk orain soinua, ala?».

«Txakurtxo bat aldean baneu errukitsu egin-  
go litzakez nire musika maite ez dabenak be».

Ahokeriak, biziki ongi jotzen zuen Andoni Ola-  
bek, denek maite zuten haren soinua, euskaldu-  
nok, frantsesek, inglandarrek, irlandarrek, txina-  
tarrek, hinduek, denek. Izan zitekeen dolutua  
egotea txakurtxo hura salbatzen gehiago ez aha-  
legintzeagatik, izan zitekeen. Ostetxoa biltzen  
zuen inguruan, eta pieza amaitzen zuelarik adin-  
du gutik jarraituko zuen bere zereginetara aho  
zabalduaren sabaian «Basque refugee» zioen  
papertxoa zeukan soinu kutxan ezer utzi gabe.  
Berba haiek itsuaren betaurrekoak baino indar  
handiagoa zeukaten jendea beratzeko.

«Barka, anderea, Bolton kapitainaren alabazara?».

Eta Andoni Olaberengana txanpona jaurtitzera hurbiltzen ziren andrazko gazte guztiak barre eginda urruntzen ziren, kapelu kriket haiek xarmangarri luzituz.

«Irudi txarra ematen duzu».

Euskaldunok ez genuen zertan eskean ibili, Euzko Etxekoek ez zuten onez ikusten karrikan jotze hura.

«Hemen be erromeria debekau behar deskuzue abadeen morroiek?».

Kopetaraino gorritu zen Periko Beitia.

«Soinujolea eskean bizi izan dok beti gure herrian».

Hurrena ikusi nuenean, kai inguruetan beti hura, gezur hauxe zeukan idatzia bere kartoian: «Basque refugee rescued of Bilbao by captain Bolton in the merchant ship Seven Seas Spray». Halamoduzko erdibidea aurkitu zuen Andoni Olabek, ez duk uste? Ez zuen gure jaurларitza lotsagarri uzten, idatzi hartan ageri zen esker onak estali egiten zuen urrikirako nabarmenkeria.



Berak ez zuen ordea halakorik aitortuko, bazeukan helburu praktikoagorik.

«Noizbait pasauko dok Bolton kapitaina, edo bere pilotua, edo hura ezagutzen dauan bat edo...».

Bolton kapitaina Bilbora azaldu zenean blokeatuta omen zegoen hiriari janaria ekarriz, Andoni liluraturik gelditu zen. Ez, *Eguna* izparringian irakurri zuen albisteagatik jakin zuen, lehen orrialdean zetorren. Lekeitioko Beitiarenean zegoen orduan gure saildia, ostatuan, atsedentxo hartzen Markinako inguruan negu gogorra bota ondoren. «Ezagutu behar juat nik andrazo hori!» esan zidan, eta beribil baten eske hasi zen Bilborantz abiatzeko, bazekien petral jartzen. Baina hurrengo egunean bertan mobilizatu gintuzten Gerrikaitz aldera, han gogorrago astindu gintuzten.

«Barka, anderea, Bolton kapitainaren alaba zara?».

Barre egiten zuten, algara, kapelua hobeki kokatuz urruntzen ziren, begi aurrean ispilu txiker bana baleramate bezala.

«Agur, Cecilia...!».

Badakik, orduan mundu guztia zegoen sine-  
tsia Bilboko itsas-urteera paxisten gudontziz in-  
guratua zela eta Bizkaiko Golkoa dena minatua.  
Etsaiaren publizitatea zen, eta guk irentsi.  
Gurma lodian egin zuen Bolton kapitainak Zibu-  
rutik Bilborakoa, gauez, benetako itsasketak  
egin behar diren moduan. Boltonek erakutsitako  
bidetik heldu ziren gero *Hansterley*, *Stenbrook*  
eta *Mac Gregor* zamakoak, hazkurritz beteta.

Orduan, esanen duk hik, zergatik zenieten  
halako herra inglandarrei?

Hik esaten diok inglandarrari «Ez zagok  
mendi hori igoko duen amaren umerik!», eta  
biharamunean Everesteko gailurra zapaltzeko  
espedizioa antolatzen ditek. Inlandarrak sport-  
man hutsak dira. Entzuten badute Bilbao blokea-  
tua dagoela, minaz josia dagoela Abra osoa,  
«Hori geuk pasatuko dugu!» egiten dizu erronka  
Cityko edozein bulegarik. «Nora zoaz?» galde-  
tzen dio kanoiontzi paxistak Sanander aldetik  
datorrela ikusita, «Saint Jean de Luz» esaten dio  
Bolton kapitainak, eta hurrengo gauean Ziburu-  
tik irten eta argiak amata eginda pasatzen da *Al-  
mirante Cervera* beldurgarriaren ondotik pipa

erreaz, Ibaizabal gora sartzeko. Badu meritua, nork uka, baina ez gero uste antipaxismoak bideratu duenik horretara. Harrapatzen dute doixtarrek eta «Irish abertzaleak gara» esaten du inglandarrak lasai, edo «Neuk akabatuko dut telegrafista aliatuzale hori!», egundoko gibela. Izki-luak behar genituenean, neutraltasuna jokatu zuen Inghandek. Gero, dena galdua zenean, Hitlerri aurre egiteko gai zela erakustearren, bere sportmanak bidali zizkigun gosea lur-sagarrez arin genezan...

Nardagarria ez denik!

Guk irakurri genuen izparringian ez zetorren haren argazkirik, aita ageri zen, kapitaina, tostarteko guztiak zituela inguruan, alaba ez. Albisteak, ordea, Bolton kapitaina «alaba lirainagaz» etorria zela zioen. Lehenetariko emakumea izan zen zamakoetan, eta gudapean zeuden latorrietako portuetan sartzen bakarra. Bazeukan bere zera, baina burutik egin zitzaion Andoni Olaberi, idealizatu egin zuen, musa bihurtu zuen, huraxe behar zuen hark musikan porturik portu ibiltzeko. Platonikoa zuen harekikoa, euskaldunok inglandarrei genien gorrotoaren bestekoa.

*Cecilia nik zurekin nahi nuen enbarka  
Bilbaotik nortera zuzenduta branka  
Geroztik garraztu da munduan enbata  
Inork ezin dit esan non duzun atraka*

Andonik uste zuen, arrazoi zuela ezin uka, errazago topatuko zuela *Seven Seas Spray* Londongo kaietan itsasoan gora abiatuta baino, huraxe esan zidan. Anartino elkarrekin ibilitakoak banandu egin ginen, txopan Panamako ikurrina zeraman zamako berri batean hartu ninduten, Mediterraneoan ibili nintzen luzaz. Ez dut uste Cecilia Bolton ezagutu zuenik gure Andoni Olabek, zaila izaten da itsasokoen berri jakitea lehorrean. Itsasoan ordea elkarri deika bizi gara, irratia beti dago piztua, berehala jakiten dugu non zer den. Beharko, bizirik iraunen badugu. *Seven Seas Spray* ontzia Cardiff-eko konpainia batek erosi zuen. Ohikoa izaten da eta izena aldatu zioten, *Seabank Spray* ezarri zioten, eta izen horrekin zebilen gu Londonera iritsi ginenerako, egik kontu zelako inozoak. Gero berriz aldatu zen jabez eta izenez, *Jeanne M.* hartu zuen. Baina

beti Bolton kapitainaren agindupean. Bai, normalean kapitainak konpainian jarraitzen dik, ez duk ontziarekin batera aldatzen. Baina zenbait marinel zaharrek ontziko txakurrak legez egiten dute, ez dute baforea abandonatu nahi. Niri iritsi zitzaidanez behintzat, *Jeanne M.* ontzia Bolton kapitaina eta eskifaia osoa barruan zituela joan zen hondora, U-37 itsaspeko sonatuak torpedoz jota, 1940ko abenduan.

Esanen diat, bai: 39.19 Ipar eta 13.54 Sortalde, aterako duk non?

Livornon ginen, gomutan daukat sobietikoek Laika txakurtxoa espaziora bidali zutela zekartela izparringi guztiek, langileen diktaduran ere txakurrak ontzietan bakarrik maite zituztela pentsatu nuen. Horregatik dakit 1957 urtea zela, azaroak lau zituen, bezperan Sputnik bigarrena. Gosaltzen ari nintzen beste izardun batekin, portugaldar bat, Piazza Garibaldiko kafetetxe nagusian, Italian enparantza guztiak dira Piazza Garibaldi.

- Ikusten duk gizon hori?
- Bizarzuri hori?
- Werner Hartmann.

Aski ona engoitik nire inglandera. Gizona zegoen mahaira hurbildu nintzen.

- Barka, jauna...

Kafe kikararen ondoan laga zuen izparringia, tolestuta. Laikarena irakurtzen ari zen, Moskuko karriketako txakurrik bizkorrena, emea izan behar. Galdetzekotan egon nintzen ontzian txakurra eramateko ohitura zeukan.

- Bai?

- Zu... Werner Hartmann zara?

Lehen mailako Burdinazko Gurutzea, Zalduen Gurutzea Haritz Hostoekin, berrehun eguneko marea itsaspean basera itzuli barik, aliatuei milioi erdi tona hondoratua... Eta bizirik atera, Prien handia ez bezala.

Zer uste duk egin niola? Bostekoa estutu nioan.

- Euskalduna nauzu, Hirugarren Reich-aren aurka gudukatu nintzen lehorrez eta itsasoz. Lepoa jarriko nuke zeu izan zinela *Irish Pride* hondoratu zuena, Brighton inguruan, hamar mila tonako zamako zahar bat, masta bikoia.

Zimurrak sortu zitzaizkion bekokian, datu guztiak buruan zeuzkan oraindik gizon hark.

- Kafea nahi? Bundesmarine-ko zamakoetan egiten dut beharra aspaldion.

Bolton kapitainaren istorioa kontatu nion Werner Hartmanni, bere alabarena eta euskal soinujolearena, Londonen utzi nuela Andoni Olabe hiria Luftwaffek bonbardatu baino hilabete batzuk lehenago. Galdera guti batzuk egin zizkidan nire kontakizunaren errunboa zuzentzeko, erne jarraitu zuen berbaldia. Isilik gelditu zen epe batez. Gero, beste kafe bana agindu ostean, musututs utzi ninduen.

- Cecilia Boltonen bizitzak ez zeukan zentzurik euskal soinujolea hil zenez geroztik.

Posible zen, gudak halabeharrez beteak daude, hiru urtean urte betean hilabete batzuetan bizi behar duzu zeure bizitza. Mahaizainak alde egin arte itxaron nuen.

- Esan nahi didazu... Alegia, *Jeanne M.* ere zuk...

- Suizidio bat izan zen.

Altxatu egin zen, nik «Txakurtxo haren antzera, txakurtxo haren antzera...» marmarikatzen nuela. Gudan absurdoak gertatzen, eta gudaosterraino luzatzen. Esan liteke Werner Hartmann

nire aiduru zegoela kafetetxe hartan, beharbada egunero egoten zen mahai hartan ni noiz azalduko, adiskide soinujolearen azkena jakin nezan: badatoz hegalontziak urdina betean, hirurehun itsaspeko hegan, Londongo zerua Gernikakoa halako hamar, hoge, berrogei, sirenen txistua baino mingarriagoa arranoen amiltze astuna, oinaztuaren garraren aitzin bere tarrata, zelako edertasuna eraikinak lur jotzen bazterrak sutan karrikak lehertzen, eta durunda handiaren gainetik, beste uhin-luzera batean, euskaldun liluratuaren oihua hondakin guztietan oihartzun London osoan, Inglan osoan barreiatzen...

«Sua nahi, Mr. Churchill?».

Bolton eta bere alaba ez beste inglandar guztiek Gernikako fosforo berean kiskali behar dute, garaia zen, londondarrak babestokietara doaz astrapalan, sotanoetan ezkutatzen dira koitaduak, eta soinulari zoro batek kalejirarik alaiena jotzen du Waterloo-Bridge-ren erdian, edo Albert edo Victoria enbarkment-en, Londongo artadiak ikaratzeko gisaz, leherketa metraila ke guztien artean bozkario, Cecilia izenari narrutako galdata atxikia...



*Londonek gura ei dau  
Dantzan akelarrez  
Churchillen zigarroa  
Ixotzeko garrez  
Heriotza barrez  
Dantzan akelarrez*

Soinujoleak bere entzule lirainei Bolton kapitainaren alaba ote ziren galdetzen zienean barre egin eta kapelua kriketago okertuta aitzina egiten zuten haietarikoa zen Cecilia Bolton, hori ez nion Werner Hartmanni kontatu baina. Maite-mindua egon behar zuen, jakina, porturik portu zihoan ametsez Andoni Olaberen itaunari erantzun barik urruntzen zenean. Begi aurrean mirail txipiño bat baleuka bezalaxe, bai, eta hartarik euskal aterpetua ikusten du bere joanari beha, emearen harrotasuna orduan, hurrena datorrenean «Nolaz ezagutu nauzu, Bilbotik menturaz?» esanen diola zin eginik, atmosferan berriro sartzean desintegratu egin behar duela ez dakien txakurtxo horrek.

# Ihesa

Euliak, uda hark behintzat argituko ez zituen hezetasun tatxetan euliak, euliak behiala urdina izandako pintura geruzari eginak zitzaizkion kontinente ezezagun gisako akastuetan euliak amorratuaren eskuak edo txapelak jotako lekuan utziak zituen euli zapaldu zikinetan pausatzen ziren euliak, goizero ezpainetaraino beteak ageri ziren bidoi-erdietako gernuak zoraturako euliak, «Viva» edo «Glorioso» edo «Caudillo» edo «Nacional» hitzen beltz higatu samarrean samaldak pausatzen. Eta zer zitekeen inork itxurarik hartzen ez zion forma baten gainean zeukanez Don Arturok paratua atzamarra, eulien hegaldiak eramana zion noski haraino behakoa, nola bestela, 90 voltioko indarrak ozta suspertzen zituen ilintietan, letra txipi haiek bereizi.

- Ez nazazuela izorratu, ez nazazuela izorratu!

Azken hondarrak biltzen saiatzen ziren zalien latoi hotsak erantzun, euliak ere isilik, edo leku estrategikoetan kokatuak orojabe.

- Presondegira itzuli nahi baduzue, esatea daukazue.

Eta ohi ez bezala, hurbilenekoei «Tira, lanean hasteko ordua diagu!» agindu gabe jo zuen ate ondoan habe loditik dilindan zegoen karril puskan mailuarekin, kin-kin-kan-kin, goizeroko morsea. Irteera aldera nagitzen zirelarik, Don Arturoren haserrearen nondikakoa ikusi behar zutenen multzo handia sortu zen, orduan jakin, ahoz aho zabaldu zen kasernan «Gora Euzkadi» zegoela margotua, arkatzez, moldiztegiko letretan margotua ez baina idatzia, hezetasunek akastuek zapalduak utzia zuten tarte garbi samarrean.

- Hor atzo ez zegoan horrelakorik...

Eguzkia goratzen hasia zen Aiako Harri ubelaren ostetik, elizako dorre bereziak hareazkoagoa zirudien orain, lixibatan garbituriko harri. Gobernadorea astero bazkaltzera etortzen zen Panier Fleuriko teilatuan ziren lehen printzak, laster ibaiertzeko zuhaitzen hostoetako ihintza xukatuko zuten, basatzazko ur hartan jo baino lehen.

- Norbaitek pultsua hartu nahi ziguk.

- Ni ez nagok zulora itzultzeko, askatasuna emanen zigutek aurten bertan.

- Amolatu behar nauk oraintxe, Bittor. Ederra duk emanen diguten askatasuna!

- Gure morrontza hau luzatzeko aitzakia bila zabiltzak.

- Hik uste?

- Non aurkitu behar ditek gurea baino eskulan merkeagorik?

- Niri bezala pagatuko ditek hiri ere, bai.

Olibet galleta lantegiko neskek errepidea iragan zuten, egon zen algara isilik eta behakorik gizon zarpatsuengana zubiaren erdian.

- Morena ihar hura gustatzen zaidak...

Atzera beha zihoan oraindik Bittor.

- Hik bereizi egiten dituk...!

Osoro egunarenak ez ziren une haietan, ibaiaren hilobian fusilatzer ateraiko zituzketen gizajoak zeritzoten egunero goizean goiz mugitzen ziren herritarrek ezkerreko ertzean biko ilaran zetorren gizon andanari. Eta egiazki hiltzeko zigorra konmutatuak ziren gehienak inoiz, ikara horixe Olibeteko neskek, heriotzatik itzulitakoak zirela.

- Don Arturo zigortuko ditek agian. Merezia, postua hartzeagatik.

- Nahiago huke putakumeetakoa edukitzea ugazaba? Ba nik ez. Ni hogeita hamazazpian erori ninduan Teruelen, eta ez ninditean fusilatu. Zerraldoak egiten egon ninduan beste preso askorekin, abertzaleak, sozialistak, komunistak. Halako batean ihesa antolatu zitean gureetako hiru zorok. Jakin genian eta halakorik ez egiteko erregutu geniean, era guztietako arrazoiak eman genizkiean. Baina egoskortuak zeudean bere planean, eta azkenean guk geuk salatu eta entregatu genituan.

- Ez diat sinesten.

Plazan gelditu ziren hiru soldadu, errepidea zubirantz gurutzatzera zetozen neska multzo berriak meneko zeuzkaten langile penatuen lerro artetik iragan ez zitezen.

- Fusilatu egin zitiztean, baina hobe duk hiru fusilatzea hamabost baino.

Lepoan zuten eguzkia, epeltasun huraxe gosariaren onena.

- Ez, hobe denek ihes egitea.

Don Arturoren agindura, hargintzan jardun behar zutenak ilara utzi eta ibaian lotua zegoen gangileko lonapera jaitsi ziren lanabesak hartze-  
ra. Bittorrek aitzina jarraitu zuen beste lau pena-  
turekin portu aldera, isurgirantz, soldadu baten  
begipean. Tranbia zetorren Galtzarabordatik,  
eguneko lehena zen. Eskuinean garabien lurrina  
zerurantz, lehorreko baforeak iduri. Korrokoien  
jauziek burbuilak sortzen zituzten paperolako ki-  
mikak gandututako uretan, amultsua zen haien  
pulunparen plausta. Fuel biltegien ondoko etxe-  
koandrea leiho guztiak zabaltzen ari zen gelak  
goizeko freskotasunean haizeberritzeko, beha  
gelditzen zitzaizkien eskolara zihoazen umeak  
elkarri ahapeka, pausoa arintzen zuen aldiro  
beata laukoteak ondotik urrunduz. Gezurra ziru-  
dien hilabete lehenago ibaiertz hura betea  
egona harriz adarrez gurdiz bizikleta okerre-  
zazpi etxetarik ekarritako altzariz zakur hanpa-  
tuz marmitaz sasiz bahez teilaz aulkiz telegrafo  
postez auto irauliz lokatzak estalitako gorpuz,  
gezurra zirudien uholdea egon izana inoiz bazter  
hartan, gezurra zirudien gerlak zanpatu izana  
mundu hura, pentsatu zuen Bittorrek.

- Berdina eginen huke orain?

- Zertaz ari haiz!

- Salatu eginen huke ihes egin nahi duena, gu zigor ez gaitzaten?

- Etxera joaten utziko zigutek denoi laster samar, ez diat ikusten zergatik ihes egin behar dugun.

- Langile batailoi osoa aterpe eske Franzian... ez huke txarra, ezta?

Lehen fusil tiroa bota zuenean, frontean, ez zuela egundo berriz eskuan armarik hartuko egin zuen zin. Izututa gelditu zen sastraka haien atzetik besoa atzerantz erortzen ikusi zuenean. Beste norbaiten tiroa izan zela erabaki zuen. Norbait hil zuen haatik, ez da posible urtebeteko gerla egitea nor edo nor hiltzetik libre, neu hiltzea lortu ez zuenen bat hila nauk, ez zuela egundo armarik hartuko berriz. Baina zortzi urteko kartzelaldiak eta azken hiru hilabeteetako lanak halako urruntasun modukoan zeukaten murgildua orain. Igandeetan, ukabilak sakelan ibaiko uraren joanari beha gelditzen zenean, ehi-zarako grina zetorkion osterara, udazkeneko hego haizearen eskasa, basoaren herdoila, tiraputza-

ren kolpea sorbaldan eta hegaberaren jaustea sasia. Ez zen oroitzen ez berak ausaz hildako gizonez, ez bere ondoan hildako adiskideez. Mendian nekatu arte ibiltzea, neska gazteen besoak ikustea belarra jiratzan, zigarroa erretzea enbor zakar baten kontra etzanda ilunabarrean, trikua jatea, lagunak bromak hartzea atelietan, bakarrik lo egin ahal izatea: arrunt xantza handia zen gerlatik eta gaueroko fusilamenduetatik onik irtetea, bizimodu sotilaren gozoak ez dastatzeko.

Iritsiak ziren ibaiaren isurgunean zegoen burdinola handira. Soldaduak trenbidea babesten zuen adreiluzko hormaren gerizpea bilatu zuen, zaku batzuen gainean jesarri zen, tabakoa liatu behar zuen hark langileei asko erreparatu gabe. Fonderiako burdinagileek txorrukotan metatuak zizkieten urtuketa-moldeetan erabili lurra. Hura xe eramaten zuten eskorga banatan Bittorrek eta bere lagunak ibaiari egiten ari ziren euskarriko hesiaren eta errepidearen artean gelditua zen hutsartearen betetzearren.

- Hi, e, hi! Hator hona!



Burdinolako langile batek egiten zion dei, pieza moldatuak hozten utzi ohi zituzten zabaldegitik.

- Ikusten duk?

Hankarekin lurra harrotu eta burdina pusketa zatar parean utzi zuen agerian.

- Gainez egiten dik galdak zenbaitetan, moldera hustean. Ezin dituzue denak eraman, utzi bertan handienak, berriro urtzeko erabiltzen ditia.

Atzera behatu zuen langileak, oiartzuarra hizkeragatik, lo-kaikuak egiten zituen soldaduak. Buruan hazka Bittorrek, ile hura.

- Bereiz itzazue zati txipiagoak zuentzat, pezeta egiten dik kiloak txatarrerian.

Arriskua hartzen zuela, herria salatariz betea zegoela, berrogeita hamarna zentimo ordaindu nahi izan zien gizontxo musugorri hark. Beraiek arrisku handiagoan zebiltzala, pezeta edo burdinarik ez. Hori entzun orduko «Zenbat kilo atera zenezakete?», miserablearen galdera.

Bizimodu sotilaren gozoak dastatzea, ehizan ibiltzeaz gain, Santa Klara karrikako ilemoztegian sartu eta «Ilea eta bizarra, dena!» agintzea

zen, brotxaren kilima masailetan, kolonia merkeen lurrina, motzailearen jardunari sobera belarri eman gabe ispiluan islatzen zen buruari barre egitea...

- Langile batailoikoa zara, ezta?

- Bai...

- Ez dizut bizarra egitea kobratuko, eta ez da lehen aldiz zatozelako. Anaia daukat Dueson, Arrieta, Eulogio Arrieta, ezagutzen?

Parrokoak hau eta beste esan dezake, deklaratu dezake, elokuentziaren edergailuek eta teologiaren argudioek ez dute liluratuko ezkerreko aulkien atzenean dagoen gizon argalen samalda, iduri luke ez dakiela gizon haiek ez liratekeela hemen azalduko derrigortuak ez baleude, sobera aldiz entzun dute Kristoren izena zanpatzen dituztenen ahotik, Elizari urrunduak zaizkio fededunak zirenak ere, eta «Ite misa est» entzun baino lehen irten dira eskaileretan behera plazarantz, karrika zaharretan barrena sakabanatzeko taldetxotan, bikotetan, senar-emazte apainetarik eta mantelinadun atsoetarik urrundu beharrez.

- Ezagutzen diat etxe bat, ordu laurden uzten ditek baineran ur berotan, berrogei xentimo xaboiarekin.

- Eta alabarekin?

Meza nagusiaren ondoko orduak libre zeuzkaten edonon ibiltzeko herri barruan, guti ziren kasernara joaten zirenak bazkaritara, otordu jator bat egiteko tenorea zen, astean behin berderenik. Bittorrek esaten zuen, nori ikasia oroitzen ez, patrikan bezalaxe nahi izanen zukeela ukabila sabelean sartu ahal izan, betea zeukala esate alde. Eguraldi mukua edukiagatik eguzkitan bizi zituzten orduak ziren, lurrin garratzik gabe eulirik gabe soldadurik gabe. Noizbait ohar-tu da bakarrik doala, bakarrik eta herriko karrika nagusitik barrena, txatarreroak ez ikusiarena egin dionean jabetu. Burdina lapurtua hartzeko bai, eta hemen ez? Samatik heltzekotan egon zen. Herritarrak ez ziren hain hipokritak, denak ez ziren txatarrero koldarra. Zapata-denda handiaren erakustegiari beha gelditu zen, bota pare berriaren premia zeukan. Garesti zaudek. Ezkerretara hartu zuen, karrika nagusia utzirik. Tren-bidearen inguruan baziren maite zituen ostatu

xume batzuk, ehiza kontuak entzun izan zituen aurreko asteetan. Zaharrenean sartu zen, jende gutiago zegoen, hutsik ikusi zuen aurreneko aulkiari jarri zen ezer eskatu aurretik, zangoak mahai azpian ezkutatu. Muker egin zion neska-meak, etxeko alaba agidanez, tabernariaren antza bekainetan. Nolako muturra jarriko huke ilea moztu ez banu. Beste mahaiekikoa egiten aritu zen luzaz, berarengana arduratzeko astirik ez pertxentak. Edo neure bota lehertuak ikusiko bahitu. Kakahuete azalekin jolasten ari zela entzun zuen ahotsa, eztia eta haserre, txantxetakoan haserre.

- Zer, nekatuta, Bittor?

Leloturik gelditu da, irudi mordoa burutik ez-tarrira kolpeka ahots honek begi hauek zer ekartzen dioten ezin hitz eginik: fusilaketa deskargak entzuten zituen gauetan amets egindakoa, baforearen korazta ura urratzen, inoiz oparitu zioten poema liburu txipia euskaraz, antzaren hegada linea elektrikoan gainetik, metrailak segatuta hiltzen ari zelarik oraindik betetzeko zeukan lagunak eskatu mesedea, ibaiak zekarren kimika

portuan urtzen, burdinaren galda txinpartaka moldera.

- Ez dakin ondo, Maitetxu.
- Rosamari diat izena.

Eskuaren birigarro hila luzatu dio, eta bizirik dagoela atzeman du berearen habian. Gero, Rosamari zer hartuko duen galdetzeke sukaldera joana delarik, haren taupadak gelditu zaizkio ahurrean, hegaztiaren lumatxo odolduak.

- Trikua, neuk harrapatua.

Lurrin hau, lurrin eder hau, botila hartzera egin du baina neska aurreratu zaio, zipotza kendu eta godaleta bete. Esperoan gelditu da Bittorrek dastatu arte, ardoa behintzat, eta orduan beste mahaietara arretatu da ostera mutilak bazterreratuak dituen kakahuete azalak mandarrean bilduta. Ogi zuriegiaren kozkorra busti zuen saltsan. Heuk harrapatua baina amak maneatua noski, ederra zagon benetan, noiztik arraio. Burua ezin jasorik jan zuen, atzamarrak zikinduz hexurrak zuritzen. Bigarrenez edan zue-nean ezpainenako koipea gelditu zen godale-tean. Bere musuzapi zimurrarekin garbitu nahi

izan zuen, horretan ari dela kendu dio eskuarte-  
tik neskak, garbia ekarri.

- Ez zunan trikua.
- Ez, akerraren buztana zuan.

Bezeroek, irtetea, agur egin zioten Bittorri hutsik egiteke. Agure bat gelditzen zen zokoan, erdi lo. Alde egin behar zuela iruditu zitzaion, etxekoek bazkaltzeko tenorea zen noski. Rosamari sukaldean zela altxatu zen, aita zirudienari ordaindu zion. Sukalderantz «Adio, mila esker!» ozenik eginda euritara. Hobe, ez zen eulirik ibiliko. Berehala ohartu zen oker zegoela. Euliak ez zituen ezein eurik uxatuko, ikasi beharrak zeuzkan bizimodu berriaren arauak. Ustelean bizi ziren. Panazko jakaren lepoa jaso zuen, ez zen sabelaz oroitu ukabilak patrikan sartutakoan. Halako eztitasunik, horrela izaten ahal zen gizon. Bazekien nora etorri hurrengo igandean, neska hura, nondik izena, soldaduek baino zorrotzago zelatatzen zituzten herriko neskek, ez ihar ez morena ez zela ahantzirik. Jasa gogorrean ari zen trenbideko zubipera iritsi zenean, bertan gelditu zen. «Hi!», burua ostaturantz itzuli zuen, Rosamari dator lasterka aterki batekin. Ez zebi-

len haizerik, euria mardul, erorian, dena lausoan bilduz.

- Herrirantz?

Bere altuerakoa da kasik, ile bilduak belarrien handia erakusten du, gingilaren gorria perlatxo beltzek. Neskaren aldeko eskua sakelatik atera eta aterkiari heldu nahi izan dio.

- Utzidan, hartuko dinat nik.

Gutitarik egin du Rosamariren eskua ukitu ez badu mugimendu horretan.

- Ez, gustatu egiten zaidak eramatea.

Hik uste dun aterkia nik hartuta neure kolko-rako besotik helduko nindunala akaso, aukera hori neukala neuk hartzen banuen, horixe zela nire katramila. Oker hago, ez zaidan horrelakorik burutik, ez dinat inoiz ikusi bikoterik emakumezkoak eutsitako aterkiaren pean, hori zunan arrazoia. Beha ezan, orain tarte handiagoa utziko dinat bion artean.

- Bustiko haiz!

Besoa bizkarrean pausatzeko gomita egiten al didan orain. Aterkiaren ardatzera hurbilduko naun edonola ere, eta orduan ukabilak neskaren izterraren higidura hartu du mahonezko galtza-

ren eta oihal arrunteko gona eta azpigonaren gaindi, bostekoa estutzerakoan hartu dinadana baino taupada beroagoan. Barre egiten dun gaizto horrek. Osasuna, irmotasuna adierazten dute neskaren bekain beteek.

- Aizan, nola utzi dun lana horrela?

- Lana Olibeten egiten diat, gurasoei laguntzera etortzen nauk igande batzuetan.

Ohartu egin da, tupustean, emakume batekin solasten den estreinakoa duela azken zortzi urte honetan, alegia, lehen aldia bizitzan egiten duela hitz emakume batekin gizonezko hitzez.

- Zergatik ez duk behatzen non ematen duan pausoa?

- Zangoak mahaipean ezkutatzan ditudan arrazoi beragatik.

- Zipriztindu egiten nauk ordea!

Ukabila desegin du, luzean libre utzi eskua sakelaren barruan, besotik eroritako mulko. Erregarriagoa zaio orain Rosamariren izterraren igurtzia ibilian, haren giharra bere hezurren kontra. Ez badun deus esaten onartu egiten dun, bi edo hiru oihal egonen ditun nire eskutik hire haragira baina ez dun posible ez sumatzea. Atza-



marrak tira ahala zabaltzen ditu igurtziaren eremua handitzeko, hostoen arteko zurrumurrua da hau, hostajearen ikara ilunabarreko brisan, eta honezkero ez da birigarro hila, mandeulien zizta-koak ikaran tinkarazitako behorraren gihar luzea da, bere haragiaren sendotasuna Bittorren esku-gainaren kontra frogatu behar lukeen ametsa. Madalena karrikan sartuak dira, beranduegi dinat eskua atera eta bizkarretik heltzeko, jendea dabil oraindik, ordu bata da elizako kanpandorre bitxi horretan.

- Hemen gelditzen nauk ni.

Bittorrek ere ez luke nahi inork ikustea, ez dio onik eginen neskari.

- Bai, bai, hobe dun.

Bekoz beko geldituak dira, eta orain, arropek elkar ukitzen ez dutela, Rosamariren giharraren tinkotasuna datorkio eskutik gora bularreraino. Ez dinat eskua sakelatik aterako, gorde eginen du igurtziaren oroimena. Rosamarik bostekoa luza diezaion baino lehen eginen duela alde erabaki du.

- Eraman ezak aterkia.

Elkar berriz ikusteko gomita egin dio, zergatik esan dinat ezetz? Lehen aldia emakume batekin, egin behar ez lukeena egingen dinat oraintxe, ez daki nola behar duen, lehen aldia, hurbilegi, dena ikasteko zaukaat.

- Azalduko haiz arratsaldean? Musika zagon plazan.

Egin du ez egitekoa, horrela esaten ote zaie?

- Plazan eta egun argiz, hori ez duk dantza egitea.

Elizaren alboko karrika estutik gora itzali ziztzaion Rosamari, noiz arterik ez despedidan.

Banekien ez ninala eskatu behar, lehen aldia dinat. Aterkia biltzen ikusi zuen, ez zuela ari konturatu zen. Ibaiertzera hartu eta zubiaz beste aldean ibiliko zen, bakarrik egoteko premia, gertatutakoaz gozatu nahi zuen, bizitutakoa kontatu nahi zion xeheki bere buruari. Plaza iragaten ari zela, taberna zulotik dei.

- Non ibili haiz?

- Honek ez dik gurekin nahi izaten!

Jokoan ari ziren musika hasi bitartean. Oraindik igartzen zuen zerbait eskugainean, Rosamariaren giharraren higidura zainetan. Ez, ez zeuka-

la kartetan egiteko gogorik, kafe bat, hi beti  
heure aldetik, ibiliko hintzen zokoren batean.

- Nongo alabarekin bainatu haiz?

Noizbait herriko bandakoak kioskora igotzen  
hasi zirenean plazako bazterrak langile pena-  
tuen taldetxoak bete ziren. Lagunak utzi eta ibaia-  
ren haraindira jo zuen, Papelera Española, Panier  
Fleuri, Olibet zeuden bazterretik aitzina, portura-  
ko bidean. Inoiz gertatuko balitz Rosamari biluzik  
edukitzea aldean, eskuineko eskuaren binperra-  
rekin laztanduko zuen gorputz osoan. Garaiz  
oroitu zen fuel depositoak txapelokerrek zain-  
tzen zituztela, ez zen herriaren kaburaino ausar-  
tu. Musika hasia zen, tristeia pasodoble hura.  
Ibaiko petrilean jesarri zen, putzuak ageri ziren  
ezker ertzeko eskalari lotua zegoen txalupan.  
Plazara helduak ziren neska bakanen inguruan  
zebiltzan lagunak, bromaka. Ez zion irri gaiztorik  
sumatu Rosamariri plazakoa ez zela dantza egi-  
tea esan zuenean, mespretxuzkoa izan zen. Os-  
tatura itzultzea bururatu zitzaion, baina hobe  
zuen ez joatea, min hartuko zuen neska bertan  
ez bazegoen, hobe jakin ezik. Trumoi eztanda  
latz batek berritu zuen eraso, etxe bazterretara

eta taberna barruetara sakabanatu ziren dantzariak, kioskoa abandonatu zuten musikoek. Kasernarantz abiatu zen, euriaren eta paperolaren durundiaren pean.

- Ondoezik al hago?

Ez zen afarirako altxatu, urruntasun handi haren mende zen atzera, oroimeneko zoko urrun baina mingarrian hanpatua zeukan zer edo zer hiltzen hasia zitzaion, ibaiko kimika portuan urtzen. Tximista bertan, laia lurrean sartzen argi ahul hura itzaltzeko. Besteetan baino lehenago entzun ziren aurreneko zurrungak jangela gaineko lotegi handian.

«Zer, nekatuta, Bittor?».

«Trikoa, neuk harrapatua».

Eskua luzatu eta ez du ukitzen ahal, lainozkoa da zuritasun hau. Rosamarirena da, bai, ahuspez biluzik ageri den bizkarra, albora emana du aurpegia eta ez ote da ba gaiztakeria ezpainetan sumatzen zaiona, loak hartuarena egiten dun baina hala ere ez duela zirkinik egiten eulia azalean ibiliagatik, luzatzen du eskua eta eulia hegaldatu egiten da Rosamariren haragia ukitu ahal izan dezan baino lehen, gorputzaren beste

«Plazan eta egun argiz, hori ez duk dantza egitea».

- Ba ni ama-alabekin bainatu ninduan, biekin.

Itsasbeherak agerian utziak zituen ibaiaren erraiak, basatza gris ilun ura, zerriaren hesteak hil berritan. Kiratsa zetorren arrotik, paperolaren gernu karmina fonderiaren berotasun itogarriari gain hartuz. Burdina hondarrak baliatzen iraka-

tsia zion oiartzuarrak atera zuen ametsondo hartarik.

- Frantziara, ehun pezeta.

- Bai, eta beste ehun bilduko dituk gero ni mendian entregatzeagatik.

Emakumeen besoak belarra jiratzzen, Rosamarirekin egona zenez gero ez zuen amets egiten hegaberekin, tiraputzaren kolpea baino hunkigarriagoa zen aterkipean bizi izan zuena. Gainera, ez zioten ehizakoaren baimenik emanen.

- Segurua, garbia. Pentsa ezak. Lau orduko bidea Arditurriko meategitik goiti.

- Utz nazak bakean.

- Nahi duenik egonen duk zuen artean, esaiok.

Eguerdian, kasernara zihoazela, ezusteko istilua gertatu zen soldaduek herriko norbait geldiarazi zutenean, emakumezkoa itxuraz, aurrera samar zihoazenek gibelera egin zuten Panier Fleuriko zubirantz, hantxe zen, lasterka, Don Arturoren «Lasai, lasai, ez da ezer!» erreguari jaramonik egiteke, bera, eta soldaduek zer egin ez zekitela, fusilek traba egiten pentsatzeko, non

ote dute kapitaina, sekula ez da ageri arazoak sortzen direnean, Rosamari.

- Ezin da langile hauekin hitz egin, presoak dira.

Burutik egin zain, hau langile penatu baten besotik ibiltzea baino okerragoa dun.

- Zer duk hori! Atzera, atzera denak!

Rosamarik besoa astindu zakar batez libratu eta galtzarbean dakarren bildua luzatu dio Bitto-  
rri.

- Baina...!

Zubitik gora Olibet galleta fabrikarantz Rosa-  
mari, eta bata gris hura arren, gona arren, azpi-  
koa arren, giharraren higidura hartu du begian,  
eskugainean, eta handik gorputz osoaren zaku-  
ra, hotzikara erregarria.

- Nobia duk, ala?

- Ireki ezak hori!

Bonba bat, gobernadoreak etorri behar du  
gaur, zubi honetarik behar du, orain soldaduek  
badakite zertarako dauzkaten fusilak, denak kis-  
kaliko dituzte, eta goseak hildakoek berriz iza-  
nen ahal da zatigarriko zerbait, gazta gaitz bat

esaterako, denon artean jatekoa, ez galleta apur-  
rak.

- Ireki ezazu, Bittor.

Don Arturok eskatzen ziona egin zuen, korde-  
la astiro, papera ez urratzeko artaz, bonba balitz  
baino urduriago.

- Amandrearen oparia dik Bittorrek!

- Urteak dituk? Gonbidatuko gaituk, ezta?

Baten batek atzamarra erantsi nahi izan zion  
opariari, kolpea jota ukatu zion eskubidea, ba-  
rrez, Bittorrek.

- Pausoa non ematen dudan ikusten ez lotsa-  
tzeko dituk.

- Noiz ezkondu behar duzue?

- Atzo ezagutu nian.

Eta barre egin zioten inguruko denek. Kaser-  
narantz abiatzeko aginduari obeditzen ziotelarik,  
belarrira:

- Orain ulertzen diat, horrelako bat huen Te-  
ruelen ere, seguru.

- Asmatu egin duk.

Uda hark argituko ez zituen hezetasun tatxa  
ilun, inoiz urdina izandako pintura geruzak har-  
tuak zituen kontinente ezezagun gisako akastu



eta amorratuaren eskuak edo txapelak jotako lekuan utziak zituen euli zapaldu haietan zehar, ibai troka mendi baso gainetik luzatutako trenbidearen antzera, bazter guztietarik ikusgarri, «Gora Euzkadi» handia, beldur ematekoa.

- Ez al duzue konprenitzen? Zeuen buruaren kaltean ari zarete...

Maisu zaharraren ahalegina ikasleak zentzatzeko, halakorik ez egiteko, soldaduren batek ikusi eta kapitainari esaten badio, denok nozitu-ko dugu. Bittor hurbildu zitzaion sermoia amaitu zuenean.

- Igandean mustuko ditut, eta ez daukat non gorderik. Agian zuk...

- Neska jatorra da hori, ezagutzen dut ama.

Maisu zahar hark berak ez ote zituen egiten idatzi haiek etorri zitzaion. Ez zekien nola, baina berak. Errieta emateagatik, buruak inarrosteagatik, lo hartzen ez uzteagatik, kausaren publizitatea egiteagatik.

- Hi, biak pasako zaituztet prezio berean. Politak delako.

- Euli bat gehiago.

Gero, puskak jaka barruan gordeta txatarre-roarengana zihoazela, nondik ekarria zuten inork ez zekien gaztetxo hark:

- Hi, Bittor, esadak... eskuarekin baino gusta-garriagoa duk?

Jakiteko irrika zuen, kezka hura, ikaratua ematen zuen mutilak. Ezin esanen zion berak ere eskuaren menturaz zekiela zekiena.

- Bai... Badakik, eskuarekin egitea plazan eta egun argiz dantzatzea duk.

Ez zuen Rosamari ondoko egunetan ikusi, ez zuten ikusi, batailoi osoaren andregai ofiziala zen, «Hartuko nitizkek bota berri batzuk!». Bereak musteko nolako ibilaldia proposatuko zion zerabilen buruan Bittorrek, mendira eramane zuen, Landarbasoko leizeak ikustera. Eta Bittorrek botak janzteak, nola ez, zeremonia garrantzitsua izan zen igande goizean, Rosamari biluzik lurrean etzanda baleukate bezain miretsiak langile penatu haiek denak, begiak zabal oinak lona gozo hartan sartzen ikusten.

- Behin egon haizela berarekin, eta bazakik hire hankaren numeroa?

- Neska hori sorgina duk.

Bestek esana bezala irten zitzaion, neska hori, urrundu egin nahi izan balu bezala. Lagunei behatu zien, eta inork ez zuen harridurazko zirkinik egin, «Oso bizkorra duk» esan balu bezain arrunt hartua zuten. Baina deskubrimendua izan zen Bittorrentzat, horixe esanen ziola pentsatu, «Egunon, sorgina!», ostatuan sartzean.

- Tratu onaren ordaina izan duk, e Bittor? Tratu ona eman hion, ezta?

Mezetan, apezak bedeinkazioa bota aurretik, «Panier Fleuriko zubian» ukondoraino burumakur etorri zitzaion emakumezkoak, ez zuen eza gutzen, ahots hura sekula, Rosamariren lagunen bat. Sakristauak ate handiak zabaltu arte itxaron zuen, eta oinetakoak dastatuz joan zen ibairantz, lasai, Papelera Españolako tximinia handiek jaurtitzen zuten hodei konkorreari beha.

- Goazetak txalupan.

- Txalupan?

Euskarriko hesian jositako burdinazko eskalan behera abiatu da Rosamari. Txalupa gorri bat dago lotua bertan, arraun pareta tosten gainean. Apustu egingen niken heuk ekarriak direla. Aitarena, etxeko lagun batena, bezeroren batena, nork

jakin. Hainbat aldiz ikusi ditinat txalupariak erramuak erabiltzen, saiatuko naun, heuk egin behar ez badun behintzat, sorgina haiz. Askatu dute esteka, harresian egin dute indar arraunarekin, ibaiaren erdiraino ekarri dute txalupa. Estroboak, bai, izan ere, garbi zagon nork egingen duen arraunean. Uste zuena baino gaitzagoa da, palak laprast egiten dio batzuetan, sakonegi sartzen du hurrengoan. Uretik handiagoa ematen du lanabesak gordetzen dituzten gangilak. Arraunketan gorputzak egiten duen joan-etorrian, Rosamariaren irriari behatzen dio, eta bere bota berriei.

- Oraindik ez dinat esan, eskerrik asko.

- Pausoa non ematen duan ikusten ez lotsatzeko.

Agur egin die norbaitek fonderiatik ibaiaren portu sarreran, labeak ezin inoiz itzali, garretan egon behar dute igandeetan ere. Utzi egin dio arraun egiteari, eta txalupak, ibaiaren korronteak eramana bezala, portuaren erdirantz jarraitu du geldiro. Itzulerdi egin du Bittorrek branka aldera. Moilak bagoiak garabiak ontziak gurma

itsugarrian ezkutatuko dituen lanbroa ageri da Uliamendin behera eta bokalean barrena.

- Aizan...

Gihar bero heze gordina bere ahoan taupaka tantarik gaziena xukatu nahirik. Aski izan da ukitu intimo arin hau, tanta jasotzeko lain, Bitto-  
rren gihar guztiak inoiz gertatu ez den igurtzia-  
ren oroimenean tinkatzeko. Mutilaren eskua Te-  
ruego gorpu izoztuetan atxikia geratu izan zen  
gisan geratu dira lipar batez bien ezpainak itsa-  
tsirik musua askatzerakoan. Rosamariren irrira  
zabaldutako begiak, eta eskua luzatuta barne-  
rantz bihurritu du, errebes, neskaren masaila  
binperraz laztantzeko. Nola eztitu nauen fresko-  
tasun honek, bai, gorputz osoa ferekatuko dinat  
horrela, ahurraz bestera, nire atzaparrok ez  
ditun hire haragiaren duin, polborak, espermak  
laztuak ditinat. Euliengandik urrunduena dago  
oraintxe, nagituen. Ez du, ez dute ontzirik ez ga-  
rabitik ez moilarik ikusten. Antxetarik gabeko  
itsaso bat.

- Itzuli egin beharko diagu, ezta?

- Rosamari, faborez!

- Badakik nora goazen?

Laino hutsa den Rosamariren irriñora itzuli gabe, ikaratu egin nahi naun orain, laku amorratu erabaki du, ikustan.

- Itzuli? Horra itzuli?

Ibaiak, Bittorren esanetara, uholde berrian dakartza porturantz genuaren kiratsa soldaduen mehatxuak pareta zikinak mauser abandonatuak paga murrizak fusilamenduen tarradak meza nagusiak kartzelarien aginduek pasodoble tristeak zapart egin gabeko obusak salatarien beldurra patata salda berunez lastratutako gorpuak hitz egiteko debekuak oraindik betetzeke zeukan lagun hilari egindako zina, euliak, euliak, euliak nagusi hondamendi haren gainetik hodei Rosamariren haragiaren gose.

- Uhartera!

Ez, ez naun ni izan agindua eman duena, barruan daukan beste norbaitek esan du hori Bittorren ahotik, sabelean lukeen ukabila zabaldu egin balitz bezalako zerbait sumatu du, hezur mulko bat bere giharren taupada atzeman nahirik, ametsa haragiaren igurtziaren bila, eta mila miliatan uharterik ez dagoela badakien arren, tu egin dinat lanerako baino ez diren ahurrotan,

neureetan, korrokoien jauzien gisako plaust  
amultsuetan eragin die arraunei dantza mendian  
gauez biluzik egiten den lurraldera buruz abia-  
tzeko.

# Losadaren pizkundea

Aldazek mapa zabaldu zuen goroldio ihartuaren gainean, eta lagunak makurtu zirenean kamamila besterik bereizi ahal izan ez zuten basabelarren lurrun sarkorrak jo zituen hirurak. «Hemen zagok Pilatosen Balkoia!», atzamarra mapan tinkaturik. Gorantz behatu zuen gero, eta eguzkiaren printza ahulak ozta iragazten zituzten hodeietara luzatu zuen besoa, «Aitzina, ongi goazak». Inoizko txukunen bildu zuen katastrala Aldazek, lehen baino tinkoago estutu zituen makilak Dopazok, berari erantsi zioten zur pusketa landua ez zuela galdu segurtatzeko bezala haztatu zuen alkandora sabelaldean Barbeitok. Aldazen ibili arinari lotu ziren, urrats bizian, pagadia zela ez zekiten basoari buruz. Orbela zapaltzen hasi zirenean antxetaren halako bi izanzen hegaztia haizatu zen hostajetik. Hari beha gelditu ziren, hirurek ere natur zientzietako orrialdeetan baino ikusia ez zuten arranoa zela pentsatuz, hegalen formagatik. Barbeitok ez zuen halako aukera lardaskatu, «Hau ez duk



itsasoan ibiltzea, lagunok, hau mareajera irtetea baino askoz arriskutsuagoa duk». Ez zen ari beldurra emate alde, onena zen filmeetarako pasadizoak asmatzen eta zernahi onartzen zioten lagunek. «Hemen dena piztiaz betea zagok, airekoak zelatan zauzkaagu eta laster helduko dituk lurrekoak, basurde gosetuak azalduko dituk, horiek usaimena erabiltzen ditek eta honezkero haizeak esana ziek zenbat kilo hazkurri dabilen hemen». Berak bezainbeste gozatzen zuten lagunek Barbeitoren jardunarekin, elkarrekin ikusitako filmeak kitzikagarriagoak ziren beti gero, kankailu hark kontatuta, oharkabean joandako xehekeria guztiak bihurtzen zituen garrantzizko eta durduzagarri. «Isil hadi!» agindu zion ordea Aldazek, denek hain maite zuten galegozko biraoa erantsiz. Barbeitoren hitzek deitu izan balute bezala, izan ere: lanbroa muinoetarik jaistearen edertasuna, lanbroa beti itsasotik gorantz ikusiak zirenen harritzeko. «Eta hemen ez zagok farolarik!» Barbeitok oster, alegia deus ez, baina isildu balitz hobe. Ziztu bat entzun zuten. Ezkerretik zetorrela zirudien. «Bai zera, ipar beltza zabilek, ekaitza dakarren haizea, bizkarretik

izan duk». Segundo bat lehenago ikusten zituzten zuhaitzak urtuak ziren, portuko bokalea ixten zuen zerrazoiaren antzeko esnetasunean. Zitzua entzun zuten osterara, hurbilago, eta Dopazok oihu egin zuen bere ahots garratzean.

- Hemen gaude!

Hitzak heldu zitzaizkien aurrena.

- Baina nora zoazte lanbro honekin!

Harrapatuak zituzten. Nor bere baitan, poztu egin ziren hirurak.

- Ingurua aztertzerara irten gara, basurde arrastoak ikusi ditugu gure dendaren inguruan.

Hitzen ondotik heldu zen kanpamenduko bu-  
ruzagia sekula ikasiko ez zuten lasterbideren ba-  
tetik, bere galtza motz eta uhaleria guztiarekin.  
Linterna bat zekarren, eta gerrako ontzietan  
gaztiguak emateko guardiako marinelek erabil-  
tzen zuten metalezko ziztu luzexka berdina, lo-  
karri berde txirikordatu batean sorbaldakotik  
zintzilik. Gerrian trabeska ageri zuen mendiko la-  
bana jo zuen begiz Dopazok.

- Hemen galdu egin zintezkete, eguraldi ho-  
nekin... Badaukazue bruxularik?

- Guk eguzkiaren ibilian atzematen dugu nor-tea.

Ez zegoen Barbeito isilduko zuen fraiderik, jo ere ez zuten egiten jadanik, erasiatu baino ez zuten egiten mesedez egon zedila hamar minutu hitzik egin gabe. Barbeitorenetik abiatu zen Aldaz:

- Eta gauez izarretan bilatzen dugu orratza. Buruzagiak ezin izan zuen haserretu.

- Bai, e? Ba orain esadazue non arraio dagoen kanpamenduko bidea!

- Hortik! -esan zuen Barbeitok salbatzailea ustez azaldua zitzaien aldetik- Gure boten lorratza utzi dugu behorren gorotzetan, berariaz.

Eta handik abiatu ziren hirurak buruzagia atoian zeramatala berriz halakorik ez egiteko erreguka, lehen egun hartakoagatik ez ziela kargu hartuko eta mesedez ez zezatela huts egin biharamuneko ikastaroa, salbamenduzko lehen jakitekoak emanen zizkiela aditu batek.

- Alferrik da, itoak beti hilda ageri dira.

Baina ez zien utzi beraiek uste zuten adinako heroi agertzen kanpamenduan, pausajea bizitu eta galerna batetik arribadan ekarriko balitu mo-

duan sartu behar izan zuten haren ondotik den-  
den zirkulu barruan, zitzua jotzen zuela umeak  
biltzeko. Ikastetxeko kapilaua hurbildu zitzaion  
Dopazori urduri, ahapetik mintzatu zitzaion.

- Gero zuekin hitz egin behar dut.

- Inguruak aztertzeraz irten gara, basurdeak  
dabiltza... Erne ibili behar dugu txikienekin, leku  
arriskutsua da hau.

Harritzekoa bazen ere, kapilauak ez zekarren  
errietarik.

- Kontu bat aipatu nahi dizuet, zuek jakin  
egin behar duzuen kontu garrantzitsua.

Gainerako ikasleek zuzen lerrokatuak itxaro-  
ten zuten formazioaren aurreneko ilaran gertatu  
ziren ohartu zirenerako. Dopazo «zuek jakin egin  
behar duzuen» hartaz liluratua zegoen, kaltera-  
ko izanen bazen ere gailentasun bat aitortzen  
ziren kapilau nardagarri hark. Birao egin zuen  
Barbeitok. Bazkalondoan, ikastetxeko Yellow  
Submarine zaharrak ekarri zituenean ez zegoen  
halakorik, Florenzio txoferrak ziaboga oso bat  
egina zuen erdiko masta luze haren inguruan  
gelditu baino lehen, eta han ez zegoen orain  
ageri zen piperpotoa. Haren orpoan utziak zituz-

ten motxilak, Queiruga muturreraino igana zen zangoak gurutzatu gabe, zatar hura gero biratu zuen norbaitek, orientazio ikastaroa ematen ari ziren bitartean. Orain zeremonia egin behar zutela zirudien, eta abuztu oro moila trasatlantikoan atrakatzen zuen *Hernán Cortés*-ko guardiakoak bezala ilunabarrean, kanpamenduko buruzagiak ziztu luze bat egin zuen aurrena, gero hiru labur, kapilauak soka askatu eta piperpotoa bien artean erriatzen hasi zirelarik.

- Viva Franco!

Eta erantzun egin zioten ergel batzuek, «Viva!». Zakar jiratu zuen burua Aldazek, bere ukaldi figuratua baino mehatxu zuzenagoa izan zen Dopazoren ahots lakarra.

- Mekajuen a kona ke vos botou!

Eta Falangeko militantearen bigarren agindua jarraian.

- Arriba España!

Koldarren batek baino ez oraingoan. Eta buruzagia, porrota ikusirik, umeen artera heldu zen piperpoto tolestua kapilauari utzita.

- España...!

Barbeitok barre egiten zuen nabarmen.

- España... una!

Ikasleen belarrietara egin zuen oihu kanpamenduko buruzagiak, izter iletsu haiek agerian zituela umeetan umeena.

- España... grande! España...!

Bekoz beko zeukan Barbeitok. Barreari eman zion behako sutuaren beldurrik gabe. Dopazok erabaki zuen eskua labanarantz mugitzen ikusiz gero samara egingen ziola jauzi. Halako zerbait esan nahi izan zion Aldazen zeharrekoak ere. Biziki ederra izan zen une hura, gertatu zen orduantxe falangista jator hark eskuak erre gabe ezin laxa zezakeen tinkamendu bortitz bat Frente de Juventudes-en udako kanpamendu hartan.

- Gora Vladimir Ilich!

Ez zen Barbeito izan, aurea hartua zioten behingoagatik. Astiro mugitu zuen burua buruzagiak, tiroa zuzentzen duen kanoia iduri.

- Nor izan da?

Dopazok ezpainak pintzatu zituen atzamarrekin, Aldazek ukabil biak erakutsi zituen, Barbeitok zirkuluak egin zituen besoekin ikasle guztiak animatuz kanpamenduko buruzagiaren bizkar ostetik, eta koruak mutu iraun zuen falangista,

legionario ausart, lerroetan barrena makurtuta  
pauso geldotan barneratzen zelarik frankotira-  
tzailearen bila.

- Gora Vladimir Ilich!

Bigarren batxilerreko mukizu bat izan zen,  
patioko garaian beti kromoak trukatzan ibiltzen  
zen txaparro kaskagorri maritxu ospeko bat. Oso  
ahots ahulean, koruko ez bestea. Legionarioak  
preso hartu zuen, irten zedila agindu zion, joan  
zedila mastaraino, eta umea paretik barregarri  
tente pasatu zelarik tu egiteko keinua sumatu  
uste izan zion Aldazek, berarengana.

- Hemen geldituko zara afaldu gabe, gure  
bandera iraintzeagatik.

Eta ziegetan itxi gintuztelarik korneta entzun  
genuen egun oro bezala, gure barruko lanbroa-  
ren sordinak tristea eta urruna egiten zuen doi-  
nuan, argiak itzali eta amets banatan etzateko  
aginduz ametsik gabe lo egin ahal izatea nahi  
genuenoi. Enbeitak lanpara piztu zuen zoruaren  
erdian, nondik nora eskuratzen zuen ez gene-  
kien alkoholezkoa. Mantak bizkarrean genituela  
jesarri ginen, mendiko suaren inguruan bageun-  
de bezala. Baina inork ez zuen filarmonika joko,

inork ez zuen abesti gozorik hasiko. Kapilauak oparitzen zizkigun otoitzerako estanpekin egini-ko baraja atera zuen Sagarduik betiko moduan, eta eskualdi batzuk egin genituen, berba nork askatuko.

- Gu baino abertzaleagoa da hori!

Ez zuen inork erantzun. Losada ez zen aber-  
tzalea, guk bezain ongi zekien hori Otalorak  
berak. Denboragarrenera Uriartek, burlairez,  
«Ze batailoitakoa?». Eta lehen bezain lasai Ota-  
lorak, onartu nahi ez genuen hartan joz, «Zer ar-  
dura dau horrek? Losada gu baino abertzaleagoa  
da!». Ilunabarreko zeremonian azaldu zuen  
edertasun beldurgarri hura berritu genuen  
denok geure kautan, egia zen inork ez zuela ha-  
lako kemenik erakutsi presondegian generama-  
tzan sei hilabeteetan.

- Erraza da adorea erakustea etsia emonda  
zagozanean...

Sagarduik beti egin behar izaten zion aurre  
Otalorari, ez genuen aspertzeko arriskurik.

- Gaixorik dago, Pereiro doktoreak esan eus-  
tan senda leikeela, baina kanpoan, Espainian ez



ei dago horrendako botikarik, Alemaniatik ekarri beharko litzakio. Ez dau luze iraungo.

Otalorak ez zituen oraindik kartak jaso, bat-banaka behatzen zigula mintzatu zen, «Denok hil behar dogu, baina ez gara gauza izaten heriotza gure kausaren alde baliatzeko». Hitz egin behar nuenean, Sagarduik ostera Losadak egingakoa suizidatzeko modu bat zela azken finean, «Eta hori ezin dau kristau batek egin».

Hiruko ezpata bota zuen Otalorak kartei asko erreparatu gabe, bera zen esku.

- Eta Elizako martiriak? Ez ziran suizidak, ha-reek be?

Hitza atera ahal izan nuen noizbait.

- Losada gu baino abertzaleago izan liteke, abertzalea ez delako.

- Hori ulertuko dauenak badauko nik besteko talentua...!

Elkarrekin eginak ginen Bizkaiko kanpaina, lagun handia nuen Uriarte.

- Guk bizi egin behar dugu, guk lanean jarraitu behar dugu hemendik ateratakoan ere, aberri-gintzan. Losadari berdin dio, berak ez dauka

aberririk, berak ez du bizitzeko arrazoirik iraultza egin ezean.

- Ja, ja, ja! Hik hamendik urtetea espero dok?

Ziegako inor ez geunden hiltzeko zigorrez, baina seta triste bat hartua zen aspaldion Otalora, gauero genuen iluntasun berriren bat.

- Hemendik irtengo gara noizbait, eta bizi egin beharko dugu, eta familia bat osatu, eta geure seme-alabei kontatu egin beharko diegu zer den Euskadi, nola erori diren gure lagunak, gure anaiak...

Isildu egin nintzen malkoak etorri baino lehen, eta mugonez itzali zen lanpara, Enbeitak ordu laurdeneko bizia baino ez zion ematen metxari. Etzan egin ginen, eta eztul batean hasiko zen laster Uriarte isila.

- Ez da kristaua, baina Losada abertzalea dogu. Nik ondo ezagututen dot bere ibilia.

Ez genuen eztabaida luzatu nahi, hirurak aldera gaueroko ateratzeek iratzarriko gintuzten eta gero nekez hartzen zuen batek lo. Baimena ematen geniola interpretatu zuen Enbeitak.

- Mutil hori komunista zan lehen, Trintxerpeko galiziano horietarikoa, eta Gipuzkoako fren-

tean zaurituta egoan Gernikako Karmeliten komentuan. Neskabila gazte batek zaintzen eban, eta berak esan eustanez, ondo zaindu be. Gernika suntsitu ebenean, erizainak familia osoa galdu eban, baina neskato harek esan ei eutson orain bere familia Euskadi zala. Eta entzun egik, Sagardui, neskabila harengatik egin zala eusko abertzale esan eustan Losadak berak niri lehen-go baten, patioan gengozala. Abertzalea dalako doia pozik fusilamentura, ez dozue sinistuten?

Nik bizi egin nahi nuen, ez nuen Euskadiren martiria izateko batere gogorik heriotzaren forma koldar eta kementsu guztiak ongi ikasiak ukan behar zituzten entregatutako batailoi haien aitzinean. Abertzalea nintzen, eta horregatik sinesten nuen gerra baino luzeagoa dela bizitza, lo egin nahi nuen, sendatu egin nahi nuen, larrutan egin nahi nuen.

- Zer egun da gaur!

Otalorak erantzun zion, herri berekoak ziren biak.

- Hazilaren hogeitabosta.

Eta ozenago orduan Enbeitak, sutsu:

- Arana Goiri'tar Sabin hil zan eguna! Horregatik egin dau deiadar Gora Euskadi piperpotoaren aurrean! Hi, Aldaz, Losadak bajaukak aberri-rik!

Urtebete eduki nituen Enbeita eta Otalora hitzik egiten ez zidatela, Uriarteri ordu erdiko barre-eztula eragin zion neure hasperenak minduta:

- Harrigarria dela gero, titi pare batek eduki lezakeen indarra...!

Eta ziega guztiak inarrosi zituen kornetak jo zuen garratz, tetanoaren txertoa jartzera ikaste-txera etorriak zitzaizkien erizainek zeinen handituak zeuden irri batean errepikatzen zieten amestetik egotziz. Nagiak atera eta lo zakuetan jarraitu zuten gogortasuna baretu arte, ez zioten elkarri behatu nahi. Barbeito izan zen aurrena zutitzen. Blujinak mantapean jantziak zituen, eta sakelatik ezin aterarik zeukan esku bat. Uzker handia bota zuen irten baino lehen, hanka zakur-ren moduan jasota.

- Utz ezak zabalik!

Lanbroak hartzen zuen dena, ez zen almidoi aire bat baino ikusten, flotatu egin behar zela bertan ematen zuen.

- Agudo, agudo! Garbitu, gosalduek eta formatzera!

Komunetara zihoala, besotik heldu zioten.

- Entzun... Ni behartu egin naute, jakin eza-zue.

Ez zitzaion gustatu kapilauak besotik heltzea, eta kafesne keru epel okaztagarria zekarten hitzek.

- Ikastetxekoek gezurra esan didate, nik uste nuen kanpamendu hau eskolarena zela.

- Eta Losada?

- Mastan pasarazi diote gaua. Nik txokolate beroa eramane diot tarteka, oso mutil balientea da. Berarengana noa ostera.

Komunen bordan sartu orduko zigarroa piztu zuen hortzak zintzoro garbitzen zituzten umeen aurrean. Ez zen erosoak makurtuta erretzea, itzali eta ezpainetan eskegi zuen ostera, gero profitatuko zuen. Garbitzekoa *El Pensamiento Navarro*-ko orri zatiak ziren kako batean. Hiru aldiz hasi behar izan zuen irakurketa, murgilean ara-

katu ohi zituen kostapeko arroak bezain lauso hartzen zituen hitzak, ezin zuen kontzentratu, balientea Losada zelakoa zerabilen buruan eta gaitz egiten zitzaion onartzea. Paper guztia erabili behar izan zuen, kapilauaren akorduak bihurritu egin zizkion hesteak. Ketan sartu zen jangelako aterpean, hantxe zeuzkan Aldaz eta Dopazo, mahai luze betearen ertzean.

- Non sartu haiz?

Belartxo batzuk kendu zituen mihitik, filtrorik gabekoa erretzen zuen, beltz gogorra.

- Losada fusilatu behar ditek.

Colacao-an utzi zuen ogia Aldazek.

- Zer edo zer egin behar diagu!

Dopazok gainerakoei egin zien hitz, zutituta.

- Entzun duzue? Losada fusilatu behar dute denon aurrean!

Negarrari eman zioten bigarren B-koek, Losadaren gelakoek.

- Non zagok kapilaua? Berak egin zezakek zerbait!

- Losada konfesatzera zihoala esan zidak.

Kanpamenduko buruzagiaren ahotsa heldu zitzaion, beti bezala, lanbroaren erdian.

- Oraindik amaitu gabe?

Espainiako atletismoko federakuntzaren txandala jantzia zuen bibote petraleko laguntzailer bat zekarren aldean, irribarretsu. Zer duda egin, errefuertzak ekarriak zituzten matxinada zanpatzeko.

- Arin, denok formatzera!

Ez zuten mehatxurik behar izan, inork ez zuen zirkinik egin kakanarruenetan ere.

- Tira, tira, denok formatzera bandera jasotzeko!

Ikara bereziak laztandu zituen oinetarik goiti Aldaz Dopazo Barbeito, honen osabak antxoatara eraman zituen egun hartan motorrek kuber-tan eragindako dardara bezalako batek. Beren gudarien aitzinean fusilamenduko postean lotuak leudekeen izardunak balira bezain harro behatu zioten elkarri.

- Nik ziztu jotakoan, denok mastaraino! Azkena popaustel!

Pausoren baten hotsa sumatu uste izan zuten, baina erronka infantil itxurako hark eragin lehen momentuko inertzia hutsa izan zen, inor ez zen zutitu, inork ez zuen Losada fusilatzen

ikusi nahi, alferrik jo zuen ziztuak, eta Falange-koek kapilauaren laguntzaren bila alde egin zutenean ere gaseztaturiko troparen antzo gelditu ziren jesarririk hirugarreneko petralak eta bigarreneko txatxuak, lanbroa jantegiko lurrun hotz, xardeak koilarak labanatxoak min hartzeraino estutuz beren benetako buruzagien agindu gogorren baten beldur. Baina Barbeitok irri erori bat ageri zuen zigarro itzalia kentzea ahanztita zeukan ezpainetan, Dopazo tristetasun akigarri batek zeukan mukertuta, «Vladimir Ilich» errepi-katzen zuen ahapean, Aldazek mahaiko xikinen artxipielagoan zeukan galdua behakoa, menturaz hankagorri lotsabako hark mastarakoan egin zion tuaren imintzioa gogoan. Eta denek ere Losada zoroaren oihua estaliko zuen deskarga espero zutelarik, Urbasa osoko basurdeak kanpamendua hartzen hasiak ziren denda guztietako galletak mermeladak txokolateak tabakoak linternak esne kondentsatuak gutun paperak eguzki kremak argazki kamerak kapilauaren aldizkariak eta Aldazek maiatzaren aurreneko bazkalondo luzeetan aitari ikasitako Pilatosen Balkoia esaten zitzaion faxisten hiltegi klandestino har-



tan ezarri nahi zuen pirograbatua txehetzeko:  
hemen... fusilatuak... askatuta.

# Prakadunen artekoak

Noizbait behar eta, harrika hain mingarriro zehatza zen zarpatsu bakarti hark lagun bat egin zuen ezustean. Harrotua egiten ari zen kostapean karnatarako zizare bila bere lagunik onena izanen zena ikusi zuenean inguruan, ez zegokion eremuan sartzen, ezin utzi ezer esan gabe eta «Hi, Xabi, zer ari haiz...?» esanen zion, edo «Peru» edo «Antxon» agian, «Kaxkajo» edo «Txankame» esan ez bazion behintzat. Ezustean egin zuen laguna, mehatxua amaitzen lagatzeke «Kaixo, Huck!» esan baitzion zaparro hark, «Ni Tom nauk!». Liluratuta gelditu zen, auzoan denek ezagutzen zuten elkar, bazekien izen arrotzak zirela haiek, abenturakoak, izen haiek hartzea arraun elkartean sartzea baino bereziagoa zela. Tom irakurtzen ari zen liburu batean ageri omen zen Huck, «Hire antzeko bat» eta hori aski izan zuen onartzeko, gauza sorgintzat zeuzkan liburuak, eta harrezkero Huck izan zen auzoko mutiko guztientzat, Huck, zakur izena nire iritziz, Tom katu izena den bezala, txakur-

katu ibili nahi zutelako agian, gertatzen dira halakoak prakadunen artean prakadunak mutikoak izan arren. Hamabina urte zituzten eta beldurgarriak ziren erramutan, edozein helduk baino arinago zeharkatzen zuten biek ala biek portua alderik alde txalupa hartuta. Auzoko arraun elkar-tekoak atzetik ibili zituzten astun, Euskal Herriko txapela jasoko omen zuten infantiletako batelarekin haiek biak tostetan edukiz gero, baita bakar batekin ere segurenik, baina biak bildu nahi. Gogoz sartuko zatekeen Huck, maite zuen lehian jardutea eta nekeak dakarren nagitasun hori, lagunak ordea «Señorito alaenak!» esaten zion, mespretxatu egiten zituen, «Horiek ez zakitak zenbat erro dituen olagarroak!». Tomen aita penatua zen, bazekien semeak zeinen ubera ederra eragiten zion txanelari, berak irakatsia zen. Ez zuen dudarik patroia izanen zela, halako gorpuzkera zeukan gainera, zalua, zimela, zaintsua. Semeak, damurik, nahiago zuen Hucklekin arroketa eta itsasoan, entrenamenduetan baino.

- Liverpoolera joan behar diat.

Bafore handienen popan zetorren izena, milioi eta erdi milia barru Liverpool, hor nonbait.

- Egun hauetako batean.

Ez zen samurra lagun egin berria horrela galtzea, malkoa etorri zitzaion Hucki.

- Hango atoiontzietan kontratatu ditek aita?

- Ez...

Tomek ez zuen halako galderarik espero, besterik zer erantzun jakin ezean egon zen behintzat luzaz, galdera hark uste ez zuen zer-baitera ekarri balu bezala.

- Bakarrik noak.

Huckek ez zeukan sekreturik Tomentzat, baina argi zegoen honek bazeukala beste bizitza bat, liburuek eta aldian behin bisitan joaten zitzaien hiriburuko lehengusuek emana, maiz aipatzen zizkion haiekin egindakoak. Ez zituen maite Tomen lehengusuak, haiek bai zirela señoritoak, gure artera azaltzen ziren bakanetan aletak jantzita egiten zuten igeri, bermudak erabiltzen zituzten. Min eman zion Tomen aitorpenak, Bonantzako moilan arrantzan zeuden kainazaleengana jo zuen urduri, arrain usaina zetorren otarreetarik.

- Beha, Tom, hasi dituk muxarrak berriz azaltzen!

Eskuak sakelan itxaron zion lagunak Santa Anako farolaren azpian, ez zen moilaren bazterrerera inguratu.

- Bakarrik noak, hik etorri nahi ez baduk.

Ezpainetan zeukan amua kendu zioten Tomen hitzok Hucki. Alferrikakoak izan ziren, alabaina, Liverpoolen nolakoaz tarrapatan egin zizkion galdera guztiak. Zekienik edo ez zekienik, deus ez zion erantzun, barre besterik ez zion egin.

- Apustu egiten diat ez duala popaz altxatzen.

Atzamar arina eskuineko lokiraino jaso zuen ginbaletarena eginez Huckek, petrilean branka emanda gilaz gora zegoen txaluparen azpian ezkutatu baino lehen. Popak gora egin zuen poliki, zangoak azaldu ziren, gero gerria.

- Ezetz iraun hogei minutu!

- Zerria...!

Ongi jarria zeukan bizkarra atzeko tostaren azpian, nahi adina minutu irauten ahal zuen.

- Jaitsi, jaitsi, Huck! Nire aita zatorrek, jaitsi ezak eta geldi hadi barruan isilik.

Lagunaren esana egin zuen, ez zuen nahi Tomek arazorik edukitzea beragatik. Tom petri-lera igo zen, itsasoari bizkar, bere frantsesa erakusteko pronto. Kanpotarrak ematen zuten, udako sardinzaleak noski. Argazkia ateratzen utziko zioten, baietz, hara Tom bere aitaren txalupa lehorreratuaren ondoan eskua txakur baten lepoan daukala. Eskertu egin zioten.

- Esanen nian noiz irten!

- Hogei minutu barru, ezta?

- Alde, Beltxa, alde hemendik!

- Eta utzi egin diek argazkia ateratzen?

Turistei aurrea hartu eta erretegitik gora joan ziren, labar gaineko mandabidea hartuta, Marina Españolako soldaduek abandonatu berria zuten goiko farolaren ondoko parapetora. Haize brixak leun jotzen zuen ekialdetik, itsasoa ardizuritan harrotzeko lain. Pozik zebiltzan antxetak goi haietan, txilio zorrotzak ateratzen zituzten behintzat, zaila da jakiten baina poza edo tristura adierazten duten, hegaztiak izaki berezi samarrak dira.

- Zenbat erro zauzkek olagarroak?
- Tom, faborez...!
- Putzu horretan bostehun mila papardo zabiltzak.
- Ez al zituan berrehun mila?
- Beheko zuloak utzita labarrean gora abiatuko balira, kosta osoa estaliko liketek kazkarra-toiek.

Arando Aundia eta Arando Txikia izeneko barretara inguratuak ziren txalupak erretiran, Bernardo, Imanol, Atanasio, Floren, Martxel, txipiroitan ari ziren oraindik, laster ilunduko zuen, lainotua zegoen eta olaxta sarrien gainean islatzen hasia zen Platako farolaren palada luzea. Lehen izar multzoa ageri zen Capbreton aldean, gauari tiraka. Parapetoaren aurrealdean, arranoaren arroka begi hustuaren aurrean daukan magalean jesarrita Liverpoolez zekiena azaldu zuen Tomek eta, harritzekoa, asko zekien, han gaizki janen zutela jakinarazi zion lagunari. Huck bi-daiaren aukera hutsak liluratua zen, ez zitzaion axola goseak ibili beharragatik.

- Enbatak jotzen duen gau batean itsasoratu-ko gaituk.

Harrigarria zen Huckek erabakiak hartzea, hori Tomen lana izaten zen.

- Sortida enbatarekin egin?

- Bai, beldur handiagoa ematen dik.

Eta aitzakiarik ez zeukan argudio horren aurrean, men egin zuen Tomek, bururatu ez zitzaien kitzikagarria zen, benetako abenturek lehen unetik sortu behar dute ikara gozo hori. Berak ere ez zekien dena Huckez, bazeukan mutiko hark liluragarritzko zer bait, ezustean hunkitzen zintuen.

- Barratik aurrera inor ausartzen ez denean.

Lasterka jaitsi ziren, Huckek ikusi egin nahi zituen gasolinoek zekartzaten arrainak. Alde polita kendu zieten Arandoetara hurbiltzen ari ziren ontziei, ez tarria freskatzeko geldialdia egin zuten gazteluko iturrian, handik oinez jarraitu zuten moilaraino. Ilundua zen Tomen aitaren txaluparen aurretik pasatu zirenean oster.

- Eta hik, edukiko al huke hamar minutu?

Bizkarrak harrotu zituen Tomek, bidaiarako tabakoa biltzea komeni zela komentatuta eskua jarri zuen txaluparen sabelean, zaflada maitekor



batzuk eman zizkion hiltegiari harakinak behorrei egiten dien moduan, horrelaxe.

- Gure ontzia...

Huckek ez zuen entzun, ez entzuna egin zuen, galernetan zeukan burua. Baina Santa Anako arkupera heldu zirenean zalantza larria sortu zitzaion.

- Hi, ez duk esan nahiko...?

Bizkarrak harrotu zituen Tomek, ohitura berri hori hartzen hasia zen, itxuraz.

- Txaluparik onena diagu guk egin behar dugunerako.

Santa Anako farola gorriak halako deabru antza ematen zion Hucken aurpegiari, garrek izututako deabruarena.

- Liverpooleraino iritsi nahi duk horrekin?

Laguna algaran hasi baino lehen erantzun zuen Tomek.

- Dena esplikatua zagok irakurtzen ari naizen liburuan, Huck.

Hiriburuko lehengusuengana joan zen Tom, beira-zuntzezko txalupa omen zuten eresia eta hiriburuko badiak kanpo arraun egiten irakastea eskatu omen zioten, ez zuten elkar ikusi hurren-

go egunetan. Aitari saregintzan laguntzen eman zituen Huckek egun aspergarri haiek, gero moilara joan izan zen kontrabandistekin hitz egitera.

- Goazen, Beltxa!

Etixeratu aurretik parapeto abandonaturaino igotzen zen, kazkarratoiek inbasioa hasia ote zuten edo zeroiren baten turrusta ikusten ote zuen ortzimugako haria eteten. Liverpoolez go-goeta egiteko zeukan modua zen hura, hala esan nuke nik. Errietarik ez, arropak zoruan, docker hasi, ohean erre, berandu jaiki, neskatan ibili, errietarik ez. Eta despedidarik idatzi gabe alde egin behar zuen gainera, horrelakoak adierazten zituen ziztuka han goian, Kantauri gainean. Gero, atzerakoan, Tomen aita topatzen zuen maiz txalupari blaka ematen, eta lasterka iragaten zen haren ondotik, gizon zakarra zen.

- Gaur edo bihar abiatu beharko diagu.

- Ez gaur eta ez bihar ez dik enbatak joko, ez dik nahikoa bero egiten, epelegi zagok.

- Bai, baina aitak laster bota nahi dik uretara...

Txaluparekiko lanak amaituak zeuzkan lagunaren aitak, hori ongi zekien Huckek, «Tximista»

margotzea besterik ez zuen falta uretarako, tole-  
te berriak ipintzen ikusia zuen bezperan.

- Ikara ematen dik, Tom, aitor ezak ikaratua  
hagoela, ez haiz enbatarekin ausartzen...

- Asmatu egin duk, zorionak.

- Nola aterako gaituk horrela, ezer prestatu  
gabe?

- Goazen beheko harkaitzetara.

Garrantzizko kontuak esateko behar izaten  
zuen gisan itsasoari beha jarrita, Tomek beste  
bizitza bat zeukala erakutsi zuen berriro zazpi  
mila barril fuel eta suntsiezinako hiru mila bakte-  
ria mota desberdin atxikitzen zituzten harkaitze-  
tan. Gezurra zen lehengusuena, aste osoa horni-  
zioak eta gainerako trepeta guztiak eskuratzen  
eta gordetzen ibilia zen.

- Baina nola moldatu haiz aste osoan ez ikus-  
teko, urpean edo?

- Mendiz ibili nauk.

- Noski... Harakinaren alabarekin.

- Hi, Huck...!

Herriko mendietan egin izan omen ziren ake-  
larreak deskribatzen zituen liburukotean ikusia

zuen deabru begi-txiki kokots-zorrotzaren antza hartu zion ostera Tomek Hucken aurpegiari.

- Hura ere ez diat aste osoan ikusi.

Algara egin zuen Tomek, zutitu egin zen eta algaraka jarraitu zuen, harri kozkorak ematen zuten algara haiek.

- Titimotz horrekin gustatua hago!

Galerna aurreko goibelduran estiborreko seinaleak argitu balu bezala gorritu zen Huck. Isilik gelditu zen hantxe, izterrean azkura nabaritzen hasi zen arte, deabru ahalketua. Lasterka ekin zion, moilarantz abiatua zen Tom harrapatzeko. Camel kaxa berria atera zuen patrikatik, bera ere ezustekoak egina zelako frogatuta.

- Hiru kartoi eskuratu ditiat, merke.

Berdina ez izaki eta ezker-eskuin makurra, gure auzoko karrika nagusiak sugea zirudiela esan omen zuen aspaldi Tomek menturaz noiz-bait irakurriko duen idazle frantses ospetsu batek, hala dio behintzat herriko liburutegiko arduradunak aldi berean behin tabernan. Ez dakit hori entzuna naizelako edo, han-hemen karrikara dauden argi ahulak zoruko harlandu bustietan islatzen direlarik, sugearen ezkatari distira ikusten

dudala pentsatzen dut askotan, gaur egun ma-  
kurra eta malkarra izaten jarraitzen duenez, be-  
harrik, gure karrika nagusiak. Beldurra ematen  
du, sugeak piztiak dira. Karrika nagusia esaten  
zaio eta karrika bakarra da egia esan, luzea  
ordea, euskal kostako karrika bat luzea izan lite-  
keen neurrian. Karrika bakarra duen auzoan mu-  
tikoek edo neskatoek hegan ez bada etxetik ihes  
egitea ezinezkoa dutela usteko du auzo hau,  
itsasertzekoa izateaz gainera, menditsua dela ez  
dakienak. Pendizaren orpoan daude kokatuak  
mendiari eusten bezala karrikaren estiborreko  
etxeak, nolabait esatearren, eta hauen atzeal-  
dearen eta mendiaren artean gelditzen da zen-  
bait lekutan karkaba, beste batzuetan belena  
eta guk hemen zurruna esaten diogun pasabide  
meharra, etxez etxe trabarik gabe doana, men-  
dirako xendra ugarien sorburu eta auzoko katu  
guztien babesleku. Zurruna erabili dute Huckek  
eta Tomek, beraz, etxetik ihes egiteko. Mendiko  
xendra ezkutuen hartu dute, eta etxe multzoa  
goitik zeharkatuz, teilatuen gainetik ibiliko balira  
moduan, gaztelu bazterrera irten dira. Handik  
beherantz hartu dute, auzoaren kabura, petrila

eta karrika nagusia amaitzen diren itsasertzera. Karrikak, jakina, itxura berezia du orain, elizako ezkilak gauerdia jo arestian hasi duen euri zintzarrak sugearen ezkatat bailiran izarniarazten ditu zoruko lauzak, eta beldurra ematen du, sugeak ausiki gaiztoa dauka.

- Aitaren baimenik ba al daukak, Tom?
- Hoa olagarroaren erroak zenbatzera!
- Neuk jasoko diat popatik aurrena, gero sar hadi heu branka azpira.

Lanak edukiko zituela uste zuen, baina Huc-kek ikusi ahal izan du lagunak baduela kemenik, arin jaso du branka. Atzeraka mugitu da Huck, itzuli laurdena eginik eskuinerantz, abioa itsasora buruz zuzentzeko.

- Zer ari haiz? Gora jo behar diagu, ez behe-  
ra!

- Gora?

Itzuli erdi eta laurden egin du Tomek ezkerre-  
rantz, norabidea bilatuz eta karrika nagusiaren  
suge buztana amaitzen den horretan bertan ha-  
siera duen bokalerako mendibideari branka  
emanez. Huckek indar egiten dio eutsiz, aurrera

ez dezan. Ezin dute elkar adostu dragoi burubakoaren azpian dauden lau hankek.

- Jakin al zitekek nora goazen?

- Isil hadi, Huck, eta entzun ezak ongi: gazte-lu atzerainoko malda egin behar diagu lehenbail-lehen, gero handik aurrerakoa errazagoa duk.

- Hi ez hago ongi burutik, Tom! Zertarako eraman behar diagu txalupa horraino? Hobe diagu arranplan itsasoratu, ehun metro ez dituk eta marea gora zaukaagu gainera.

Baina amore eman du Tomek tira egiten duen aldera, badoaz gorantz txalupa euriaren estalgarri hartuta. Hobe duela beste galderarik gabe, betikoa. Euria egiten duenean ez dute hainbesteko hotsik ateratzen harri txintxarrek hankapean. Malda erdirainokoan berriro hitz egin beharra.

- Tom, ez haiz konturatu... Noroeste jotzen dik, ezin diagu arraun egin haize kontra, ez diagu deus aurreratuko, alferrik nekatuko gaituk.

Ahabetik mintzo da Tom, Huckek ez du kasik aditzen zer dioen, esanaren tonuak du isilarazten.

- Zenbat aldiz esan behar diat dena kontrolatua daukadala? Ez nazaala aspertu. Eta bidal ezak nazkante hau hemendik ostiko bat eman da.

Huckek galdera mordoa dauka egiteko, baina etsi egin du labor barne dena argituko dela pentsatuz. Gaztelua iraganda Arando Aundi barrako bidea ezker utzirik eskuinera jo dute berrehun milioi urteko jakinduria omen daukaten iratzeetan barrena, non itsasoratzeko asmoa ote dute.

- Bihar gure bila aterako dituk...!

- Etsiko al duk heure bihotzeko mixpira hexurra ikusi gabe, Huck?

- Muturreko bat irabazi behar duk oraindik!

Hala abiatu ziren Liverpool aldera gure auzoko Tom Sawyer eta Huckleberry Finn, iraulitako txalupa baten azpian, oinez.

Nolakoa ote zen Liverpool?

Hucken amak, antza denez, semea goizean goiz jaiki eta gosaria mahaian utzita alde egina zela kontatu zuen merkatuan, eta harakinak «Badira bi orduan!» egin omen zuen labana zorrotzen zuen bitartean, Tomen amak gauza bera esana izan behar zuen lehenago semearengatik.



Bazkaritara azaldu ez zitzaionez, Tomen etxera joan zen, eta han ez zuten lasaitu, ez zeukaten bere semearen lagunaren berririk, eta orduan jakin zuen goizean ohea desegina azaldu zen arren semeak ez zuela etxean lo egin, amak bezperan atondu bezalaxe utzia zuen Tomek berea. Aita txalupa lantzera etorri zen, arratsalderoko ohitura, atoiontziko guardia amaituta, arratsaldeko seietan. Auzo guztietako bazterrak harrotu eta portu osoko boia guztiak ikertu zituen petrilean falta zen txaluparen bila debaldetan, eta etxeratu zenean jakin zuen semea ere falta zutela. Inoiz ez bezala, etxe azpiko tabernara jaitsi zen kafea hartzera afalondoan.

- Bihar goizean hementxe azalduko da gure mutila, txipiroiez tostetaraino beteta.

Biharamunean sortida handi bat antolatu zen beste auzoetarik etorritako zenbait yaterekin eta gasolinoekin, komandantziako V-18 kostazaina buru zutela. Armadako marinelek bengalak banatu zituzten, arrastorik aurkitutakoan jaurti eta kostazaina lehenbailehen hurbil zedin. Komandanteak agindu zorrotzak eman zituen, hamar milia barneratuko ziren itsasoan, ez gehiago, eta

beti kostazainaren popan, «abaniko formazioan», eta «ur espainiarretarik irten barik», hala esan zien moilan bildu zituen txalupari guztiei. Beste portuak abisua hartuta zeudela, armadako ontziak patruilatzen ari zirela, eta lotuta zeudela irratiz.

- Mutiko horien ahaiderik bada hemen gure artean?

- Ni!

Orduan komandanteak nor zen galdetu zion, eta Hucken aitak izen-abizenak eman zizkion, desagertutako mutiko haietarik baten aita.

- Ederto, zu lehorrean geldituko zara. Zeure onerako da.

Eskua bizkarrean jarri zion norbaitek. Ez zuen ezer esan, etxerantz egin zuen behaztopa sudurrari zintz eginez. Niri ere hanka egiteko moilatik agindu zidan Florennek, ontziratu nahi izan banu bezala. Baina nik ez nuen beraiekin itsasoratze-ko asmorik, banekien ez zituztela nire lagunak aurkituko.

- Alde egiteko hemendik, atunjalea!

Jende mordoxka etorri zen azken arroketaraino sortida hura ikustera, kostazaina noreste al-

detik urrundu zen, «ur frantsesetan» inor sar ez zedin noski, gero Martxel, Atanasio, Beñardo, Imanol, Floren yate tartean... eta antxetak atzetik txilioka, zer esaten ote zuten bostehun mila papardoen gainean hega zoroan zebiltzan hamaazpi mila marrantatu haiek.

Tomen aita Atanasiorenean zihoan, alkandorra gorridun hura zen. Itsaso ona zeukaten, haizeirik ez zebilen.

Ez da izugarri zaila asmatzea halere nolako solasak ibiliko zituzten itsasketa hartan, «Frantsesek helikopteroak zauzkatek, gu non gabiltzan jakiteko bakarrik behar ote ditiztek?» eginen zuen marmar Atanasiok, baxurako arrantzan aritzen zen hura tarteka, «Eskapadaren bat egin nahiko zitean eta haizeak eraman ditik, noroeste gogorak jo zian bart», eta berehala Tomen aitak «Ez hain gogorra, eta orain bare zagok. Itsaso honekin ez zituan galduko, ume horiek ez!», eta arrazoi sendoagorik behar ez bazuen ere «Txalupa kalafateatu berria zegoan, ez duk posible hondoratzea itsaso honetan!», baina egoskorra Atanasio «Egarriak hil behar ditek bero honekin!», eta berehala «Isil hadi, Atanasio, neure

onetik ateratzen nauk!», baina Atanasiok ez zuen haurrik, laster minduko zuen oster, ohartu ezin, semea galdutzat eman nahi ez zuen aita.

Labarretan txaluparen arrastorik edo gorpurik azaltzen ote zen ikertzera joanak zirenek, oraindik egun argi zegoela gasolinoak hurbiltzen ikusita, aurkitu zituztela uste izan zuten. Baina besoekin ezetz esan zieten bokalean, tanke osoa hustu baino lehen zetozen nonbait. Moilara itzuli ziren denak bat-banaka, egun tristea ukan zuten auzoan, nik behintzat malkorik ikusi ez baren ere harakinaren alabaren begian. Hucken aitak leihoan eman omen zuen egun osoa, hantxe zegoen ilunabarrean, lehorreratzen zirenei beha, inori galderarik egin edo eskerrak emateko gauza ez zela. Haatik, oilasko gisatuaren lurri-na zekarren kaxuela batekin azaldu zen emaztea etxeko atarian. Tomen aita ez beste guztiak hurbildu zitzaizkion, hortzak izerditan jartzen zituen usain hark.

– Egunero aterako gaituk.

Atanasioren eskaintzari erantzun gabe abiatu zen etxera Tomen aita. Ez zen tabernan azaldu afalondoan.

Nolakoa ote zen Liverpool?

Haizeak olatuak mareak argiak estatxak, eta gizonak begiak erreta itsasoaren distiran behatu beharrez eta andrazkoak belaunak minberatuta otoitzean. Gorpu bat azaldu zen Donibane Lohizuneko hondartzan, komandanteak «ur frantse-sak» esaten zion bazterrean, baina oso honda-tua omen zegoen, aspaldi izan behar zuen itorik, eta zaharraren hortzak zeuzkala. Egun txarrak izan ziren arrantzarako, mundu guztia zebilen haserre eta auzoko prakamotzek ezin zuten txalupa batera hurbildu inguruko heldu guztiak garasika jarri gabe, alde egiteko handik, berdin zen txalupa kateatua egotea edo kostapean lehorreratua, helize berriaren zain zegoen Ondar-rurenera ere ez zieten uzten. Tomen ama labarretako ertzean ageri zen arrastirian, ilundu arte gelditzen zen, azken txalupa sartuta gero ere orduak egoten zen emakume hura han goian. Bere burua botako zuela zabaldu zen auzoan, hala egiten omen zuten enbata sortuta bokalera ezin sarturik senarrak itotzen ikusten zituzten emakumeek, garai batean. Apezak omen zioen, eta komandantziako kapitaina agindu berekoa zuen

nonbait, ezin zuela inor hildakoen liburuan apuntatu gorpua azaldu arte. Eta bi amak oraindik areago hilduratzen zituen kontsolagarri hura hartzen omen zuen ahotan, «Gorpuak ez azaldua seinale ona da, nork daki ez ote dugun bihar bertan ume horien berri jakinen... Eduki ezazue fedea Jainkoaren esku gozoan». Huck eta Tomen urtzeak, egia esan, fedearen susperraldia ekarri zuen, jende gehiago biltzen zen eguneroko arrosariora, gizonezkoak tartean, dozena bat kandelazaltzen ziren pizturik goizero Santa Faustina-ren odol ustelgaitzaren aldaretxoan. Meza mordoa enkargatu zion Tomen amak, parrokoak erreguetan «Itsasoan dabiltzan gure semeen alde» esaten zuenean, hunkidura berezia nabaritzen omen zen eliztarren eztuletan. Meza nagusi abestua antolatu zuen lagun biak auzotik lekutu zirela hilabete konplitu zen igandean. Auzo osoa joan zen, bazterretan eta atzeko aldean gizonezkoak zutik, Huck eta Tomen hileta izan zen hura funtsean. Ozengailuetarik eman zen elizkizuna, portu osoan eta inguruetako mendi guztietan entzuten ahal zen organoa eta erretorearen ahots funebrea. Jesukristok San Pedro arimen arran-

tzale izendatzen dueneko pasarte irakurri zuen eskolako Hucken ikaskide baten oihuek eta jendea malkotan zela parroko jauna aste osoa idazten jarduna zen sermoiari ekitera zihoala, mikroa zuzentzen ari omen zen hartantxe, ataritik eta zimitoriotik zetozen umeen garrasiek eta zakurren zaunkek urratu zuten tanpez bildutasunezko une hura.

- Azaldu dira, azaldu dira...!

- Liverpooletik heldu dira!

Goitiko batean hustu zen eliza umeen eta zakurren atzetik lasterka karrika nagusitik barrena gora eta behera, ezker eta eskuin, jende zoro suge. Parrokoa eta zenbait neskazimur gelditu ziren bakarrik aldare aitzinean, Jainkoari otoitzean belaunikatuta. Oka hark inolako erruki barik zanpatu zituen haurrak eta atsoak, arrantzara zetozen kainazaleak eta estropezu egiteko zoritxarra ukan zutenak, sardina errea jatera zihoazen frantximantak eta zer ote zen galdetzerara godaleta eskuan tabernatik irtendako liburu-zaina berrehun eta berrogeita sei mila ezkatako suge honen gainean orroka ostikoka adausika zanpatuezkilak atertu ezineko bozkarioan zirela,

auzoko hogeita zazpi mila arratoiak estoldetan behera eta mila eta seiehun eta berrogeita hamabi katuak teilatuetan gora ihesian.

- Liverpooleraino joan dira!

Eta handik buruz behera lau pataka baletor bezala baztertu zen jendetza alboetara mira eginda Tomen aitaren txalupari bide egiteko gazteluko maldan behera.

- Alde Beltxa, alde hankapetik!

Txalupak popa eman zigun petrilerira iritsi zenean, aurreko garraiatzaileak petril gainean utzi zuen branka, gero atzeko hankak plegatu ziren, popa lurrean utzi arte hilabete lehenago egona zen leku berean, Tomen aitak kalafateatzen eduki zuen petrileko leku berean, Huckena eta beste saregileak lanean aritzen ziren arkupetik ez oso urrun, guztiz berritua egoteko «Tximista» besterik ez zuela eskas. Inork ez zuen ezer esan ez txalorik jo, denak zeuden irrikan txalupak ezkutatzen zituen aurpegiak ikusteko. Baina bi buroak estaltzen zituen zurezko kapelu hartarik irten zitezen baino lehen Atanasio hurreratu zen galdera lilura ezin sineste masa hartarik, izugarrizkoa zen isiltasuna, harakinak behorrarenean



bezain leun ibili zuen eskua txaluparen sabelean harat-honat nire lagunei kasurik egiteke, sudur-pera ekarri zuen, gero uxarka egin zuen gilana eta albaletan. Katuak kontserbategiko atepean us-naka ibiltzen diren gisan, zinez.

- Txalupa hau ez da egon lau aste uretan.

Handiagoa egin zen isiltasuna, txaluparen barrutik etor zitekeen erantzuna jakin nahirik. Argal, zikin, harro azaldu ziren Huck eta Tom.

- Zuek ez zatozte Liverpooletik!

Marmarra zabaldu zen, xuxurlaka hasi ziren neska guztiak eta mespretxuka mutiko guztiak. Ahots lakar bat gailendu zen.

- Zer esan nahi duk, Atanasio?

Denok jiratu ginen Tomen aitak mehatxu egi-ten zuen aldera, sare metaren gainean zegoen. Handik jaitsi zenean jendetzak irentsi zuen, txipi samarra zen, hari eta honi bultzaka azaldu zen puska batera Atanasioaren aurrean. Ez zuen kei-nurik demendrena egin semeagana, Atanasiori eraso zion. Kokotsera iristen zitzaion eta burua jaso gabe gorantz behatzeko ohitura zeukan, ko-peta zimurturik. Zakar airea ematen zion honek,

baina ez Atanasio beldurtzerainokoa, auzoan denok dakigu nork zer zaunka mota egiten duen.

- Txalupa honek ez zaukak hilabete uretan egonaren usainik.

Ikusleengana itzuli zen Tomen aita, burua atzera bota eta arnasa hartu zuen bularra hanpatuz, nabarmenkerian, behin, bitan, sudurra jaso eta arnasa hartzen hasi ginen han geunden guztiok Tomen aitarekin batera, usain hartzea arnas hartzearen berdina izanen balitz bezala.

- Nik kresalaren usaina besterik ez diat aditzen.

Hala zela hasi ziren ikusleak bata besteari, Tomen aitak arrazoi zuela, nahiz eta bazen han kresalarenaz gainera ke, fuel, gernu, izerdi, arraba ustel...

- Hurbil ezak sudurra hona!

Txaluparen sabelera egin zuen hatz Atanasiok, Tomen aita ez zen mugitu.

- Zura siku zagok ia, hau ez zen hain erraz lehortuko itsasoan egon balitz. Usain ezazue hemen eta esadazue!

Norbait aurreratu zen Atanasioren gomita entzunda, ez zituen lau pauso eman Tomen aitak

besotik heldu eta atzera bota zuenean bortizki. Ukabilak estutu zituen, talka egin nahi zuela zirudien, kopeta inoiz baino makurrago.

- Nire semeak arraunean ez dakiela esan behar al didak?

Burua jaso zuen Huckek orduan, begia kliskatu zidan. Gero aitaren bila saiatu zen, petriletik. Edo harakinaren alaba gure artean ote zegoen.

- Nire semea Liverpooleraino joan duk arraunean txalupa honetan!

Inork ez zuen ukatuko Huck eta Tom arraunlari trebeak zirela, alabaina askok zalantza egin zuten ahapetik gauza izan zitezkeenetz haiek biak hilabetean Liverpooleraino iritsi ez ezik itzultzeko, milioi eta erdi milia barru Liverpool, hor nonbait, pentsatuko zuten gure herriko mari-nel motzok. Entzun nuen baten batek portu hura non zegoen galdetzen zuela, berak ez zuela ezagutzen han egondako inor. Elkarri behatu zioten nire lagunak, eta barretxo bana egin ote zuten.

- Hori gezurra duk!

Izututa gelditu ginen denok, mutu, halakorik esatea Tomen aitari.

- Eta hik ere badakik gezurra dela.

Ez ginen jabetu benetan gertatu zenaz harakinak behorraren sabeletik bezala Tomen aitak labana tantaka atera zuen arte Atanasioaren sabeletik. Prakadunen arteko zikinkeria horietarikoak izan genuen hura. Tomek berak hartu zuen besoetan aitak labanka emandakoa, lurrera eror ez zedin. Aurreneko ilaran zeuden saregileak oldartu zitzaizkion Tomen aitari, aipatuko ez dudan batek labana hartu eta harrika bota zuen uretara. Arraun elkarteko direktiboen artean eraman zuten antxintxika gero auzoan kontatu zen moduan «Hil izan balute bezalako garrasiak» egiten zituen Atanasio lotsagabea, gonek eman ahala mutiko galduen etorrera ikustera iristen ari ziren lehen andrazkoak izutuz. Tom zurtz eginda hurbildu zen aitagana, izuak hartuta, hala zirudien.

- Hi, seme, esaguk, nolakoa duk Liverpool!

Belarriak tente geunden denok. Tomek dardarik gabe egin zuen hitz. Hiru edo lau urte zaharragoa ematen zuen ahots hark.

- Liverpool iluna da, hezea, zikina, gaizki jaten da.

Irriño bat egin zuen aitak.

- Entzun duzue...

Eta ondoren sententzia jo zuen ikusle guztiei beha, ozenago.

- Ez al nian arrazoirik gizon hori akabatzeko?

Hori esanda udaltzainen bulegora jo zuen pauso luzeka, Tom krabata beltzak oraindik lepoan zeuzkaten lehengusuen artean utzita.

- Eta guri ezer esan gabe, e?

Jendetza sakabanatzen hasi zen plaza aldera, gertatua bertatik bertara ikusia zutenak atzeragokoei kontari.

- Atanasiok atera du aurrena labana...

Petrilaren pareta bazterretik hurbildu nintzen, inor ez zen oroitzen txalupaz. Espero nuen oso bestera, alga lizun berde kutsu sarkorra zeukan zurak, iratzearen akordua ere ekarri zidan ohol haietan zegoen hezetasunak, urruneko nonbait ezagun batetik. Txaluparen gerizpera sartu nintzen, eta dena garbia zegoela iruditu zitzaidan, kearen lurrina sumatu arren. Han nengoela, Hucken aitaren hitzak entzun nituen.

- Zertara etorri haiz? Gelditzen ahal hintzen Liverpoolen!

Txiza egin, muturra txalupapetik atera... buruz buru zeuden aita-semeak sare metaren ondoan, inork ezin arindu genion tristetasun hura ikusi nuen berriro Hucken aurpegian eta, ez bainuen laguna hala nahi, aspaldian egina nintzen haginkadarik ederrena egin nuen, prakadun bati egiten nion aurreneko ausikia bere aitari egin niona prakak dotore urratuta, egik barre, egik algara Huck, nire amorrua zorrotz tinkatua zagok umerik merezi ez duenaren aztalean, harrika eman behar didak?

Prakadunok...!

Haragia zail eta odola herdoil gustuko, prakadunok.

Sugea ez nintzelako damuz badere, nire lau labanak gogorkeria hartan sakonanker sartuta urrundu nintzen gazteluko bidean gora arroketarik murgil egitearren, ez Liverpooleraino ihes egin nahirik, Tomek esanen lukeen moduan azken hilabetean erreta nindukaten bi milioi eta gehiago parasito odol hurrupatzaileak fuel gazi hartan itotzeko baizik.

# Vladimir

## 1

Murgil luzea egiten genuen geure zanbuilaren uberatik joan ahala urrun azaleratzeko eta, begietan itsatsi ilea zakur bustien moduan astindu ondoren hiru lau besakada nagi emanda berriro urpera jotzen genuelarik, sakonago ilunago itoa-go saiatzen ginen, inork ikusiko ez gintuen munduren batera. Lentan joaten ginen goraldiak uhartetua zuen harkaitzeraino, eta bertaraturik, harro mutu beldurrak ekarriko genituen akordura olatu garratz batek iragan urtean handik eramane zituen lanpernazaleak, herritarrak, koadrilako izendatzen genituenak orain, gure burua hondamen hartako bizigordeak sinetsita. Harkaitz handi hartan etzanda erdi lo gelditzen ginenean besterik ez nuela desiratzen esanen nuke: etor zedila, Ternuatik edo Gransoletik, gu beste norabait eramanen gintuen бага askatzailea.

- Bihar ere hona etorri behar al diagu?

- Bai, baina hiri ez diagu utziko!
- Negarra aterako zaidak.

Aldendu egin nintzen lagunengandik, bakar-tasuna bilatu nuen sardatik bereiz, gogora sor-tzen zitzaizkidanak igarriko ote zituzten lotsa. Besteek ikusi gabe apuntatu nahi nituen libu-ruan gordetako folio tolestuan, uretara nintzen ostera luzaro baino lehen.

- Kontuz, sirenak hire atzetik!

Baguenen piztia bana gorputzaren otzaran, aingira, halako desadostasun bat geure buruare-kin: hitza nekez etortzen zitzaigun eta esanaren ezin askatuak oihu kolpe jauzi lasterka gintuen menderatzen, baina ez genituen onartzen gure itzalaren higidurak, urte batzuen okerra zegoen erretzen gintuzten zalantzen eta elkarri aitortzen genionaren artean, moztadean bizi ginen.

«Uhinak baleki...» idatzi nuen.

Lagunak ez zitzaizkidan bilduko hankatik edo samatik helduta elkarri behin eta berriz pulunpa eragin gabe -sanjuanberde egitea, gure aiekan-, urekoak abilduta belarrari oratuz igaiten ziren bidezidorreraino, larru-azala oilobixar, gorputz osoa leiho eurituen antzera pikorreztatua, hor-



tzak karraskaz eta ezpainak more harkaitz pirataren gainean kiskalmenak hartzen egon arren, estropezu nori eraginen bultzaka, halatsu beti, neuk ezkutatutako ogitartekoen bila. Tomasen harridurak egin zuen harako hartan ostikoz erabil ez nintzaten.

- Bikiniko hura ez al duk hire arreba?

Arreba nuen bai, neure arreba arroka zuria-  
ren azpiko harlastan, kankailu bat aldamenean,  
bizkarra xukatzen ziola.

- Hire arreba, mutil batekin!

- Esparroi hori ez duk herrikoa!

Ez nintzen ausartu bazkaritara ekarria zuela  
esaten. Hiriburukoa zen gainera.

- Zigortuko bagenitu?

Hala moduzko solidaritate izpi batek prestu-  
tasuna ematen zion proposamen anker hari, ez  
nintzen zapuztu neure afera ez beste inorena  
nuena lagunek bere eginagatik. Kankailuaren  
bular iletsuan mugitu zen arrebaren eskua, mu-  
surako hurbildu ziren.

- Zertan ari dituk horiek!

Irri inozoak egin genituen, ziztu mingarria An-  
txonek. Neu izan nintzen lehen harria jaurti

zuena. Arrokarren barnerantz aterpetu ziren, handik Itzalarriko Erreka aldera hartuko zuten igeri, zihoazela neure begi bistatik. Biluzik etzan ginen belar zakartuaren gainean, gure mende-kuaz harro eta barruko piztia sosegatuta.

- Merezia zian...

Gorroto nuen esparroi hura, bai, eta gorroto-ago nuen neure burua bostekoa estutzerakoan «Tabakorako!» esanik eskuan jarri zidan billetea ez hartzeko adorerik ukan ez nuelako.

- Hire arreba zaukaat gogoan!

Bere toletea mirets genezala nahi izaten zuen Antxonek, huraxe laztantzen ariko zen. Gero ahuspez jarrita zaplaka ekiten zion, baina orduan biraoa bota zuen. Arantzen baten laztana nozituko zuela edo inurritegiren batean landatu-ko zuela pentsatu genuen, betazalik jaso gabe hasi ginen karkailetan erroz gora geundenok.

- Hemen zatozak! Hemen zatozak!

Tropa samalda handi samarra zetorren Amaotzako malkarrean behera, zabalduan, fusilak eskuan, batera eta bestera zoko-miaka oteak kanoiekin baztertuz. Ikusiak gintuzten eta biluzik geunden. Berandu saiatsu ginen herrestan arropa biltzeko, oihu tiro mehatxu egin ziguten.

- Zutik, eskuak gora!

Arrebak eta bere morroiak salatuak ginen ausaz, mezetara joaten ez, harkaitzen kontra fusilatuko gintuzten, epaituak geunden, gure begiak dastatuko zituzten guk eskainitako beitariz muzin egiten zioten durdoek.

- Zer zabiltzate hemen?

- Noiztik etortzen zarete hona?

Ikusi ez beharreko zerbait ikusiak ginen, edo jakile ginela usteko zuten, Mola jeneralaren bosgarren kolumna ziren, tiroketa eta atakada saioak egitera isilean etorriak. Agian bere amorian tearen aurrean torturatu zuten arreba gure posizioa jakitearren. Mihia irentsi genuen haatik, fraideen zafradek aspaldian ziguten irakatsi hobe dela sobera errazak diruditen galderei erantzun gabe. Ardiak inguru haietan ibiltzen zituen artzaina zekarten gidari.

- Ez zenuten otsorik ikusiko?
- Edo zeuek al zarete otsoak?

Txatoren aita erreketeeetan ibilia zen, askotan kontatzen omen zion patarrari bolbora bota eta su emanda hartu izan zuela, gudarien muinoetan goiti artilleriarik gabe erasora abiatu aitzin. Har-tarik edanak haiek guztiak, burutik zeuden.

- Ile gutixko zukatek hauek larruan, otsoak izateko!

Eta algara egin zuten tarrapatan janzten ginen artean, haien imita gu barre txipitan, izua-ren izuz. Leku ona aurkitu genuela, ongi ezagu-tuko genituela bazterrak, uxarkan eramanen gintuztela aurretik. Errepikako Belliniak zekar-tzaten, AZ gainezarriak eta Beretta berriak, ongi hornituak zetozen. Zahatoak okela arrautzak gazta pusketak azaldu ziren. Non ezkutatu geni-tuen neskak.

- Jan gazteak, jan, ikara kentzeko!

Beteranoak ziren gehienak, ea inoiz postare-kin tiro egindakoak ginen, zenbat lumako eta zenbat ileko boteak ginen.

- Hauek ez ditek iledunik etzanarazi oraindak!

Berben azpia uzten zuten agerian aldiro zakil haiek. Erne geunden, bagenekien txantxen on-dotik zinezko galdeketa helduko zela, eskarnio haietan amurik ez balego bezala lasaitu nahi gintuzten, eskuz esku gureganaino zahatoa, fraideen teknika bera.

- Hemen, hemen!

Denak amildu ziren itsasorantz, labarraren azkeneraino jaitsia zen artzainaren oihuak ziren, eta gu motelago. Batek edo bik min hartu zuten orkatila arroketan bihurrituta. Artzainak ardi izterra zeukan eskuan, ziri batean trebestua.

- Idortzen paratua zegoan!

Postura zaharrean mintzo zen, apezen gisan.

- Ez duk otsoa, arimaduna duk!

- Harkaitz arteko zuloak miatu behar ditiagu!

Boluntario bat eskatu zuten karabineroen kaseranaraino joateko, urrun zegoen, mareajea beheratutakoan baino ez zitekeen iritsi labar-muturraz haratago zeuden leize zuloetaraino. Lau boluntario bazirela, Txatok. Agudo ibiltzeko agindu zigun artzainak, eguzkia ihartu eginen zela -bazezien hizketan agure hark- karabineroak iritsi orduko.

- Kristauren bat dabilela!

Belaun-joko bizian urrundu ginen pendizean gora, mendizerri haiek sua pizten zutela ardi izterra jateko asmoz.

- Hor behean dabilena Vladimir duk!

Liluratu egin gintuen Txatoren irtenaldi ezus-teko hark, izenak ozentasun sorgina zeukan.

- Vladimir?

Gure erresistentzia gidatuko zuen komandantea.

Urpekontzi sobietiko batetik lehorreratutako iraultzailea.

Gure herri mozkor ustel zabar hartan matxinada antolatuko zuen buruzagia.

- Vladimir...!

Menturaz bai, menturaz ez zituzten sakailatu miliziano guztiak Gernikan, menturaz Bigarren Mundu Gerraz geroztik yankiak noiz hurbilduko labana zorrozuta leizean igurika zeuden gerlari nipon haietarik bat iduri kukutua Vladimir, Molaren atzeguardari jazar egiteko.

- Nolaz ez diagu guk ikusi lehen!

- Nik banian susmoa...!

Zunbilondoko muinora iritsitakoan hartu genuen arnasa. Harria Antxonen eskuan, zalea zen.

- Erotu haiz!

- Armatuak zaudek!

Kalibre politeko morteroak igorri genizkien gaztelu zaharreko puskailetan ongi babesturik, arrebari bezain anker. Gogotik erantzun ziguten, baina harrian jo zuten haragi bala haiek: historia aldatzen ahal zen. Maltzuraren aierua elkarri, hitzik gabeko ulertzea. Aspertuko ziren karabine-roen zain.

Gizotsoa Vladimir.

### 3

Zamako ingelesek ekartzen zituzten paper metetan bereizten ikusten baldin bagintuzten zigiluak biltzen ari ginela esanen genuen, eta ez zen gezurra. Orduan ez tul egiten zuten, hitz laurdenik sinesten ez zigutela adierazteko egiten zuten ez tul makur hura, ongi, baina ez genuela ezer askorik harrapatuko. Berandu genbiltzala, zatirik onenak estibatzaileek berek eta gero zaborketa-

riek eramanak zituztela. Txatarraren inguruan ikusten baldin bagintuzten uste behar izaten zuten kobre hariaren atzetik genbiltzala -ongi ordaintzen zen kiloa txatartegietan-, eta ez matxeteak moldatzeko pusketak egokirik. Batekoz bestera ulertu nahi izaten zuten beti karabineroek. Ginena baino inozoago azaldu behar genuen, beraien uste ahal izan zezaten ez genituela tronpatzen, bazekitela nahitara egiten genuela ergelarena. Gizontxoak uste gintuzten, ez zekiten menderatu ezin genuen aingira bana geneukala barruan.

- Etorri nahi, tirotxo batzuk jotzera?

Mehatxuz, jakina. Bakean utzi gintuzten hala ere, igande goizetan kapitaina etortzen zitzaien hiriburuko komandantziatik eta estibatzaileen jangelan Itsas Apostolutzako kapilauak ematen zuen mezetara eramaten zituen galaz jantzita. Amaitutakoan aduanako sarreran bilduko ziren zerbeit edatera, astia geneukan.

- Badaude Ingalaterrako erreginarenek baino zigilu hobeak.



Hura zirrara gurea bizikleta beltz astun haie-  
tan jarrita urrundu direnean toldopeak ikertzeari  
lagata laugarren biltegira buruz abiatzen garel!

Horiek ere ez dira mezetara joaten...

Hortxe daude, txopa aldea margotzen...

Margotzen ariko balira bezala, gu noiz azal-  
duko...

- Guk, *Potiomkin*-eko marinelok, geure anaia  
langileei lagundu behar zieagu, eta iraultzaren  
lehen lerroan jarri!

Hala esan zion Matiuxenko marinela Vaku-  
lintxuk marineleri ahapetik txopako eskaileran,  
guk orduan ez jakitea.

Ez genekien, baina laguntza iraultzailearen  
eske inguratzen gara geure anaiengana, pozak  
urduri, egun aste urte luzez irritsean eduki gai-  
tuen zubiko karaktere zirilikoez mezu giltzatua  
luzatzen digun bost adarreko izarra tximinian be-  
gietara gorri ageri duen debiletak manipulatzeko  
dituena emakumea delako zamaketariak eskan-  
dalizatuak dauzkan gerraondotik hona gure por-  
tura lehen aldikotz txopan drapo gorria dakarre-  
la arribatu den burdinolarako ferrailaren aitzar-

kian Vladimirri bizitzekoak isilean deskargatzera datorren ontzira, sekretura, ametsera.

- Vladímir!

Eta guregana itzultzen direla Matiuxenko eta Vakulintxuk. Antxonek, hura beti nabarmen, ukabilaz agurtu ditu. Eskua kapelura marinelen diosala, kapeluan izarrik ez. Ontzi honek, haatik, iraultzaren ubera darama bazterrik bazter munduko itsasoetan.

- Továrich!

- Da...

Txatok paper bat atera du.

- Dobro pozhalovat v Euskadi!

Eta iraultzari lotzen gaituen estatxa guregana ontzitik:

- Bolshoye spasibo!

Plaza Gorria Stalin Leningrado Bolshoi Valentina Tereskova Hermitage Lenin Olinpiadetako dominadunak koljozak ageri dira olaxtek kasko beltzean islatzen dituzten bristada dardaratietan, arrebaren liburu sobietikoen apaletik hartuta lagunei erakutsi ohi nizkien postalak.

- Kaláchnikov!

Matiuxenkok ez du ulertzen, Vakulintxuk blaka emateari lotu da berriro.

- Matxinada piztu duk!

Eta metrailetarekin tirokatu itxura egin du Txatok, hobeki adierazi alde.

- Kaláchnikov!

Eskua bihotzera eraman du Matiuxenkok antzezlekeriaz, bonbila bat erakutsi digu Vakulintxukek karelostetik jasota.

- Stolíchnaya!

Odessako portutik zuzenean etorria zen *Potiomkin* hark iraultzaren oihartzuna zekarkigun, ubera, baina ez ziguten armarik eskuratzen ahal, Antxon izan ote zen gerra hotza aipatu zuena inoiz, Txatok kontaktu honen garrantziaz ziharduena batean.

- Vodka!

Eta nahi genuenetz, keinuka, ona zela.

- Nyet vodka, Kaláchnikov!

Vladimirren lagunak burgestuak zeuden, asaldatu egiten zituen gure eskariak.

- Do you speak english?

- Yes, yes...

- Vladímir is here!

- We are his comrades!

Ferraila bilakatua zuten guk espero genuena, guri zor zigutena. Alferrik ari ginen, gerra hotza.

- Kaláchnikov!

- We need arms!

Ez ziguten txopako bandera ere eman nahi izan, bakarra omen zeukaten. Koleratu egin gintuzten hasieran, hondoratu gero.

- The war has finished!

Ez zuen karabinerorik azaldu behar izan guk alde egiteko, aski zen Matiuxenkoren eta Vaku-lintxuken algara, Molaren tropako haien gisan algara, bazekiten ingelesez.

- Peace and love, boys!

Ez iraultzaileen agurraz, zemaika baizik, harri kozkor bana estutuko bagenu bezala erakutsi genien ukabila: argi ibili gure herrira lehorreratzeko bazarete. Ez genien tabakorik eskatu Stella Maris-etik zabuka zetozen finlandiarrei, ez ginen saiatsu pikategi ertzean amarratuak zeuden herdoilontzietan sartzen, ez genien trufa egin iraileko estropadetarako entrenatzen ari ziren atunburuei.

- «Vodka» esan dik!

Kontuz ibili behar zutela ezin zutela edonorekin fidatu halako gauzak isilpean egiten zirela, gerra hotza, nork daki, agian atako banda hartutakoan paketeren bat lagako zutela uhinek bazterrera ekar zezaten ez genuela etsi behar guk ezagutzen ez genuen klaberaren bat ibiliko zutela Vladimirrekikoak egiteko, halakoak bota genituen, geure burua horren barregarri ez ikusteko baino Txatoren etsipenaz errukituta, hurrengo igandean hurbilduko ginela ostera, han baldin bazegoen behintzat kapitainarekin saiatuko ginela ulertuko zuela, nondik atera duk errusiera hori.

- Ez al zarete konturatzen? «Vodka» esan dik...!

Eta malkoak ageri zituen, zakatzak gorri, trenbidea iragaiten gnuelarik. Ez haren usterik edukitzeko arratsalderako, libururen bat eskatu zidan etxeko atarian. Ez zeukan irteteko adorerik.

- Eta nola egingen diagu bikotea hirurekin? Lasai, Tomas, txandakatuko gaituk.

Twista balsa rumba arin-arina, dena zetorkion neurrira eta denean moldatzen zen nesken pareko, Tomasek ezin zuen huts egin, hura gabe baiezkorik ez, jakina zen Antxon eta biok txandakatuko ginela. Lotsagabea zen tratuan Tomas arraioa, nolako irrintziak neskek haren ondoan, burura etortzen zitzaion aurrenekoa esaten omen zien.

- Ez zaik gauza handirik bururatzen orduan...

Horrelako zerbait esanen zion Antxonek, ez zituen aukerak lardaskatzen.

- Esanen banio neska bati bere txoparen kullunka ikusita bururatzen zaidana...

Ez zen zatarra, eta behatu egin zidan, harri-garria zen neskek haiei so geundela sumatzeko zeukaten dohaina, ikusi gabe zekiten, begia lurretik jaso zuelarik niri eman. Ez nuen behakoa besteratu. Hurbiltzeko gonbita ikusi uste izan nuen masail bete haien gorrituan. Bakarrik zegoen zumarraren ondoan, hogeit bat urrats. Pieza hasi berria zen, loturako motel haietarikoa, The Moody Blues-ena zela esanen nuke. Neure kasa

eskatzen nuen lehen aldia izan zen, baietz –«Go-  
azen!» esan zidan–, eta bazterrean dantzatu  
ordez sarda barrura eramanez ninduen eskutik hel-  
duta.

Tomasek eta Antxonek, harritzekoa, panpan-  
doja bana zeukaten beso artean, ez oso urrun.  
Zer uste zenuten? Zuei beha geldituko nauk!

Sinesteak ere lan zuen, neska hark baietz  
esan zidan zenbat urte nituen ironiaz galdetu  
gabe, nire bila etorria zen nonbait, gerritik ez  
baina goragotik heltzeko esan zidan eta dantza-  
ri ekin bezain neure bularrean pausatu zuen  
burua. Ahotik behera erori behar zutela gelditu  
ziren inguruko mutilak, eskuak bularrean jartzen  
zizkiguten beti neskek. Ez zitzaion inporta bultza  
egiten zigutenean, hala nahiago biok, izerdi  
tanta bizkarrezurrean behera. Antxon imintzio-  
ka. Amolai! Ikusten? Ni nauk. Askotan etortzen  
ote zen. Ezetz, mutil batengatik etorria zela,  
haren esperoan zegoela. Plexiglas urdineko za-  
kuan zekarren txokolatearen zilarrezko paper  
plantxatuan bilduriko pospolo kaxa erakutsi  
zidan. Adiskide baten bitartez heldu zitzaiola han  
gordea zegoen hitzordua.

- Badakizu zer daukan barruan?

Burua neure bihotz gainetik kendu gabe, altxorra eskuan, begiak niregana goitituak.

- Deklarazio bat, lau zuloko blok frantseseko paper horian idatzia, edo berdean, izan liteke arrosan ere.

- Oso polita da, poema bat, niretako asma-tua, paper horian. Horregatik etorri naiz.

Ahotsik amultsuena atera nuen, gainak hartuta nengoen.

- Ez nauzu ezagutzen, baina ezagutuko baninduzu! Nik ordea betidanik ezagutzen zaituzu, nire bihotzaren otzaran bizi den piztia zara, aingira, hori zara zu, ihes egiten didazulako esku artetik.

Burua jaso zuen, gelditu egin zen Antxetak taldeko gitarra baxuak ahapaldien arteko soloari ekiten ziola.

- Banekien zu zinela, niri beha zeunden...!

Lehen baino bilduago besarkatu ninduen, dantzari ekin genion osterara. Maleziak menderatuta nengoen, isilekoak zirenak esan nizkion neska hari.



- Ihes egiten badidazu ere, itsasoaren hondo-raino murgilduko naiz zure bila, eta ezagutu egin beharko nauzu. Mundua zer da gu biok gabe? Eguzkiak beste nonbait argitzen duenean izar bakarra ageri da zeruan, hondotik goreneraino urrundua zu. Eta hartaraino eginen dut igeri berriz, beltzaren erdiko harkaitza zarelako...

Zeinen arrotz bikote haiek gure inguruan dantzan, ametsetakoak iduri, gurma zarratuan lauso ikusten nituen, neska ezezaguna eta biok ginen errealitate bakarra han, izerdi hura, erremin hura gorputzaren zuztarrean. Kantariak Eric Burdon berdindu nahi zuen, *The House of the Rising Sun*, Antxetak ingelesez abesten zuen bakarra hura zen, The Animals-ena genuen.

- Nik ere maite zaitut, Alberto.

Niregatik etorria zela esan banio neska zoragarri hari, halako aukerarik, ez dakit zergatik ez nintzen menturatu. Ez zidan axola Albertorengatik, hiru edo lau kopia edukiko zituen idatziak or-dutxo desberdinak antolatzeko, hostopeko politena hautatuko zuen. Muzin egin izanen zion hari, baina begi hauek balio dutela, neure begietara pindarka.

- Ni ez naiz Alberto.

Bere onera etorri ezinda gelditu da.

- Ez, ez da egia...!

Ni nor naizen, ni zer naizen, ni zenbateraino naizen esan ahal izan gabe oldartu zait bularrean ukaldika. Opari merkeder hura nire zango tartearen erori da, eta zotin saminetan lekutu zait neska, aingira, izarra, plaza osoa niregana jarritz.

- Zer esan diok? Hirekin ez zagok neskatan egiterik!

- Irakatsiko didak heuk!

- Ken itzak hemen bertan galtza horiek!

Bekozko egon nintzen labetakoa egin bitartean, omeletari asko kendu gabe, neska hura lapa gogorra zela esaten zidaten lagunei entzungor. Doi bat damutua nengoen. Ez nion Alberto nintzelako gezurra esan nahi, baneukan hoberik: herriko xarmatzaile usteko zenbaitek eta amorostu anitzek eskatuta asmatzen nituen lerro haietan erakutsi gabe gordeak neuzkanak esan eta idatziko nizkiola berari, gordinak, garratzak, gaiztoak.

- Nondik ezagutzen huen?

Heldu izan banio, burua nire bihotz gainean zeukala entzutekoak ziren esan behar nizkionak. Hobetzea zegoen aingirarena, ez ninduen betetzen bihotzaren otzararenak. Alabaina, poema bat zela esan zidan. Antxetak taldeari egotzi nion gertatuaren errua, luzeago jo izan balute...

## 5

Pilda xaretuak lepoan, aurpegia begi huts, bizar arlotea arloteago bihurtua Tomasek zekarkigun egunkariko argazki puntudunak, han ageri zen gizotsoa bata zurian: zazpi hilabete leize zuloan / lanpernak eta karramarroak elikagai bakarra / uhinek harkaitzetan utziriko gatz milikatzera heltzen ziren ardiak akabatu / surik ezaz, ardikia gordinik / kalte eginda leize zuloan etzanda aste-bete / berak bildu ardiaren gorpua arratoiek jaten / otsoa zebilelakoan, artzainak...

- Horra Vladimir, psikiatrikoan ingresatua!
- Hori ez zuan Vladimir, Vladimir hemen zabillek!

Ez genion entzutea eman Txatoren etorri ahalakoari. Haren zantzuan zebilen, haren aztar-na aurkitzen zuen nonahi, baina gainerakook atzendu samarra geneukan Vladimir, zertan uka. Ezustekoa izan zen, egunerokotik zenbait milia urrundu gintuen uhina. Ez aski dorpea, antza. Izenak elurretik zekarren hunkigarria eta drapo gorri bat laguntzaz betea uste genuen ontziaren txopan.

- Zinemara joanen bagina bihar?
- Espainolada bat botzen ditek.
- Hemen bai, baina hiriburuan badago...
- Hiriburura? Hi ez hago sano!

Ilundurak hartzen gintuen gero eta sarriago zergatik jakin gabe, gure ibili zoroenek ere sortzen ziguten mikaztasuna, odol gustu antzekoa hortzetan, adinaren tristura zela jakin gabe. Baga handiaren aiduru jarraitzen genuen, eta enbatarik ez inondik. Halako batean trena hartu eta bakarrik joanen nintzen zinemara. Ez ginen azkena popa ustel abiatuko, isilik eginen genuen etxerako bidea. Ez nuen afaldu nahi izaten. Liburuko orrialdea pasatzean ohartzen nintzen ez nuela oroit arestian irakurria. Eta idaztekoak har-

tuta ez zitzaidan deus onik etortzen, oro zen euri, hasperen, kaiak hutsik.

- Orain beste nonbait argituko dik...!

Urrunduz doan ontzia genuen uhertzen ari zen itsas marraren gaineko gorritasuna, margo-tu berria balego bezala lurrintzen zuen Kasparrek moztutako belarrak, munduko bazterren albistea zekarkigun kaioen telegrafiak, zentzumenak minbera geldituak ginen portu gaineko Lord Hay gazteluko puskailen artean -Lord Jim esaten genion guk-, jolas guztiez gogait eginda.

- Vladimir hemen zabilek... gerra amaitu ez delako!

Ez ginen Txatok nahi bezain arin jaitsi Kasparrenera, hemen zebilela, ikusiko genuela. Sastrakaren atzean ezkutatu ginen. Katekoa erdi lo zegoen, ez zuen zaunkarik egin. Handik laster Kasparren andrea irten zen etxetik marmita txipi batekin. Zabortegeitik behera egin genuen hurritzen artean Errekalderaino, hango beste baserria, emakumea estrata zaharreko bihurgunean azaldu baino lehen. Ezker-eskuin behatu zuen iturri parera heldu zelarik. Hurbildu ginen poliki, eta

ozta ikusi ahal izan genuen ikertu gabea geneukan uren tunel zaharrean sartzen.

- Ikusten?

Kontu zabaldua zen Kasparren andreari eta bere hiru ahizpei burua soildu zietela faxistek herria hartu zutenean.

- Mendeku izugarriren bat ari dituk antolatzen.

Ordu erdiren buruan edo agertu zen berriro emakumea tunel sarrerako iratzeen atean, marmitatxoa eskuan. Oraingoan ere bidearen goiti-beheitiak aztertu zituen, eta Errekalderantz.

- Itxoin, itxoin!

Emakumea beste baserrian sartua zela, gizon bizardun bat azaldu zen bordatik bidera. Iturri-raino heldu zen, begipe geneukan. Ilea kirru, bizarraren urdinduak kokotsean. Kainupean busti zuen burua. Arropa zahar garbia zeraman, gomazko abarketak. Estratan gora abiatu zen. Antxonek segitzeko keinua egin zigun eta pagoen ostetik irten ginen bat-banaka. Gizonak zigarroa piztu zuen, Antxonek bezperan gazteluan utzitako Zippoa erabili zuela jakinarazi zigun Txatok.

- Gure hornidurak jasotzen ditik!

Zabortegi aldera zihoan. Ilun zen ordurako han behean, pindarrezko tximeleta haren zigarro-mutur sutua.

- Agure hori al duk Vladimir?

Eta hura bera zela eguzkiak beste ordutan argitzen zuen nonbaitetik etorria, baietz Txatok, gure herri mozkor ustel zabar hura iratzarriko zuen komandantea. Bekaina okertu zuen Tomasek, ez zuen sinesten. Eta Txato inoiz baino.

- The war has not finished!

Mendeku izugarriren bat, lepoa baietz. As-tean behin irteten omen zen Errekaldera esne bila. Harantzakoan ez baldin bazen, etxerakoan sartuko zen uren tunelean, Vladimir zeukan han ekintza antolatzeko.

- Marmita betetzeko.

Eta hankartera luzatuko zigun eskua Antxonek, ziritu ote zitzaigun. Ez zeukan besterako iritzirik alproja hark.

Apar handian zebilen hara eta hona zodiac gris hura, hiru lagun, prismatikoak, portu aldetik heldua zen eta gu geunden posiziotik milia erdira egon ondoren, olagarrotan, eskafandraz, oxigenorik gabe, Purrustarri ingurura joana zen kalma zuria baliatuz itsasoan zabal lema estiborrera zarratuta. Gerogarrenean gure aitzinetik iragana zen hiriburuko bazterretara branka harro, bage-nekien berriz azalduko zela porturantz edo gure ingurura eta prismatikoetarik ariko zitzaizkigula, baina guri askorik ez, egunen batean gaitzeko pintaketaz apainduko genituen labar zabalak begi bistan, Platako farola gailur, ez ginen etxeratuko haren distirak nabaritu arte.

– Mundu hau kaka zaharra duk!

Besoak eten beharrean eman genion harrika zodiac hipotetiko bati.

– Bai, alda ezak!

Paraje aparta zen arrantzan eta bainuan ari-tzeko, karramarro bilketa egiten genuen hango harriagan, Ilurgitako zulora azaltzen ziren bikote bakanek urrunagora hartzen zuten gu ikusitako-an. Muxarra batzuk geneuzkan erretzen para-tuak.



- Zer iruditu zitzaizuen Erkiziarena?

Gatz gema, burdin minerala, kok ikatza, zink pirita eta halakoak eskatzen zizkigun, ekartzeko portutik, sekula ez txanpon holandarrik edo Camel edo Chester, Erkizia ergel hark. Menditarra zen, ez zigun inoiz erdaraz egiten. Azken ikasturteko lehen asteetan fraideen Nobizio Etxera joana zen, eta hiru hilabeteren buruan bisitan eraman gintuzten. Ahalkeak hartu gintuen Erkizia azaldu zitzaigunean, sotanak muga ezartzen zuen noizbaiteko ikaskideen artean, gelatarra izandako hura Jainkoaren hauta zen orain. Instalakuntzak erakutsi zizkigun, frontoi ederra, dutxak, liburutegia. Zer moduzko otorduak egiten zituzten galdetu zion norbaitek. Gero, kaperan harmoniuma jotzen zuelarik, bekaizkeriaz behatu nion. Une batean beste norabait eraman ninduen soinu hark. Ez nekien zertara zetorren Tomasen galdera, zer edo zer esateagatik moldatzen zela tekladuan, harritu egin ninduela.

- Lehendik zekian, pianoa zeukaan etxean.

Ekainaren azkenean berak egin zigun ordainekoa, irakaslearen mahaian jesarrita hitzaldi laburra eman zigun gazteriaren inkonformismoaz,

gizartea aldatu nahia sentimendu jatorra zela, baina hitz hutsak maizenik. Txatok eskua altxatu zuen, luzaz eduki zuen. Erkiziak, maisu keinu batez jarduna ez hausteko eskaturik, guk mires-ten genituen protesta kantarien adibidea ekarri zuen, gizarteari zernahi kritika egin ondoren diru sortak hartzen zituztela. Eta unibertsitario kon-formagaitzak, bihar, burges ondratuak bihurtuko zirela.

- Benetako iraultza pobrezian dagoela esan zian...

Bizi ziren gizartea ukatzen zuten matxina-tuak izan zirela eremutarrak. Gizarteak ez direla barrutik aldatzen ahal, gizarte berriak sortu behar zirela, oinarrizko komunitateak.

- Asko ikasi dik horrek urtebetean...

Eta Txatok, herraz, Antxonen estiloan:

- Txopatik hartzen, batez ere!

Erkiziak arrazoi zuen, ez zen aski protesta-tzea, baina sarda senak ekartzen zigun egia haietarik ateratzen zituen ondorioak ez zirela le-gezkoak, umeak zanpatzen eta bortxatzen zituz-ten munstroen larruak ziren sotanak, hori uste genuen guk, frogatua geneukan. Bere parleria

burututa eztabaida nahi zuela esan zigunean es-  
kaini genion mututasun hartan Erkizia ikasle  
ohiarenganako dolua erakutsi geniola esanen  
nuke, eta aldi berean Erkizia fraidegaiaren az-  
kartasunak piztu zigun gorrotoa. Agian hori izan  
zen arrazoia artean deus aipatu ez izateko har-  
taz, Erkiziak aurrea hartua zigun hitzetan.

- Etsaia indartsuegia duk, barrutik ezin  
diagu.

- Indartsua duk, baina ez gaudek bakarrik.

- Bakarrik gaudek, bakar-bakarrik!

- Ez duk egia!

- Ez...! Non zagok Vladimir?

- Nonahi!

Ez dakit nondik etorri zitzaidan. Isildu egin  
zen Tomas, eta isildu egin zen Antxon, eta isildu  
egin zen Txato, berak botzeko arrapostua ge-  
nuen, lasai emana, ziur, bertan.

- Denok ikusi genian Errekalden!

Eta inolaz ere entzun nahi ez genuen huraxe  
entzunarazi zigun orduan Tomasek.

- Faborez...! Ez gaituk umeak!

Erdiko zainean jo gaitu. Gure itzalari so geldi-  
tu gara eta, hainbatetan legez, era autonomoan

mugitzen dela iruditu zaigu, filme batean, gutariko bakoitzak sortzen duena beste norbaitek duela agintzen sinetsita. Gure burua ikusi, eta ukatu. Ikusi nahi ez. Vladimir psikiatrikoan zegoen, kartzelan zegoen, hilerrian zegoen. Txatok nahi zuena kontatzen ahal zigun, besterik esan ez balu gatazkaro hura trenkatuko zukeen Tomasek, gelditzea zeukan Vladimirrek Odessan zintzurra berotzen. Baina inoiz entzunen geniola sinetsiko ez nukeen zerbait aitortu zuen ondoren Tomasek, horrek galdu zuen, galdu gintuen.

- Lekua eskatua zaukaat.

- Zer?

Ke luzea kendu dio Stuyvesantari.

- Bokazioa sumatu diat.

Arineketan joan da itsasoraino bidezidorrean behera, sakon murgildu da zigarroa ezpainetarik kendu gabe, onena zen, buruz, belarriak mundupean estaltzearren -zor genizkionak entzuteko gauza ez-, edo ume egiten gintuen aingira hondoko haitzen baten azpian utzi behar balu bezala.

- Hori ez duk gure laguna!

Jantzten hasi ginen. Antxonek harri kozkorra hartu zuen, damurik ez hark Tomas akabatzeko azaleratzen zenean. Txatok besotik heldu zion, Antxon makurtu egin zen astiro, harria laga eta Tomasenak hartu zituen.

- Tomas!

Zuriz gora jarri zen guri buruz, helizeak adina bits. Ez genion kakazotz egin. Zeremonia tristea izan zen, garrantzizko zerbaiten despedidaren tankera hartu nion nik. Bizkarra erakutsi genion Tomasi eta itsasoari. Muker abiatu ginen herrira, haren gizarte honetako arropa muxarrekin batera kiskaltzen zen bitartean.

Su txipi hartan piztu zen osteria Vladimir.

## 7

Su haren garrak haizez haize heldu ziren sinbolotik errealitatera, galerna hasi zuen jotzen aldiro gure bazterrean, gurpil zulatzeak zenbait autotan, eskela itxurako paperak salatarien izendeiturekin, karabineroen zodiac gris berria desa-

gertzea, agidanez beheko olatuak troinua askatuta.

- Hor dabilena Vladimir duk, bai...

- The war has not finished!

Udalak festetarako ekartzen ohi zuen zezen plaza aldakorretik mekano ketu bat baino ez zen gelditu, burdinazko hondakin erromatarra. Erreketa halabeharrekoa izan zela zabaldu zen herrian, udaltzainen komentarioa tabernetan, hala ekarri arratsaldeko egunkariak, herriko kronikatik landa, azken orrialdean.

- Istripua izan dela...!

Txatoren aitaren atelierrera joaten ginen noizbehinka makinan idazten ikastera ilunabarretan, aita bigarren eskuko piezak askatzen ari zuten artean. Lanak ematen zizkigun esaldiak txukun antzera josteak, gerra ez zela amaitu, eta zazpigarren kalkoraino bakarrik irakur zitekeen, bazter utzi genuen paperketarena. Oraindik ez gintuztela derrotatu, poster bat osatu genuen egunkari txatalez, edukiko zutela atzera ere gure berri, plaza errearen argazkiekin. Zorroan sartu eta probintziako egunkarira bidaliko genuen, Vladimir Brigadak sinatua.

- Ez, hemendik postaz ez.

Bakan joan ohi ginen elkarrekin hiriburura, amatekumeen gauza iruditzen zitzairen lagunei, jantzi turista izozki hondartza, dendaleihoak ikusten ibiltzearekin identifikatzen zuten hango espaloiak zapaltzea.

- Honaino etorrita...

Egunkariak ez zeukan postontzirik, zer egin, larunbat arratsaldea, posta bulegoak itxiak hiriburuan ere, barregarria zen benetan hartara berriaz joana.

- Neuk entregatuko diat. Ez naitek ezagutzen eta ez nauk berriz sekula azalduko...

Zorrotzar okre hura hartu eta sartu egin nintzen lagunek kantoian itxoiten zidatela. Aluminiozko mahai baten atzean zegoen kontserjea, irratia entzuten.

- Zuzendariarendako.

Binpertz egin zuen mahaiaren gainean.

- Noren partetik?

Ez nuen espero, ez tul egin nuen.

- Luistarren Kongregazioa, hemen, bertako auzokoak.

- Ongi, idatz ezazu hor.

Papoa hanpaturik eskatu nion tabakoa Txatorri. Amore eman zuten, *The Graduate* ikustera joanen ginen, zor zidaten. Nahiz eta Elizak 3R sailkatua edukitzeak eragin handiagoa ez ote zuen ukan, susmoa.

- Hara zein datozen hor...!
- Guregana zatozak, ikusi egin naitek.
- Galtza luzetan eta erretzen, zoragarri. Zigarroa jaurti nuen.

- Savoyko sarreran, ez berandutu.

Gure aiekan esaten den moduan, ubiladak egiten ezkutatu nintzen jende artean. Kafetegiaren batetik edo dendaren batetik irten berriak, ibilgiro ona eta hurrengo tenporadako arropak ikustera joanak biak, auskalo, guti fida ezkontzarako soinekoa erostea.

- Barrez zetozaan, ikusi egin haute.
- Inporta zaidak...!
- Ez, horregatik alde egin duk.

Uste ez bezala, aitzina jaunak esanda utzi zigun sartzen atezainak. Ez zitzaien damutu, Antxonek ukondoan jotzen ninduen atertu gabe, loriatan zen, hura atsoa, filme bikaina zela aitortu zuen Txatok trenean. Musika txol ona zen, hura



lelokatzen itzuli ginen, Antxetak taldekoek aski ongi moldatu zuten berehala *The Sound of Silence*, «Ilunpe, lagun zaharra, zurekin nahi dut mintza...».

- Tira, zabal ezazu pakete hori.

Lepo gogorreko alkandora arrebaren ezkontzarako, zer bestela. Begia kliskatu zidan aitak. Ez ninduten krabata batetik urkatuko, alferrik ari ziren.

- Gustatzen?

Ez ziren marinel alemanen Levisak, baina galtzak ziren, zinezko galtzak, dantzarako zinemarako borrokarako galtzak. Barre egiten zidan arrebak.

- Gaur zeneramatzanak baino hobeto dauzkazu.

- Zure arrebak erosi dizkizu.

Esparroi harekin ibiltzea, polito idazten nuela esatea, aztalak sukaldean depilatzea, liburu sobietikoak Txatori pasatzen ez uztea, gauza asko barkatu nizkion orduan arrebari.

- Helduen pelikularen bat ikusi ahal izateko jantziko zenituen noski inoren luzeak?

Aitak salbatu ninduen amaren jakin nahi hartarik.

- Praka motz horiek denak Caritas-era!

Halako abantadak zeuzkan aitak, etxean berak agintzen zuelakoa egin behar izaten zuen aldian behin.

## 8

Portu sarrerako labarretan ez baina hurbilago ordea, ez hain handi baina ugari, ate horma etxe ontziola, zuzen, makur, nabarmen, gure herri mozkor ustel zabar hartan -lakartuak hitzok beti Txatoren ahotik-, telebistak Espainiako selekzioaren partida bat ematen zuela, zainak ezin loturik eta bazterrei erne iheserako nahiz jazarrerako pronto ikaran gozatu genuen ilunabarrean gerra amaitua ez zelako ikusgarri Vladimir fundi-zioko biltegian, Vladimir elizako zimitorioan, Vladimir porturako bagoietan, Vladimir ikaztegiko toldoetan, Vladimir merkatuko aurrealdean, gorri Vladimir.

- Non zagok Vladimir?

- Nonahi!

Nolako fiertasuna hurrengo egunean, begia nora eramán letra haiek jo gabe, nolako hozkirri atsegina bazterretan komentatzen zirenak entzuten, mezuaren esanguraz bizkarrak harrotzen, dena jakiten zutenei galdetzen, arrebaren susmoa igartzen, brigadakoak argazkiak egiten ikusten.

- The war has not finished!

Mundu hura kaka zaharra zela jakitea, belarria bihotzean jartzen zidan neska batekin dantzatu izana... naturak erabakitako arauen meneko iruditu zitzaizkidan anarterainokoak, begiak zabal murgiltzea edo eztulik egin gabe erretzea beste. Geu ginen handik goiti aroak abiatuko genituenak, «Asmoa gure esku» idatzi nuen. Historia aldatzen hasiak ginen.

- Hemen zatozak! Hemen zatozak!

Lord Jim gazteluko kasamata erdi eroriaren sabaia dardarazten du marrumak.

- Gernika suntsitzera zatozak!

Dozenerdi Junker 52, sabelandi, bonbadun, gure bila. Halako harramantza bederen. Arma patiora jalgi gara bokalea aldean beste iragaiten

duen tentsio altuko kablean pankarta nola zintzilikatu bertan utzita. Hegazkin arin bat hodeipean, jira dotorea eginda gaztelura buruz amiltzen.

- Hori Heinkela duk.

Kirru biribila marraztu du bokalearen gainean guregana jaitsi ondoren.

- Ikusi duzue? Arrano bana zaukak hegaletan.

- Itzulian zatorrek.

- Eta svastika leman.

Ukabila erakutsi diogu, Vakulintxuki eta Matiuxenkori bezala mehatxu. Ez gaitu tirokatu, kezuria buztanduz goratu da bigarreanean.

- Tomas duk!

Ukabil itsutu haietan erabaki dugu Heinkel batean datorrela Tomas gu leziazera, maisu, gure itzalen higidura urduriak irentsiko dituen itzal erraldoia. Hodeiostetik jausi da berriro, abaor hartu du ezker hegala gaztelurantz makurtuta.

- Gora Vladimir...!

Badator Tomas umeak bortxatu zentzatu gizontzeko ikasia duen guztiaz blindatua, alferrik

ari garela, bakarrik gaudela, kalterako dugula... Bera da, bai, gerraontzi hegalarian naturaren arauak berrezartzera. Eta malko erretan gainez egindako amorruek bultzata, arma patrioko harrietan marinel hordituen antzo zabuka aireratu ahal izan dugu, asmoa gure esku, Vladimir.

- Entzun ezak Tomas: Gora Vladimir...!

Molaren tropek Matiuxenkok Vakulintxukek gurasoek fraideek Heinkelak karabineroek Erki-ziak Tomasek zuhurtziak naturak gain hartu nahi diote gure eskuek darabilten asmoari, zodiac batek etendako apararioaren kordela bezain laxo gelditu behar du gora aitzina ausartago garama-tzan matxinadak, hala dute erabaki inongo Agin-taritzza Gorenean.

*Potiomkin* bakarrik Tsarraren itsas armada-ren aurka.

Kometa bat Gernikako zeruan 1937ko apirilaren 26an.

Vladimir gure herri mozkor ustel zabarra inarosten.

- Oparia utzi ziguk, kabroiak!

Sasian trabatua, lokatzak erdi estalia, herdoil arrastoz, sekula ikusi gabea genuen kaio erral-doiren batek errun arrautza.

- Itsasotik tirokatu zitean gaztelua faxistek, *Hernán Cortés*etik.

- Hau ez duk kanoikoa, hau hegazkinek jaurtia duk, beha hegal hauek...

- Kontuz, ez uki!

Heinkelaren arranoek mokoa erantsi digute begietan, arrautza zilindriko hura jostailu hauskorra zen, akastu egin da Txatok ukitu duenean, eta gorringo pozoituan bildu gaitu, heldua da urrun eramanen gaituen бага handia, gerra ez da amaitu, motorrak full ahead emanda dator guregana herri mozkor ustel zabarraren historia haragi gose Gernika birritan suntsitzera Vladimir bide bazterretan sakailatzera, eta ni gurman zarratzen ari den errealitatetik urrun eta urrunduz noa, zorabioan, hostopeko neska ezezagunak odoluste gozoan dantzarazi banindu bezala, hondamendi latzetako bizigordeen koadrilakoa bihurtzeraino. Nire gorputzaren otzarak -ez dut hobetzen jakin, bistan da- lehertu egin behar

izan zuen, erditze bat, hitz uste jolas liluraka  
menderatua ninduen aingirak kita nintzan.

# O pai de Maruxiña

Nasa hutsik ez da hustu egin den etxea.

Nasa hutsik egoteak antxoa garaia esan nahi du, edo sardinarena, edo atunarena, hau da, lanerako garaia eta lanerako itsasoa, partila ona mareajea amaitutakoan. Baina hala ere ezin dut begitandu arrantzako nasa hutsik. Tatxa gorri bat behar dut nik, egun itsasoak eta gasoilak ilundutako harrizko lerroaren erdian.

Gure ontzia da kaiaren lerroan dagoen tatxa gorri hori.

Egun ezin dut begitandu nasa hutsik, Maruxa, ikusi egin behar zaitudalako, ikusi egin nahi zaitudalako bidoi herdoilduen, sare meten eta kaxa askatuen artean airoski, egungo festarako hiri-burutik berariaz etorritako gaiteiro taldearen ondotik eder, zure zapata zoletan itsasten diren ez-katak bezain distiratsu.

Zu ikusteko tatxa gorri horixe behar dut moilan, hartarik egiten dut jauzi lehorrera.

Zeinen neska ederra, ezta?, esanen nioke topatuko nukeen aurreneko terrestreari.



Krabelinak bere aurpegiaz jelostuak direlako ez darama neska horrek lore sorta, komentatuko nieke ikusleei.

Neska hori nire alaba da, jakinaraziko nioke zuen desfileari begi ematen diola Martinian gin gehiago eskatzen duen armadoreari.

Tatxa bati esker bizi gara.

Zuk ez dakizu zer den, Maruxa, hamabost eguneko mareaje baterako ontziratzea. Boka-lean aurrera zoazela, laster farolak urrun egonen direla sumatzen duzunean, hobe petretxa egiten, tretzak beitatzen edo sukaldariari laguntzen hastea, inguru guztiak agur egiten baitio atako banda hartu behar duen ontziari: itsas azalaren kirru gozoak, farolen izpiek, mendi ilunduek... Marinelik zailduenari ere egiten dio halako zarrapo bat urdaileko zuloan lehorra ur jotzen ikusteak. Aspertu egiten garela etxean, zurruta besterik ez dugula egiten, zorabiatu egiten garela kulunka ez dakien zola horretan... Baina gero, gure baforearen dieselak Guardaplatako Farolako harkaitzetan habia egina duten antxetak txilioka altxarazten dituenean ezein umek arrautzarik ebatsi ezin izan dien harkaitz haietarik gu-

reganantz amiltzeko, eskifaiako inork ez du bista jaso nahi, antxeten agurrak itzuliaren zalantza dakarkigulako begietara. Eta oso agur luzea da, antxetek milia asko egiten baitute itsasoan aitzina gure uberan, iduri luke zerbaiten abisu eman nahi digutela, ez gure radarrak ez gure irratiak inoiz konprenituko ez duten morse saminean.

Nasa ez da amaitzen bokalean, portua ez da amaitzen barran, nasa eta portua baforeek ezin aska lezaketen lotura dira.

Badoa, urruntzen da nasatik, uzten du portua, galdu zaizu lanbropean, baina ontzia atrakatu egon zen lekuan tatxa gorri bat -edo berdea, edo azula- geldituko da beti gasoilak eta bere itsasoak zikindutako harrietan.

Nasaren lerro erdian dagoen tatxa hori neure lotura da.

*Foliada de Mahia*-ri ekin diote gaiteiroek. Gure Maruxaren airostasuna! Zangoei behatu gabe egiten du dantza, pausoa ongi markatuz, iduri luke bere jauziek sortzen dutela musika. Maruxa hasten denean dantzari, argazki kamera guztiek egiten dute flax. Foliadaren itzulietan gerizpetik eguzkitara etortzen denean, blaka eman

berria duen txaluparen kaskoak bezala distiratzten du Maruxaren ile bilduak.

Beti gertatzen zait. Ikusi nahi zaitut, eta ikusten zaitudalarik... malko handi bik egiten naute gainez.

Ezkutatu egin naiz ontzian behera, ganbaroteetara nator, ez daukat adorerik halako edertasuna ikusteko.

Tatxa gorri batek -edo berdeak, edo azulak- estal nazala!

Kamainan etzan naiz, isiltasun eta ilunpe osoan, malura hau bakarrean eztitzearren.

Tatxa bat baino ez naiz, neure itzalaren kolorea, oroimen hutsa.

«Euskal Herrira omen zoaz...».

Polita zen, baina niri gehien gustatzen zitzaidana zen bere molde leuna eta beti marrantatua bezala zeukan ahots hura. Eta mozorroaren barrutik are amultsuago heltzen zen. Zure ama Cambados-eko neskarik bizkorrena ere bazen, eta ni, egia esan, sakelan orbelik ez zeukan hankandi bat.

«Hemen ez dago lana besterik, lanaren ordaina ere nahi nuke. Han sindikatuek indarra dute...».

Eta hain urduri nengoenez, ez dakit nondik irten zitzaidan:

«Zergatik ez zatoz?».

Mozorroek eragozten zuten, beharrik, elkarren aurpegiak ikustea. Lehen aldia nuen bakar-ka hitz egiten niola, Maruxa, eta nik behintzat masailak piper hautsez panpinatu izan balizkidan bezala egon behar nuen.

Eskutik heldu zidan.

Pirata eta sorgina -zure ama zen pirata, sorgina neu nintzen- hilerrian aitzina galdu ziren, Euskal Herriraino oinez joan nahi izan balute moduan, zure ama ere aspertua zegoen hutsaren truke lan egiten Barrosotarren eskabetxetegan.

Han nonbait, mozorroak kendu genizkion elkarri.

Inauteriaren musika haritzen adarrek urratua zetorren Cambados-eko plazatik, egun zuen gaitena hona heltzen zaidan bezala. Nota gorenek antxeten txilioak dirudite. Edo izurde amaren

deiak bere umeari. Gorroto hartu behar diot gaitaren doinuari.

- Orain Maruxa Mosquerak gutun bat irakurriko digu...

Jauzi egin dut kamainatik, zainetakoak eraginda. Aurreko urteetan ez zegoen gutunik.

- Gutun bat bere aitari.

Papertxo bat ateratzen duzu, zabaltzen duzu... gutun bat!

- Esna, Anton, hire alaba ari duk hizketan!

Eskaileretan behera dator Montxo Pena, sindikatuko ordezkaria.

- Hiri ari zaik, Anton, alaba ari zaik!

Makinetara egin dut ihes.

- Entzun ezak, Anton!

Pistoi guztiak behar ditut joka orain, trumoi behar dut, ulertzen duzu, Maruxa? Seoane, arraioa, non sartu haiz!

- Ireki ezak eskotila hori!

Utz nazak bakean, Montxo! Jo ezazue muñeira bat, gaiteirook! Ez duzue entzun? Maruxak dantzan jarraitu behar du!

- Anton, entzun ezak hire alaba!

Zergatik idazten didazu, Maruxa? Gorde ezazu dantzako arroparen artean nik entzun nahi nukeena eta ez nukeena! Egizu dantzan, Maruxiña, egizu dantzan beti! Guraso batek ezin dio halako malkorik eragin alabari! Zure ahotsean ikusten dudan malko hori! Seoane, makinetara! Fuelik gabe gaudek, ala? Abante, edo atzera, berdin dik, agudo Seoane! Jar itzak mila zaldiok irrintzika behingoan!

Ez, portura ez!

Gran Solera! Islandiara! Ternuara!

Gure ontziaren tatxa nasan ezin ikusterainoko urrun.

Uhinek porturantz jotzen dute beti, baina helduko da, emakumea, helduko da guganaino uretara jaurti dituzuen loreetarikoren bat.

Kontsola ezazu ama, Maruxa, esaiozu piratek ez dutela negar egiten.

Bazterreko arroken artean geldituko dira lore batzuk, farolako barraren aurka apurtuko dituzte bagek beste asko. Baina joan deneko bost urte honetan bezala helduko da, itsasoak beti ezabatu eta berritu egiten dituen bide ezkutuetan barrera, krabelinen bat, edo petalo bakanen bat.

Sokorriko bengala bezala.

Berandu jaurtitako salbagailua bezala.

Gure buruetarik laurogei brazatan goiti eta zu euskal lore galiziarra sortu zinen portutik bostehun miliatara.

Barka iezadazu, Maruxa.

Nik ez nuen entzun nahi alabak beti akorduan edukiko nauela.

Ez nukeelako nahi elkarrendako iraganekoak izatea hasi nintzen ontziko burdina guztietan ero moduan joka, Maruxa, dunbots batean gortu beharrez.

Idatzi haren ikara zure eskuan!

Hitz haien kristala zure eztarrian!

Ezin nizun entzun, ez nizun aditu nahi, baina bihar, gure ontziari itsasketa eragotzi nahi dioten lapa gorbela lanperna karramarroen aurkako gerla jarraitzen dugunean, jakin ezazu ez naizela isilik egon ahalko, eta goiz edo berant galdetu egin behar izanen diedala lagunei:

«Entzun zenuten atzo, nire alabaren gutuna? Ederra, ezta?».

Koralak polipoak zaldiak trikuak izarrak barraskiloak anemonak... bilduma polita ari naiz

osetzen. Barre egiten dute lagunak nire altxorra ikusita, trufatzen dira nitaz, bere alabaren aita-txoa esaten didate. Baina gero denek ekartzen dizkidate, besteen gordean, aurkitzen dituzten pieza bitxienak.

- To, Maruxiñarendako!

Malko handi honen hondoan, gorria gero eta herdoilago bilakatzen zaion tatxa honen barruan denok egiten dugu amets itsas azalaren kirru gozoan kulunkatuko garela inoiz, farolen izpiek deskubrituko gaituztela egunen batean porturako bidea har dezagun egunsentian oraino ilun ageriko diren mendien artean, berriro zorabiatuko garela inork kulunka eragiten ez dion kuberta horretan...

Horregatik ez dut jakin nahi, Maruxa, nitaz dakizunik.

Ez dakidan artean, tatxa gorri bat -edo azula, edo berdea- ikusten duguno hainbat oroitzapen mingarriren uhinek ilundutako harrietan, beti edukiko dugu zuen loreetarik onik irteteko esperantza, eta lehorreko egunetan aspertu, zorabiatu eta gure sindikatuaren ahulagatik kexatzeaz beste, itotakoen urteroko omenaldian hasperen



egitekoa muñeirak dantzatzen dituzten gazteei  
beha, oroiminez.

# Amsterdam

Badakarte Catharina, hementxe dator, zatoz, esteka zaitzatela neure begipean, horrela, ederk-  
ki Catharina, zu lasai, lan honetan nauzu ni en-  
tregu, ordu guti batzuen afera izanen da, ongi,  
ea sabel hori, bai, espero zitekeena da, aizu, zuk  
ez duzu oraiko hau hemen sartzen zaren lehen  
aldia, nik zu ezagutzen zaitut, bai, zure izen hori,  
Catharina, lau ordu beharko ditugu lan honi aka-  
baila emateko, tira ba, prest zaudete denok  
noski, ados, jakin ezazue nik egitekoak geldiro  
burutzea dudala laket, bortz ordu hobe, banoa  
beraz, kasu eman hor, kasu beheko horiek, beha  
ezazue, ikusi nola ateratzen dudan umea Catha-  
rinaren sabeletik, zeinen airoski jasotzen dudan,  
zeinen garbi, ikas ezazue, hor duzue, poliki, kui-  
dadito pintura harrotu kablea kentzean, ederki,  
ikasten ari dira gainera tipulano hok, gogorra  
izanen litzateke denak bertan zamaketari galdi-  
tzea, bigarren traktorea ikusten diot ordea,  
egon, egizue leku hau ere ateratzeko, ken hadi  
bagonaren gaineko hori, alde egin ezak azpian

harrapatzea nahi ez baduk, ongi, kuidadito mazaduraren bat egin paretatik sobera hurbil kokatu nahi izateagatik, zorionak, horrela askatzen da kakoa, ikasten ari zarete, beha ezazue niregana bai, beha zeinen harro egiten duan egunekoen lehen pausalditxo, kafe zakuak gero aterako dizkiot, badaukazue zer ikasi, zoazte paleen bila, azpian dakartzan paper-pasta fardoak hondarrean kenduko dizkiot, nongoa zara Catharina, txipretarra edo suediarra edo panamarra, uste dut zazpi ordu botatuko ditugula hau dena husten, ilunduko zaizue, niri ez manatu presaka aritzeko, egia erranen badut lanera etorri gabe egon behar nuke, Eustakioekin eta gainerakoeekin bat eginda, zuek ez bezala. Ez, zuek ez didazu erranen baina nik badakit zuek ez zarela ez txipretarra ez suediarra ez panamarra, Catharina Nauwelaerts zara zuek, holandarra, hemen orai berean guri ur freskoa ematera azaldu behar lukeen langilea hil zenuena, mespretxuz hil. Edo liluraz. Liluratua zaituenak ematen ahal dizu minik handiena. Zauke hor lotua, ikusi zaitudaneko hauteman dut Catharina hura bera zarela, hiltzailea. Bai, bai, hiltzailea. Zuek ez zeundeten orduan

hemen, zuek ezin duzue jakin izen horrek hona ekartzen digun dolua. Horratx, nire bertebrak zertxobait lasaitzeko tenorea dut, burua altxatu eta non nagoen ikusteko aukera. Zenbaitetan Catharina edo Angelos edo Franklin edo Porfirio ikusten dut urruntzen edo sartzen, bertze zenbaitetan antxetak ikusten ditut neure parean hegaldaka, eta orduan badakit eguraldiak txarrera eginen duela, antxetak dira barometrorik onena. Bertze aunitzetan bezala, urketaria azaldu da nire oroitean. Egunero gertatzen zait, beti ikusten dut gaztelu zaharreko iturrirantz doala arrau-nean, edo itzulian datorrela, burua jaso eta behakoa luzatzen dudalarikan.

- Erria!

Zamaketari zebilela min hartuta maingu gel-ditu zelakotz eman omen zioten lan hura, ez dakit, hala erraten zuten, urgun eginagatik berdin heltzen ahal zion palari, nik uste. Bodegako hautsetan izerditzen diren zamaketariei ura ematera igaten zenean ez zen harritzekoa ikustea eleketan baforeko nornahirekin, axola zitzaien hari jakaduna izatea, edo kapitaina. Ahalkearen arrastorik ez zeukan mutiko hark, bazuen

denendako trufaren bat, zamaketariek begiko zuten, portuko langile guztiok genuen jostailu. Pailoten motoraren txanel auxiliarra hartzen zuen inori baimenik galdatu gabe eta portuko bertze muturreraino abiatzen zen, gaztelu zahar-rraren puskailen azpian dagoen iturriraino. Hangoa dugu, doike, inguruotako urik onena. Gustagarria ematen du kainu xume hark, mendi bar- netik baitator, eta bero zakarrenetan beti fresko eskaintzen zuen urketariak. Atelier mekanikoko- ei zinkezko pegar berezia, marmita mokodun an- tzekoa eginarazi zien, karga gutikoa. Lanbide berri horretan hasi zelarikan lurrezko potaxan ekartzen zigun eta ontziaren beraren gustua iza- nen zela uste nuen nik, belar gozo lurrina etor- tzen zitzaizun sudurrera. Baina geroko ontzi har- tarik gustu berdina zeukan metalezkoa izan arren. Nik eginen nuke ginebra zirrizta bat bota- tzen ziola. Lurrin hori ere ez zait berehala atzen- duko, ahoaren sabaian pegatxita gelditzen zait maiz, ura ez edanagatik. Hamar litro hek ahitu- takoan txintxorroa berriz hartu eta hor ikusten nuen bazihoala ontziola flotantearen gibeletik,

ur onenaren xeka. Horixe zen haren egitekoa, denok haren bekaitz amorraraztea.

– Bira!

Bazter guztietan sartzen haiz, baina ez haiz nire kabinara sekula iganen, horrela egiten nion zin neure buruari, jolasa, mutil hura ez zela hemen inoiz sartuko, maingua haizelako aitzakia eginen diat beti, ez hadila ausartu eskalan goiti, tarte handiko mailak zauzkak, eta marmitatzar hori bizkarrean duala, lasai, hi geldi hadi hor behean, horrela, errak erria edo bira nahi duan bezanbat gaitziturik, heu agintari, portuko nagusia haiz, eskertzen diat txo, hiru mila zaldi zauzkaat nire bizkarrean arnaska, garabi bihurtzen ditiat eskuok hire ur fresko horrekin bete didaan bidona jasotzen, ongi hago behe horretan, ez hadila honat inoiz igan, 380 voltioko indarra zaukaagu hemen, erne ibili beharra zagok zernahi burdina puska ukituta ez kiskaltzeko, gertatu izan duk, eta hire hanka toteldu horrekin, ez hurbildu baleke bale, alde egin ezak, hoa putzura nahi baduk, ken hadi hortik, lanean jarraitzeko gogo eman didak, hoa bertze makinistengana, eman iezaiek egarri pixko bat hekeri, a zer ustel koa-

drila, halakoak esaten nizkion urketariari neure kolkorako, hi haiz portuko printzea baina hau debeku duk, zazpigarren garabian ni nauk errege.

Hamabietako tutua, batzuk behintzat bazkaritara joaten gara.

Bildu nuen luma, utzi nuen moila gainean deskantsuan koilara edo olagarroa, ez naiz zehazki oroitzen, jaitsi nintzen burdina guztiak hautsez estaltzen dituen Txileko fosfatoan oberoia zurituz, mendika baitaukagu beti hemen Txileko fosfatoa, ongarria egiteko ekartzen omen dute, eta hanka kaian jartzen dudalarikan non ikusten ditudan urketaria eta Manterola solasean, zer ote zuten. Denon ezaguna da Manterola, gure portuko pailot txarrena da, sei-zazpi maliobra egiten ditu hogei mila tonako baforetxoak atrakatzeko. Liburu artean bizi da, gutien espero duzularikan hasten zaizu galdegiten nola erraten ahal den hau eta nola erraten diogun horri, hiztegia ari omen da osatzen portuko hitz bereziak bilduta.

«Hik ezagutzen omen duk!».

Manterolaren karkaila, ez al zekien urketaria nolakoa zen, hark hika egiten zion edozein almi-

ranteri, hobe algara eragitea eta ez kolera. Orduan ondotik datorkidala Manterola makiniston aldagelan sartzen utzi gabe, ondotik etorri zitzaidan Manterola bera, eta oraino irria ezpainetan zeukala galdegiten dit ezetz asmatu zer jakin nahi zuen urketariak. Nola jakinen nuen nik, ez naiz inoren argudioak entzuten egoten, ez dut fitsik entzuten, sorgortua nauka soberaniazko Babcock Wilcox motor horrek, trasatlantiko batean nago makinista, ezetz, ez bainekien, hori bertzerik ez nuen entzun nik, «Hik ezagutzen omen duk!». Denok egiten diogu zuka Manterolari, kapitain merkantea da eta gu analfabeto hutsak. Berak ere ez digu inori hika egiten, urketariak ordea, hark ez zeukan ahalkearen arrastorik.

«Nolakoa den Amsterdam».

Eta algara egin zuen osteran Manterolak, beti hortzetan ibiltzen duen pipa eskuan hartuta. Berak bezalaxe egin nuen barre nik, halakorik galdetzea ere, Amsterdam, zergatik ez nekiela egin nuen barre. Manterolari denok diogun begiramenagatik, horregatik. Edo inozotzat har ez nintzan. Takilla ireki nuelarikan ohar bat atze-



man nuen, betiko gisaz atearen zirritutik sartua. Bagoien baskulan halako tenorean, Eustakiok beti leku berezitan biltzeko usuarioa zeukan garai hartan. Papera txirtxilatuta komunetik beheiti botatzera nindoala uraren asotsa dutxetan, nor ari da ordea, denak ordu estrak sartzen gelditzen dira, ni naiz zortzi ordukoa bertzerik egiten ez duena, eta eguerdian, inor ez gara dutxatzen bazkalaitzin, norbait ari baitzen dutxatzen han barnean, ez da egia izanen, zer uste du horrek, bera da izan ere, horiek ez dira makinista bate-nak, sobera lirainak dira zangar horiek, bera zen, kokotsandi hura, zazpigarren garabiko kabinan ez baina gure aldagelan sartua.

«Bota iezadak toaila!».

«Hi, ni ez nauk edozein kapitain, aditu al duk?».

Baforearen bodegako konportak baino zabalago zabaldu zuen atea ingelesez edo halako mordoiloan kantari urketariak, ura itxi zuelarikan dohainik ematen diguten xabona merkearen bitsa lepoan behera etorri zitzaion puzkiletan, erre-kako harrien azpiko bizarrek egin ohi duten modura egin zuen ipurmatelen erretenera ge-

rrialdean sortzen zitzaion barbanak. Itzuli egin zen gorputzaren gordinena erakutsiz, eta toailapean ezkutatu zuen burua luze ilea xukatzeko aitzakian, bere begiek traba egin ez ziezadaten haragi hartan neureak bazkatu nahi baldin banituen ere.

«Ez al daukak orraziren bat?».

Portuko nagusia haizen aingerutxo hori, azal hadi zazpigarrenaren moilara bortz eta erdietako tutuak jo baino lehen eta sosegatuko haugu, horrelako amorrua orduan neure baitan, hator arratsaldean nire lantegira lasai, bitetan gozo lotzeko aginduko zieat estekariei, sabela irekitzeko aginduko zieat gero, hago geldi manatuko diat, sufriarazi gabe irekiko haute alderik alde nik neure kakoa neure koilara neure olagarroa sartu ahal izan dezadan heure haragian, eta hik ez duk hala usteko baina sendatu egingen haugu, olagarroaren erroak zabalduko ditiat eta gero burdinazko ukabila emaro itxita azkarki helduko diat kendu egingen diat hor barnean daukaan mutikeria, horrela, konbinadorearen puntu guztiak pasatuko ditiat indarrik animalena egiteko hor nonbait ongi sartua daukaan zuztar gaiztoa kentze-

ko, ahalkea zer den galdegin behar hioke Mante-rolari.

«Sekula Amsterdamera ailegatzen bahaiz, han ikusiko gaituk!».

Gurekin ez duk atarramentu onik aterako, Eustakio, gurekin ez zagok deus egiterik, ni nauk bakarra ordu estrak sartzen ez dituen, gu portuko ustelenak gaituk, eta ni berriz... Fio ote haiz nitaz orainik. Hi ez haiz konturatu hemen ez lu-keela ezerk funtzionatuko gu gabetarik, horregatik etortzen zaizkiguk astero kontsignatarioak zorro txipi batekin, «Ongi portatu haiz, har ezak zerri horrek». Ni ez bertze guztiengana. Presa izaten ditek, gutiena ordaindu nahi ditek ahalez atrakea, eta ontzia lehenbailehen deskargatzeko makinista saiatuak hobe. Inork ez ziguk agintzen, eta aginduko baligute baino makurragoa duk, manukortuak gauzkatek makinista guztiok. Garate hemezortzi ordu jarraian aritu zuan lehengo astean, ez zuan kabinatik jaitsi jornada osoan, hebaindua zegoan hurrengo egunean. Goi samarrean gaudek, ikusmira ederra zaukaagu, baina txatarra deskargatzen dugunean ez diat inguru eder hau ikusteko astirik edukitzen,

ez ontziak bokalean ez urketariaren oroitzapena badiaren erdian ez antxetak hegaldaka. Atzaparra betean hartzen diat jeneroa, zati handi eta txikiak denak nahaste, puskek bildutakoan elkar trabatu eta erroen artetik eror ez daitezten nik zabaldu baino lehen, ez baita harritzekoa jasotzerakoan txatalen batek itzuri egitea, eta txatarra daukagunean inguruetan ibiltzea debekatua dagoen arren beti ageri duk marinela pizkorrena bodega bazterrean, edo txoferra hurbiltzen duk baforean erosi berri duen whisky kaxa edo tabako kartonak kamionaren kabinan altxatzera. Istripu arrisku latza zagok txatarrarekin, kontu handia eduki behar izaten duk olagarroa zabaltzerakoan ere, halako kargamentua franko zaila duk kamionaren kajeran berdin samar uzten, inor ez daukak han palaka edo sardeka heure lanaren kuxidadea egiten eta kajeraren edo bagonaren bazter samarrean zabaltzen diagu aunitz aldiz, dena erdian mukurututa lagako ez badugu behintzat. Halakoetan baforetik jasotakoaren laurdena lurrera gaten duk deskarga bakoitzeko, xafla batek zorrotzez harrapatuz gero lepoa egin liezaiokek nornahiri. Eta badakik zergatik den

arriskutsua? Beti horrela deskargatu behar dugulakotz, ahal dugun txatarra gehiena botatzen dugula moilaren gainera, sarea irekita bokarta nola irristatzen den orgako kartoletarik lurrera, horrelaxe. Gero zaborketariek maltzotan biltzen ditek eta dena txukun paratutakoan Muñoz etortzen duk, ustiaketako komisarioa, hiri hainbertze, hiri hainbertze, paga banatzen dik eta moila gaineko txatarra guztia beretako. Gu bezalako jendajearekin greba antolatu nahi duenak, barka ezak, Eustakio, jai zaukak, oker hago eta okerrago zaudek hire lagunak.

- Daukazuen irtenbide bakarra garabi guztiak matxuratzea duk. Eta hori arrunt zaila duk.

- Hori ezin diagu guk egin...

Nolako aukera eskaintzen ari zaidan Eustakio, neure burua erredimitu beharra daukat, ematen dit horraino kaskoak.

- Zer nahi duk, neuk egitea? Garabi guztieta-  
ra banan-banan igan eta koadro elektrikoak mailuka ezpalduko ditiat uste baldin baduk hori dela soluzioa. Neke handirik gabe konponduko ditiztek, egitez gerotan matxura gogorra hobe, moto-

rra erretzea edo halako zerbait. Eta hori ez duk egiten ahal bi minututan.

- Etorriko haiz nirekin?

- Hi, Eustakio, nahi baduzue nik matxura zezakeat neurea...

- Ez, alferrikakoa duk bakarra hondatzea. Bertso saioa egin behar diagu eskirol horiekin, etor hadi.

Urketaria gure aldagelan duxatu zen biharamunean, goizeko zortziak kuarto gutitan, lanera ko aldatzen ari ginela, Diosmil azaldu zen, portuko guarden burua. Lehenbailehen behar nindutela komandantzian, Manterolaren partetik. Enkargatuak oberola kentzeko manatu zidan eta Diosmil en beraren bizikleta hartuta abiatu nintzen, ez sobera fite. Ez nekien zer nahiko zuten komandantzian, ni han zertarako. Eta pailotek badaukate beren txokoa, kamantza eta guzti gainera. Komandantzian gauza onik ez, kontrabando aferak edo. Manterolak eskatuta orde, gauza nahasia, ez nuen asmatzen ahal. Komandantzian bildu ginenez geroztik ez dit bakerik eman, nongo mintzaira egiten dudan jakin zuenetik gainera daukat beti, portuko euskararik onena dela

nirea, guk han nola erraten dugun hau eta bertzea, ez nau nire bidean utziko milia erdira ikusita. Orduan ere urrundik egin zidan diosala eskua jasota, komandantzia non zegoen ez nekiela us-teko zuen.

«Gogoan daukazu noski hizketan egon ginela atzo eguerdian, hirugarren biltegiko horretan».

Bulegoan Francoren argazki handia zeukaten paretan, itsastarren jaka zuriarekin. Eseritzeko esan zidan Novoa komandanteak.

«Gu biok hizketan geundela, urketaria ikusi nuen zuen aldagelan sartzen. Zu hara joan zinen, ezta?».

Ez nuen konprenitzen zer zeukan horrela ez-kutatzeke urketariarekin hizketan egona zela, bezperan egin zuen algaran lagundu nionean bezala sentitu nintzen, haren haritik nindoala zergatik jakin gabe.

«Eta gero, ikusi zenuen zer egiten zuen, nora zihoan?».

Aldagela erdira etorri zen hura, gorriarik, zangoak Kortajarenaren espartinetan txinalka lababoraino, eta zegoen hartan hasi zen ilea orrazten niri toaila botatuta. Ebaki handi baten sakaila

zeukan belaunaren gibeletik goiti, otsolaharra makilan iduri. Bazen gure aldagelan horrela jalgitzen zenik dutxatik, baina gorputz hark bertzelako dirdira zeukan, biribiltasun heketan ez zegoen pikor aztarrenik: estatua biluzi bat aldagelaren erdian, txatarra xafla batek jo zuen zorrotzez haragi hartan eta ez zuen maketsik egin ahal izan.

«Ez zizun esan zer egiteko asmoa zeukan?».

Galego doinu handia zuen komandanteak, Espainiako Marina galegoz betea dago.

«Ez diogu kasu ematen, gezurra ibiltzen du horrek ausarki».

Altxatu egin zen, jolasten aritua zen eskunarruak botatu zituen mahai gainean, bi kafe kikarra hutsen artean. Altxatu egin nintzen ni ere.

«Gezur guti esanen du gargero».

Manterolak argitu zidan Novoaren sententzia.

«Eta ez du Amsterdam ezagutuko. Itota azaldu da gaur goizean, harkaitzetan».

Gineako okumearekin ari ginen eta material horrekin erne ibili beharra daukagu, zama desberdina izaten da jasoaldi bakoitzean eta abiada ongi erregulatuta jaso behar dira, hagitz poliki



erriatu behar izaten da gero lehorrean dauden zamaketariak jota ez botatzeko, itzuli laurdena eta erdia ere egiten baitute onborrek airean. Ez nuen funtsezko lanik egin hartan, amanteroari errieta ematen aritu nintzen goiz osoan, kargak zakar jasotzen, erriadak premiarik gabe bizitzen, zama kolpeka uzten nuela moilan, kargaldi guztiak jarraian, konbinadorearen gainean kakolduta. Tratu gozoa hartu zuten bira eta itzuliko motorrek, atera zuten marrurik.

- Hemen etxea emanen zigutela agindu zitzaigun han, Extremaduran. Herriko gizon guztiak etorriko ziren, ahal izan balute.

- Etxea? Ukuilu bat eman dizuete almazan zaharrean.

- Han ez daukagu ez urik ez argirik. Etxearena aipatu gabe berdin etorriko ginen. Honat edo bertze norabait. Lana egin nahi dugu, eta han ez dago lanik. Zezenetarako dauzkate lurrak.

Sinetsi egiten diot sekula entzun dudan erdararik ilunena egiten duen gizon honi, miseria erakusten dute tipulano hok solasean. Sinetsi egiten diot ez zekitela zertara zetozen. Horregatik ahal-

ketzen nau Eustakiok ageri dien gogortasun honek.

- Zergatik uste duzu zauzkatela almazenean? Merkantzia hutsa zarete. Bihar edo etzi, greba amaitutakoan, trenean sartu eta Extremadurara eramango zaituztete.

- Ni ez naiz itzuliko, eta nire lagunak ere ez.

- Zuen aukera bakarra grebalariekin elkartzea da.

Zaila duk konprenitzea, Eustakio, errak, zer irabaziko dik greba eginda greba haustera ekarri dutenak?

- Aukera bakarra?

- Hemen, lagun hau, makinisten ordezkaria da. Zuek lanean jarraitzen baduzue, garabiak gelditu egingo dira. Ez da hala?

Hasperen txipi bat egin du kantinaren zokoan bakailaoa jaten daukagun metaziri honek.

- Badakigu euskaldunak horrelakoak zarete-la, ez duzue maketorik nahi.

- Hi haiz puta...

Ez du amaitu, ukabilak zabaldu ditu eztiki Eustakiok berriro, kako utzi ditu, leporako.

- Ez hadila tronpatu, lagun. Euskalduna izan edo extremeñoa izan, bi pezetagatik lan egiteko prest dagoena eskirola duk. Guk hemen nahi ez duguna horixe besterik ez duk, eskirola.

- Goseak hiltzen ari gara, ez duzue konprenitzen?

Ederra da gizon honen zimeltasuna, larru-erre, lepo-ahul, izarretik izarrera egindako neka-zaria. Xamurki mintzatzen da, arrazoiak ematen unaturik balego bezala. Usmetuko zuen ordea handik botatu zuen gose berdinerara bidaliko dutela bihar edo etzi, horretan akort egon behar luke Eustakioekin.

- Garabiak gelditzen bagara, zuek ez duzue baforea bizkarka husten ahal. Horretarako ekarri nau Eustakiok, zuei abisu emateko. Ez dugu nahi zuek alde egitea. Zuek hemen zaudetela, indar handiagoa hartuko du grebak.

Adiskidearen behakoa egin dit Eustakiok, aspaldiko partez. Portu osokoa kontrolatu nahi ez balu, ez dakit hitzik eginen lidakeen. Eta nik ezin erranen nuke deus Eustakioren aurka.

- Zamaketariok prest gaude igoeran pezeta erdi gutiago eskatzeko, eta greban egon garen

guztioak ametitzea esijitzeko. Guztioak, zuek ere bai. Gomitatua zaude greba batzordean hitz egiteko.

- Onartu eginen gaituzue gu, eskirol etorri garenok?

- Tronpatu egin zaituztete, zuek ez zarete eskirolak. Oraindik ez. Har ezak serbiletaren azpian jarri diadan papera.

Aurpegi osoa hartzen dion lau eguneko bizarrak bizitu egiten dizkio begiak, eleketan ez daukan gardentasuna ageri dute orai: xafla bana erori zaio zorrotzez, mazelak egin dizkiote, eta ilerik ez duen azala sortu zaio begietarik beheiti. Eskua mazel berritu horietara luzatzeko gogoia ematen du.

- Denondako dago, garabi berriak ekarriko dituzte laster eta bokalea dinamitatzen ari dira ura handitzeko. Horrela tona gehiago sartuko dira, jendearen premian daude. Azkarki jotzeko tenorea dugu.

Amsterdam dago Eustakio nirekin orainokoan muku egonaren oinarrian. Urketaria gurean duxatzen ari zela takillan hartu nuen oharraren agindura bildu nintzen berarekin, ez dakit zer

afera genuen esku artean, zamaketari kuadriletan urtebete zeramatenak fijo egiteko eskaera, halakoren bat egun haietan. Urketariaz solastu ginela bai, oroitzen naiz, Amsterdam aipatu niola, portu hori, Manterolak erantsi zidan jakin-mina, urketariak berak egin zidan adioa, Amsterdam nolakoa zen, ba al zekien, zer ote zeukan portu hark, hura galdetzea bururatu bagonen baskula hartan.

«Amsterdam? Munduko maritxu guztien topadizoa».

Ez zidan onik egin hitz horrek, horrela, maritxu, erran zuen gisan, portuko garabi goitituenetik eroritako xafla ebakitzaila.

«Maritxua orduan...!».

«Bai, urketaria maritxua zuan».

Ez nuen uste horrela jarriko nintzenik hitz batengatik, petxutik eztarrira mugitu zitzaidan bihotza. Manterolaren algara etorri zitzaidan hinguigarri Eustakioaren hitzetan.

«Nolakoa den Amsterdam jakin nahi zuen».

Nik lehen traktorea kendu nionerako urketariak ikusia zuen bandera gorri zuri urdina txopan, eta Catharina Nauwelaertsen azpian Amster-

dam, Manterolak ere, algar hartan, maritxu guztien juntadizoa zela esan zidan portua, gure mutilaren lilura. Dutxatu egin zen, orraztu egin zen, arroparik txukunena jantzi zuen.

«Sekula Amsterdamera ailegatzen bahaiz, han ikusiko gaituk!».

Baina baforeak ez zeukan konpasa Amsterdamerako, portutik hogei miliatara zegoela fletatzailearen deia eduki zuten, Avilesera gateko zamatzer, edo A Coruñara, edo Lisboara, hori ez daki lanabes eta tramankulu guztien izena euskaraz erraten ahal dela uste duen zoro horrek. Eta orduan, uharte galduenean legokeen naufragoen antzera txanel batetik zeinuka ari zen urketariari kasu egin gabe edo ez ikusiarena egin da hartu zituen hamar edo hamabi gradu noroeste, zera jakinen du hori komandanteak. Urketariak bai, urketariak ikusi zuen Amsterdamgo ontzia gero eta urrunagotzen.

«Sekula Amsterdamera ailegatzen bahaiz, han ikusiko gaituk!».

Txalupatik murgil eginda igerian ikusirik amsterdamdarrak urrikaldu egingen zirela pentsatu

zuen, horrela ito zen, horrela hil zuen urketaria *Catharina Nauwelaerts*-ek.

«Sekula Amsterdamera ailegatzen bahaiz, han ikusiko gaituk!».

Fuel guztia erreta itsaso zabalean gelditu zen gauean, argirik gabe, eta gure portura zetorren zamako handi batek jota hondoratu zuen.

«Sekula Amsterdamera ailegatzen bahaiz, han ikusiko gaituk!».

Baforeak hiru tutuak jo zituen pailotari deika, orduan urketaria baforean sartu zen bokalean okerrik gabe ekarri behar zuen Manterolaren ondotik, haren laguntzailea edo konfiantzazko le-mazaina balitz bezala. Makina-gelan ezkutatu zen denon isilean, eta portutik hogeit hamar milatara harrapatu zutelarikan kareletik beheiti botatu zuen putzura *Catharina Nauwelaerts*-ek.

«Bai, maritxua zuan, eta portu honetan lehen bafore sobietikoa heldu zenean ongi etorria ematera igan zuan hura, txalupan gan zuan bokaleraino eta pailotaren eskalan goiti igan zuan ur freskoa eskaintzera».

«Bai, eta zer?».

«Zer? Hi komunista izanen haiz, baina mari-txu horrek hik baino potro gogorragoak zeuzka-la».

Leporako zabaldu zuen ukabila Eustakiok. Bagonen baskula barnean eserita geunden, eta kanpoan karrilak harrotzen ari ziren obretakoak mailu pneumatikoarekin. Gelditzen zirelarikan sorgortuak bezala uzten gintuzten, munduari norbaitek asotsak oro kenduak zizkiola ematen zuen.

«Kontuz zer esaten duan».

Hori bera galdatzen nian nik, kasu egiteko nola egiten huen hitz, merezi zian bertzelako karesa urketariak, ginebra zirrizta ematen ziguan uretan hark, eta jostailutasun hura, ahalkerik eza, hori galdatzen nian nik bagonen baskulan salatu egin hindudan hartan, nirea den kareizko orrazi bat alkandorako sakelan duela Amster-damgo moiletan dabilen mutiko hark ekartzen ziguan uraren lurrina bezala zaukaat hemen non-bait atxikia gau hartan bertan atxilotu hindutela, horregatik eskertu diat eskerra, Eustakio, maki-nistok moilako lana geldiaraziko dugulako gezu-rra erran dudanean egin didaan behako apal



hori, ni horretara bortxatzearen barkakizuna es-  
katzen zuen hire eskerra. Ahalkemangarria duk,  
bai, Extremaduratik ekarri dituzten goseak hilda-  
ko hok ari gaituk grebara bulkatzen makinistok  
gai ez garelakotz pausaldi mendrena egiteko,  
ustelduak gaudek, nardatzekoa duk, Eustakio.  
Segur hago hemen gelditu ahal izanen dutela?  
Lortuko duk zamaketariek tipulanoak onartzea?  
Arrantzan hasten badira ez zietek filiñoei baino  
are zekenago ordainduko? Bai, bai, papera arras  
ongi zagok, hau irakurtzen duenak pentsatuko  
dik zer edo zer, aunitz ikasi duk kartzelan eduki  
hauten urtebete honetan, barka ezak, badakit,  
niri oroitarazi behar al didak. Nire mihiak galdu  
hinduen, eta ez dakik ni atxilotu ez izanak nola  
utzi ninduen, gero konprenitu diat nahita utzi  
nindutela, pausoak hartuko zizkidatek, nondik  
nora nabilen, menturaz barrandan zauzkaagu  
hemen bertan, kantinan, zertan gabiltzan gu  
biok, hirekin ni, horregatik etorri zaidak malkoa,  
egik kontu zer den niretako orai galdatu didaa-  
na, barkamen zoragarria duk, hik pentsa ezak  
nahi duana, errak berriro hik badakiala zergatik  
erori hintzen eta ez zela nire hobena izan, berdin

zaidak, eta nik baietz erraten diat Eustakio, jakina baietz, hik ez duk konprenitzen ahal, hik ez dakik, hik dena kontrolatu nahi duk baina nik badaukat zokoño bat inork inoiz jakinen ez duena, han ez dik inork zangoa sartzen, nire gotorlekua duk, nire dorretxea, hiru mila zaldik zaindu eta 380 voltiok hesitutako barrendegia, burutik egin ote zaidan, ez dakik nola, bai, bai erraten diat, bihar atxilotzen banaute ere hi bezala zafratzen banaute ere ez ditek kausituko, hik irakats ieza-dak nola funtzionatzen duen eta neure gain bertze guztia, hi lasai, bihar tipulanoek grebarekin bat egin edo ez *Catharina Nauwelaerts*-ek beste garabiren bat bilatu beharko duen bezalaxe egi-ten diat zin ez dutela inoiz harrapatuko multiko-pista hori, hitza ematen diat, Eustakio, urketaria kabinan sartu izan balitzaida bezain isil altxatu-ko diat.

# Oteiza, mendekaria

Elkarri izena baino maizago izenaren laburdura edo txipigarria edo goitizena esaten genion gero eta aspaldiz ederragoko garai hartan, deitura zuen gizon honek izena. Ikara beratz batek hartzen gintuen «Oteiza» entzunik, erakarri egiten zuen deabru munizipala zen, ume geldituriko zarpabizarra. Gaizkileen buruzagiari bezala esaten zitzaion deituraz, begiramenezko detailea zen, goragoko mailakoari zor zaion tratamendua. Ez zen suelorik gabekoa, narrastu hark zeukan entzutea. Oteiza tarteko baldin bagenuen alferrik zituzten herriko kankailuek gure gutak arraunetan nahitarat trabatuta hausteko amarruak, Oteiza aditua genuen begiak txikitzen eta ezpainak handitzen. Ez zen hilabeterik joanen udaltzainek atxilotu gabe, hainbat gau emana zen txakurtegia eta horrek miresmena sortzen zigun. Inork ez zuen inoiz ikusi bera baino gazteagorik edo ahulagorik zanpatzen, bera ezin eta gu hankapean hartu nahi izaten gintuzten kukumarru haiekikoak ziren beti Oteizaren lanak, ho-

rrexegatik laketzen zen guri mehatxu egiten putzura bultzatzen erlak kentzen eskopetaz begi ematen, beldurraren jabe zelako baino lagun nahi gintuelako bere adinekoek ezarria zioten destainaren aurka.

- Laguna beti lagun! Etsaiari barkamenik ez!

Esaldiak ekarri die izena ahots eta aurpegi hondatu hauei, rap musikaren burrundarari ezin gain harturik hurbildu zaidanean. Ez, ez da «garai bateko adiskideez» ez naizela oroitzen. Ikusi hutsean nekez ezagutuko nukeen gure be-launaldikoen oilolurreko ezproiduna. Erdeinatua bezain miretsia, bakarti handi bat zen orain alkoholak zimurtua daukan Oteiza gizajo hau, ume batzuon buruzagia eta heldu guztien parte gaiztokoa: herri txipi baten laidoa. Harrika ematen zion zinemako pantailari filmeak aspertzen zue-nean, onena zen malda gorakoan kamioien kaje-ratik zintzilikatzen, harkaitzik altuenetik egiten zuen murgil buruz, zokorik arriskutsuenetan jarduten zuen lanpernatan, atunetako amu bat ibili zuen hilabetean belarritako, guk arraunketa naturalean baino arinago eramaten zuen batela ziaka, bokalearen erdiraino egiten zuen lentan,

aldizkari argazkidunak erakusten zizkigun frontoi atzean, ez zekien zatiketak egiten, motor berria zekarren astero, Ducati urdin batean uzkerka ikusi nuen igande batez hiriburu alderantz zihoala, Marie Brizard likorerako pare horretan. Ni beste espaloitik nindoan eta ez ninduen ikusi, gaztigatu egin nahi izan nuen baina, berehala hartu baitzuten erdian atzetik zetozkion trafiko-ko guardiazibilen Sanglas nikelatu handi haietarik bik.

«Etzakela ihes egin, okerrago duk eta!».

Baina jadaneko Oteizak motoa bidearen erdiraino jaurtia zuen, eta argi poste luze batetik leerratuz trenbidera jaitsia zen, tarte handia egin zien ustekabeen. Guardiazibil batek motoa espaloira erretiratu zuen besteak pistola ateratzen zuelarik. Orduan Oteizari atxilo emateko oihukatua zion agureak kargu hartu zion txapelokerrari.

«Aizu, tiro egin behar diozu motor batengatik?».

«Isilzaitez, jarrai zure bidean!».

Baina zorroan sartu zuen burdina. Ni ere neure bideari lotu nintzen. Beherago, niregana gurutzatu zuen agureak.

«Izugarria da Oteiza hori! Tunelean ezkutatu-ko zen!».

Edo moilako irakinean urtuko zitzaien, ikatza kargatzeko zain zeuden bagoiren batean uzkur-tu ez baldin bazen. Atzera behatu genuen. Ikus-garri polita zen, bi guardiazibil hiru motorekin. Frontoira iritsi nintzenerako han zegoen Oteiza, barrenetara ari ziren denak. Bestelako jertsea zeraman.

«Tiro egin nahi izan dik batek».

Ezer esan ez banu bezala Oteiza. Horrelako-ak zeuzkan, eta horrexegatik zen miretsia, ez zuelako bere burua famatzen. Gero, biak kanpo-ratuak geundelarik:

«Hi isilik, aitu, hi isilik!».

Taktika zirudien isiltasun hura, ordea, atertu ezineko jarduna bihurtzen zitzaion txakurtegiko-ak aipatu behar zituenean.

«Lehendabizi oinetakoak kentzen ditiztek, oi-nutsik sartu behar duk hor, eta zorua dena gar-bantzu gordinez betea zagok, eta haien gainean

ibili behar duk, haien gainen lo egin. Eta dena ilunpetan zagok, orduan entzuten duk arratoiak ari direla garbantzuk jaten, eta soinu hori entzun duenak ezin dik lorik egin, erne egon behar dik ze bestela arratoiek zangoa jaten diate, komuneko zulotik gora azaltzen diren arratoi bustiek».

Baten batek esanen zion saguak izanen zirela, arratoiek kontserba lantegiko isurbideetan zeukatela jakia, eta behako batean suntsituko zuen Oteizak.

«Gero Xegama sartzen zaik, eta porrika ematen dik. Nik ez diat inoiz garrasirik egiten, hori duk gehien izorratzen duena».

Besteren batek esanen zion garrasi eginen balu agian utzi egin beharko ziotela jotzeari kaletik entzunen zelako, eta Oteizak bakarrik egiten zekien bezalako tu gordin bat eginik mespretxatuko gintuen denok.

«Hik egin ezak hitz inoiz txakurtegitik irteten bahaiz».

Eta kandela guztiak ebastera sartu behar genuela eliza itxian aginduko zuen, edo antxetek habiak zeuzkaten labar ikaratzailleetan jaitsi

behar genuela arrautza bila, eta ez zetozenak loretxu, eta loretxuei egiten zitzaiena eginen zigula berak bat-banaka. Izaturik ez baina liluraturik ginduzkan. Beldurra ematen ziguten gauzak egitera behartzen gintuen, eta hartara sailkatze bat sortzen zen gure artean ere, zailduenen hierarkia. Ez nintzen ni gorenetakoa, egia esan.

Nik bideraino laguntzen nien, ez haratago. Inor ageri baldin bazen abisua emanen niela behintzat, eta bai, horrenbestera bai. Arrebak kendutako libururen bat irakurtzen gelditzen nintzen gerizpean. Kolkoak bete bular itzultzen ziren, txalaka mikatz haiei haginkada bana egin eta harrika ekiten genion elkarri gero. Jota baldin bazeuden ere, nik banekien lurrekoak zirela oneak, eta zelai bazterrekoak hartzea libre bezala zegoela, horixe zela baserritarren legea. Umeak hutsa iruditzen zitzaidan sagarrak ebastea, eta hala zen noski.

«Beldurra nik? Debekatutako paperak zauzkaat ohe azpian!».

«Paperak? -tu gordin bat- Euskadi, kakazaharra!».



Noizbait onartu behar izan nuen iritzi zentzudun hark berak, umekerietara makurtu nahi ezak berak egiten ninduela koldar. Umekeria edo ez, kuraiaren froga ematen zuten lagunak. Adarreko lehen sagarrari heldu nionean ordea jabetu nintzen kementasun haren laburraz, Kojuaren sagastiak landare mordoa zeukan, gainbeheran zegoen eta erraza zen amilduan ihes egitea. Sekula ausartzen ez zen hura inor baino barnago sartua nintzen. Ez nuen kolkoa kargatu beraiek bezala, zuhaitz bakoitzean onena bereizi eta erdijan egiten nuen bertan. Eta Ñako, Txuma, Xanti, Larra, Txurdo, Manu, Bixen, Pottoren esanari bostaxolatua geroz gorago nindoan, Kojuaren baserrira hurbilduz.

«Nahikoa diagu, goazemak!».

Nazkatuta nengoen haien ziriak jasan beharraz. Ni aurrerago, lasai, Oteiza zelatari baneuka bezala.

«Denok harrapatuko gaitiztek hiregatik!».

Kakatiaren azken katramila zen, izorratu behar nituen horraatikan, eta betirako. Tiro bat entzun zen.

«Kojua, Kojua!».

Ez dakit nondik, hauxe sortu zitzaidan:

«Gatzezko tiroak dituk, besterik ez».

Baina burua itzuli nuenerako Kojua bera neukan bekoz beko, morroko, tramankulu, ardoa hortzetan.

«Nik ez dut ezer hartu!».

Eta besoak goititu nituen, ikus zezan kolkoa hutsik neukala, eta sakelak.

«Euskalduna gainera!».

Orduan alde egiteko esanen zidala uste nuen nik, euskaldun guztiok garelako nola edo halako baserritarrak, nik osabarenean ikasia nuen sagarrei buruz nekien guztia.

«Mokoka egindako batzuk jan ditut, hiru edo lau».

Piper gaiztok erre zuen Kojua. Baina nik ez nuen ihes egin nahi. Behar nuen adina hartzeko baimena emanda utzi ninduela esan nahi nien besteei gero, boleran, sua eskatzen niela. Min ematen zidan atzaparrak besoan.

«Besteetan, hementxe utzi izan ditiat lapurretan harrapatutakoak! Berotu bat eman eta beidok berriz azaldu!».

Eta pikondo ahul bat banintz bezala eragiten zidan inarroka.

«Baina oraingoan ez! Euskalduna eta baserri-tarrei lapurtzen! Hau ez duk horrela geratuko! Hik nozitu beharko dituk beste guztienak!».

Negar egin izan banu, utzi eginen ninduen Kojuak. Baina nik harro behatzen nion, deusen errurik ez daukanaren gardentasunaz, neure burua ezagutzen hasia nintzen. Iluntzen ari zuen, eta umeak ez zuela negar eginen. Halako barregura bat ematen zidan Kojuaren aurpegiak, amorratua egon behar zuen. Baserritar trauskil hark Oteizaren beraren pare jarri ninduen: beheko bidegurutzeraino eramane eta han eduki ninduen udaltzainen autoa azaldu zen arte. Dei gina izan behar zien lehenago telefonoz, sagastiko mugimenduak ikusita.

«Xegamak kenduko dizkik bizkarreko hotzak!».

Baina ume hark ez zuela negar eginen.

«Hi Joseberen neba haiz, ezta?».

Aspalditik ezagutzen zuela Josebe, Joseberekin dantza egin zela, ba ote zekien Josebek nolako neba zeukan. Azkenean, bera ere aspertuta,

bakean utz nintzala eskatu zion txoferrak lankideari, eta isilik egin genuen trenbidetik herrirainokoa. Txakurtegian sartzekoa oinez egin behar genuen plazaren erditik. Bai, Oteiza adina izan nintzen orduan, ostegun ilunabar hartan, karrika nagusitik barrena udaltzainek bulegoraino eramanez nindutenean tolosarraren gozo-dendaren izkinatik beha neuzkan Xanti, Larra, Potto, Txuma, Ñako, Txurdo, Manu, Bixen... eta Oteizaren beraren aitzinean.

Eskuburdinez lotua eraman banindute!

Helduagoei entzunak ginen herriko gazte guztien fitxak zeuzkala Xegamak etxean. Semeari besoa porrazoka hautsia zela esaten zuten, fundizioko lehen soldata amari eman nahi izan ez ziolako. Izena galdetu zidan, eta ea ergeta nintzen, emateko deiturak ere, biak. Arrebaren neba nintzen galdetu zidan honek ere. Fitxatua edukiko zuen. Ez nion erantzun, dena zekien.

«Txakurtegian eman beharko duk gaua!».

Ez zizkidaten oinetakoak kenarazi, sakelak hutsarazi besterik ez. Sartutakoan, zoruan ez zen garbantzuz gordin bihirik ageri. Argia piztua zegoen sabaian, eta zoko guztiak miatu nituen

zuloren baten bila. Leihohagadun bat, goi samar  
heltzeko, Choko-Alay elkarte gastronomikoaren  
karkabara ematen zuena. Han ez zegoen komu-  
nik. Oteizak kontatzen zigun guztia gezurra zen.  
Ogitarteko bat eman zidaten. Aita sumatu nuen  
hizketan bulegoan. Fruta sartu zidaten gero. He-  
rriko hordi publiko biek, Oteizak eta nik, beste  
inork ez zuen txakurtegia ezagutzen! Eta zokorik  
ilunenean jesarri nintzen, harrotasun berri batek  
egiten ninduela bizardun: nire bizitzak, handik  
harat, bi aro zeuzkan. Frontoian bertan esan  
behar nien denei txakurtegiko kontu haiek he-  
zurkeria hutsa zirela. Manta ekarri zidan Xega-  
maren tropako batek. Hartan bilduta, etxetik  
ihes egitea asmotu nuen. Zamako aleman bate-  
ko kapitaina nintzen, aginduak ematen nituen  
galernaren erdian eta marinel guztiek obeditzen  
zuten, fedea zidaten. Biharamunean topa egin  
genuen Hamburgeko tabernarik likitsenean,  
Oteizak zabal-bildu batean erakusten zizkigun  
argazki haietarikoek zerbitzatu ziguten mahaira,  
eta guk...

«Abusatzera datoz hona zerriok!».

Nire ondoan erori zen ofizial nagusia, aurpegia odoletan, tabernariak egur puska batekin buruan jota.

«Apur itzak orain godaletak, urde zikina!».

Orro lokaztua egin zuen zoruan buelta erdia emanik, bere kapitain gazteari beha gelditu zen lehen ofiziala, ahalgeturik. Ezin zuen hitzik, otarrean hiltzen ari den urraburua ematen zuen, ez-painka.

«Hamburg?».

Baietz egin zidan buruarekin. Eskua luzatu zuen, estutu egin nion.

«Alde egin ezak hemendik!».

Eta porra jaso zuen nire gainean Xegamak.

«Hoa etxera! Aitak konponduko hau!».

Kalera lastertu nintzen, ez zebilen inor. Goizeko ordu biak ziren elizako betean. Giltzen eskasa ezkerreko patrikan. Txakurtegirantz jo nuen berriro, atzealdeko karkabako leihotxopean gelditu nintzen adi. «Esan ezak orain Gora Euzkadi, zerri horrek!» marmarikatzen zuen aha-petik, «Dei egiek gudariei, esaiok Agirreri hire bila etortzeko!». Sugedorriak belarretan ateratzen duen ziztua sortzen zuten hitz haiek Xega-

maren hortzetan. Eta bere porrak behin eta berriaz maspiltzen zuen, sagar handi bat balitz bezala, nire ofizialaren gorputza.

«Ez al duk ulertu?».

Porra gerritik askatua zekarren manta emana zidan udaltzainak. Luzeenetik hartu nuen haren ondotik ez pasatzearren. Ez nuen etxera joan nahi, zaborketariak azaldu arte geldituko nintzen kalean, haiek jakiten zituzten istiluetako zertzeladak, zabalik edukitzen zuten haiendako garbiketari aritzen ziren tabernariak. Odol arrastoak kale nagusian, hiruzpalau metrotara tantak. Terranova Berrira iritsi nintzen haien peskizan. Erdiraino zeukan jaitsia sarea, baina jendea zegoen barruan.

«Nik beti edukitzen diat egur puska hau mostadore azpian... Batek ezin dik jakin zer jendaila sartuko zaion tabernan!».

Gure herriko profesional bakarrak, Zazpisa-kek sinaturiko palakortako tresna beldurgarri hura edukiko zuen eskuan Hilariok, hala erakusten zigun guri mehatxuz, komuneko paretetan idazten genuelako. Baina odol alemanez edertua orain.

«Horrek ez dik godalet gehiago puskatuko!».

Xegama eta bere morroiak ikusi nituen plaza-  
ren buruan, whisky ordainaren bila zetozen. Las-  
terkari eman nion etxerantz Primo de Rivera ka-  
rrikatik barrena. Ezkaratzak irekiak edukitzen  
ziren garai hartan herrian gauez ere, galernako  
portu. Hirurak jo arte egon nintzen eskaileretako  
tranpalean jesarrita. Aldizka ez nuen ezertan  
pentsatzen, gero esnatu bezala egiten ninduten  
Xegamaren porra ukaldiek. Pfenning berri hura  
sakelatik atera eta beha gelditzen nintzen, egi-  
nak nituen itsasketa gaitz guztiak gogoan. Atea  
isilka zabaltzen zutela nabaritu nuen, zutitu egin  
nintzen. Ez nekien zer esan behar nuen, berdin  
zitzaidan zigortzen baninduten ere. Kalerako jan-  
tzian zegoen arreba.

«Zer egiten duk hemen!».

Musu eman zidan, ongi nengoen galdetu  
zidan.

«Ken itzak zapatak! Agudo!».

Ez nuen Hamburgera ihes egin, baina ez nin-  
duten Etxeberritxora eramanez ahal izan Kojuari  
barkamena eskatzera. Arrebak atzekoz aurrera  
ipini zuen gurasoen ahalkea, Kojuak eskatu



behar omen zukeen barkamena ni udaltzainetara ekartzeagatik. «Utzi behar da ume bat Xegama kriminal horren atzaparretan!», esan zuen. Inork ez zion aurre egin, nik barkatu egin nion gurasokeria. Amak malkoak xukatu zituen, eta orduan aitak bere testamentuko aspergarren aipua eskaini zidan, begitsuak ateratzen zitzaizkion arazoak erdiz erdi trenkatzeko egiten ohi zuen moduan:

«Habilen bideak galduko hau».

Hurrengo larunbatean azaldu nintzen bolean, lasai, Peter Stuyvesant eskainka. Dena izan zen poza eta jakin beharra. Beraien izenak eman ote nituen galdetu zidan Txurdok. Damutu zitzaidan Oteizak bezala tu egiten ez jakitea.

«Ikusi al duzue Oteiza? Gauzatxo pare bat argitu behar diat berarekin».

Kai aldera eraman ninduten obo erdi baten barruan, gure heroiarekikoa ukabilka konpondu behar banu bezala, herria txikiegia uste zuten bi pistoleroendako. Ikusi ninduen bezain laster Iztaren gasolino zaharra kalafateatzeari utzi eta neuregana etorri zen antxintxika, eskuak kotoian garbitzen zituela. Ez zidan tabakotik hartu, be-

sarkatu egin nahi ninduela ematen zuen, beso bietarik heltzen zidan, Kojuak bezala astintzen ninduen.

«Hi lasai, hi lasai... -hosto busti bana begiak- Eman dian porrazo bakoitzeko, senperrak ikusaraziko zizkioagu Xegama horri. Larrutik pagatu beharko dik! Laguna beti lagun! Erakuts itzak markak!».

«Ez... ez zaukaat markarik!».

«Toaila bustiekin eman ditek bizkarrean, arrastorik ez uzteko!».

Oteizak berak moldatzen zituen bere galdeei komeni zitzaizkien fantasiak, txakurtegian inoiz sartu gabekoa ematen zuen. Gainerakoek, izutu-ta, torturak santifikaturiko haragi biluzi bati bezala behatzen zidaten.

«Damutuko zaiok Xegamari hi oinutsik erabilia garbantzu gordinen gainean!».

Eta bere txakurtegikoak umeon aurrean luzitzearren sortutako gezurrak zirela, dena hezur hutsa zela esateko kemenik gabe utzi ninduen alkandoraren mahuka begi ertzera eramanik «Hi lasai, hi lasai, neronek akaatuko diat Xegama!» egin zuenean zakar. Ukabila itsutu zuen gero ko-

petako zaina puztuta «Etsaiari barkamenik...! Neronek!» esaten zigula, eta nik alferrik estutzen nuela lehen ofizialari eroritako pfenning hura, neure itsasketa gaitzen frogatzen, neure kartzelaldiaren saria. Ezin izan nion esan nola ezitzen zuen bere frustrazioa Xegamak marinel horidituen haragian, ezin esan izan nion bazela atxilotuaren isiltasuna baino amorratzenago zuen zerbait. Baina, egia esan, ez dakit ulertuko zidakeen halakorik Oteizak, gerra bat ukan genuelako gezurra zela hasi zitzaigun behin, ozta zekien irakurtzen, aitzak ez zuen erdaraz egiten eta berak ez zuen euskaraz deus konprenitzen, euskaldunok jende xixarea ginela esaten zigun, Euskadi herrixka zikin bat zela.

«Bilboalde horretan, itsasertzean, kakazaharra».

Bi edo hiru hilabeteren buruan hil zuten Xegama eguerdiko eguzkitan eta etxeko atarian, tunpatapalahara handiz, bere morroiak txakurtzean gortortzen zirela. Herri osoak ikusi zituen, aurpegi has, komandokoak. Simca 1200 gorri batean alde egin zuten herribarneko semaforo bakarra ezikusiz. Xegamaren odolak bustitzen

hasiak zituen kaskiloak oroigarri biltzen genituela ahots ezagun batek egin zidan xuxurla belarri-  
ra, atzetik:

«Esan nian... Laguna beti lagun! Etsaiari bar-  
kamenik ez!».

Oteizak ubera sortzen jarraitu zuen gero ere,  
gu, alegia nahigabe, sagarrondoetarik nesketara  
azalberritzen ginelarik. Boxing Club-en hartu zu-  
tela jakin genuen. Hamabi soken artean ikusiko  
genuela uste zuten herrian, inork ez zion ukatu-  
ko hartarako ezkertasunik. Baina kasatu egin  
zuten gimnasiotik, super-arinetan Espainiako  
txapelketarako prestatzen ari zen bat, Tony Fe-  
rreira uste dut, K.O. utzi zuelako entrenamen-  
duan, horixe zabaldu zen behintzat. Manuk beza-  
la Angolan mertzenario azkendu orde zedo Pana-  
mako banderapean zebiltzan zamako ugerdo  
haietarik batean ontziratuta itzali beharrean, he-  
rrian astero jotzen zizkiguten filmeetan ikusita-  
koaren eraginez noski, Oteiza boxeolari zapuz-  
tua herriko aurrena izan zen soldadutza Legión  
Extranjera-n egiten, han behean, Afrikan, mundu  
osoko hiltzaileek jakin zezaten nolako aparejuak  
sortzen ziren gure bazterretan, eta bigarrenez

lotu zela entzun genuen, urteak egin baitzituen azaldu gabe, bizi zenik ere usteztua neukan. Nolanahi ere, Xegama hil zutenez geroztik eta herrian bizi izan zen artean beti luzatu izan zidan ahapetik, tabernan edo frontoian topatuta edo bakailaoaren deskargan genbiltzala, gure arteko mezu gakotu hura, orain begia kliskatuz garai bateko gaizkideari zor zaion bezala inoiz baino bakartiago bota didana oster, Hilarioren se-meari beste garagardo bat atera diezaiola agin-du diodanean.

- Laguna beti lagun! Etsaiari barkamenik ez!

Kartera hanpatu bat zabaldu du, tolesdurek lautan ebakitako prentsako txatala erakusten dit. «Tipo gogor bat!» esan omen zuen bere artean poesia lehiaketa ezagun bateko garaile ikusi ninduelarik paperean, duela bost bat urte. Horixe esan nahi omen zidala noizbait ikusten baninduen, ez dudala idatzian -«paperak zikinduz», bere hitzak- Xegamaren atzaparretan eman nuen maila sekula eman ahal izanen.

- Zaila zagok, baina saiatuko nauk.

Herriko poliziaburu beldurgarriaren legeari trufa egiten genioneko lagun izan ginela esan

ahal izateko, horretarako darama irakurri ezin duen egunkari orrialde puska hori, biziaren ankerak anonimotasunean ilundutako heroi akitu honek bere iragan ederraren frogatzat narama sakelan. Besoetara behatu diot, tatuaien esangura jakin nahi izan dut. Nire bizitza kontatu behar omen diot aurrena.

- Nire bizitza... Behin sagar bat lapurtu nian.

Ezpainak bitsera hurreratu ditu jaramonik egiteke, kunplimenduzko jakin-mina izan da erantzunak petralik ez zeukan arren.

- Eta hirea?

Behako ironikoa eskaini dit zeharrez, tatuaiak non eta noiz jakin gabe geratuko naiz.

- «Euskadi, kakazaharra!» esan zuen, eta nik esku honekin, honekin, matelezurra apurtu nion. Hantxe bukatu zen Tony Ferreira, aldagelako zoruan.

Ni xarmatzeko nahasmakeria ez badu behintzat, ez zen Xegamaren heriotza deitoragarria bakarrik izan, oker nengoen, gure Oteiza bihurtu zuena mendekari. Bere balentrien albistEEK hantpatzen dute, beharbada, beldur-banatzaile honen kartera. Eta oraintxe etorri zait, rapak po-

rraka maspiltzen gaituela, gauaren erdian ni Xegamaren atzaparretarik kosta ahala kosta ateratzeko jantzia zen arrebari ez niola sekula esan miserable hark bere galde egin zidala.

# Eskuak bete lagun

- Sortida egin behar duk orduan?

Ikaratu egin ninduen, plaza osoan entzun zela iruditu zitzaidan. Bela egin behar nuen, bai. Zigarroa putzura bota eta jauzi egin zuen txanel batera, hurbildu egin zitzaidan.

- Lotan hengoen?

Argia piztu zuten Betrantonekoek.

- Bai, Bittorren amak gaztigatu zidak, zurrutetik etorrira... Baina hi ez al hengoen...?

- Mugi hadi, izarak bero utzi dituala atzematen ditek eta bokalera etorriko dituk!

Arraunak kendu zizkidan Engelsek. Zentral termikoak klubekoei emana zien txandal berria zekarren soinean.

- Hi bakarrik ez haiz inora ailegatuko.

Abantean hasi zen inoiz baino kukutuago, luze eta erdi aitzinatzen genuela palada bakoitzean, eta azala maltrata gabe, gozo, isilean. Asko hobetua zen terrestre hura. Ilbehera genuen beharrik, eta tarteka. Konturatu nintzeneko, bokalean aurrera gindoazen.



- Baina nora hoa?

Lemakanarik gabeko batela aukeratua nintzen, ez neukan handiagoren beharrik, nik beste bazterra jo eta mendiz hiriburura pentsatzen nuen, banituen telefono zenbaki batzuk eta gordeko ninduten nonbait oldarra baretu arte. Baina zoro hark itsasoz nahi zuen, nonbait.

- Hi, buelta hadi, beste arraun pare bat hartuko ditiagu nonbaitetik.

- Orraztuai!

Arrazoia zuen ausaz, hobe genuen astirik galdu gabe portutik lehenbailehen urrundu, gero motelago joan beharko bagenuen ere. Gure flota kosteran zebilen, ez zen matxuratutako ontzi bat bera ere kaian, arriskatu beharra zegoen. Baina egia esan hilabete lehenago Serapioren baforea miatu zuten, ez zegoen txoko segururik, nik bezain ongi jakin behar zuen hori Engelsek, bere traineruan zebilen Martxel. Gaztelu zaharreko harresietan egoten ziren gordeak karabineroak batzuetan, baina gau hartan ez zuten kontrabandarik espero itxuraz. Bikote bat zegoen Txurrutallako horretan, oihu egin ziguten, adio. Teodoro-arroka Jaizkibeldik eroritako harkaitz handi bat

bezala ageri zen ia kanalaren erdian, itsasbehera zen, hobe. Baina bizia eztarrian neukala utzi genituen atzean sarrerako farolak. Eta ezker hartu beharrean noreste hartu genuen.

- Hurbiltzen badituk txalupa enkallatuta mendian gora abiatuko gaituk.

Burutik egina zegoen Engels.

- Koneju ehiza egin dezaten.

- Labarretako zuloetan ezkutatuko gaituk.

Arriskutsua ordea, kostaz kosta Hondarribiraino joateko ideia on hura. Ona, hiribururako bidea aski zaindua eduki zezaketelako, eta arriskutsua Grankanto osoa, eta luzea da, zuzen geneukan arren, Platintxulorako Golkora iritsi aitzin badagoelako mutur irten bat, lapitz hauts hartan ikusten ahal ez zena.

- Kostazaina estekatua zagok kuadranteko nasan, hago lasai.

Hegaluzerako beita hartzen ariko ziren beraz, gure ontziren baten argiak izan behar zuten abarorean zebiltzanak.

- Boga estiborrera, Higerreko farola galdu gabe!

- Ongi, Matxet!

Eta geroztik hala esan izan zidan beti, 1928an Donostiako estropadako errekorra, 19 minutu eta 17 segundo, urteetarako ezarri zuen herriko patroik mitiko baten izengoitiaz. Ari zen zerbait hartzen gure umoretik haurtzaroa txanel batean kulunkatu gabe emana zuen dohakabe hark. Baina aitortu beharra dago lehorrean ere sortu izan direla marinela onak, nire sorterriko baforetan kostako patroiak beti izan dira Galiziako bazterrekoak, Corme izeneko herrikoak hain zuzen, baina arrantzakoa laboraria izan da maiz, harrigarria da baserritarra izatea bizkorrena arraina non dabilen kausitzeko. Entzun izan dut aroa hodeietan irakurtzen usatua dela nekazarien begia, horrek egiten duela nagusi blankura atxemaiten, marinela ez duela halako ñabarduretarako alkantzurik, izarrei beha zuela galdu... Batek daki! Engelsek behintzat gure arraunlariak auzoan zeukaten dohaina zekarren goialde urrun hartarik.

- Tira, egin diagu okerreana, utz iezadak orain niri erramutan.

Zer edo zer egin nahi nuen, izerditu hautsi lehertu, ikusten ez nituen arroak eta argitzen ez

zuten argiak baizik ez nituen ikusten. Miaka hasi nintzen panelpean. Ez zegoen kriseilurik, baina bazeukan aparior. Algorriko harkaitza estiborrean genuen, ongi gindoazen. Gutari burukomina kentzen entretenitu nintzen. Tximista bat. Ubera sortzen zuen Engelsek, sufritzen zekienazen, besterik ezean. Bigarrena berrogei bat miliatara, Capbreton inguru hartan. Hoztu egin zuen brisak, «...endio!» egin zuen Engelsek. Ez zuen asko behar izarradura tapatzeko.

- Ez duk nabaritu? Hondotik ari zitzaiguan abisatzen lehenago ere!

Aldendu egin ginen bazterretik, harkaitzen kontra jota ostera itsasorantz zetozen bagek kulunka handiak eragiten zizkiguten, algaretean ibili ginen une batez, egoskor Engels bere ariketan eta ni ahalegin hura iraindu nahi ezik mutu. Argiak sumatzen nituen nik mendiko bidezidoretan edo, baina gorbeletan zebiltzan ijitoenak izanen zirela deliberatu nuen neure artean. Bare samar zegoen barrurago, eta handikanen hobeki ikusten ahal nituen, ustez behintzat, Amaotza eta Eperrarri, ez lehorretik bezain politak baina, Zunbillondoko muinotik goiti, ezkerrerantz. Higer

ostean Miarritzeko farola. Itzalarriko erreka-  
ostean Tximistakurratuko largoa genuen Ixkiro-  
raino. Gorbeletan, ilunpe hartan? Uste nuena  
baino urduriago nengoen: mareajeak agintzen  
du gorbeltzeta, ez argitasunak!

- Lehen aldia duk habilela gauez hemen, eza-  
gun duk.

Lepoa eginen nukeen bera ez zela inoiz ibilia  
egun argiz ere, portu barruko kalma zurian en-  
trentatzen ziren.

- Gorde ezak indar pixka bat itzulerako, etor  
hadi heu orain txopara!

Eta zutitu egin nintzen. Tu egin zuen Engel-  
sek, arraun bat utzi eta bestearekin okerrera  
eraginda jausarazi egin ninduen, gutik egin zuen  
ez banintzen gazira joan. Lehen bezain mutu ja-  
rraitu zuen berriro zuzendurik, irri egiten zuela  
ahapean.

- Marx zaharrak dioenez... iraultzaren txalu-  
pak... patroia ona behar dik... arraunlaria bizka-  
rrez baitoa helburura...

Iraultzaren txalupa! Maiakovski aipatzen  
zidan zakil hark!

- Horregatik hartu behar dik arraunlariak patroiaren lekua aldiari behin... lajanak!

Palada berri bat egiteko gorputza aitzinatzen zuen aldiro neukan bekoz beko bere aurpegia: bekainak zimur, sudur hegala zabal, matelezu-rra nabarmen, behakoa nire gorputzaren leku indefinitu batean tinkatua, munduari airea kenduz hanpatzen zuen bularra, eta tiro luzeena ekarri kasik etzateraino urruntzen zitzaidanean koka- tsa atereaz egiten zuen sudurrera putz bisaian behera zetorkion izerdia kentzeko, beti honat- harat berdinean, beti hatsots berdinean. Sufri- menduaren atleta zen Engels. Usaia ukan behar du batek arraunlari izateko, leunduena izanaga- tik ere tibortaren igurtziak, berriren berriz, baba sortzen baitu, lehertu zartatu odoldu, zauri egin- da uzten dizu eskua. Usaia, bistan da, arian lor- tzen ahal duzu, abdominalak hilduratzearen po- derioz etorri ohi da gerriaren zalutasuna. Higuin- garriena, tematze hutsaz erdiesten ahal ez dena, erla saskian baino larriago zaudela hauspoko azken hatsa erretzeko adore hori ukaitea da, be- soak karranpa eginda dauzkazularik ipurdiko zin- tzurra estutu eta jadanik zazpi arroa pisatzen

duen adarra behar adina sakonduz estroboari intziri sanoa eragiteko gauza izatea. Horixe da orain arraunlari ona izateko ukan behar dena, hiru milia jo batean eginda barrena kiskaltzen dizun urradura ez dela oinaze sinetsi ahal izateraino amorratzeko ahalmena. Espaldeatzen ez dakiten Engels bezalako gobernu zakarreko menditarrak behar ditu indarketa besterik ez den egungo estropadak, halako jendea beharko du agian iraultzaren txalupak ere. Zorabiatu egiten nintzen bere afanari beha. Karnadabako etxada batzuk egin nituen, lau aparior. Higerko farola distiratsuaren azpian geunden, hogeita bi milia urrundu beharko genuen zabalerantz, jo ez gintzan.

- Ikusten bagaituzte, ardoran gabiltzala.

Baina bazterrera behatzeko kemenik gabe pasatu ginen muturretik, eta tiroka lotuko ez zitzaizkigula kalkulatu nuelarik arraunean hasi nintzen neu ere, disimuluez futituta, bihotza punpaka, Engelsek tibortak niregana hurreratzeko zituenero enbor banatik heldu eta «Aa-rraun!» aitzina egiten niela bulka, «Aa-rraun!».

- Lajanak -gure moldea imitatuz.

Nahiago zuen bere erritmoan, eta iraindua sentitu nintzen orduantxe, entrenamendu bat besterik ez zen Engelsentzako nire ihesa... txandala jantzita egona zen nire zain! Ez niola barkatuko egin nuen zin neure bizarrerako. Ordu bi eta erdiak ikusi nituen orratzen fosforoan. Ez zekien pala airoski higitzen, arraunketaren balleta hausten zuen beti, beti gibealeko erramua jotzeko irian, baina beti batera-ezin berdinean, berdin sobera luze hartuz txanpan eta ziabogan, burua lepoan gordea, mokor, makur, muker, orain bezala. Trumoa urrunean. Lebatzero bat zetorren Txingudiko barran aurrera. Nolako kalipua hankoko harena lagunak sustatzeko eta patroiar erritmoa biziarazteko! Arraunketaren zigorra zintzoki onartuz liberatu nahi zuen galeriano bat zerraman barruan. Eta branka Bidasoan gora zuzendu orde, berriro ere, norestera jarraitu zuen.

- Pierre Lotiren etxe azpiko horretan lehorre-ratuko gaituk... Nahikoa ilun egiten dik hor... Harriaga bat zagok sobera arrimatu behar izan gabe.

Espainiarren atzaparretarik libro utzi nahi ninduen Engelsek, guraso. Suak hartu ninduen.



- Buelta hadi! Nik ez diat exiliatu nahi!

Utzi egin zion arraunketari. Barrura jaso zituen erramuak.

- Badakik, historia ez duk sekula espero den portura arribatzen... Marxek asko zekian itsasketaz.

Beha gelditu zitzaidan, lehen aldia zen aurpegira behatzen zidala bi ordu eta luze haietan. Irriño bat irten zitzaion, zotina.

- Asko lagundu didak, ongi portatu haiz...

«...Matxet» batez burutzea ahortzi zitzaion Maiakovskirenak ez ezik Leninenak ere desjabetzen zituen aipuen intelektuala. Lakartua zeukan ahotsa, egarriak puskatzen egon behar zuen nik bezalaxe. Horrek eragotzi zion nahi zukeen ironiazko doinua ematea. Popadan gindoazen Hendaiako kostaperantz martina baten atzetik. Ez nuen exiliatu nahi, baina ez nintzen gauza Engelsi arraunak kentzeko. Jauzi egin nuen, belaunetarik goiti hartu ninduen putzuak.

- Mantsoago itzulita ere argitu baino lehen helduko haiz. Oso ona haiz, onena haiz, Engels.

Bostekoa luzatu nuen, zor nion hala ere. Intxaur bat bezala sentitu nintzen tinkatu zida-

nean, lau milia txatxu haiek bakarrik egiteko gai izanen ez banintz moduan. Tanpez, besoari tira eta uretara egin zuen berak ere. Lehorrerantz hasi zen.

- Hi, baina... ez duk itzuli behar?

Ez zuen erantzun. Zarpatik heldu nion.

- Jakin ezak, entrenamendu moduan hartu dualako utzi diat nirekin. Ez haut sartu nahi abenturerismoan.

Sudur hegala zabaldu zituen ezpainak estutuz, arraun eske. Askatu egin zen lepoa zakar astinduta. Min eman nahi izan nion, eta igarria zen. Ez entzuna egin zuen. Hobeto esan, merkekeria hark merezi zuena erantzun zidan jiratuta.

- Hire bila baldin badabiltza, pentsatzen ahal duk beste batzuek edukiko dugula motiborik hanka egiteko!

Harroa zela, nolanahi ere, koitadua.

- Etzak esan, orduan hik...

- Nik ez haut ekarri, heu etorri haiz nire txalupan!

Algara baten oihartzuna uhinez uhin.

# Mozkorren arteko txo

Inor ez ginen gai izan eztulik egiteko, ez geunden ohituak hain garden. Gai tristea izaten zen, gezurren bodega.

- Ez zait batere gustatu, oso zekenak dira hauek!

Zer ari da mutil hau denok elkarri, zurturik, denok hari beha. Hangoak halakoak baldin bazi-ren, ez zuen estreinakoa. Eta, non ote zeuden zekenak ez zirenak.

- Neuk bakarrik egin behar izan dut hemen ere lan guztia.

Mahai gainean geneuzkan garagardo hasietarik bat hartu eta St. John's-eko hotz beldurgarria irten zen.

Nahi zuena esan zezakeen, edozer irain onartuko genion. To nire ama, egik gura duana, horrelaxe ginduzkan.

Flemish Cap inguruan egonak ginen, galerna-ren barruan.

Portiloak lehertuak, ateak eramaneak, mastak etzanak, lemako gurpilik ez... baso errea ematen

zuen kubertak. Jostailu bat itsaso handitu hartan biraka, lema ezin zuzendurik. Makina-gelan sartu behar izan genuen denok, ez izoztearren. Eta hamar minuturo gizon bat kubertara, zubira igota lemaren ardatzean ipinia genuen giltza ingelesa estutzera...

«Orain nire txanda da!».

Areitiok heldu egin zion, «Ez, hi ez hoa!».

Bularrean jo zion mutilak amorratuta, eta eskaileretan goiti ezkutatu zitzaigun gazte hura, haserre. Izugarria izan zen, makinaren galapa, ontziak etzan egin behar zuela uhinek esloratik hartzen gintuztenean, mutila azaltzen ez, azaltzen ez, azaltzen ez. Itsasoak eramana izan behar zuen. Inork ez zuen hitzik atera nahi, sentinako txapetara beha geunden hamabi gizon gordin.

«Badator...!».

Malkotan zeuzkan masailak Areitiok.

Jalgia zen bezain kopetilun jaitsi zen mutila. Narruak kendu eta motorraren gainean ipini zitu-  
tuen eskuak.

«Ez du inork berriz igo behar izanen. Berehala etorriko zaizkigu bila, kanadarrekin hitz egin dut».

Ez genuen galderarik egin nahi, bagenekien ez zela posible, foniarik gabe geldituak ginen.

«Eskuko ekipoa erabili dut».

Eta orduan hamabiak hari beha, barrenak barretuta.

Lehen mareajea zuen, arrabak zeuzkan gazte hark, eta gainerakook baino palakada batzuk zentzun gehiago buruan. Gezurretan ari zen, baina zeinen eder. Halakoak ezin dira ikasi, senetik atera behar ditu batek.

«Horiek denetik dakite, gaztelaniaz egin ditate, badatozela».

Inork ez zuen geroztik salbaziorik ez genuelakoa berriz aipatu, inor ez zen berriz jarri belauniko, ez zen biraorik sumatu dieselaren durundioan.

«Gure posizioa eman diet».

Eta ez zitzaigun bururatzen hark nola zekien non, ez genuen hainbeste kolpe hartzen, ez genuen hotzik, baretzen hasiak ote ziren itsasoaren hesteak ere, barrez hasi ginen, «Banoa boti-

laren baten bila» esan zuen Areitio zaharrak, patroiak.

Kubertara irten ginen.

Ontzi osoa pintatua, kubertatik eta zubitik gelditzen zen burdina puskan, aborretik estibor, dena, blakaz eta handi, SOS. Arrabak, hura pintatzeko hotz hartan, ontzia albora erorian eta uhinak joka.

Eta debiletaren kontra lehertua foniako portatilaren zati bat.

«E, begira, hor datoz!».

Hamabi gizonen besoak Canadian Rescue Service-ko abionetari agurka.

*Huracan Primerok* utzi zigun ordezeko lema-gurpila, St. John's-era hartu genuen.

«A, mutila! Ez zaik ahantziko!».

«Ikusiko duk, izerdi gozotan urtuko haiz!».

«Eta garbiak direla gero, hangoak ez dituk frantsesak!».

Portura orduko mozkortuta geunden gehienok, ez ginen Spanish Seaman's Center-era joan etxeko gutunen bila, agindua genion moduan fucking egitera eraman genuen gure mutil handia lepoan hartuta Ontario Street karrikako an-

drakalara, denon artean ordaindu behar genion estreinakoa.

Eta zubitik bezain muker osteratu zenean, mututurik utzi gintuen.

Abante egin nuen zulo hartarik, tabako kez betea neukan galdara eta hotzaren masaileko bana behar nuen. Inor ez, etxeetako argiek hotzago bihurtzen zuten karrika. Espaloiairen er-tzean, makadamean, Labatt Blue hutsa. Ukondo-tik heldu zidaten.

- Money!

Muki arrastoak zeuzkan artilezko eskuzorro gorrian. «Konkorra» zen, gure aspaldiko ezagu-na, guztiz atsotua. Neukan xehe guztia eman nion, eta marmarrean gelditu zitzaidan, «Ez al daukak besterik?» egiten zidala gaztelaniaz bere txanoaren leizetik. Arropak salatzen gintuen. Eta alkohol lurrinak. Eta geu bakarrik azaltzen gine-la engoitik han, gu bezalako portugaldar gizajo-ren batzuk eta geu, armadore handiak Norvegia-ra zebiltzan bakailaoa atzematen zuten eskane-rrekin. Makurtu egin zen botila jasotzeko, eta alde egin nion. Norbait inor zen atso hura Saint Pierre-n, larderia handia zeukan bere konkorrak

gure artean, ez ginen harekin dantza egin gabe  
jalgiko L'Etoile-tik edo Select-etik. Tristeia izan  
behar zuen bakailaorik gabeko Saint Pierrek,  
txabola multzo bat, eskeko ere ezin. Han goian  
ikurrina zeukan frontoia beti hutsik.

- Hitz eginda nahi izaten dut nik.

Kamainan etzanda zegoen mutila, jantzita,  
eskuak burupean, sabaian itsatsia zeukan Sid-  
ney hirian begiak.

- Beharbada tarifatik kanpo zaukatek hemen  
hitz egitea.

Barre egin nuen, andrakaletako beterano bat  
bezala hitz egiten zuen, kapritxoak zeuzkala si-  
netsarazi nahi zidan.

- Ingelesez, ez huen askorik ulertuko...

- Zoragarria izan behar du konprenitzen ez  
dituzunak esanaraztea ohean daukazunari.

Hortantxe salatu zuen bere burua, portueta-  
ko lilitxoengandik sobera espero zuen gazteak.

- Portuetakoa inoiz ez duk izaten kafe kon-  
pletoa.

Begiak itxi zituen. Zegoenaren parekoan  
etzan nintzen, nirea ez zen arren. Begiak zabal-  
tzeke egin zuen hitz, doinuan zuen ezagun.



- Ez naiz zuekin itzuliko.

Soldata bazen zerbait, baina lana gogorra zen oso, eta gero hilabete batzuk lehorrean inora ezean.

- Hemen geldituko naiz.

Ukondoaren gainean jarri nintzen.

- Hemen?

- Ez naiz zuekin berriz itzuliko.

Ezin nion ezer erantzun, nahi zuena esaten ahal zigun, baita Areitiori ere. Esaten ahal zigun ez genekiela nabigatzen, putetan mozkortzen besterik ez genekiela, zernahi. To gure ama, eragiok hitz ingelesez, gura zuena. Mespretxatzen ninduela ari zitzaidan esaten noski. Gero, mendekatua zela iritzi niolarik, zirikatu egin nuen.

- Beldurra hartu diok?

- Bai, horixe da.

- Gaixotasunen bat sinatuko dik hemengo medikuak, esaiok zainetakoa duala.

Burua Sidneyn zeukan, jesarrita. Botak janzten hasi zen.

- Hitz egin ezak apezarekin, horrek lagunduko dik medikuarena antolatzen. Hegazkinean

eramanen haute, konpainiak pagatu behar dik.  
Horrela izaten duk.

Nire kamainaren oholean ipini zuen zangoa,  
bota lotzearren.

- Nasatik despedituko zaituztet, musuzapi  
zuri batekin.

Eskubidea zeukan, zer duda egin, baina bare-  
tuko zitzaiola pentsatu nuen. Astebeterako ge-  
neukan laburrenez, ontziolako karroan sartu  
behar genuen baforea.

- Ez haiz hemen geldituko, ez diat sinesten.  
Moilatik jo zuen, hirira gabe, haizea popan.

- Luze samarra da esplikatzeko.

Dei egin ziguten fardo multzo baten kantoi-  
tik, ahots lakarra. Hurbildu ginen. Konkorra zen,  
ginebra eskaintzen zigun, dohainik, dohainik,  
hotza kentzeko.

- Atzeratuak gaudek, baina orain hamar urte  
atzeratuagoak geundean. Hobe ez ezagutua.  
Saint Pierrera arribatzen ginen aldiro, emakume  
honen bila ibiltzen gintuan. Peskak ordaindu egi-  
ten zioan gure sareetan txiza egiteagatik. Kon-  
korduna duk, adur ona omen zakarrek.

Taberna txipi batera eramán ninduen, portua lehendik ezagutuko balu bezala zebilen txotxoa zurezko etxe eta biltegi multzo haietan barrena.

- Ez duzu arrainik nahiko, ezta?

Ez zuen luze jardun, baina ingelesez egin zien. Ingelesez, eskuak erabili gabe. Su ondoan jarriko ginela adierazteko bakarrik.

- Beraz, Rescue Service-koek ez ditek gaztelaniaz jakin beharrik hirekin.

Algara egin zuen.

- Errazago sinetsiko zenuten horiek gaztelaniaz dakitelakoa, nik ingelesez baino.

Okela gisatu ilun bat ekarri zigun taberna-riak, patata kozkor handiekin inguruan.

- Berrogei urte bahitu, emakumeren bati ihes egin nahi dioala pentsatuko nian.

Ezpainak garbitzen zituela egin zuen hitz, zerbietaren ostetik, esana ezkutatzuz.

- Polita da... Ez zabilta urrun!

Gizon zahar bat jarri zitzaiguan ondoan, tabakorik ote genuen. Paketea eman nion, seiren bat ale.

- Esaiok berarendako direla denak.

Bostekoa emanda eskertu zigun, bizkar-ma-  
kurkak eginez erretiratu zen barra aldera.

- Badakik hori desertzioa dela, ezta? Ezin iza-  
nen duk inon ontziratu.

- Ardura zait!

Askoz gehiago luzatu gabe abiatu ginen gure  
burdina puska hondatu hartara, buruaz korazta  
eginda, haizean bide urratzeko. Afariak on egin  
zidan, gazte hark ez zuen zerikusirik gure ontzie-  
tan zebiltzan eskifaiekin, denok gara hobeak le-  
horrean, baina zerikusirik ez. Hondoratze handi  
bateko naufrago bakarra, halako zerbait, niri isi-  
lekoak esaten. Argia ageri zen portiloetan.

- Irten baino lehen, ekar ezazue konkorra  
motorean txiza egin dezan.

Eskua luzatu zidan pasarelatik hogeiren bat  
brazatara, horiek izan ziren gure mutilaren  
azken hitzak.

- Ba al daukak dirurik...?

Ingelesa zekien, lehorrean gora egin zez-  
keen hark, guk ez bezala.

Handik hilabete eta erdira, etxerakoan, gazte  
kartsu haren akordua ekarri zigun asperrak. Bi-  
garren galerna baten beldur zelako geratu omen

zela lehorrean entzun behar izan nuen, horrelakoak gara, baretu duenean inor ez gara egon «Hondora goazela!» garrasika edo «Ene alabataxoa!» zotinka.

- Desagertu zen gauean, berarekin afaldu nuen nik, nasako taberna batean.

Marinelen jangelako mahaiko hulearen zuri-urdinari beha egin nuen hitz, burua jaso gabe.

- Bazekien ez ginela zubiraino igotzen giltza ingelesa estutzeko, kamaroteetan gelditzen ginela, zubirako eskalan gora egiteko beldurrak.

Suso Reynovo ezetz esaten hasi zen, behar bezala bete zuela bere txanda, baina inor ez zitzaion adostu, nabarmenagoa egin zen denon koldarkeria. Nork agindu behar zion isiltzeko, denei etorria zitzaien Susori lotako uzkeraren antzera irten zitzaion uko faltsu hura, horrelakoak gara.

Ontzia konponduta, mareajera itzuli baino lehen, Areitiok marinelaren eskasa salatu zuen St. John's-eko komisaldegian. Ongi portatu zen, ontziolan egon ginen aste osoa eduki zuen mutiak gugandik urruntzeko.

- Aurkituko ahal zuen gozo izerditzeko hiztuna!

Baina inor ez zen oroitzen Ontario Street-eko andrakalan botea zen esaldi gogoangarri hartaz, edan handia zeramaten soinean.

# Egunkarietan ageri zen gizona

Zer esan zinan amak ezkondu baino lehen, gizonak ez dutela nahi izaten emaztea lotan gelditzea beraiek lanera joan behar dutenean? Ez ohera itzultzeko aginduz, irri batean baizik, bikote gazteen burlakeria gaiztoan, hala uste zuen, baina Anak masaileko bat eman zion. Bakarra, hogeita hamar urte laster. Elkarri beha gelditu ziren, zer uste duk ari zitzaion bekozko harekin emaztea. Une ederra iruditu zitzaion Laxarori, neska txipiño hura beso artean estutzeko gogo handia etorri zitzaion, jaso zituen besoak irri handiagoan, noiz ere Anak ahoa zabaldu baitzuen, bazekien horrela eskertzen al didak edo amaren esana egin banu ez nian kukurutxo bat gaztaina erdi bana janen hirekin esan behar zuela haserre, hartze on hargatik haserreago menturaz, eta bertan behera utzi zituen besoak, barkatzeko eskatzen badidan ordainekoa emanen dinat. Laneko oinetakoak lotzera makurtu

zen zainetako dardara gozoa ezkutatzearren, makurtzera egin zuen, orduan besarkatu zuen Anak gerria hartu nahirik, zangotraba egin zion ahul arren egoskor, halakoa zen, eta Laxarok sukaldeko baldosaren gainean utzi zuen etzatera bere burua. Emaztearen gorputz koxkorra inoizko astunen egin zitzaion, laket izan zuen, hila iduri bere gainean umetuta, sukaldeko zoruan hondoratzen zuela haragia asaldatzen hasten zitzaion bezain, ogia txapan xigortzen ari zen bezain. Handik goiti, goizean goiz jaiki beharra izaten zuenetan, ondotik lehorreratzen zitzaion Ana ohetik, isil, ahapean egiten zion hitz semea etxean edukiko balute bezala, iratzarriko zuten beldurrak ibilarazten zituen ahapean kanila kikarra koilara kisketa, atean gelditzen zitzaion beheko tranpaletik begiak harengana jaso zitzan, emazteak ez zuen itxiko eskailerak ezkerrera egiten zuen hartan balustrako hagen artetik elkarri azkenez begi eman baino lehen, hitzik gabeko agur haren eskasean ez.

- Sentitzen diat, Laxaro. Komandantziatik abisatu zidatek.



- Niri ere deitu egin zidatek gero, ez dituk zuekin fidatzen.

- Horiek agintzen ditek hemen.

Ingeniariak hiriburuan daudelako epelean enbatak portu osoa hondatuagatik, pentsatu zuen Laxarok. Guardak ekarritako Renault 4an sartu zen, eta trenbide azpiko tunelerako bihurgunea hartu zutelarik argia ikusi zuen etxeko sukaldean, maite nauela oraindik emakume horrek.

- Aurrena atelierrera joan behar diagu, lanpara hartu behar diat.

- Nola dakik lanpararena dela?

- Ez duk ikusi, ala? Argia zagok portu osoan. Eta lanpara ez bada, ezin diat ezer egin argitu arte.

Sakela haztatu zuen, bai, hemen zauzkaat, Anak atea ixten zuen horrekin galtzen ari zen giltzen ardura, maiz gertatzen zitzaion.

- Gau ederra kontrabandorako, ezta?

Bai zera egin zuen guardak, egun argiz egiten zen whiskyarena aspaldi. Lehenengo sarre-ratik porturatu ziren, bagoietako biak gainez egindako kanale estuak ziren autoaren argi ahu-letan. Haatik, bazirudien euria ez zela inoiz lurre-

ra iristen, haizeak zeramala airez aire zirimolan. Begitandu zituen guardak bizikletan enbatak putzura eramaten, nasatik behera jausten bata bestearen ondotik. Atelier elektrikoaren atarira heldu ziren.

- Sukaldeko fluoreszentea erre zitzaiguan atzo guri.

- Etor hadi nirekin.

Hurrenez hurren piztu ziren sabaikoak, bristada egin zuten harilkatzen ari ziren motorren kobreak.

- Zenbatekoa daukazue, berrehun eta hogeikoa edo ehun eta hogeita bostekoa?

- Ehun eta hogeita bostekoa.

Pintura grisean «Biltegia» zuriz eta eskuz idatzia zeukan atea zabaldu zuen.

- Hor, ezkerrean, kartoi urdinetan dauden horiek.

Biltegiko liburu handian «1 fluorescente 125 v. 60 w.» idatzi zuen, «vestuario taller eléctrico», eta azpian «1 Phillips halógena 220 v. 250 w. balizamiento Arando Aundi».

Kandela luze bat fluoreszentea guardaren eskuan, Adoracion Nocturna-koa izanen haiz koiperor hori.

- Mila esker, Laxaro.

Komandantziako leihoak argituak zeuden behoko solairuan, soslai bat ikusi uste izan zuen, enbarkaderora beha. Pasarela flotean edukitzen zuen gangil txipia kulunkan zerabilten uhinek, zakar jotzen zuten moilan. Badiaren erdian pailoten kanoa ageri zen, Atanasio, tuku-tuku egoskorrak salatzen zuen. Enbarkaderoko pasarela horizontalean zegoen kasik eta itsasoa txol handitua zegoela konturatu zen, egia duk, ez zagok beste aukerarik, itsasoz bakarrik ailega zitekek.

Aterpean gelditu zen guarda ere, bere atxilotua kanoan abiatuko zela ziurtatu nahirik agian, horixe bururatu zitzaion Laxarori. Aterpearen zokoenean eguneko egunkarien paketea zegoen utzia, pasaiarien txalupak goizeko lehen bidaiari «uhartea» esaten zioten portuaren beste ertzeko auzora eramateko. Egunkari bat atera zuen lotua askatu gabe, kordelaren koadrante batetik tiratuz. Lehen orrialdeko titularretan barreiatu zuen behakoa.

«Berrogei urteko exilioaren ondoren, atzo itzuli zen Euskal Herrira Juan Astigarribia buruzagi komunista historikoa. Kuban bizi izan da azkenaldian. 'Politika egitera nator' esan zigun aireportuan. Igandean hitza hartuko du Bilbaon Euskadiko Ezkerrak eginen duen mitinean».

Guardak atzera behatzeko keinua egin zion: kristal zikinen ostean Zulaikaren laguntzaileak bitxeroarekin eusten zion kanoari enbarkaderoaren kontra, zain zeukan.

- Kontuz ibili, Laxaro.

- Erne fluoreszente horrekin. Argia kenduta aldatu, aitu al duk?

Haize hura, konpresore erraldoia piztua zuen baten batek non edo non eta arropa guztietako hautsa kendu behar zuen. Buzoa itsaspean zen eskua pasarelako sokaren eske, hura utzi gabe egin zuen gangilerainokoa. Hiru bat metro izan ziren pasarelaren kabutik kanoaren kareleraino, baina ez zituen zuzen eman ahal izan, halaxe zabu marinel finlandiarrek ilunabarrean.

- Egunon!

- Argitutakoan.

Ez zuen ezagutzen, laguntzaile berria zen. Kabina barruan zegoen Zulaika, abante agintzen laurehun zaldiei lau nudotan, astiro, indarka ahuldu gabe, palanka slow jarrita izotzezko itsa-soa brankatu behar balute bezala.

- Nolako gaua! Zergatik ez dituk komandantziakoak berak ateratzen bokaleraino?

- Ontzi handiegiak zauzkatek, Zulaika, bada-kik hondoak joko luketela harkaitzetan.

- Mareajea gora daukagula? Ezta atoiontzi handiak ere!

Erruki zituen tabernako lagunak gero, entzun beharko zuten armadako jendearen kakalarriaz.

- Zenbat behar dik jaisten hasteko?

- Ordubete.

- Itzul hadi bi orduren buruan. Beharko ditiat.

Pilotuak ez zuen erantzun. Ordu estrak apuntatzeko izanen zela pentsatuko zuen agian, berdin zitzaion. Nahiago zuen ilunpetan eta baka-rrik, kanoa han inguruan zelatan eduki baino.

- Ez zagok eskubiderik, hik uste duk kapitain batek ontzia bokalean sartuko lukeela galerna honekin? Inor baldin badabil inguruetan gau honetan, lau bat miliatara geldituko duk lasai

kapan kostari txopa emanda, baretu arte. Inor ez duk arrimatuko harkaitzotara!

- Horregatik, posizio argiak behar ditiztek.

- Isilik egon hadi, nahikoa dik Guardaplatako farolarekin, ez zagok ilargirik ez gurmarik, hama-bost miliatara ikusten duk hori, nor galduko duk.

- Aginduak dituk, gu isilik.

- Isilik? Ez luzerako. Sardinak beste aldetik erre behar dik laster!

- Ba ote?

- Franco gabe, horiek ez dituk ezer.

Bokalera buruz jarriak ziren, handiagotu egin ziren kordokaldiak. Atlantikoko ur guztia Mediterraneo txipi hartan sartu nahirik. Karrusel bateko behorak putingoka pabetan lotutako potinak batelak txalupak txanelak txintxorroak.

- Atxamarta hor nonbait edukiko duzue noski?

- Ez, hi, Laxaro, ezin diagu lotu, barraren kontra eramanen gaitiztek bagek, ez diat utziko txikota ematen. Barraren gainean jarriko diat amura, ikusiko duk.

- Isilik egon hadi, Zulaika, ez duk lotzeko, lajanak.

Laguntzailea irten egin zen, murrungari. Itzuli zelarik, segundo batzuk, blai eginda zegoen. Panelen gainean bota zuen, Zulaikaren oinetara.

- Hasi hadi korapilo dobleak egiten metroko tartean.

Leloturik geratu zitzaion beha. Zulaikak iratzarri zuen.

- Ez al duk entzun?

Pilotuaren ondora zutitu zen Laxaro. Telefonoz esan zioten moduan, ezker aldeko seinale berdea besterik ez zen ikusten ahal, lo zegoen Arando Aundikoa.

- Gilaz jotzen ez badugu barra hori.

- Lasai, abaorreko argitik ehun brazatara zagok, parean.

- Nik adinako bista daukak!

Atxamartaren estatxa korapiloztatuari erreparatu zion, laburragoa zen orain. Lotzen ahal zuten amurako eskudelean bertan lasai samar, behar izanez gero abantada txiki batek askatzeko beste. Alferrik zen Zulaikari ezer, bazekien.

- Esan diat.

Arando Aundiko puntan zeuden, abaor malio-bratu zuen pilotuak eta apur bateko alditxoan

kanoa trebes geratu zen algaratean bokalera libre zetozen bagetan, baina abiaduren palanka zakar erabilirik atzera eragin zion barraren abarroaren bila. Arando Txikiko leinuru berdeak bere bikiaren soslaia markatzen zuen aldiro. Farola iltzali haren barra portuaren eta Kantauriaren bitarte, nonbait hor. Bagek gainez egiten zioten arren, itsasgorak eragotzi egiten zien kanoaren gainera jausten, ez zeukaten aski amildurarik.

- Erokeria duk, Laxaro.
- Zahartua banago, zertarako ekarri nauk?
- Frantsesek txalekoak zauzkatek, salbagailuak lotuta ibiltzen dituk Baionako portuko pilotu guztiak.

Kabinatik irten eta eskudelari heldu zion ez-kerrarekin. Segundo batzuk egin zituen horrela, oinak iltzatu nahirik, atxamarta jaurti ezinean. Uhinek goratzen zuten aldiro, gilaz barraren ertza jota lehertu-arriskuan hondoratzen zirela iruditu zitzaion, miretsi zuen laguntzailearen indarra bitxeroa barraren kontra tinkatuta kanoak behar zuen tarte zehatz hura mantentzeko, gurril-gomazko defentsak sobera behartu gabe. Noizbait, laguntzailearen biraoak animaturik,



atxamarta jaurti zuen farolaren eskalaren bila. Burdina hotsa entzun zuten, halakorik, tira egin zion estatxari, bai, aurrenekoan trabatu goi hartan.

- Bihar arte, txo!

Eta estiborreko karelaren gainean jarri zituen oin biak estatxaren tinkotasuna baliatuz, amurako eskudela amaitzen zen hartan. Pauso baldarra eman zuen airean, kanoa goratzen ari zelarik egin baitzuen jauzi barrarantz, eta eskuineko aldakak farolaren oinarriaren kontra hartu zuen kolpeak jakinarazi zion lehorreratua zela, hankak uretan baina barraren gainean. Beharrik, estatxa lehorra zegoen oraino. Ozta ikusi zuen bagak laguntzaileari eman zion txikotazoa, putzurakoa izan zen. Nahiz eta bitxeroa galduta, zutik ageritzen oraino Zulaikak abante guztia sartuta ziaboga zakarra egin zuenean abaorrera, hurrengo бага handia txopadan hartzeko. Kanoak laprast egin zuen amuraka harkaitzetara, ez luze, pilotuak brankaz portura zuzentzea lortu zuen barrak itsasoari ematen zion sosegua berriro baliatuz.

- Lotu ezak salbagailua gerrian, Zulaika...!

Algara egin zuen atxamartaren estatxan goititzen hasten zelarik korapiloz korapilo. Besoka igotzen zuen gorputza, pultsuan, eskuak tope batetik bestera luzatuta. Bi korapiloz behin gelditu egiten zen indar hartzeko zangoak estatxaren ardatz bihurrian gurutzatuz. Damurik botek ez zuten oinarri hartzen ahal, lerratu egiten zitzazkion berehala. Farolaren enborra zeukan bizkarrean, eta mendebalak gordin jotzen zuen arren bokalearen beste bazterreko labarrek asko apaltzen zuten. Uhinik handienek ere ez zioten gain hartzen farolari, goitik ez zetorkion urik behintzat eta lasai antzera egin ahal izanen zuen lan. Zementuan landatuak zeuden burdinazko uztaietara iritsi zen. Estatxatik jarraitu zuen, kopeta izerditan, hirugarren mailaraino uztaien barne aldetik, nekez, zutikako tunel estu hartan. Estatxa askatu gabe, farolaren enborretik uztaietara zegoen tarteak uzten zion gehiena tolestu zuen eskuin belauna, lehen uztaiaren bila. Ez zen iritsi, eta estatxa utzita bular parean zeukan uztaiaren eskegi zuen gorputza galtzarbeetarik, arnasa berdindu asmoz, botek zementuaren labarrean non atxiki bilatzen zutela. Hara beste

hori!, bokalea eginda eskuinera ostendu zitzaion kanoa, arrantzako nasan moilatuko zuen. Han zabaltzen ziren lehenik tabernak, leku egokia zoro kontuak aipatzeko.

- Nirea ttinttañorekin, otoi...!

Algara egin zuen oster, giro zegoen han, atzean galerna joka eta ni hementxe noiz argituko. Oinek ez zuten aurkitzen non eta burdina min ematen hasia zitzaion beso zuztarretan. Eskuineko besoa luzatu zuen goragoko uztairaino gorputzaren kontra goratuz. Horrela gelditu zen puska batean, zer egin behar zuen jakinen ez balu bezala. Gero, jauzi-ordeko batean gorputz osoaren zama beso luzatuan tanpez eskegita, ezkerreko besoa goratu zuen tolesturik galtzarbean edukia zuen uztai gaineraino, ukondoa bertan tinkatuz. Arnasa hartu zuen sakon. Izerditan nagok, bizkarrekoa izerdia duk. Ezkerreko besoaren gainera zamatu zuen gorputza, ukondoa hiru milimetroko burdinan mindu arte. Orduan, arnasa gordez, ezpainak barrura sartuta eta begiak itsuturik, pultsuan jaso zuen gorputza eskuinekoarekin, lehen egina zen gisan ezkerreko besoa bularrean barrena goitituz hurrengo mailari heldu zion

arte, zangoez ahanztita. Uztaia kokotsa parean zeukala, zangoak dantzatu zituen. Hor hagoenez! Burdinaren kolpea nabaritu zuen oin-bularrean, ez zituen belaunak tolestu behar izan botek oinarri har zezaten. Farolaren enborraren kontra eman zuen bizkarra lasai, alferkeria hutsen edo, erretzen ez zuen zigarroren bat erretzen eguteraan, esateko manera. Euria atertu zuela zirudien, uhinen bitsa izan behar zuen mahuketara aldizka etortzen ziren zipriztinak. Hurrengo uztaian zegoen atxamarta. Estatxa beharagokoan lotzen egon zen minutu batzuk, ez haizearen beldur, baldreskeriaren batean berak botatzeko arriskuagatik baizik. Bizkarra paretatik aldendu gabe igo zen, hankekin palanka egin da txandaka, gorantz lerratuz, zamarra hondatuz, besoak saihetsetara atxikita, hondo urrun batetik pusako laburretan azalera letorkeen urpekari. Azken uztaia lepoan zuelarik, farolaren enborraren amaiera atzeman zuen bizkarrean. Bularrera ekarri zituen besoak, eta ahurrak kanpo aldera zabalik zituela hasi zen bizkarra osoro paretari kendu gabe gorputza itzultzen. Eskuineko sorbaldaren kontra geratu zenean ez-

kerreko besoa angelu zuzenean eman zuen uztaitik behera, kako eginez, gorputza ahal zuen gogorren paretara zamatzuz eta, berehala, besoarekin kasik moko egiten zuela uztaiaren euskarrria ez galtzearren, ezkerreko zangoa ekarri zuen bestearen aurretik eskuinerantz. Ezin zuen, luzean gelditua zen bota burdinaren gainean, eskuinekoarekin eskuadra egiten zuela, ezkerreko eroritako T bat. Ezkerrean geratua zen eskuineko zangoari itzulerdia eginarazi zion orduan indarka, belaunak eskatzen zuen posizio naturale-ra ekarriz. Behar zuen laurdena eragin zion ezkerreari, eta hala berean egin zuen gorputzak, ezkerreko besoari uztaiak askatu eraginez. Bizkarrean portua zeukan orain, eta argirik ematen ez zuen farolaren gailurra begi aurrean. Ezkerrean, aitzinago, bokalearen beste bazterra markatzen zuen Arando Txikiko seinale berdea, berrogeita hamar metro gorago zegoen Senekozuloko farola handiaren azpian.

«Hi, txikitxua, zer egiten duk hor goian!».

Honetarako aldatu zitean estalkiaren itxigailua, kresalak herdoildua izanen delakoan gizon bakar batek, eta gauez, eta galernaz, inolako es-

takururik eduki ez dezan lanpara hau ez aldatzeko. Estalkiaren itxigailuaren mihia sakatu baino lehen zamarra askatu zuen lepoaldetik bularre-raino, burutik ateratzekoa egin zuen. Besoak azken uztaitik goiti luzatuta, libre gelditua zen txanoa jantzi zion farolari, eta haizeak harro ez zezan lepoari atzera eraginda tinkatu zuen, bel-launak farolaren zementu gordinen emanik. Botoiak lehertzen ez baziren, babes bikaina zen. Eskuak jertsepera ekarri zituen, kolkora, lehortzeko. Gero ahora bildu zituen, arnaska berotu nahi izan zituen. Lehorrak zauzkaat behintzat, eta has gaitezen lanean. Atera zuen mahukatik eskuineko besoa ezkerrearekin muturrari eusten ziola, sartu zuen sakelan, lanpararen kaxa eskuratu zuen galtzen sakonduretan, egin diat orain ere, ongi dagoen probatu gabe etorri nauk. Zaila zen horratio lanpara haiek akastuak egotea, ale-manak ziren. Ezkerrekoarekin eutsi zion eskuineko besoa mahukan sartzen zuen bitartean, eta haizearen hotzak adierazi zionean eskua mahukatik jalgia zela, kartoi gogorreko kutxatxo hura zabaltzen saiatu zen. Birao zabar bat bota zion bere buruari, alkandoraren sakelan gorde zuen

kutxatxoa eta farolaren gailurra haztatu zuen, irekigailuaren bila. Sakatu zuen aluminiozko mihia, bere aldera erakarriz zabaldu zuen estalkia. Zamarrak osatzen zuen toldo tinkatuak berak eutsi zion zabalik leihotxoari. Eskuei azken arnasak bota, bata bestearekin igurtzi eta lanpararen bila abiatu zituelarik, tentuz, goialdetik, trumoiak jo zuen mendi ostean. Erraz askatu zuen bonbilla zaharra, eskuetan erabili zuen, hementxe, kristalaren hanpadura hau, xahartu egin haiz. Ahora ekarri zuen, hortzartean jarri zuen kaskilotik. Kutxatxoa hartu zuen atzera, ireki zuen alde bietarik, ezkerreko atzamar ari-narekin bultzatuz atera zuen lanpara zetzan ohea. Hauek alemanak dituk, pizten ez bada matxura larriren bat zaukaagu linean. Inoiz baino maitasun handiagoarekin hartu zuen kristal hura. Haizeak puztu egiten zuen zamarra, nekattua zeukan lepoa indarka. Begiak itsutu zituen.

«Hi, txikitxua, zer egiten duk hor goian!».

Aurrenekoan sartu zen kaskiloa harian, adur oneko eguna gau hau. Lau itzuli eman zizkion, toperaino. Segundo batzuk baino ez zituen behar izan beroa atzamarretan nabaritzeko. Biraoka

ospatu zuen, marmar gozoan. Begiak zabaldu gabe libratu zuen estalkia zamarraren trabatik, bonbilla ipinia zuen arta bertsuarekin ixteko. Ahoan zeukana berriaren kutxa hutsean gorde zuen, eta kutxa galtzetako sakela luzean. Arrunt nekatua zen, eta bustirik zeudela ari ziren oinak, urratuak zeudela belaunak. Makurtu zuen lepoa haizeak txanoa aska zezan, baina ez zuen guztiz altxatzen nonbait, ezin zuen zamarra gerrira jaitsi. Besoak minberatuak zeuzkan zeharo, txanoa libratzeko altxatu zituenean ohartu zen. Kokospean lotutakoan eskuak farolaren enborrean jarrita ekarri zuen bizkarra uztaien kontra, begiak argira emateko. Burua makur zeukala zabaldu zituen. Bost segundoro, bristada gorri birena nahasten zuen urak hamabost metro beherago.

«Hi, txikitxua, zer egiten duk hor goian!».

Uste zuena baino gorago dago, atzera egin du, beldur.

«Jaitsi hadi hortik!».

Igo bai, egin diat...

Brankako txapitelaren goian gelditu da, nola ezean, itsasoaren hondoraino doazela diruditen burdinazko uztaietara beha, zorabioa.



«Horrela ez, horrela ez, buelta emantzak!».

Zarpail hark kubertan laga zuen mailua, «Begurazak!» esan zion, eta zeruari bizkar emanik goialdeko heldutokietan atzapartu zituen eskuak aurrea, gero hanka luzatu zuen lehen mailaren bila.

«Horrela jaitsi behar duk beti, marinela horrela ibiltzen dituk. Bestela muturrez aurrera eroriko haiz».

Eta beha gelditu zitzaion, esana ongi egiten zuenetz.

Hobe zen behera ez behatzea, hori bazekien berak zarpail hark esan behar izan gabe, zangoak bila zezala lehen maila. Herdoilaren pikorrak blakaren geruza lehertzen, portilo zapartatuak, sopletearen pindarra ontziaren hesteetan. Eta behean hautsa eta ilunpea, besterik ez, ontzia desarmatzen ari diren dozenaka mailuek joka ekin diotelarik berriz: minutu erdiz, eskalan behera zetorren umeari beha gelditu dira langile guztiak.

«Zenbat urte dituk?».

«Hamalau!».

«Hamalau, e? Eta zergatik ez hamazazpi?».

Hamalau urte dituela errepikatu du umeak bekozko.

«Ba hamalau urteko bizarra izan arren, ez diat nahi han goian ibiltzea».

Hori esana zion amak, kontuz ibiltzeko esan behar ote zioten lanean. Ez zuen merezi deus erantzutea.

«Eta behean ere ez, txaflaren bat jausi litekek buru gainera. Hik egin behar duana duk kamaroteetako lana. Hartu mailua eta turnabisa, hoa kamaroteetara eta hasi hadi eskutokiak eta latoizkoak diren guztiak askatzen».

Oihu zakarra egin du gizon argalak, *Angelita Kastoriadis* ontzia pikatzen ari den kuadrilaburuak «Nork utzi du hori horrela!», lasterka abiatu da lurrean piztuta utzia zegoen sopleteraino.

«Hi!».

Berari zen, hurbiltzeko, eskuarekin.

«Ba al dakik hau itzaltzen?».

Eta zer zen azetilenoa irakatsi zion, zer zen oxigenoa, zein zen lehenik itxi behar zen balbula, nola hustu behar ziren hodiak gero.

«Ez behatu inoiz sopletearen garrari. Begiaren mimikoa erretzen du».

Bihurkina ezin duenean kanporago, edo herdoilak turnabisa ahokatzen eragozten duenean, turnabisa bera zintzel ipini eta mailuka apurtzen du. Lan polita duk metal distiratsu hauek denak askatzea. Luze jardun behar izan du horrela, go-setua dago.

«Ez duk ezer ekarri bazkaritarako?».

«Etxera noa».

«Esaioke amari bihartik aurrera gurekin bazkalduko duala, gizonak bezala. Eta patroiak pagatzen digula!».

Patroia langileria Errusia sindikatua langileen errepublika trahitua maitasun librea greba iraultza, soplete bat lurrean piztuta ikusten zuen guztietan koleratu egiten zen Juan buruzagiaren ahotik sortzen ziren hitzak, bazkaritan. Sopleteak bezain ebakitzen zutela etxean ikasitako uste zaharren burdina herdoildua.

«Bikain, kamarada!».

Eta ez zen gutiago hanpatuko komunismoa eraikitzeko oinarri sendoren bat finkatu zuela esan izan balio ontziko kableria osoa matazatan bildua zeukan metatxoaren aitzinean. Ikasia zion ederri, hilabetean. Bazekien zer esan nahi zuen

hitz hark, «kamarada», bazekien komunismora-ko ari zirela lanean lanari utzi ziotenean.

«Greba...!».

Anitz hamabi urte zituela abiatu zen etxetik udazkeneko egunsenti zoragarri batean opor iraultzailearen lehen egunean, portu osoa geldiarazi behar zuten. Komunismoa, mundua argituko duen farola. Gizon talde bat sumatu zuen elizako zimitorioan. Deitu egin zioten, desguazeko batzuk zeuden tartean.

«Ba al dakik irakurtzen?».

Eta eskuan jarri zioten egunkaria.

«Irakur ezak hauxe. Ozen, denok entzuteko».

Azkazalaren ilgora beltza letra xehearen erdian.

«Atzo arratsaldean gobernadore zibilak adierazi zuenez, duela hiru egun estatuan hasia den zalaparta iraultzailea probintzian zabal ez dadin, zenbait buruzagitxoren atxiloketa agindu zuen. Eguerdian, zenbait zalapartari bilduak zeuden saretegia inguratzen ari zirela, eta alto adierazteko astirik eman gabe, tiroka egin zitzaion indar publikoari. Numero bat zauritu eta ihes egitea lortu zuten. Segurutik dakigu tiro egin zutenen

artean zegoela Juan Astigarribia, buruzagi bol-  
txebike ezaguna, esan zigun gobernadore jau-  
nak. Zauritua dagoela uste da».

Eskerrak eman gabe kendu zioten papera.

«Ikusten? Ez dizuet gezurrik esan».

«Zauritua dagoela esan badute, hil egin dute-  
lako da».

Horrek areago durduzatu zuen gobernado-  
rearen ohar hartan ozenki irakurri gabe utzia  
zuen esaldiak baino: egia zen hiltzerainoko  
etsaiak zituela justiziak, aitak hil egingen zuela  
baserriko baratzea sozializatzen utzi baino  
lehen.

«Lagundu egin behar diguk, Laxaro».

Portura gabe, mendirantz abiatu ziren. Lehen  
muinora iritsi zirenean eguzkitan zeuden, egun  
bikaina zetorren.

«Hilerriko depositoan zauzkatek gorpuak».

Banandu egin ziren, ez zen komeni taldetan  
ibiltzea. Umea joaten ahal zen beste norbaitekin,  
gainerakoak banaka, hiriburuan elkartuko ziren,  
atelierrak mehatxatu behar zituzten. Pikatzailee-  
tako batek hartu zuen bidaide, zazpi pausoan  
behin listua botatzeko ohitura zeukan. Baserri

erori baten pareta bazterrean hazitako sasia makurtu zen laguna. Pistola bat atera zuen kol-  
kotik, egunkarian bildu zuen eta sasiartean ez-  
kutatu, paretaren kontra zangoarekin zanpatuz.

«Harrapatzen banaute, badakik zer egin  
behar duan».

Ez, ez zekien zer egin behar zuen, hitzik ez  
ateratzea onena. Zapela zikin bat zeraman gizo-  
nak, atzeraka erorian, belarriak nabarmentzen  
zizkiola. Sopletearekin lan egiten zutenetakoa  
ote zen. Ihesi, pentsatu zuen, kamarada hau ha-  
rrapatzen badute ihes egin beharko diat.

Gain-behera ederrean trenbiderainoko ma-  
hastiak zeuzkan baserri baten langan gelditu  
ziren. Txakurra etorri zitzaien, isil, buztana ina-  
rroska. «Lasai, lasai...!» hasi zitzaion soldadorea,  
lepoa pailakatzen ziola. Eztul eginda urrundu zi-  
tzaien oilategiko bazterrak ikertzera. Baserriko  
kearen ostean gurutze andana ageri zen.

«Beha ezak, Laxaro. Erail dituzten kamara-  
dak zauzkatek hor, depositoan. Hor guardiak  
zaudek zelatan, hildakoetan anaia edo semea  
edo laguna ote daukaten ikustera joaten direnak  
identifikatzeko, ulertzen duk? Noski, horregatik

Joan behar duk hik, hi ez haute ezagutzen. Joan hadi eta beha ezak Juan kamarada hildakoetan dagoen. Ni hemen egonen nauk zain».

Bidezidorrera heldu zenean maldan beheara amilduta hanka egitea etorri zitzaion. Ilunaldi gogorra izan zen hura komunismoaren argitasunean. Gibelera behatu zuen, soldadoreak ezin zuen ikusi. Eskuin hartu zuen ordea, goiti, hilerriko sarrera nagusiraino. Zerk bultzatu zuen hartara, horixe galdetuko zion, ondo gerora ere, bere buruari. Ez zeukan arraposturik. Denok harrapatuko gaitiztek, denok harrapatuko gaitiztek esaten zuela ahapetik hilerrira zihoala, horixe besterik ez zekien, denok harrapatuko gaitiztek, ezin zuen burutik kendu mutuan irakurri zuen hura, «Poliziak bazekien zelula kriminal bat ari zela osatzen Molinaoko basatzen, *Angelita Kastoridis*-en desguazean, Errepublikaren aurka oldartzeko».

Apez bat irten zitzaion bidera atean sartu orduko.

«Goiztar, seme».

Egunonak eman zizkion zer edo zer esate alde, ez zekien sotanadunei hitz egiten. Komunismoan ez zen halakorik gertatuko.

«Zer duzu, inor ez da gaur hemen azaldu oraindik!».

Ez zegoen guardiarik, ez zuen ematen zegoenik. Ezkerreko etxeak izan behar zuen depositea.

«Amak bidali nau, aita ez da etxera etorri bart».

Asaldatu egin zen apezaz.

«Zu bidali zaitu? Ezin zuen berak etorri?».

«Anai-arreba txipiak zaintzen geratu da etxean, jauna».

«Esadazu aita».

Depositora ausartu zen apezaren atzetik. Atea zabaldu zion.

«Ama ona da zure ama. Ez beldurrik izan, seme. Jaunaren altzoan daude hauek».

Lore lurrin astun hura gelditu zitzaion akorduan betirako, loreen eztitasun betegarria zen heriotza. Loreen artean hiru gorpu manta nabarren azpian, aurpegia has, gizonezkoak. Kandela lodi bat pizturik gurutze beltzaren oinean. Lepo-



an jarri zion apezak eskua, eta on egin zion berotasunak, eztitu egin zion hesteetako oinazea, baina besterik ikusi gabe munstro haietan aita ez zegoela esatera deliberatu zenean Jainkoaren ministroak bultzada txipi bat eman zion aitzina, atzaparra zepo lepoan, hildakoen aurpegiak bertatik bertara ikustera zeraman. Bai, bai, mantek balazoak estaltzen ditiztek. Gelditu egin zen, izuturik, apezaren indarrari gogor eginez. Zokoan dauden tanga horiek odolez beteak egon behar ditek.

«Horrek...».

Makurtu egin zen, bekoz beko jarri zitzaion. Dentifriko upats batean heldu zitzaizkion hitzak.

«Aita duzu hori?».

Hildako hark euli bat zeukan begian, begi zabalduan eulia, begian.

«Ez».

Eguzkiak gozo jotzen zuen hilerriko paretan, baratzeetan, udazkenak gorraitzen hasiak zituena hostoetan. Urruneneko mendigainak garden ageri ziren, hego haizearen lana. Ez zegoen lore lurrinik, nonbait erretzen ari ziren laharren ke sarkorrak garbitu zion barrena. Zalgurdi beltz

bat zetorren maldan astun, koroaz gainezka. Hura ere ez zen bere aita izanen. Beheko base-  
rriko lehen mahats ilaran zela guardiak azaldu  
ziren bidezidorrean. Bi ziren, mauserrak bizka-  
rrean. Baserrira ordeztu aurrera jarraitu zuen herri  
aldera, guardien ondotik pasatuta. Kamarada  
mahastian ezkutatu zela pentsatu zuen. Lur  
jotako baserrian maskuria lasaitu zuen puskaile-  
tan. Hantxe zegoen pistolaren bildua. Oraindik  
ez zuten Juan hil, hori zen muntakoena, komunis-  
moa bizirik zegoen grebak porrot eginagatik.

Inoiz argitu behar ez zuen egun tristea zeto-  
rren.

Harkaitz arteko xendratik egin zion dei Zulai-  
kari, eskuak hemen nago inarroska. Ez zuen  
ikusirik, izorrai, nagitua zegoen beheko arroketar-  
raino jaisteko, mina zeukan aldakan eta belau-  
nak ahul. Ea zer egiten duan, ea nola lehorrera-  
tzen haizen atxamarta berreskuratzeko. Egiten  
ahal zuen, mareajea asko jaitsia zen, baretzen  
hasia nabarmen eta laguntzaile ona zeukan,  
eman beharra zegoen. Ez zen gelditu beha, etxe-  
ra joan nahi zuen zuzenean. Ez zen izanen espe-  
ro zuen adinako eguna, ez zen matxurarik ego-

nen, etxera joanen zen, oheratu egin nahi zuen, emaztearekin. Bidaiarien txalupak lehen harat-honatak zituen, plaza ondoko enbarkaderoan ikusi zuen egunkari paketea, saltzaileak oraindik jaso gabea. Batena zor zuela oroitu zen, txanpon batzuk utzi zituen gainean. Harrizko eskailera zaharren goiko mailetan jesarri zen, nasa trasa-tlantikoko enbarkaderoan zegoen oraindik txalupa.

Hirurogei tonako garabi flotantea zeraman atoian Facal bigarrenak ontziola aldera, bafore handiren bat ariko ziren motorizatzen. Nahiz ordu erdi luzea behar zuen zortzietarako, zama-ketak aspaldi hasiak ziren, bafore gehienen puntalak jiraka ari ziren, uretan jausten utzi gabe zekartzan haizeak lanaren zarata guztiak, txatar jausiak lokomotoraren ziztuak garabien intziria birakoan bagoien talkak enbatak gordean eduki zituen antxeten txilioak lotuan amorratzen egondako bajurakoen txanpa bokaleari brankaz.

Zulaika hantxe, arroka ikertzen noski.

Beharbada putzura erori naizela pentsatuko dik. Lana eginda, nolanahi ere.

Txalupa heldu zen, eta badiaren erditik behatuta ere ez zuen hauteman ahal izan atxamarta jasoa zuten edo ez. Esku artean ibili zuen bonbilla, kristalaren pikor hura laztantzen. Bitxia duk, argiak janzten dik. Halako burutazioa sortu zitzaion, zeinen gauzaño biluzia zen bonbilla itzali bat.

Zamarra kendu zuen lehorreratutakoan.

Eskala osorik igo gabea zeukala egin zion dei soldaduetarik batek, zu halakoa zara noski, galegoz, eta hurbiltzeko mesedez komandantziara. Atarira iritsi baino lehen irten zen komandantea, bostekoa eskainka.

- Esana zidaten nolakoa zaren. Ikusi dut ez zirela gezurretan ari.

Atelierrera abiatzeko asmoa zeukan goiz hartako aginduak ematera, baina tinkatze hark amorrarazi egin zuen, herrira abiatu zen buru makur eta madarikazioka, Tanqueray Abbot Ale Hornimans Buchanan's Royal Crown, hiriburuko lineak egokitzen zituzten bitartean portuan ikuituta zeuzkaten Londresek saldutako bi solairuko trolley zaharren artetik.

Kafe on bat zor zioten.

Moilara baino lehen zamaketariek uxuala hartzen zuten Ongi Etorri-n sartu zen. Hutsik zegoen, Etxezarretaren jarduna entzun beharko.

- Ikusi duk?

Egunkaria erakutsi zion tabernariak, politika-ko atalean tolestua.

- Bai...

- Berdin-berdina zagok, sudurra luzatu zaiola besterik ez.

- Atera iezadak kafe bat.

Hizketan jarraitu zuen Etxezarretak kafetera-koak egitera itzultitakoan.

- Gu hemen utzita mulata artera alde egin zian arraioak! Orain zatorrek politika egitera!

- Ni poztu egin nauk. Botaidak ttinttaño bat anixa, kamarada.

- Rona botako diat, Kubagatik.

- Kubagatik.

- Komunismoa mulatekin, gauza handia izan behar dik!

Kafea hurrupatu zuen. Horrela, eztarria erretzen zuela. Merezia zuen.

- Mundua argituko duen farola! Zenbat aldiz ez ote zuen esan, hemen bertan.

- Lanpara berria jarri zioat oraintxe, eta munduak ilunpetan segitzen dik.

Etxera jo zuelarik, maldan gora, sukaldeko argia nabaritu zuen. Eginen nitek ez dela oheratu, insolitaritatea irudituko zitzaioan, eta amonaz izan behar duela jakin duenetik ez duk gelditzen puntua egiten, ito egin behar dik haurra hainbeste txano eta galtzerdi eta eskuzorro. Gau zarratuan irtena zenean bezala piztua, diosala harre-ra ongi etorria, hemen naukazu aiduru, atxamar-ta tinko baten estatxa. Ez zeukan sukaldean sartzeko asmorik, ohera nahi zuen kafe pizkortu haren beroa urdailean eta bonbillaren leuna go-goan, Anarekin ohera, emakume horrek maite naik oraindik!

Botak ezkaratzean kenduta igo zen bigarren-raino, zura ez zikintzeagatik. Atabala jo zuen atean atzamarrekin.

- Zer ibili haiz?

Penagarri egon behar zuen Anak horrelakorik esateko. Eta ikara aurpegi hura. Ez zuen besterik eskatu, lagundu egin zion arropak kentzen, karranpatua bezala zeukan gorputz osoa. Toaja garbi bat ekarri zion.

- Larunbatean Bilbora joanen gaitun.
- Bilbora?
- Esaion gure mutilari etortzeko.
- Bai, zera nahiko dik gurekin etorri, nondik

sortu zaik.

- Datozela biak. Ez, ez berotu ezer.
- Ahaztu egin zaik Bego haurdun dagoela edo?

- Neska, ez zion kalterik egingen. Gosaldu al dun?

Ez, hori ere elkartasun eza dun, ez ditun utzi zaharrak mahai gainean dauden orratzak eta mataza. Hi nirekin gosaltzeko asmoan, eta ni tabernan.

- Jakin al litekek zer egin behar dugun Bilbon?

- Orroa fuerte, eta ukabila estutu. Mitinera joango gaitun. Izenak eman ditinat Etxezarretarenean, autobusa antolatu diton.

Eta ni tabernan gehitxokeria zen, bazekien, baina ironia horrek mingarri ekarri zion sekula atzenduko ez zitzaion lotsakizun hura, urteak ziren, semeak hemezortzi urte orduan, maitaketan gozatuak ziren eta komunera altxatu zen,

freskatu egin zen ilunpetan. Gero, gelara baino, esne hotza hartu behar zuela otu zitzaion. Abiatu zen sukaldera, ikusi zuen barnean semea non-baitetik bildua zen *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado* zeukan *Conclusiones del Concilio Vaticano II* irrati ondoan, Anarena azalberritua, nondik atera ote zuen zabor hura, semea ikustea halako titulua eskuan, «Laxaroren semea kristau bihurtu duk!», aitari adarra jozteko egin ez ote zuten, berariaz. Egongelaren txokoan zeukaten hanka luzeko lanpara piztu zuen. Sofan etzan eta liburua zabaldu zuen. Argitu arte gelditu zen, Ana iratzarri gabe alde egin zuen lanera. Ez zitzaion sekula atzenduko.

- Ez duk izanen... nola esan... patetiko samarra, gu han, ukabila estututa?

- Hunkigarria izanen dun.

- Zer erakutsi nahi diok hire semeari, bagarela...?

- Ez dinat ezeren eredu izan nahi, berandu samar dun.

- Baina eredu bat eman zioagu, mitinik gabe.

Bazkaritara heldu zenean, Anak ez zion hitzik egin. Trumoiaren ondotik helduko dun eguzkia,



hobe diat mutu. Igandean sobratutako arrozesa jaten hasi zirelarik begietara behatu zion, gizonaren zabarra azaldu zion emazteak, «Ez hekien nola sortu zen jabego pribatua?». Ergel ez bestea, «Ez ninan uste hain polita zenik liburu hori! Irakurri al dun?» aitortu zuen. «Emaztea larritan erabilita gizona liburu bat irakurtzen jarri zenean sortu zuan», eztiro garratz, gomutagarri.

- Petral horrek ez din onartzen proletargoaren diktadura!

- Diskutigarria duk proletargoaren diktadura, ez duk uste?

- Bilbora joanen gaitun, orro eder batzuk egin behar ditinagu ukabila itsututa.

Ezin izan zuen lo hartu, sobera nekatua zen. Hotzikara txipitan durduzatzen zen aldiro, volta-je apaleko deskargak. Eta zerbikalak deslekuan.

- Gau txarra, ezta?

- Txarra, maitasunik gabeko gaua izaten da.

Ahalketu egin zen, aitortzaren xalotasunak berak egiten zuen esaldia hanpatuxko, eta Anak begiak zorrotzen zituela ikusirik igarri zuen barre eginen ziola «Koittaua» esanez edo txarto egiten zuela malmaitatuarena, barre egiten ari zitzaion

dagoeneko. Anarena baino irri handiagoan zabaldu zituen besoak, orduan jabetu zen farolan ibili zituen lanez. Soldata igotzeko eskatu behar dinat gaur bertan! Bildu egin zituen begiak, hondora utzi zuen gorputza atelierrekoei telefonoa jo behar ziela ahantzita. Reformista zikina!, oparitu zion Anak belarrira, laztan hutsa zen haserre iduri hura. Hator hona, mulata neurea!, gainera ekarri nahi izan zuen gorputz txipia, beso artera, baina emaztea gaitzitu egin zitzaion, «Mulata?», jesarri egin zen erne ohean, muker gurako muttur, «Mulata esan duk?». Laxarok bildu egin zituen begiak osterara, ogia xigortzen ari zen sukalderen batean... masailekoa baletor!

# Euskadi Etorbidea

*Gure Izarra Berri* ez zen oso bafore berria, baina kosta on bat zeukaten, bazuen Porto do Son-go seme isil hark aski kalipu pilotuari bezain zakar egiteko armadoreari ere, nekez onartuko zuen gure flota, zaharrean zahar zelako, hondatua egon beharraren logika. Ardura profesional horri esker harrapatu ahal izan zuen Manoel Arauxo makinistak emaztea auzoarekin ohean, bere ohean, kostak arribada agindu zuelako portutik hogei miliatara baino ez zeudela, ez zuen marea-jea egin nahi izan irratia matxuraturik. Neurri zuhurra noski, geroztik hona aztarrenik utzi gabe, alegia, inolako SOSik luzatu ahal izan gabe hondoratu diren gure herriko hiru baforeen kasu deitoragarriak ongi frogatua daukanez. Manoel Arauxok, antza, alde egiten utzi zion auzoari, ohe ondoan zeuzkan arropak eta oinetakoak batuta sexua gordeaz heriosuhar egin omen zuen gelatik hanka, emazteak «Barka iezadazu, Manoel!» erregutzen zion bitartean. Beldurrak hartuta izara ausikitzen zuenetz, damu gabeko malkotan

urtu zenetz edo burua mantapean ezkutatzen zuenetz, ez genuen jakin. Marinelak labana erakutsi zuelakoa, buruberoek baino baieztatzen ez duten xehetasuna da. Labana beharrezkoa da ontzian, baina marinelak ez du soinean eramaten. Emazteak barkatzeko eskatu ziola segurtzat eman genezake bederen, ez zuen amorantearen errua egin «Behartu egin nau!» edo «Nik ez nuen nahi!» bezalako zabarkeriak asmatuz. Emakume hark bere gain hartu zuen egiten ari zenaren ondorioa, horrexegatik eskatu zion induljentzia senarrari. Baina xehetasun horiek gero jakin ziren, Manoel Arauxo amaginarrebaren etxetik itzuli zenean, zinkez zink ibili zen bere ondikotza entzun nahi zionari kontatzen. Eta badakit batzuek ondo eginaren iritzia eskaini ziotela miresmenezko bizkarrekoak ematen zizkiotela, Manoel Arauxok merkantzia ustela hornitzaileari itzultzeko egin zuen ibilaldia urte hartako eta ondoko beste aunitzeko balentriarik handiena ukan genuenez herrian: emaztea adatsetik zeramala gelditu zen tabernaurre guztietan «Beha ezazue puta hau, senarra lanera joateko zain egoten duk auzoarekin oheratzeko!» zuela anuntzio. Kontu honen

entzutea baino ez neukan nik, umea nintzeneko eskandalua da hau, baina halako higuin samin bat hartu nion Manoel Arauxori, eta ez nion espartinetara ere behatzen auzoko eskaileretan gurutzatu behar nuenetan. Emaztea begitantzen nuelarik karrikan barrena trofeo gisa biluzik, urrikalmendu handi batek hartzen ninduen, harrika eman baliote bezala. Bai, emaztea biluzik zihotan, arrain bat marinelaren eskutik dilindan. Eta Arauxok oihukatzen omen zuena erantsi morbo-soz hobetzen zen ardandegian, ile-apaindegian, saretegian, mezako irteeran. Emazteak berak despeditu zuela moilan, elkarri agur egiten ziotela jo omen zuen abaor bokalerantz *Gure Izarra Berri*-k, oheak oraino senarraren epeltasuna zeukala hartu omen zuen amorantea, marea guztietako portaera zuela huraxe, eta ez beti berarekin, nornahik botzen omen zuen aingura harenean... Marinela edana zegoela lehorreratu zirenean, eta ez daukat lanik sinesteko. Geroztik askotan madarikatu izan duela Manoel Arauxok kostak arribada agindu zuen eguna, eta nekerik gabe onartuko dut. Baina hala ere bazegoen egitate hartan krudeltasun harro bat, tronpatuaren

mindurak desenkusutzen ez zuen ardoaz barna-  
goko zabarkeria anker bat, enerbatu egiten nin-  
duen zehaztasun mingarri bat. Karrika betean  
barrena biluzik ibiltzea bakardadearen une mi-  
nena da, emazteak lekuak hustu behar izan zi-  
tuen. Hain zuzen, emaztea halako gisaz erama-  
teak berak frogatzen zuen trahizioaren egia eta  
handia. Horren haritik, herrian hartaz komentatu  
izan dena noiz edo noiz, emazteak zertan egiten  
duen lan orain, edo nola bizi den, senar laidozta-  
tuaren jokamoldea nolabait ere justifikatzen ahal  
duten datu objektiboak baino ez dira. Bere ga-  
raian ankerra eta antzegabea zirudien egitatea,  
leundu egin du denborak. Nork ezagutu dio, ge-  
roztik, inolako liskarrik Manoel Arauxori? Nork  
esan lezake emazteak oro puta direla uste due-  
nik? Arrebarenean bizi da eta ez du beste erre-  
tretatuek baino haboro edaten, maite ditu ilo-  
bak, lagunak hiletetara joaten da. Nork esan le-  
zake nola erreakzionatuko duen batek, emanda-  
ko zin intimoa profanatzearen ikusle gertatuta?  
Ez ote da ohiko samarra tribunalek errugabe la-  
gatzea emazte desleiala akabatu duen gizona?  
Ez, inork ezin lezake, baina nik epelkeria horren

guztiaren kontra neukan arrazoi Manoel Arauxo-  
ganako mespretxuan, eta esaten dudana frogat-  
zeko noa orain, urteetan umotu behar izan duen  
urrats, marinela emaztea herrestan eraman  
zuen karrika beretik barrena gordin. Lady Godi-  
va naiz, zaldiz ez joatea eta ezein zergaren aur-  
kako protesta ez izatea, nire hau. Erregina bat  
ageri da zuen karrika nagusian, herriko armarri-  
tik jaitsitako sirena zangoduna. Biltegi nautikotik  
biodendetarik garajeetarik atezain automatiko-  
dun ezkaratzetarik jalgi zarete denak ateetara  
leihoetara espaloira, eta honantzako norabidean  
zatoztenak baztertzen baldin bazarete ez da  
bide egiteagatik, ikuspuntua hartzeagatik egiten  
duzue albora. Ikusgarria naiz, ez duzue uste? Irri-  
ño bana, mesedez, harrika hasi baino lehen.  
Eguraldi ona dugu, jendez irakiten dago egutera-  
ko alde hau, hemen jesarrita hartzen dute ribei-  
roa nire herritarrek, egun pekinesen eta huskyen  
kakarik edukiko ez balu bezala noan espaloian.  
Aitor ezazue, denok egin ohi dugu amets karrika  
nagusian biluzik goazela, ni ikara hori sentitzen  
ari naiz zeuen guztien gozamenerako, lotsaria-  
ren ordezkaria naiz, biluzik noa gogoak eman di-

dalako, besterik gabe, ahalkearen eta fiertasunaren nahaste hordigarri batean bizi naiz, egidazue tu, otoi, edo emadazue harrika. Baina karitaterik ez, eskerrik asko, gorde ezazu hotz egiten duenerako, nola irten zaitezke beroki batekin eguzki galdatan? Ez zaude batere oker nire gordintasunak gordetzeko ekarri baldin baduzu, ez duzu ikusten ez dudala gorputza eskuekin lotsatu nahi? Ez duzu ikusten ez nauela inork heltzen adatsetik? Zergatik noan biluzik jakitearren obratu dut ametsa, burua gorarik, bularrak harro, eta ez dut komentariarik entzuten ondotik. Alta, badakit gaurgero ez dudala etxetik irteerik edukiko, nik ere alde egin beharko dudala herri zoragarri honetarik. Inork ez dit ileetarik tirako, baina nire herritar guztiek eramaneen naute arrastaka biluzik eguzki beteko espaloi madarikatu honetan aurrera beren marmar merkeek adatsetik helduta, «Beha ezazue, hori da, hori da denok probokatu nahi gaituen martiri ustekoa!». Zatarkeria handiena naizelako naiz ikusgarri. Biluzik noa eta zergatik noan biluzik jakin nahi zenukete. Esadazue, ergel ez besteok, zergatik noa biluzik? Emadazue apurren bat zeuen zuhurtasu-



netik! Beha ezazue hona, doan eskaintzen dizki-  
zuet hazta ditzazuen, ez al da hori etorri zitzai-  
zuen Manóel Arauxoren emaztea ikusi zenute-  
nean, nork ez zuen komentatu gero ederra zela  
puska haien dardara? Ez naiz uzkuertzen, lotsaga-  
be eskaintzen dizkizuet nireak. Modelo ibiltari  
bat naiz, ez tratamenduak burutik eragindako  
ahul mentala. Ez duzue ikusten ez dudala beha-  
koa apaltzen? Nire haragia eskaintzen diet zuen  
begiei, nireak zuenetan ditudala ematen. Formo-  
so, atera ezak hire kamera, egiok erreportaia  
emaztegai dotore honi, salduko duk kopiarik. Ez  
tapa zuen haurren begiak, utz itzazue mamiotan  
zorutzen! Ez al dizue lotsarik ematen jantzita ibil-  
tzeak? Zuri esaten dizut, bai, hipokrita horri,  
zatoz zakur ene hankartearen usnatzera. Orain itzu-  
liko banintz, nire ipur-masailen kulunkari beha  
harrapatuko zintuzket. Frontetik natorren mili-  
ziana naiz, ahortzi egin zaizue dagoeneko?  
Zeuon guztion amorantea naiz, trintxeretaryk  
nator zuen ama zintzoek kondenatu zuten hura  
bera nator, ahortzi egin zaizue?, horizontalean  
egiten omen nuelako gerra. Mesedez ama, utz  
iezaiozu noizbait dietetika jakia erosteari, irten

zaitez herritar guztien artera, ikus ezazu zeure alaba zeinen eder Euskadi Etorbidean aitzina biluzik. Aldera ezazu zure gorputza nirearekin, zure alaba naiz? Nebatxo maitea, oparitzen dizkizut nire arropa guztiak, zora zaitez haien lurrian. Baita nire Braun depilagailu berria ere, dena zuretako, harribitxiz jantzi nahi nauten zu baino nerabe olinpikoagoz betea dago herria. Udaltzainak ezkutatu egin dira, ez dute emazte biluzi bat atxilotu nahi, halakorik, kuku egingen lieke oihu ikusleriak. Arraunlari izandakook, ez al da egia outrigger bat bezain liraina naizela? Ezkerreko zinegotziok, ez duzue uste mozio bat naizela? Emazte bananduok, zeren zain zaudete neure protestan bat egiteko? Aita, oraindik ez dizute gaztigatu? Soziedadera eraman ote zaituzte lagunek inozomentean, jakin ez dezazun zure alaba biluzik doala eguerdi zuritan herriko karrika nagusian barrena? Damu dira gutuna postan utzi dutenak, kontu bitxi bat lukete orain Galizia-ko ahaideei kontatzeko. Eta ez dirudi edana dagoenik. Baina ez al da halakoren alaba? Ez, orain farmakoekin zabartzen dira. Bera da, bai, ni naiz, ez nauzue ezagutzen ala? Atelier guztietako ta-

killia guztietako egutegi guztietako titiduna naiz, itsaso guztietako bafore guztietako kamarote guztietako amabirjina linburra naiz, beldurra ematen dizue larrutan nirekin? A, nola maite dudan herri hau! Nola maite zaituztedan! Lasai, lasai, jar zaitezte ilaran, nekagaitza naiz, denendako egonen da, bete itzazue zuen godaletak nire elderraz. Bekoz beko gelditu zait. Begietara behatzen dit nire gorputza onartzeko gai ez baltz bezala. Kokotsa dardara batean dauka, hizketan hasi behar duela dirudienean zintzur sagarra baino ez zaio mugitu. Gibeleratu da, behaztopa egin du, ihesari eman dio. Emazte biluzia naiz, tu egin behar diot biluzik herritar guztien agerian, Euskadi Etorbidean, berak adatsetik helduta ibili ninduen karrika berean, lekuko berdinen aitzinean, horregatik doa ihesi, emazte biluziaren ihesi, irten ahal izanen ez den eldarnio honetan sartzen dela. Ihesian bizi beharko du nik biluzik bezala. Orain badakit zergatik jalgiko naizen egun kalera.

# Francisco Franco gure herrian

Egon zara inoiz urte zaharrez gure herrian? Herri guztietan bezala zure herrian ere, esanen didazu, abenduko azken egunak gauerdia eta bere hamabi ezkilak ekartzen dituelarik: bolanderak, suzko erroberak, Japoniako bonbak, hiru buruko txapliguak, umeak elkarri petardoak jaurtita, ehiztariak leihoetarik zerurantz kanoi bikoa-rekin... Bai, hala da hemen ere, bozkario programatuaren herdoila, baina inoiz egona ez bazara gure herrian urte zaharrez, zatoz hurrengoan, aurten bertan, har ezazu oinez kai zaharretik aitzina, jesar zaitez putzuari buruz arrainaren deskargan erabiltzen diren zurezko eskorga zahar horietarik batean, edo, marinelago nahi baldin baduzu, guk bita esaten diogun behialako Bilbo-ko Euskalduna ontziolan fundituriko burdina puska gotorrean, mutiloian, eta beha, eta entzun. Ez duzu halakorik beste inon ezagutuko. Gauerdia jotzen hasirik elizako ezkilan, eta lehe-

nagoztik ere, etxeko artilleriaren azantza nagusi-tuko da, baina minutu eskas baten buruan gero eta bakanagoak egingen dira leherketak, xahartu-ko dira, nolabait esatearren, pindarrak eta txin-partak, eta orduan ikusi ahal izanen duzu odol tanta bat, menturaz bi, goiko ilunpetik zuregana izarniatzen, baratxe amiltzen, hondora doan urte zaharraren SOS deia, eta beharbada pentsatuko duzu, halako maleruskerietara emana bazara bederen, zeure garrasiaren irudia dela hura, ba-kardadea urratu nahi duen zeure malko gorria, zu, izan ere, naufrago bat zarelako. Zauri ez baina urradura hari beha, artean nabaritua ez zinen marruma gozo eta hunkigarriak bilduko zaitu, bitetan estatxa emanda dauden arrantza-ko kabotajeko zamako trasatlantiko guztien ulu anitz eta bateratuak, samin, zulakor, gure portua inguratzen duten mendietan durundiozko oihar-tzun durduzagarri eginik. Sokorriko bengalak amatatu egingen dira uretara baino lehen, eta edertasun mingots horretaz hobeki goatzeko begiak bildu ez izanagatik iluntasunik trinkoe-nean geldituko zara, liluramenduzko hutsean. Portuko ontzi guztien tutuak tantra askatzailean

ozenduko dira orduan zure barnean, eta apika oldar poetikoetan lerratze zalea ez zaren arren, munduko ontzi guztiek adio ankerra egiten dioten uhartetar bakartia iduriko zenuke. Zu, izan ere, arrotz bat bizi den uhartearen zarelako. Orduan konprenituko duzu gau horretan baforeen tutuen marrua ez dela datorrenari eginiko diosala, galdu denari zor zaion dolua baizik. Edo ez duzu deus konprenituko deus pentsatuko, gogoan hutsik geldituko zara, tutuen hots tristeak lehenik eta tutuen isiltasun tristeagoak ondotik murgilduko zaituzten fuel, minio, ustel edo kresaltasun sakonean zorabiatua, inor bizi ez den uharte bilakaturik. Maximamendu gaitza duzu itsasontzien lantua gauaren erdian.

Halako hotzikara eztiak ezagutuko dituzu gure herrian, urte zaharrez.

Uda minean eta eguerdiz egin nahi izan zuten behin urte zaharrekoa gure herrian. Antzinako bertsolariek kantatzen zuten moduan hogeigarren sigluak berrogei zituela, gaineratuaz dozena, Francisco Franco ailegatu zen gure portura. Entzuna edukiko duzu noski izen hori, Francisco Franco, komunismoaren lehen mendera-

tzailea, Espainia handiaren sortzailea, euskaldunen amets zoroak betirako zapuztu nahi izan zituen Kaudilloa, Generalisimoa. Bada hura eta bera heldu zen abuztuak hamabi zituela, prezisamentean, urte zaharrearantz ez beste noiznahi ere beti ikusgarri usnagarri entzungarri duzun gure herrira. Abuztu oro bezala, Donostiara etorria zen udako egonalditxo egitera, eta Kantauria bare zegoen guztietan egin ohi zuenez, Orioko marinelek pilotatzen zuten *Azor* izeneko yate ospetsuan egin zuen sarrera. Lehorreratu zelaririk, abuztu oro bezala, harrera ezin beroagoa egin zioten donostiarrek, Askatzaileak iragan behar zuen karriketako espaloiak ikuslezt beteak zeuden eta bezperan ezarri megafoniatik «Franco! Franco! Franco!» errepikatzen zen arren, donostiarrek Francori eta Espainiari eginiko bibak eta emandako txaloak gortzekoak izan ziren, zorramena. Bai, igarri diozu ironiaz ari naizela, garaiko prentsaren titularrak erakusten ariko baintz bezala. Baina ikusiko duzu baduela bestelako zeregin bat titularren kontu honek, eta funtsezkoa esanen nuke, kontatu nahi dizudan honetan. Hori hilaren zortzian izan zen. Bedera-

tzian, Eva Duarteren aldeko elizkizunak egin ziren katedralean, baina atzerri ministroa besterik ez zen azaldu autoritateen lerroetan. Hala zen, bai, Eva Duarte hori, Argentinako lehendakari Juan Domingo Peronen emaztea, Evita ospe handikoa. Peron ere Donostian egurastuko zen udan, gero, derrokatuta erbestera jo zuenean, Maria Cristina hotelean egoten zen ostatuz, eta bertan botoitxu ibili zen Txuma nire lagunari milako bat eman zion behin, gelara whisky botila eramane behar izan zion batean euskaraz zekienetz galdeturik baietz, «Gora Euskadi askatuta!» esan ziolako. Eta Txumak gogait eragiteraino errepikatzen zigun «Bravo por el vasquito!» egin zuela algara Peronek, eta bere morroiei agindu ziela emateko mutikoari eskupeko gizen bat, hala esan omen zuen, «gordo». Jakin ezazu nik sinetsi egiten diodala, batetik Txuma ongi eza gutzen dudalako, eta bestetik Eva Duarte euskal jatorrikoa zelako, Pinochet bezala, Ugarte bigarrenenez berau, eta euskaldunon harrokeria belau-naldiz belaualdi eteten ez den kaltea delako, ingurukoak ere kutsatzen dituen, endemas Eva moduko emazteki batengandik hartzen denean.



Idatzi behar dut halako batean Txumaren ipuin hori, ez sinestekoak gertatu zitzaizkion uda hartan hiriburuko hotel nagusian.

Orain kontatzen ari naizenera itzuliz, nik esan nuke Eva Duarteren elizkizunetan Franco azaldu ez baldin bazen diplomaziaren arauak hartara behartzen zutelako izanen zela kausa, badakizu Franco ez zela meza nagusiak erraz huts egiten zituen epela, ospetsuak ziren haren paliopeko sartzeak Salve izeneko elizkizunera, apez eta kristau ez-frankisten eskandalagarri. Gero, hilaren hamabian, gure herrira heldu zenean, banderaz eskuadraz musikaz errezibitu zuen batailoia aldamenean zeukan aiduru Font i Andreu probintziako apezpikua kapaz kapeluz makuluz.

Huskeria dela Francisco Franco gure herrian egona? Ez pentsa, ez dute beste hainbeste esaten ahal Euskal Herriko bazter anitzek. Gure herrian egon zen biharamunean Hernaniko Orbegozo lantegiko metalginek hirurogei metro luze zen tximinia jasotzen amaitu zuten, laurogeita hamar egunetan izerditu ondoren eta milioi erdi adreilu erabilita. Uste zuten record hura Franco-

ren begikoa izanen zela, eta hantxe azalduko zitzaiela pipari bezala tximiniari lehen kea eragiteko. Baina Generalisimoa ez zen Hernanira inoiz ailegatu, hernaniarrak ez ziren gurekin joan hurrengo asteburuan hiriburuko zinema aretoetara trumilka, denok gure auzune berria eta batzuk bere burua ikusteko Nodo albistegian. Han ageritzen zen Francisco Franco almirantzez, mikro baten aitzinean mintzo, paperik gabe, esatariak esaten zizkigunak esaten:

«Hitzek adieraz dezaketena baino gorakiago mintzo dira etxeok, gure erregimenak arrantzaleenganako duen maitasunaz».

Espainian Erregimen Nazionala ezarri zen arte, nazioko zokorik txiroenak arrantzaleen bizilekuak omen ziren. Itsasoko arriskueta bizi ziren milioi bat lagun horiek ez zeukaten, lehorreratutakoan, aterpetuko zituen su-bazter gozorik inon. Hori Francok esan zuen, eta bazegoen egia-rik gezur hartan, gure herrikoak behintzat beste diktaduran, Primo de Riverarenean armadoreek berek merke jaso eta garesti saldutako etxe estu, zikin eta umeletan bizi ziren, honek argituko dizu zergatik ezin giro patriotikoagoa

egon zen egun hartan gure herrian: errenta merkeko pare bat ziento etxe, gaineratuaz dozena, etorria zen mustera Generalisimoa. Langileen aldeko diskurtsoa amaitu zuelarik, eta ondoko esku zarta luzearen ostean, Estrada almiranteak, Itsas Institutu Sozialeko lehendakari-delegatu gisa, Askatzailearen arrantzarako zaletasunaz jardun zuen, eta etxadiaren eraikuntzaz.

Ageitos, Barral, Castro, Docampo, Errondosoro, Freire, Gabino, Maneiro, Narbarte, Olabeaga, Pousada, Prego, Rua, Taboada, Tolosa, Vazquez, Zabala... herriko alkateak familia izendatu ahala, emakumeak mahaira hurbiltzen dira Francisco Francoren beraren eskutik etxearen errenta-kontratua eta giltza hartzeko, haurra besoetan dutela batzuk. Gizonezkorik ez, han ez zen uniforme gabeko galtzadunik ageri. Eta Francisco Francok burua laztantzen die umetxoei, nola duten izena galdetuz. Aitona izan berria da, asko maite ditu haurrak, zinemara joaten zirenek ikusi ahal izan zuten haren poza, emazteak, doña Carmen Polok, biloba jaio berria besoetan hartuta erakusten zion hartan.

«Viva Franco!».

Orduan, abuztuko eguzkiak sapa kiskalgarrian jotzen zuela, soldaduek ekin zioten himno nazionalaren metalei gain hartzen ziela, halako hots lazgarri bat heldu zen beheko kaitik, luze, atunketari eta lebatzero guztiak tutu joka hasi baitziren, orain ere adio egiten, urte zaharra eta gauerdi balitz bezala, Francisco Franco bazihoalako, bai baitzituen beste zeregin batzuk, portuko jangela handian langileen artean gordea zioten lekuan lan publikoetako ministroak, Vallellanoko kondeak, bazkaldu zuen haren ordeztan, Espainiaren mailako nazio handi baten gobernatzea ez duzu jostaketa. Beste eginkizun batzuetara alde egin zigun diktadoreak, eta Francok bazkari hura huts egin izanak arazo teologiko larria ekarri zion don Serapiori. Baina hori aurrerago argituko dizu apezak berak.

Horrelakoak ikusi eta entzuten dituzu, beraz, espantu eta laudorio gehiagorekin, Francisco Franco gure herrian ageri den albiste dokumentala ikusteko parada baldin badaukazu. Ikusiko duzu arrantzaleen emazteen poza, ikusiko duzu ume bat Espainiako bandera inarrostean, ikusiko duzu apezpikua etxeak bedeinkatzen don Sera-

pio ez den apez batek lagunduta, ikusiko duzu bajurako flota osoa nasan lotua gallardetez eta festako banderez apainduta, ikusiko dituzu bafo-reen tximinia ondoko tutuak lurrin jaulkika, ikusiko duzu Franco badoala bere auto beltzean... Baina ikusiko ez duzuna da Franco nola iritsi zen gurera.

- Autoz heldu zen, eta ez al zaizu bitxia egiten Franco, udan beti almirante jantzian ibiltzen zen hura, lehorrez etortzea portu batera?

Don Serapio oso apez berezia izan zen, sermoi sutsuak egiten zituen aldian behin arrantza-leei soldata duina eman nahi ez zieten armadoreen aurka, gero, lapur haiek bazkaritara gomitatzen zutenean, eta zalea zen, bekatu larri hura laguntza ekonomiko politen truke barkatu ahal izateko. Zerga haiei esker dantza musika euskarra ikastaroak antolatu zituen, gazte langile katolikoek batzordea sortu zuen, mendizale taldea bildu zuen, gobernadoreak debekatu zion aldizkari bat abiatu zuen, abesbatza zuzendu zuen, zinema aretoa zabaltu zuen, eta festa estropada mendiko irteera karroza erakuste ontzi berrien itsasoratze, herriko gertatu nagusi guztiak filma-

tu zituen kordea emanda zebilen 16 mm-ko Boillieu kamerarekin, ni ere filmatu ninduen 1960ko haurren danborradan, hantxe ageri naiz, auskalo zergatik, kopetilun. Ez da harritzekoa, beraz, handik hamar urtera arrantzale auzoko eliza xume hura parrokia izendatu zutenean katoliko zintzoenek ere hartu zuten laidoaren handia don Serapio erretore jarri ez zutelako. Asaldatu egin ziren, boikota egin zieten elizkizunei, mehatxatu egin zuten apezpikuak izendatu erretore berria, gutik egin zuen irauli ez bazuten apezpikuaren beraren autoa bisita pastoraletan azaldu zelarik. Apezpikuak *Entredicho* izeneko zigorra ezarri zion auzoari, eliza prezintatuz, apezari ez auzoan ez beste inon meza eta elizakoak ematea debekatuz, salbu eta hiltzeko zorian zeudenei, eta parrokiari lotuak zeuden jarduera guztiak bertan behera utzaraziz. Ez duzu jakinen noski *Entredicho* hori XVI. mendiaz geroztik probintzian indarrean jartzen zen lehen aldia genuela, don Serapiok esanda dakit nik, erdi aroko zigor eklesiastiko berezia zen, eta hartaz gure herria «degradatua, bortitza, zabarra, moldakaitza, kristau izenaren gauza-eza» deklaratu zuten, kontatu

behar ditut noizbait don Serapioren balentriak, badago hor ipuin eder baterako gaia. Anartean jakin ezazu gure herriko apezka izan zena, egun arreba gazteagana Arrasaten erretiratuta bere memoriak azken modeloko Macintosh batean orrazten eta QuarkXPress programan editatzen ari dena, ez zela egon Francoren ongi-etorrian, adierazia dizut arestian, Apezpikuaren ondoan egon behar zukeen arren, eta berak ere ez da-kiela zergatik etorri zen Francisco Franco autoz, hainbat izurde harrapatua zen *Azor* yatean edo hari eskolta ematen zion *Hernán Cortés* destroie-rréan etorri ordez.

- Franco heldu baino ordu erdi lehenago zeu-den gure herriko karrika nagusiko espalo biak jendez gainezka.

Horregatik heldu zen Francisco Franco bidez gurera, iragaten zen bazterretan «Hara, hor doa gure Kaudilloa!» esan zezaten, bere presentzia-ren ohorea eman nahi zion errebal xume osoari, edo beharbada, zu ere irakurria egonen zara hor-relakorik, diktadore guztiek «oldean murgildu» behar omen dutelako noizetik noizerat. Idurika ezazu Francisco Franco egun Euskadi Etorbidea

baina orduan Avenida del Generalísimo zen horretan barrena bere auto agerikoan zutik eskuaz agur egiten duela batera eta bestera, herritarren oihuek, megafoniaren ozenari gain harturik hemen ere, sukar patriotiko betean biltzen dutela. Maximamendu gaitza izan behar du.

- Ba Francoren autoa heldu zelarik motoristen artean, espaloietan zegoen jende guztiak, herriko gizonezko guztiek, buelta erdia eman zuten. Halaxe sartu zen han Francisco Franco, herriak bizkarra ematen ziola.

Ez dut frogatu ahal izan, mende erdi geroago jendea ez da oroitzen, edo hala esaten didate galdetzen diedan guztiek. «Ni ez nengoen hemen, atunetan genbiltzan!» esaten didate, eta flota etorerrarazi zutela entzuna daukadala komentatzen dudanean «A, bai, egia da...! Baina egun hartan familia hartuta Igeldora joan ginen, umeek funikularrean ibili nahi zuten eta aprobe txatu egin genuen, ze nik Franco, badakizu...» asmatzen dizute bere ministroak ez baina Franco bera gizon ona zela defendatzen zutenek. Franco zetorrelako desertatu omen zuten herri honetan espaloiak mukuru ageri ziren, beraz,



Franco begi puntan ikusi nahi ez zuen apezaren hitzetan... Zinemazale baten deskripzioa egiten zait, eta hau don Serapioren alde, ez dut uste ezein filmetan ikusia dudarik, bere talentu plastikoari ematen diot, berak filmatu nahi izanen zukeen planoa dela hartzen diot tankera.

«Badatorrela, badatorrela!».

Egizu kontu, Franco murgiltze populistaren erdian, eta autoak aitzina egin ahala populuak, Hollywoodeko estrak balira bezain itzulerdi sinkronizatuan, «Orain!», bizkarra erakusten diotela ongi-etorri moduan...! Eta ondotik non ikusten dugun, goranzko panoramika batez, etxeetako leiho guztiak itxi egiten direla hurrenez hurren, harik eta kamera filmatzen ari den leihoko pertsiak ere, ukoz, tanpez, amorruez, bizkarra ematen dion arte, irudia bera beltzean urtze-ko...! Halakoak amesten ditu oraindik ere don Serapiok gure herri xehearendako. Euskadiko Filategiari eman zion aspaldi bere artxibo osoa, baina han ez da halakorik ageri, ez da Francisco Franco gure herrian egon zeneko plano bakarra ere ikusten, eta apez zahar honen makurtasun antifrankista ezagututa, oso logikoa da bere ka-

meraren duin ez hartzea, zeluloide metro erdia gastatu nahi ez izatea haren filmatzen. Eta frogarik ezaz, ez diot sinesten, Nodo albistegi ofizialean ere Francoren sarrera filmatu gabe gelditu izana nahikoa froga izan litekeen arren. Orain udalak oroigarri gisa herritarrei oparitu dien bideoan, eskuratuko dizut, ikusten ahal da Franco gurera heldu zeneko bibak txaloak musikak offean daudela ezarriak, eta dena plano hurbiletan hartua, zinez karriketan inor egon ez balitz bezala edo, zuzenxeago esateko, espaloietan ikusi zena ikustea komeniko ez balitz bezala... Ez, garaiko prentsan ere ez da sarrerako argazkirik ageri. Horren guztiaren jakinaren gainean osatu duela bere fikzioa gure erretore frustratuak, esan nizuke nik.

Francisco Franco etxadia Francisco Francok mustu zuela zioen plakaren ordeztu, geroztikako zabarkeria urbanistikoek bizitegi jatorraren eredu bihurtu duten arrantzale txiroen auzune hartan bertan, arrantza-eskola politeknikoaren gibelean dagoen txoko polit batean, Castelao idazle galegoaren oroitarria dago orain, euskarazko eta galegozko hitzekin, «Abertzale gailegu

ta Euskadiko aldeztaille handiari», eta erdian, «Alfonso R. Castelao» Castelaok berak molde gaelikoz asmatutako karaktere galegoetan, «Bere jaiotzeko mendemugan 1886-1986». Esana dizut, urte zaharrearantz ez ezik edonon dela bisitagarria gure herria: urtero, letra galegoen kariatidat, lore eskaintza egiten zaio Castelaori txoko honetan maiatzeko azken igandean. Eta gero ribeiroa banatzen dugu, eta olagarroa eskaintzen dugu, galegoek bakarrik prestatzen daiten dastamenari gozo-mina eta hortzari sendobera zaion olagarro bikain hori, Breoganen aberria kantatzen ez dutenendako ere urririk eta ausarki. Soldadu konpainia batek ez baina *Trisque-le* dantza taldeko gaiteroek Galiziako himnoa jotzen dutelarik, nazio hartako banderaren xingola urdinaren erdian izar gorria daukan platertxo estanpatua ateratzen du Luziana Rourak beti leihora, Mateo Taboada senarra zuenaren argazkiarekin batera. Himno guztiek, baita metalik gabe gaitaz jotakoek ere, higuina eman diezazuketen arren, segur naiz hunkitu egingen zaituela alargun horren fiertasun xaloak.

Bere senarrak hemen ibili behar zukeen orain, tabernaz taberna arno eta etzaleku bila, holandar alderraiaren antzera. Horrelaxe, bai, ibili behar zukeen gurean Mateo Taboadak, alegia, bere espektroak, baldin eta Nemesis Arozena, arrain-kaxak egiten zituen zurgina enrolatu izan ez balitz mareaje hartarako, lanean aritzen zen sotoa erosi egin nahi zuela-eta dirutxo baten afanean. Berrogei urtetik goitiko bakarra zen eskifaian, baina ongi moldatu zen bakailaoari burua tripak hezurra kentzen ontziko faktorian. Mareaje ona gertatu zen, sarda baten erdian gelditu ziren Ternuako uretara iritsi orduko, gogor jardun zuten denek gau eta egun, halako batean Mateoren eskasa sumatu zuten arte. Kamainan aurkitu zuten, lasai zerrian zerraldo.

«Gizon honi lurra ematen ez bazaio, zuek denok akabatuko zaituztet banan-banan!».

Zurginak ez zuen bulartasun handiagoa aterako lagunak motinatu nahi izan balitu, deskabezatzeko matxetearen ahoa erakusten zien. Barragarria ere bazen sukar hura, barre egin zuen kapitainak pentsatuz Nemesis Arozenak usteko

zuela lona batean bilduta hondora jaurtiko zutela gorpua.

«Lasai, Nemesio. Deituko dut irratiz inor ote doan Halifax-era, hark eramanen du lehorrera. Edo bestela geu joanen gara, nahiz eta hiru egun galdu».

Lehen baino fermukiago estutu zuen matxetea eskuak kresalak zartatuta eta limoia ahotik ezin kendurik zebilen koitadu hark. Aurpegian zeuzkan odol zipriztinak etsaiarenak balitu moduan.

«Mateo Taboada ez da barku honetarik aterako ez bada gure herriko hilerrira joateko!».

Eta Yate Galduaren Itsasorainoko hamar eguneko itsasketa hartan irakurtzen irakasten aritu zitzaien Moañaako gaztetxo bik baietz egin zuten, beharbada beldur zioten hilondoko bakardadeari eta haiek ere ez zuten nahi izanen itsasoaren hondoan edo Ternuako hotzean.

«Egia da, bestela gero Taboadaren mamua azalduko zaigu herrian hilobi eske!».

Eskifaia hark lehen hildakoa zuen itsasoan, ez zeukaten gorpuen berri. Ez al daukazu horren aditzea? Kostaldeko guztiek hala uste dute,

abandonatzen den hildako marinelaren espektroa azalduko dela goiz edo berant hilobi eske.

«Baina hasi besterik ez gara egin, beste bi hilabeterako daukagu hemen...!».

Orduan Nemesio Arozenak matxetea bakaila-oen gainean jaurti eta buru egin zien espektroetan sinesten zutenei, tonako 50 pezeta gehiago zeukatela besterik pentsatzen ez zutenei, itsas handian hildakoekin zer egin behar zen inork baino hobeki zekien kapitainari.

«Gizon honek gure herriko hilerrian egon behar du, Mateo Taboada letra handiz dioen marmolezko lauza baten azpian... eta gurutzerik gabe!».

Inork ez zion esan dozenaka zirela herriko hilerrian izena eta heriotza-data ere aski handian ageri zuten hilobi hutsak. Beharbada ez zuten horren akordurik eduki nahi itsas zabalean, konprenitzekoa da. Zurginaren haserreak liluraturik zeuzkan nolabait, eta haren esanak, galegozko eta euskarazko enpatxuan jaurtiriko madarikazio andana, zubira behartu zuen kapitaina. Atzetik joan zitzaion eskalan trakets, bultzada batean zabaldu zuen zubiko atea. *Beti Santa Rita* bafo-

rearen kubertan zeudenek Nemesioren eskua ikusi zuten sirenaren giltzari eragiten, eta berehala, lurrunarekin batera, tutu triste luzea, luzea ordea, pareja irratiz deika hasterainokoa. Maximamendu gaitza izan behar duela halako tutuak Ternuako uretan. Noizbait, kostako patroia igo zen zubira eta jaitsarazi egin zuen zurgin zala-partaria.

«Jarrai ezazue, jarrai ezazue Francori tutua jotzen!».

Eta geroztik ez zion inori hitzik egin, ilea eta bizarra moztu gabe eman zuen marea osoa, halako esku ona zeukan Patxo Laskibarren doako zerbitzuei muker eginda. Bakean utzi zuten, bazuen arrazoirik, letra handiz egon behar zuen Mateo Taboadaren izenak herriko hilerrian, eta harriaren azpian Mateo Taboadaren gorputza, orain dagoen bezala, letrak kolokan dauden arren eta gainekeo triskelea higatu samarra. Kubertan, kamainan, jantokian, faktorian, zerbait zekienak deus ez zekienari eman zion orduan, ahapetik, Nemasio Arozenaren haserrea pizteko beldur, hildakoaren berri. Eta pentsatzen ahal duzu kontatutako denak ez zirela zuzenak iza-

nen, badakizu nolakoak garen solasean hasten garenean, ipuinetan aritzen gara ez bada filme-tan. Baina egia da Francisco Franco gure herrian egon zen egunean Mateo blai eginda etxeratu zela eguerdian, eta Luziana Rourak berak aitor-tuta dakit zein izan ziren teilatupe hartan bere senarrak esan zituen hitz bakarrak:

«Apezpiku batek bedeinkatu eta kriminal batek giltza emandako etxea...!».

Eta arropa lehorrak jantzita alde egin omen zuen su gainekoari sudurra hurreratzeke. Horre-gatik hil zen Ternuako uretan, laidozko etxe har-tara itzuli behar ez izateko. Itsaso hari, inoiz jito-an azaldu zitzairen yate kanadar batek izena emana zion hari, Mateo Taboadaren Itsasoa esan zioten geroztik gure herriko marinelek, bakailao-tan ibilitakoek behintzat. Hura da haren itsasoa, eta hau da haren herria, Nemesioren matxeteak egin zuen lanik: katekesiko arduraduna etorri zi-tzaion ate joka don Serapiori, zainak ikaran, ka-rabineroek eskatu ziotela apeza bilatzeko, bafo-re bat omen zetorren arribadan hildako batekin, komandantziakoei irratiz jakinarazi zietenaz.



- Estola hartu eta han abiatu nintzen emakume prestu harekin, Tere Etxenikerekin. Moilara iritsi nintzenean estatxa trinkatzen ari zen *Beti Santa Rita*, bertakoa zen, Fontela anaiena, baina ez zetorren arribadan, kanpaina osoa eginda zetorren, hiru hilabete zituen itsasoraturik. Bazen jenderik zain, eta Luziana Roura zen negar egiten ez zuen bakarra, haren senarra izan behar zuen hildakoak, Mateo, «Emea sobran zeukan gizona», berak askotan esaten zuen moduan, ja, ja.

Itsasbehera zen eta makinilarekin lehorreratu-tuko zutela gorpua arrain-kaxen oholez eginiko etzangiren batean pentsatu zuten hara bilduak ziren guztiek, baina kapitainak, Romualdo Barrosok, apeza ikusi zueneko, lanean hasteko agindu zien kubertakoei. Bodega gaineke gatzak kentzen hasi ziren bi marinel pala banarekin, tentuz, erratza pasatuko balute bezala. Gomazko bota berdeak azaldu ziren lehenik, gero ezkerreko eskua.

- Zorabioa egin zitzaion karabinero bati, emakumeen besoetan gelditu zen gurutzetik jaitsitako Kristo bezala!

Garrasi egin zuen emakumeren batek, emakumezko guztiek egin zuten garrasi Nemesio Arozenaren esku amultsuek Mateo Taboadaren aurpegia azaldu zutenean gatzaren erdian, laurohun tona bakailaoren gainean, bakailaoa eginik bera ere, bere buruaren jabe zen arrain bakarra: Mateo Taboada, faenako hirurogeita zazpi egunetan eta George's Bank-etik honako beste hamarreko itsasketan gatzatua. Don Serapiok eskua jaso zuen bedeinkatzeko atzamarrak luzatuta, baina halaxe gelditu zen, besoa herdoildu edo izoztu izan balitzaio moduan.

- Ez nuen erresponsturik egin, ez nuen bedeinkatu... Nik begiramen handia nion gizon hari.

Luziana Roura hurbildu zitzaion eta, apezaren kandura profitatuz, eskumuturretik heldu zion.

«Milesker, don Serapio, nire gizona zerura ez behartzeagatik».

Abiaduren palanka stopera jaitsi balu bezala utzi zuen behera don Serapiok eskua orduan, eta menturaz esanen didazu apez batendako ez dagoela kitzikagarriagorik atea bedeinkatzea

baino, eta arrazoi dukezu. Baina une hartan, Taboada gatzaren erdian azaldu zelarik, gure herriko apezak damu handia zeukan gogoan, ikusten ari zenaren ezin ederragoa izan zen aurrena etorri zitzaiona, ez Jainkoari erregu egitea arima galduaren alde. Ikusten ari zenaren zoragarriak kamera etxean utzia oroitarazi zion, eta damutu. Egizu kontu, gorpu bat ahoz gora gatz kaparen erdian azaltzen ari ontziaren bodegan, urtuz doan elurak agerian utziko lukeen neguko mozkorra bezala karrika nagusian... Plano bikaina zen, Francoren etorrerari bizkar ematearena bezain ona. Filmatzen ahal zituzkeen planoekin egiten du amets amateurak. Benetako zinemagile batek, apeza izanagatik, gorpua berriro estalaziti eta deus ez ukitzeko aginduko zukeen, kameraren bila alde eginda. Zalantza horixe zerabilen gogoan don Serapiok, horrek eragotzi zion mari-nel gatzatua bedeinkatzea, eta ez harekiko begiramenak. Baina ez zuen kemenik ukan aktoreei errepikarazteko, gain hartu zion ikusiak.

Mateo Taboada zeukaten aurrez aurre zutik, tente, Moañoako gazteek galtzarbetik heltzen ziotela, bere buruaren kartoizko kopia, jana, zimel-

dua, momia hutsa piramide bila. Are karminago egin zuten negar Luziana Rouraren adiskideek. Nemesio Arozena lehorreratu zen Taboadaren atzetik, eta ehorzketa-etxekoei egin zien aurre matxetea ez baina mailu-zintzelak eskuetan. Auto berriaren ondoan zeukaten katabutaren es-talkiaren gainean makurtu zen, lau kolpetan eten zuen gurutzea. Itsasora jaurtitzea pentsatu zuen, baina don Serapioren haserrea sumatu uste izan zuen. Hari eman zion latoi puska eta, gizon bien behakoak ikusi zituztenek komentatu izan didate iduri zuela gurutzeak eta mailuak de-safio egin behar ziotela elkarri orduantxe. Luzia-na Rourak zapi gorri bat lotu zion senarrari lepo-an, katabutean ezarri zutenean.

- Ez al duzue ezer egin behar? Horixe esan nion Mateo Taboada zenari, apezpikuak Franco in person gure herrira etortzekoa zela jakinarazi zigun bezain laster.

Esan dizut apez berezia izan dela, beste zer-bait ez esatearren, don Serapio hau. Suposatzen dut sotana kakoan utzita kaleratuko zela orduan ere, mahonezko jantzian eta zapeladun, uda eta negu erabiltzen zituen *Bamba* plaierak fuelean

zikintzeko beldurrik gabe, edo, menturaz, hartan zikintzearren. Gero tabernaren batean sartuko zen, eta barran zeuden hirurena ordainduko zuen Arozena zurgina ikusia ote zuten galdetu baino lehen, «gaur ez omen da lanean azaldu». Ez zituen guti harrituko parrokianoak galderaren inozoak. «Zain zeuzkan, etxetik irten orduko eramane dute». Ez dakit jakinen duzun, beharbada ez. Urte luzez, Francok bisitatu behar zituen bazterretan bizi zen fitxatu edo susmagarri oro presondegira eramaten zuten hura heldu baino as-tebete lehenago. Eta Nemessio Arozena, igarriko zenion honezkero, gorrietan egin zen gerra. Berezia izan behar, bai, eliza inoiz zapalduko ez zutenei laguntza eskatzen zien apezak. Orduan parrokiano haietarik bat hurbilduko zitzaion, eta ahapean:

«Eta zuk, zer egin behar duzu?».

Inpentsan harrapatu zuen galderak.

«Tiranoa bertara etorrita, sermoi batekin konformatu behar duzu?».

Ez zela etxadiaren bedekazioan egonen, esana ziola apezpikuari eta bost axola zigorrik ezartzen baldin bazioten ere. Badakizu, putzu

guztietan botzen ditu sareak Elizak, apezpikuak Franco hartuko zuen, apeza eliza inoiz zapalduko ez zutenekin boikota antolatzen zebilen bitartean. Orduan Mateo Taboadari eskatu zion laguntza, lagun ziezaiola tutuen boikota antolatzen.

- Batekin eta bestearekin egin zuen hitz, eta denek esan omen zioten baietz, ezer ez egitea ere, baina armadoreek mehatxu egin zietela tutua jotzen ez bazuten, beraiek etorriko zirela jotzera eta jendea sobran zeukatela Ternuarako. Egia da, bai, diosaleko tutua jo zitzaiola Francorigure herrian.

- Mesedez, don Serapio, izan zen bafore bat tutua jo ez zuena...

- Barka ezazu, Luziana, ahotik kendu didazu. Efektu berezia egiten zuen gainera zure senarra zebilen ontziak, gogoan daukat bai, masta biak eta sokaje guztia biluzik, Karmengo Amaren festetarako bezala apainduak zeuden baforeen artean.

- Mateok kendu zituen goiz hartan bertan, eta ontzia askatuta portuaren erdiraino ekarri zuen, umeak arraun bakarrean hasten direnean

bezala jarri zuen itzulika, lema total estibor emanda.

- Lanak eduki zituzten lema askatzeko, katekandatu batekin zegoen trabatua.

- Kostazainak abordatu zuen ordubete eta luze beranduago. Sartu zirenerako, baforea hutsa zegoen. Oso gauza bitxia eta polita izan zen, baforea portuaren erdian zirkuluak egiten, koilara bat saldari eragiten bezala, halako uhin apartsuak sortuz... Polita benetan.

- Eduki zuen ekintza xume horrek bere handitasuna, ahoz aho ibili zen, eta berehala jakin genuen presondegian. Protesta bezala konprenitu zuen mundu guztiak.

- Eskandalu bat izan zen, bai. Moilan zeuzkan zain karabineroak eta txapelokerrak, ni ere hantxe nengoen zer gerta ere, baina ontzia hutsik zekarten, igerian lehorreratua izan behar zuen Mateok beste nonbait.

- Gau hartan bertan etorri ziren brigada politiko-sozialekoak bere bila, baina ordurako joana zen. Etxea kenduko zigutela egin zidaten mehatxu.

- Mateo Taboada ez zen inoiz militantea egin, baina laguntza handia eman zigun ahal izan zuen guztietan. Lehorrean zenean, baforean gordetzen zigun propaganda guztia.

- Etxebizitzarako izena eman genuenean guk ez genekien Franco etortzekoa zenik giltzak ematera...

- Ikusi duzu udalak argitaratu duen bideoa? Han ageri zara, irri egiten ez duen bakarra zara.

- Mateok ez zuen asko hitz egiten... Franco ez zela galegoa esaten zuen maiz.

- Damu handia dugu denok Francisco Franco gure herritik bizirik irtena.

- Ez zegoen baldintzarik gehiago egiteko.

- Huts egin zuen portuko langileen otordua, eta horrek zer pentsatua eman zidan... Arazo haxe planteatu nion apeztegiko teologia irakasleari: Zer pentsatuko luke Jainkoak bere gorputza pozoituko bagenu tirano bat hiltzeko?

- Eta, zer esan zizun?

- Izututa gelditu zen... Epelenekoak izan dira beti apeztegian!

Altxatu naiz bitatik, hankamuka egin ditut urrats batzuk gatz ale zaharrak zanpatuz, ma-



reaje luze baten ondoren lehorreratu banintz bezala, itsasketa, egia esan, luze samarra izan baita. Ez da edaleen kanturik entzuten inon, ez da mozkorrik ageri bazterretan, kaian ez da suziri hilik, asko falta da oraindik urte zaharrerako, bihar laneguna da eta izotz fabrikaren motor marruma apala baino ez da entzuten. Asko falta da hurrengo urte zaharrerako eta aspaldi du despeditu gurela azkena, entzuten diren tiro hots horiek ez dituzu ziririkuak, Nemesis Arozenaren ilobaren atelierretik datoz, pistola pneumatikoz josten dituzte orain arrain kaxak, eskatu handiren bat edukiko dute biharko. Hala ere, sinetsiezadazu, arrantzako kabotajeko zamako trasatlantiko guztien tutuak ozentzen dira behin eta berriz neure gogoan, ortzimugaz haraindian gorde den baforearen uberak gure begietan irakiten jarraitzen duen bezain luzaz...

Zer besterik behar du batek uharte habitatua izateko?